

# III. BILTZARRA

1992.ko Martxoak 19.20.21 • Leioako Unibertsitatea

# ERABAKIAK

**ANTOLAKUNTZA**

**EKINTZA  
SINDIKALA**

**ABAGADUNE  
AZTERKETA**



**LAB**

langile abertzaleen batzordeak

Zbkia

**ZA  
BAL  
TZEN**

TXT 20092

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

# Sumarioak

**TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA .....3. Orrialdea**

**EGOERA EKONOMIKOA .....41. Orrialdea**

**ANTOLAKUNTZA ..... 101. Orrialdea**

• • • • •

**KONGRESUAREN EBAZPENAK .....147. Orrialdea**

**RAFA DIEZ-en INTERBENTSIOA.....153. Orrialdea**

**GONBIDATUEN INTERBENTSIOA .....157. Orrialdea**

**HAUTATUTAKO IDAZKARITZA NAZIONALEKO PARTAIDEAK .....179. Orrialdea**

## 1.-TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA

### 1.1.- NAZIOARTEKO EGOERA

- 1.1.1.-Sistema kapitalistaren garapena eta bilakaera
- 1.1.2.-SESB eta sozialismo errearen eremuko herrietako gertaerak
- 1.1.3.-Sozialdemokrazia nazioarteko testuinguru honetan

#### ONDORIO OROKORRAK

### 1.2.- ESTATU ESPAINOLA

- 1.2.1.-Estatuaren "potereak"
- 1.2.2.-"Sistemaren" bilakaera
- 1.2.3.-Arlo ekonomiko soziala
- 1.2.4.-Egungo mapa politikoa

#### ONDORIO OROKORRAK

### 1.3.- EUSKAL HERRIA

#### 1.3.1.-Hegoalde

##### 1.3.1.1.- Egoeraren ikuspegi orokorra

- a)Itunaren ondorioak eta bilakaera.
- b)Aldagai orokorrak
- c)Gizarte bilakaeraren gakoak
- d)Mass-mediak Euskadin

##### 1.3.1.2.- Arlo Ekonomikoa

##### 1.3.1.3.- Gaur eguneko mapa politikoa eta perspektiba

#### ONDORIO OROKORRAK

#### 1.3.2.-Iparralde

## 2.-EUSKAL LANGILE MUGIMENDUAREN EGOERAREN AZTERKETA ETA GARAPENAK

### 2.1.- AZKEN URTE HAUETAKO BILAKAERA

- a)Industriaren errekonbertsioa eta sindikatu erreformisten itunak
- b)Ab-14a. Aurreko urratsak eta ondorioak
- c)Ab-14etik aurrera

### 2.2.- EUSKAL LANGILERIAREN EGOERA ETA GARAPENAK

### 2.3.- MUGIMENDU SINDIKALA, OROHAR

### 2.4.- EUSKADIKO PATRONALA EDO UGAZABERIA

### 2.5.- ESPARRU POLITIKOA, ELM ETA EMS

## 3.-EUSKAL MAPA SINDIKALA-ERREFERENTZIA LABURBILDUAK

## 4.-LAB - EBOLUZIOAREN BALANTZEA

## 5.-LABen INTERBENTZIO SINDIKALAREN SIGNIFIKAZIO GLOBALARI HURBILDU NAHIRIK

5.1.- INTERBENTZIO SOZIOEKONOMIKOA ETA IHARDUERA SINDIKALA

5.2.- LANEKO AZPIEGITURA NORMATIBOA ETA LABen INTERBENTZIOA

5.3.- BORROKA EKOLOGIKOA. LANEKO OSASUNA ETA GIZARTEAREN GARAPENA

# 1.- TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

## 1.1.- NAZIOARTEKO EGOERA.

SESB eta eremu sozialisteko herrietan jasotakoak inflexio puntu bat ezarri du nazioarteko panorama politikoan, nazioarteko harreman politikoetan koordinada berriak agertu direlarik. Dударik gabe, azken hilabeteotakoa hedadura handiko lurrikara izan da, ideologian, ekonomian, gizartean ondorioak sortuz... Munduko Bigarren Gerratik hona "iraultza" politikorako faktore nabarmena izan da.

Beraz, SESB eta herri sozialisten bilakaeraren eta Golegoko Gerraren ostean "munduko orden berria" ezartzeko prozesuan sartuta gaude, Estatu Batuen gidaritza politiko-militarraren pean.

Orokorrean, faktore nagusi bi hauek baldintzatzen dituzte nazioarteko politikaren ildo berriak:

a) Dagoeneko, E.B./SESB edota NATO/Varsoviako Paktoaren arteko "oreka" politiko-faktikoak ez ditu nazioarteko harremanak baldintzatzen. Azken gertaeren ondorioz EBek gidatzen duten politika "POLLOBAKARRA" ezarri da.

Horren ondorio zuzenetako bat da Herri "aberatsek" NBE erabiltzea haien estrategia eta interes politiko-ekonomikoak defendatzeko -Golegoko Gerraren adibidea ikusita, non tratamendu ezberdina eman zitzaion, Panama edo Granada kasuekin konparatuta-, eta beste koiuntura batzuetan NATO-Varsoviako Paktua bipolarizazio horretan papera garrantzitsua bete duten "Ez-alineatuek" une honetan duten gartzeko "espazio" eta gaitasun mediatiko falta nabaria. Hau da, SESBen papera politiko-faktikoaren desagerpenak HUTSUNE bat sortarazi du, hurrengo urteetako nazioarteko politikan ondorio eta dimentsio handiak izango dituen.

Faktore honek areagotzen ditu sistema kapitalistak

eta beronen "garante" politikoei proiektu politiko aurrerakoi edota teorikoki haien kontra doazen proiektuekiko duten agresibitatea. Golegoko Gerra, SESB jasaten ari zen ahuleziaren barruan, hausnarketa honen adierazgarria izan zen, "nazioarteko orden berria"ri aurre egiteko prest agertzen direnei sistema kapitalistak "oradinaraziko" diena; "indar korrelazioak" nola eta non zeuden erakustez gain, Golegoko Gerrak beste ondorio batzu izan zituen:

- Herri arabiarren arteko banaketa.
- Herri arabiar aurrerakoien jarrera eta Palestinaren Askapenerako Erakundearen (PAE) strategiaren ahultzea.
- Sistema kapitalistaren kontrako burruka ideologikoa eta eguneroko praxian. Kapitalismoak ez du erakutsi bere konpromezu historikoei erantzuteko gaitasunik (demokrazia politikoa, langabezia, gizarte ongizatea...), eta helburu horietan porrot egin du, bere nagusitasun politiko-militarra alde batera utzita.
- Aintzindaritza jokamolde honetatik «negoziazio eta bake» prozesuak bultzatzen ari da, beti ere beren emaitzak ez badituzte aldatzen, edo hobe bere naguditasun ekonomiko eta militarra sendotzen laguntzen badute.

b) Ezkerraren desorekatze ideologikoa, Europa mailan SESB buru zuten "sozialismo errealeko" esperientzien inguruan izandako idealizazio desegokia dela eta. Hau, pixkanaka, sistema kapitalistaren balore eta analisi eskemen penetrazioa sortzen ari da, bai eta sinesgarritasun falta handia ere alternatiben eraikuntzari dagokionez. Eta honekin batera datoz aldaketa nabarmenak herri askotako ezker eta eskuin erakundeen arteko indar korrelazioetan.

Hau da, orokorrean nazioarteko politikaren fase barri baten aurrean gaude, sistema ekonomikoaren eta kapitalismoak gizateria osoarengan isladatzen dituen baloreen kontrako burrukan GELDIUNE HISTORIKO baten aurrean, alegia. Sortutako egoera birrosatzea urte askotako lana izango da, eta etorkizunaren klabeak honetan datzate:

- Sistema kapitalistaren kontrako burruka ideologikoa eta eguneroko praxian. Kapitalismoak ez du erakutsi bere konpromezu historikoei erantzuteko gaitasunik (demokrazia politikoa, langabezia, gizarte ongizatea...), eta helburu horietan porrot egin du, bere nagusitasun politiko-militarra alde batera utzita.
- Balore sozial alternatiboen birsortzea, ezkerretik eramana (demokraziaren kontzeptua, masen parte-hartzea eta agente sozialak, ekologia, autodeterminaziorako eskubidea...), balore horiek sistema kapitalistaren kontrako enfrentamendu ideologikoan eta pentsamolde marxistaren egokitasunean oinarriturik, pixkanaka aldaketarako bide sozio-politikoetan sakon dezaten. Beti ere testuinguru sozio-politiko bakoitzaren berezitasunetatik abiatuta eta aurrez egindako moldeak ukatuz. GIZARTE SOZIALISTAREN aldeko burrukak HELBURU ORDEZKAEZINA dirau, baina "sozialismorako bideek" eta eredu sozialistak, bere osotasunean, EZAUGARRI DOGMATIKO ETA ITXIAK APURTU BEHAR DITUZTE.

Borroka politiko-ideologikoaren "eszenatoki"aren eskema orokor honetatik hausnarketa osagarri batzu egin beharra dago:

#### 1.1.1.-

#### **SISTEMA KAPITALISTAREN GARAPENA ETA BILAKAERA.**

Azken hamarkadetan nazioartean gertatu den norgehiagoka politiko-ekonomikoaren bilakaeran indar aurrerakoien aurrerapen handiak gertatu badira, SESBek horien garapenerako bide ematen zuen oreka mediatikoaren barnean, egia da GAUR EGUN dagoen egoerak eta datorkigunak aldaketa handia izan duela, aurreko puntuetan esandakogatik. Hau da, "gerra hotza" benetako norgehia-

goka izan da, horren ondorioz Europako Ekialdeko herriak, prozesuari dagozkion barne arrazoiengatik, desegin dituen krisirako faktore erabakiorrak sortu dituelarik. Gaur egun, zentzu honetan, sistema kapitalistaren potere politiko ekonomiko militarren eragin espansiboaren aurrean gaude, BAZTERTU GABE bere oinarri analitikoak eta bilakatzean uzten doan odol eta esplotazio arrastoak gero eta gordinago azaltzen direla.

Beraz, SESBeko esperientzia "sozialistak" "zer ez den egin behar jakiteko" eredugarria izan bada eraikuntza sozialistaren hainbat arlotan, gero eta argiago dago "SISTEMA KAPITALISTAREN LIDERGOAREN BALIO FALTA, FILOSOFIA EKONOMIKO ETA SOZIAL GISA, gizarte DEMOKRATIKO, GARAPEN EKONOMIKOAN OREKATU ETA GIZAKIEN ARTEKO EXPLOTAZIOAN OINARRITU GABE bate-rantz aurrera joateko.

Sistema kapitalistaren bilakaerak, ekintza militarra eta txantai politikoekonomikoan gero eta gehiago utsiz, bere garapenari itsatsirik doazen faktoreak ugaltzen segitzen du:

- Herri batzuek beste batzu explotatzea, Hirugarren Munduaren papera nabarmenduz (Asia, Afrika, Ertamerika eta Hego Amerika), herri "aberatsek" eta sistema honen liderrek haien ekonomien bilakaerari eusteko guneak bezala: lehengaien harrapaketa, plusbalia handiko inbertsioak, produktuen komertzializazioa...).

Pobrezia, azpigarapen eta DESOREKA SOZIALEN mailak areagotzen dira, ETIKOKI MODU AURKEZTEZIN ETA DEFENDAEZIN batez. Gizarte batzuren kontsumismoa eta neurri gabeko gastuaren (ekoizten dutena kontsumitzeko ezgauza) aurrean, milioika hil edo bizi da miseriak jota.

Desoreka sozialak ez dira sortzen herri garatu eta azpigaratueta SOILIK, baizik eta herri garatuaren esparruan eta sistemari itsatsirik doazen kontraesanen ondorioz, azken hamar urteotan DESBERDINTASUN SOZIALA areagotu eta LANGILEEN ESKUBIDE SOZIALAK NABARMENKI MURRIZTU DIRA.

Sistemaren espansio gosea, etekin handiena

koste txikienez lortzearen lempen, hondamendi ekologiko ikaragarriak sortzen ari da. Garapen basatiaren kontzeptuak eta naturaren bizi iturrien (basoak, itsasoa, poloak, ibaiak, ...) gutxiespenak kolokan jartzen dute gizateriaren etorkizuna. Hortaz, geroago azalduko dugun bezala, burruka ekologikoa ulertu behar dugu natura zaintzeko eta desarrollismo kapitalistaren dialektika zentzugabeari erantzuteko modu bat bezala.

Mendebaldeko herri gehienetan dagoen demokrazia balorea usteldura sintomak erakusten hasia da: abstentzioaren gorakada, mekanika autoritarioen garapena, arrazekeriaren zabalkundea ...; hau da, desberterazio sozialaren sintomak eta, zoritxarrez, ezkerrek ez du bereganatzen maila handiagoko protagonismo alternatiborik bere baitan biltzeko etsipen bide hauek balore eta erreferentzia politiko-sozialerako elementu berriekin batera.

Bilakaera honen barrua, analisi ekonomikoaren atalean zehaztuko badugu ere, badira desajuste edo desoreka elementu batzu herri kapitalisten indar politiko-ekonomikoen harremanen barruan. Azpimarratzeko elementuak honakoak dira:

- Ezgonkortasuna eta desoreka progresiboak USAko ekonomian, Golkoko Gerrak eta haren ondorio ekonomikoek bizkortu baldin badute ere.
- Alemania eta Japoneko ekonomien goranzko joera. Alemaniako bilakaerak eragin berezia izan dezake Europako Ekialdeko egoera kontutan hartuta, "Europako proiektua" desestabilizatu ahal du eta. Alemaniak "bere kasa" eta Ekialdeko herrietarantz garatu nahi omen duen zabalkunde politiko-ekonomikoak, EEEko herrietan desajusteak sortaraz ditzake, hasieran ezarritako proiektua geldiarazi ahal duten pitzadurak zabalduz. Dena den argi dago Alemaniari ez zaio E.K. ren aurka jokatzeari interesatzen. Bitxia da, "blokeen" desagerpenaren ostean Iparraldeko herriak (orain EEEtik kanpo) bat etortzea Elkartearen sartzeko eskaerarekin. Alemaniako ekonomiaren arrisku espansi-

boak elkartearen "aterpea" haien interesak defendatu eta armonizatzeko leku aproposa bihurtu dute.

- Desadostasunak, zalantzak... agertu dira, edo, behintzat, Europako proiektuaren abiadurari buruzko ikuspegi desberdinak, herri berriak sortzean, merkatu berriak zabaltzean ...

### 1.1.2.

#### **SESB ETA SOZIALISMO ERREALAREN EREMUKO HERRIETAKO GERTAERAK.**

Azken hiru urteota abiadura ikaragarriaz gertatzen ari denak behartu gaitu, sortzen ziren egiazko gertaeren arabera, analisi zuzenke asko egitera, prestatzen somatzen genuenari buruz. Berdin gertatu zaie analistei eta nazioarteko inteligentzi zerbitzuei.

Perestroikaren bilakaeraren esperantzak erreferentzi puntu zirauen, SESBeko sistema une honetan ikusten den errealitate gordinaren arabera sozializatzen hartu ezin dena eta bere degradazioa zuzenduko zuen mekanismo bezala. PCUSEstatuaren barne ustelkeriaz jabetuta ere, nolabaiteko konfiantza zegoen gizarte sobietarra eraberritzeko joera horretan, baina konfiantza hori ez zen oinarritzen benetako erradiografia eta datuetan eta gure inertzia analitikoek eragina handia zuten. Azken batean, Polonia, Txekoslovakia, Errumania eta abarretan gertatutako "leherketa" sozialen eskema bera SESBen ezin errepika zitekeen ziurtasuna zegoen, PCUSSobiet Batasuneko gizate eta herrian errotuago eta bertebratuago zegoen uste oso eta okerraren eraginez.

Abuztuan arrasto hauek ezabatu eta analizatzen gaitza den "Estatu kolpe" baten ostean, oinarri ideologiko eredugarri batzuetatik 1.917.ean sortutako prozesu historikoak ikaragarriko ATZERAPEN eta DESGASTE POLITIKO IDEOLOGIKOA jasan du.

Laburlabur esateko ponentziaren asmoa ez baita zehaztapen handiangoan sartzea SESBek garatu eta bultzaturiko ereduaren porrotaren nahusnarketarako ondorioetan sakondu beharra dago.

Filosofia marxistaren eta gizarte sozialista BEREIZTASUN POLITIKO ETA KONTESTUAL bakoitzetik abiatuz eraikitze helburuaren balioaz komentzi-

turik, kontutan hartu beharreko zenbait puntu ikusten da:

- Sistema kapitalistaren kontrako borrokan klabe izan den erreferente ideologiko-historikoaren galera eta arma ideologikorik gabe geratu izanaren "sentsazio" orokorra. Dena den argi dago nahiz eta ezker abertzaleko borroka sozialismoaren alde dagoen guk ez dugula erreferente zehatza izan eta gure ezaugarriekin euskal gizartea sozialismo bide propioa, dinamika guztiak aztertuz, eraiki beharko dugula. EZ DAGO Perestroikarik eta balizko gertaeren norabidea ez dago indar edo jarrera aurrerakoien kontrolpean, eta denbora beharko da SESB bihurtuko den horren BIRROSAKETA eta BIRSORPENA egiteko.
- "Proletargoaren diktadura", "alderdi bakarra" eta antzeko kontzeptuen porrota eta zalantza jartzea, bai eta sozialismoaren bilakaera ulertzeko zenbait mekanika estaliniarrak ere, kontutan hartuz sistema sozialista testuinguru zehatz batzuetan garatzen dela, sistema kapitalistarekiko norgehiagoka (gerra hotza ...) politiko-ekonomiko gogor batean sartuta, bere garapenean ere eragina duena, eta ez ditu LABORATEGILAN BATEN EZAUGARRIAK.
- Garapenerako oinarrizko beste faktore batzuetatik libre; banakako eta kolektibitatearen askatasunetan sakontzea, agente sozialen benetako garapena eta aldaketa sozialean partehartzea ...; zentzu honetan SOZIALISMORAKO BIDEAK BIRROSATU beharra dago, HELBURU SOZIALISTAREN DEFENSATIK ABIATUTA.
- Nazioartean "motor" politiko-ekonomiko baten faltak beste herri aurrerakoien bilakaera politiko-ekonomikoa eta askapenerako borroka baldintzatzen ditu. SESBek "bide sozialista"n zeuden herri guztiak betetako funtzioa (harreman kometzial pribilegiatuak), elkartasun internazionalista kontrajarria aplikatuz (Afganistan, Txekoslovakia ...).

Angola, Mozambique, Namibia, Salvador bezalako

herrietan edota PAEren borrokaekin gertatzen ari dena, horri Cubak jasaten duen blokeo eta txantai ekonomikoak gehituta, aztertzeko, SESBeko eta sozialismo erreala izenekoaren eremuko gainerako herrietako gertaeren ondorioen barruan kokatu behar da.

- Sistema sobietarraren apurketa nazio erreibindikazioek ere ukitu dute, garatutako proiektu sozialistaren aurrean gizarteak hartu duen sinesgabetsun eta sustraigabetsun kontestu horretan. Gai honetan beti agertzen da hausnarketa "faltsu" edo manipulatu bat. Sektore batzuek "nazionalismoa", Autodeterminazio eta Independentziarako borroka bide sozialista sobietarraren porrotaren arrazoi edo sabotatzaile gisa aurkeztu eta, NAZIOARTEKO EDOZEIN KONTESTUTAN, HERRIEN ERREIBINDIKAZIOEI IZAERA ATZERAKOI ETA ERRETROGADOA EZARRI NAHI IZAN DIETE. ILDO HONETatik AIPATU BEHARRA DAGO IDE SOZIALISTAK BEHAR BEZALA FUNTZIONATUEZ GERO BERE OSOTASUNEAN, SESBeko HERRIEN BILAKAERA POLITIKO, EKONOMIKO, SOZIAL eta KULTURALaren eta GIZARTE SOZIALISTAREN FINKAPENAREN ARTEKO LOTURA EMAN BEHAR ZELA.

Beneta porrot egin duena sistemaren bilakaera izan da, oinarrizko mekanismoei dagokienez (bilakaera ekonomikoa, masekiko lotura, banakako eta kolektibitatearen askatasunetan sakontzea... eta SESBeko HERRIEN BURUJABETASUNA ETA ESKUBIDEAK, PRAKTIKAN, ONTZAT EZ HARTZEA) eta, horren ondorioz, nazio erreibindikazioak norabide bitan azaltzen dira: BENETAKO ASKATASUNA ETA BURUJABETASUNA lortzeko borroka, eta HERRIARI BIZKARRA EMAN DION SISTEMA bat erabat arbuiztea.

Hortaz, A.E. ren eta independentziaren eskaera ezkerak, osotasunean eta nazioartean, bereganatu beharreko balioak dira, DEMOKRATIZAZIOAN ETA KOMUNITATE BAKOITZAREN BALORE SOZIOKULTURALTAN AURRERA EGITEKO prozesuan. Klasekoan zein internazionalistan, sakontzea, ezta sistema kapitalistaren kontrako BORROKA ere.

Arlo honetan, azken gertaerek honako hau ekarri dute:

a) Estatuaren mitoen haustura eta A.E. eta Independentziarako borrokaren berreskurapena Europan, sistemak berak ere planteamendu horien balioa esparru kolonialera eta Hirugarren Mundura mugatzen zuen bitartean.

b) Nazio errebindikazioak, ezkerreko zenbait sektoretatik leporatzen ziguten klitxe zaharra errebindikazio "pequeño burguesa" apurtzeaz gain, EZKERRETIK gaur egungo ESTATU-NAZIOEN ABSOLUTISMO POLITIKO, EKONOMIKO, KULTURALAREN KONTRA eraman beharreko borrokaren motore bezala kokatu behar dute. Bistan da errebindikazio demokratiko oro autodeterminazioarako eskubidea ez da, berez, ezker edo eskuinekoa, ez badu proiektio zehatzik, baina, era berean, argi dago ezkerrek lotu behar dituela AUTODETERMINAZIOARAKO ESKUBIDEA LORTZEKO BORROKA aldaketa politiko-sozial baterako borrokan agertzen doazen beste balore batzuekin. Aldaketa horrek helburu estrategikoetarako bideak jorratu behar ditu: sozialismo demokratikoaren eraikuntza.

### 1.1.3.

#### SOZIALDEMOKRAZIA NAZIOARTEKO TESTUINGURU HONETAN.

Azken gertaera politikoen filosofia sozialdemokraten espazioa eta interbentzio ildoak karakterizatu dute. Filosofia hauek kapitalismoa eta "sozialismo erreala" izenekoaren arteko "hirugarren bide" bezala sortu ziren. Herri garatuetako alderdi sozialdemokrata gehienek ekintzabide ekonomikoa engranaje kapitalistan kokatzen da erabat, nazioartean mantendutako jarrera Panamako inbasioa, Golkoko Gerra ... bezalako arazoaren aurrean lotsagarria izan da USAren ekintza legitimizatzean, sozialdemokraziaren balore politiko eta demokratikoen eskema ez da estrategikoki bereizten antigoaleko eskuineko alderdi demokristianoek jokaeratik ... hau da, gehienetan sistema kapitalistaren bilakaerarekin estuki loturik dagoen "hirugarren bide" faltsu baten aurrean gaude.

Egun dagoen sozialdemokraziaren ezaugarrien artean honakoak aipatu ahal ditugu:

- Basatikeria kapitalistaren adierazpen leun

eta "humanizatuagoa" izan nahi du, baina estrategiarako bide alternatiborik egokitu gabe ekonomian, politikan edo nazioarteko harremanetan. Azkenean kapitalismoaren finkapenerako kontrapeso politikomoral eta makilatzailea bihurtzen da.

- Haren asmoa da, sozialismo errealearen porrotaren aurrean, "amu" ideologiko baten moduko zerbait bilakatzea, kapitalismoaren alternatibarako "bilgune" bakarraren gisan finkatu nahiean (alderdi honek bat egiten du kapitalismoaren beraren bilakaera eskemarekin). Europako sozialdemokraziak finkatu nahi duen leloa hau da: "SOZIALDEMOKRAZIATIK EZKERRERA EZ DAGO EZER ERE, HUTSA BAINO".

Hausnarketa orokor eta labur hauek (sakonago azaltzeko ponentzia oso bat eskatuko luke) egiazko ihardun bat deskribatu nahi du, nazioarteko politikan, bere orokortasun politiko, sozial eta ekonomikoa eragin handia baitu.

#### HASIERAKO APUNTE BATZUK ETA ONDORIO OROKORRAK

Nazioarteko egoerari buruzko ondorio orokor bezala, honelaxe zehaztu ahal dugu:

- Ideia aurrerakoien edota kapitalismoaren aurreko alternatiben atzerapen fase historikoa. Borroka politiko eta sozialerako balore berriak berriz bultzatu beharra, aldaketarako bideak direla helburu, pixkanaka sozialismoa eraikitzen joateko, prozesu honen linealtasunari buruzko moldeak eta aurretizko dogmak apurtuz.
- Autodeterminazio Eskubidearen garapen eta erabilpena bultzatu beharra, hori baita aldaketa politiko-sozialerako borrokarekin lotu beharreko oinarritzko tresna eta eskubide demokratikoa.
- Sistema kapitalistaren zabalkundearen areagotzea eta USAren nazioarteko politika agresibo eta txantai bidezkoa. Nazioarteko eremu honetan, Ekialde Mendebalde enfrontamendua desagertu da eta sozialdemokrazia ez da gauza egoera moteltzeko.

- Ezegunkortasun mailak europar proiektuan (batasun politikoa), honen merkatu-komertzial arloek (Akta bakarra) goratzen jarraitzen badute ere. Alemaniaren "ekialde"-rako garapen politiko-ekonomiko "naturalak" tentsio eta desberdintasun garrantzitsuak zorrozteko mehatxua du.
- Dardara ekonomiko-sozialen fasea, herri berriak sortzean edota sistema ekonomiko-politikoaren koordenada berriak ezartzean beste batzuetan.
- NAZIOARTEKO ORDEN BERRIAREN sendotzea botere ekonomiko hiru fronterekin (Japon, EEBB, EEE) botere militarra EEBB-k dutelarik. Beraien arteko harremanak (Kooperazio edo enfrentamendua), beste nazioetako egoera ekonomikoa beldintzatuko du.

## 1.2.- ESTATU ESPAINOLEKO TESTUINGURU POLITIKOA.

Honen argazki analitiko, hausnarketarako puntuetan orekatu eta, batez ere, ez nahastua aurkeztu ahal izateko, zenbait ataletan banatuko dugu gaia:

### 1.2.1.- ESTATUAREN "POTEREA"

Francoren diktadura garaiko berrogei urteek argi baino argiago kokatu zuten "egiazko potere" izenekoaren botere faktiko eta erabakiorra, parlamentu bidezko demokraziarako metodoengarapenari zein askatasun sistemaren aurrerapenei nagusituko zitzaizena. Gaur egun, 15 urte baino gehiagoko denboraldi baten ostean, "egiazko potere" horiek atzekalde faktikoa osatzen dute oraindik, Estatuko Exekutibo politikoaren iharduera ildo garrantzitsu batzu baldintzatzen dituztelarik, benetako eragina izanik.

Dena dela, eragin mediatikoa duen "espazio" horretan "birrosaketak" edota bilakaerak gertatu direla ezin ukatu:

- Berezko bilakaerak botere faktiko horien

barne batasuna hautsi du: lehen, Estatuaren alde militarra eta ekonomikoa Hierarkia militarra batetik eta bestetik industria eta finantzen oligarkiaren artean izandako loturei esker biltzen zituzten haien baitan; egun, ordea, antzeko loturak dituzten kasuak egonik ere, "egiazko potere edo potere mediatiko" horietan mugikortasun eza handiagoa dago. Horrek ez du esan nahi "Estatu arazoek" aurrean, bereziki euskal auziaren aurrean, zenbait unetan sentsibilitate edo kontraesan taktikorik ezin sor daitekeenik. Areago, kontraesan eta sentsibilitate ezberdin horiek gobernuan dagoen alderdira PSOERA erakartzeko eta erakarriko dituzte, aipatu auziaren konponbideari dagokionez, batipat.

- Arlo militarri dagokionean, eta botere mediatikoa izanik duen eraginari begira, Goardia Civila nabarmendu egin da, eta bertan daude sektore atzerakoienak.

PSOE esparru mediatiko-faktikoetan sartuta dago: aginte judiziala, ekonomikoa, poliziala ... eta daukan eragin maila gero eta handiagoa izanik ere, EZ dira ERABAKIORRAK esparru horien jarreretan. Halaber PSOEk, GAL, diru reserbatuak eta parapolizial taldeen inguruan jokatu duen papera ez genuke ahaztu behar.

Komunikabideen papera, hauek eritzi soziala moldatzeko faktore mediatikoak diren aldean, ezaugarri nabarmenak hartzen joan da eta, batzutan, jarrera faktikoen "adierazpenetarako" izkutuko euskarri edo tresna bihurtu dira. Ildo honetatik, egungo borroka politikoan eta faktore mediatikoen izkutuko ihardueran, komunikabideen kontrola benetako norgehiagoka dugu.

Hitz batez, Espainiar Estatuan ezarritako sistema politiko parlamentarioaren atzetik, "sistema demokratikotik" kanpo garatu eta birsortzen diren potereek eragin mediatikoa mantentzen dute oraindik, Konstituzioaren edukinean berean legez babesturik. Potere horiek sistema zaindu eta koakzionatzeko lan ATZERAKOIA betetzen dute, horren ondorioak aldiro azaltzen direlarik. Esaldi batean laburtzeko, Zuzenbidezko Estatuak

"zaintzapean" eta atzekalde mediatiko baten baldintzaturik segitzen du, herriaren borondatek eta legitimazio sistema orotatik at.

### 1.2.2.-

#### "SISTEMAREN" BILAKAERA.

"Zuzenbidezko Estatuak", frankismoaren prozesu bukaera sortu zenetik fase batzu izan ditu, O-23 izanik garrantzizko inflesio puntua, haren itxuratzeko eta irudiari dagokionez. Hausnarketa garrantzitsuenak hauexek liriteke:

- Estatu Espamiarrak bere burua gizarte eta zuzenbidezko estatu demokratiko izandazean oinarritzen du bere ihardun politiko propagandistiko osoa. Gai honi buruz luze aritzeko asmorik gabe, funtsezko puntuak azaldu behar ditugu.

a) Estatu honetako erregimena monarkia da, demokrazia hitzarekin erabat kontrajarriak dagoena. Ez dago demokrazia izaterik, Estatuko Burutza hautatzeko eta berari kritikak zuzentzeko inolako eskubide eta ahalmenik ez badago. Histori testu ofizialek eurek dioskute Frantziako Iraultzaz aurreko erregimena amaierazi zela, errepublika ezarri eta «monarkia desagertaraztean».

b) Ez dugu ahaztu behar halaber, Francok berak estatuko Burutzaren Oinordetzari buruzko Legeaz berrezarri zuela monarkia, estatuan egin zen azken hauteskundera zapuztu egina zena.

- O-23aren ostean eta batipat NATO eta EEEen sartzarekin batera, PSOEek Gobernuan daraman hamarkada honetan zehar, Espainiako sistema medebaldeko "ereduetara" egokitu eta sartzeko joan da pixkanaka, neurri handi batean Francoren legatua jasotzean bere gain hartu zuen proiektio internazionala apurtzea lortu duelarik. Esan beharrik ez dago, "irudi" horrek marketing politikotik gehiago duela errealitate objektibotik baino, euskal auzia eta ENAMen iharduera politikoak direlarik "arazo" garrantzitsuak sortzen dizkietenak oraindik nazioarte mailan, gero eta lankidetzeta maila altuagoak lortu baditu ere.

- "Parlamentu bidezko demokrazia" k dauzkan

urte gutxi hauetan, sistemak bere osotasunean bereziki bere jentio edo poteremekanikari dagokionez, DESGASTE handia jasan du: PSOEek gizartearen aurrera eramane duen desideologizazioa; txantxullo eta usteldura ugalduta eta hedatu dira Administrazioaren "jokabiderako arau" bihurtzeraino; arazo sozial latz batzu (langabezia ...) finkatu eta errotu egin dira... guzti horrek "desengantxe" maila handiak sortarazten ditu hauteskunderetako abstentzioaren bidez isladatzen dena, badi-ruri PP-PSOE orteko "hitzarmen" bat dagoela, Guerra, Naseiro, ... kasuen andoren partidu politiko eta, orokorki, politikarien ekimena duhintzeko.

- Autonomien Estatuak, edo Konstituziotik sortutako Estatu ereduak, goia jo du, Estatuko herrien erreibindikazio nazional demokratikoak bere baitan bildu gabe. Nazioarteko gertaerek ordea, -autodeterminaziorako Eskubidea Europa osoan zehar zabaltzen ari delarik-, eta arlo honetan Konstituzioak agertzen duen izaera antidemokratikoak, egoera delikatu samarrean utzi dute Estatuak, independentzi eskaerak gora ari diren une honetan. Datorkigun Hitzarmen Autonomikoa, hasierako planteamendua-denok mahai beretik jatea, alegia- hautsirik ere, EAJ eta CIU negoziazio-prozesu batean sartzen ahaleginduko da, kontraprestazio ekonomikoetan oinarriturik (Gizarte Segurantzak, INEM, Kontzertua, ...), herri bien Burujabatasuna onartzeko egiazko pausu kualitatibo handirik egin gabe, halere, ez zeutzu politiko zehatzean, ez materia ekonomikoan ere.

### 1.2.3.-

#### ARLO EKONOMIKO-SOZIALA.

Espainiar Estatuako egoera sozio-ekonomiko orokorra bi faktorek baldintzatzen dute nagusiki: ekoizpen aparatuen ahulezia eta EEEen sartzeko eginiko negoziatio eta erritmoak. Parametro hauetatik abiatuz eta labur-labur aipatuz, koiuntura eta ikuspegia aztertzeko indikatzailerik bezala honakoak azpimarratuko genituzke:

- Azken urteotan gertatutako birsortze ekonomikoa-parametro makroekonomikotan: BPG ...-engainagarria izateaz gain, kanpoko al-

dakin aldakorretan oinarritua da (besteak beste kapital multinazionalaren inbertsioak). Bertako sare industrialak ez da armonikoki eta estrukturalki garatu, ez berrikuntza teknologikoaren arloan (gaur egun kopetibitateko erizpideen artean klabe dena), ezta sektore industrial berrien bultzadan ere. Hortaz, Espainiar Estatuko ekonomiak, kompetenziari dagokionez, duen hauskortasunak egoera zailak iragartzen ditu 92.etik aurrera aplikatu beharreko CUEren ondorioz, Olinpiadek zein EXPO-92ek ekonomian ondorio koiunturalak sortu ahal badituzte ere "Ekialde"rako inbertsio desplazamenduak (SESB eta beste herrialde batzuetako gertaeren aurrean), arazo ekonomikoak eta bere giza eraginak sakon ditzake.

Panorama orokor honek, Euskadin, ezaugarri kezagarriak ditu, aurrerago azalduko dugun bezala, gure herriaren etorkizuna baldintzatzen duen politika baten aurrean, INDUSTRIA DESMANTELATZEKO HELBURUA duena.

Egoera ekonomikoaren itxurazko hobekuntzak -termino makroekonomikotan besterik ez bada- ez du hobekuntza orekatu erakarriko langile zein herri xehearentzat, aitzitik, DESBERDINTASUN SOZIALA areagotu egin baita, langile kolektibo ezberdinen maila adkistiboak gero eta urrunago daudela elkarrengandik. Desoreka sozialaren areagotze horri gehitu behar zaizkio langileen OINARRIZKO ESKUBIDEAK MURRIZTEKO neurriak: Gizarte Segurantzari Pentsio-Fondo bidez egindako Sabotaia, epleguaren liberalizazioa, eskubide sindikalak mugatzea... ESPAINIAR ESTATUAN, OROKORREAN ETA BATERA, INPOSITAKO sare baten bidez, autonomi erakundeen eskumen ezagatik. Guzti honen ondorioz arazo sozialak sortzen hasi dira eta areagotu egingo dira gero eta langile kolektibo gehiagotan.

Langileen eskubideei dagokienez bizi dugun atzerapen giro honetan, administratibiko antolatzen diren plangintza politiko-ekonomikoen agresibitate eta koherentzia ezak eraginda, Estatu Espainoleko sindikalis-

moaren ahulezia agerian geratu da. CCOO eta UGT sindikatuek eraman duten interbentzio-ildo ideologigabe eta epelaren ondorioz, erantzuteko gaitasun falta dago, eta agente sindikal horiek galdu dute langilegoaren eta sindikalismoaren balore aktiboak "berregituratzen" sakontzeko ahalmena. A-14eko burrunba soziala, eragin eta garrantzi handikoa, sindikalismoak berak indargabetu zuen, eta sortutako bataila sozialaren pilaketa horretan itzali zen Langile Mugimenduan koordinada burrukalari eta berrindartzaileetara jotzeko aukera

- Hausnarketa honen haritik, nabarmendu beharra dago PSOEk Espainiar Estatuan ezkerreko indar bezala zuen legitimitate historikoan oinarriturik, azken 10 urteotan Gobernuan burututako lana, Langile Mugimenduen eta sindikalismoaren bizitasun balore naturalak eta erreibindikazio arrastoak "ezabatze" asmotan -komunikabideen bidez egin izan duen intoxikazio eta manipulazio ideologiko-informatiboaren arloan-. Ezein eskuin-indarrek egingo zukeen PSOEk egin duena poterean irautearren. PSOEk Espainiar Estatuko gizartea eskuinerantz letratzea lortu du -eta bide beretik segitzen du-. Sistemak berak, finkatu ahal izateko, behar zituen parametroetan (bipartidismoa garatzeko esparru potentzialak ahultzea eta, NOSKI, ALDAKETA SOZIALAURRERAKO IEN ARRASTO ORO ERABAT BAZTERTU DUE-LARIK.

- Sindikalismoak mass-mediaren bidez nolabaiteko eragin soziala baduela badirudi ere, praktikan, batere indarrik ez duten operazio hutsak dira, ez bait dago LANGILERIAREN BARRUAN ALDAKETA SOZIALERAKO DISKURTSO BATEN OSAKETA ETA GARAPEN OROKORRIK.

#### 1.2.4.-

#### EGUNGO MAPA POLITIKOA.

Etorkizun politikoan hauteman daitezkeen faktore adierazgarrienak honako hauek dira:

- Estatuaren Gestioan emandako 10 urteren buruan, desgaste sintomak igarri ahal dira PSOEen, hurrengo hauteskundeetan gehien-

go absolutoa galtzeko arriskua duelarik. Olinpiadek zein EXPO-92ek eman ahal diten "oxigeno" politikoa alde batera utzita, (hortaz, baliteke hauteskundeak 92eko udazkenera aurreratzea, olatu horren "uzta" jasotzeko asmoaz), PSOEk badaki hauteskunde horiei begira badirela eragin politikoa haundiko elementu hiru: batetik, "euskal auzia" deritzona, eta horren irtenbide negoziatua, bestetik "hitzarmen autonomiko" baterako negoziazioa, EAJ eta CIUren babes politikoa ziurtatzeko hurrengo legegintzaldian eta hirugarrena Estatuko puntu ezberdiñetan ematen ari den II. Errekonbertsioaren (neurru sizial atzerakoi batzuekin batera) hauteskundeetako emaitzak izan ditzaketen ondorioak. PPK ere "landu" nahiko luke babes politikoa hori, indar erregionalekiko hitzarmenen bidetik jarraituz, sozialisten benetako "alternatiba" bihurtu nahiean.

- Beraz, datozen hilabeteak garrantzi handikoak izango dira, bi faktore hauek eragin zuzena edukiko dutelako Euskal Herriko politikan eta, hortaz, ENAM behar bezala kokatu beharko da PSOE eta Estatuaren "arazoei" onura ateratzeko eta gure herriaren subiranotasuna onartzean oinarritutako errealitate demokratiko bat finkatzea bultzatzeko. Hala ere, botere mediatikoei buruz atal honetan adierazitako azkerketatik abiatuz, bereiztu beharra ditugu (mekanizismo errazak ekidinez) Gobernuaren gestioan jarraitzeko PSOEk estatuan dituen behar "politikoak" eta euskal gatazka deituaren behin behirako konponketa. Gai hau "Estatuko arazo"tzat karakterizatzeak sektore mediatikoak logika politikoetatik kanpora egotea eragiten du eta, batzutan, bere kontraesan edota jarrerak nidarrez agertzea (Alcala Hoteleko Atentatuaren erakurketa politikoa).
- Eskuin espainiarra sendotze estrategiko baten seinaleak agertzen hasia da, PPren egungo errealitatean oinarrituz eta bere espazio naturala "nahasten" zuten bestelako ekimenak desagertu bait dira: CDS; aipatzen da eskuin espainiarraren bilakaera autonomizalea, betiko espainolismoaren zenbait zantzu gorderik ere, autonomien kontrako jarrera batetik, egun, maila askotan,

PSOE baino autonomistagoa izatera pasatu delako. Guzti horrek garrantzi handia du, PSOE eta IU jarrera aurrerakoiagoak hartzera behartzen baiditu, Estatu ereduari dago-kionean eskuinaren gandik bereizteko behararen lojika dela eta. PSOE barruan "federalismoaren" kontzeptua sortu izanak (hobe esan, bere apal ideologikoan utzia zuten kontzeptu bat berreskuratzeak) eta Europako giroak, gaur egun autonomismo administratibo hutsean kokatutako jarrera batzua areagotu ditzake etorkizunean.

- Alderdi nazionalisten garrantzi politikoa gorakada eta erregionalismoaren aupada: Aragoie, Cantabria, Valencia, Unidad Alavesa ...; estatuko hainbat erregiotan, erregionalismoak, PSOERI aurre egitera bideratua, izan duen handitzeak PP behartzen du "rompecabezas" moduko operazioa egitera, "sozialisten" kontra indarrak biltzeko.
- PSOERen desgasteak ez du IU indartu, azken hau banaketa eta haustura prozesuek jota dagoelako (batez ere, bere gune dinamizatzailetik, hau da PCEtik).
- Zentzu honetan, A-14 giza eragin handiagoa izango zuen zerbait izan zitekeen, baina azkenean, CCOO-UGTK eta IUren estrategiak berak AURREKO URTEETAN SISTEMAREN AURKAKO BORROKAK PILATUTAKO ENERJIAN LURPERATZEAN bilakatu zuten.
- IUK gaitasun eza agertu du A.E.rako erreibindikazioa eta Konstituzioaren aldaketa bereganatzeko eta gauzatzeko, nazionalitate historikoetan borrokan diharduen egiazko ezkerre onartzeko prozesu baten barruan, horren ondorioz, Euskadi, Galizia eta Catalunya politikoki gutxiagotua gelditzen arida. Eta arazo nazionalaren aurrean PSOEk duen tesi berbera -partehartze praktikoa errealitatean- defendatzeak ere horretara eramaten du. Erreibindikazio nazionalista izendatzeko "elkartasun eza" eta "erreibindikazio eskuindarra" bezalako terminoak erabiltzearen eskema zaharrak erro sakonak dituzte PCE eta IUren gehiengoaren diskurtsoan, arlo honetan, jasan dituzten porrotek eta gertaeren bilakaera analitikoak ez

dituzte aldarazi komunista espainiarren dogma anakroniko hauek.

## **KAPITULU HONETAKO ONDORIO OROKOR BATZU**

Beharrezko da emandako eskema deskriptibo eta baloratibotik zenbait faktore orokor hartu eta laburbiltzea datozen hilabetei begira:

- Estatuaren atzekaldean dauden egiazko potereek "Estatuaren arazo eta istiluetan" eragin mediatikoa dute oraindik.
- Estatuko Langile Mugimenduaren eta sindikalismoaren desbertebrazioak, antolaketan zein erantzunetan, eragozten du fase honetan, gehiengo soziala diren langileentzat benetan txarra izango den perspektiba sozio-ekonomikoari aurre egiteko indar sozialak biltzen aurreratzea. Hala ere, erantzun partzialek eta gizartearen gaizkiegottea areagotzen ari da PSOE Gobernuak planteiatutako ildo sozio-ekonomikoen aurrean.
- Autonomien Estatuaren agorpenak eta erreibindikazio nazionalisten iraupen tinko eta indartuak, borrokaren ezaugarriak direla eta Euskadi delarik "punta de lanza", pisu handia ematen dio Hitzarmen Autonomikoari datozen hilabeteetako politikan: bi izango dira burruka politikoaren erreferentzia puntuak: Estatu, nazionalismoa gaur egungoak bezalako moldeetan bideratu edo lurperatzeko ahaleginetan, batetik, eta bestetik, indarrean dagoen eredu "hausteko" burruka, A.E.aren errekonozimenduaren bitartez, beti ere datozen hauteskunderi begira PSOEk dituen beharren arabera eta Europako giroaren eraginpean. Horri dagokionez, Euskadiren normalizazio politikorako bideek garrantzia hartuko dute datozen hilabeteetan (elkarrizketak berriz hasi, sasinegoziazio kontuak...), edo, gutzienez, kontutan nortzeko faktore modura agertzen dira.
- Ez da ikusten, epe laburrean, PSOEren esparruren batean edo gizartearen esparru etsiuetan (potentzialki ezkertiarak) IUK aurrera egiteko posibilitaderik. Langile Mugimenduaren barruan interbentzio era des-

berdin bat gauzatzea eta mugimendu sozialen bultzada, PSOEren luze gabe burutu beharreko burruka ideologikoaren barnean, faktore giltzarriak izan litezke IUK garrantzi handiagoko pausuak emateko garaian, ezker espainiarren sektore batzuei ilusioa eta alternatiba bat bueltatzeko. Hala ez balitz, PSOEren ezkerreko indar baliogabea izango da, bilakaera estrategikorako perspektiba ezak antzutuko duen errepresentatibitate maila izatera kondenatua.

## **1.3.- EUSKAL HERRIA**

### **1.3.1.- HEGOALDEA.-**

#### **1.3.1.1.- EGOERAREN IKUSPEGI OROKORRA.-**

Azkeneko hilabeteotan aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira Hegoalde eta Espainiar Estatuaren arteko gatazkaren ezaugarrien multzoan, eta horien ondorioek eragina izan dezakete euskal politikan, unez uneko egoeraren egitura hautsiz.

Azken hiru urte honetako iharduera politikoak izan duen gorabehera faltaren ondoren aldaketak ezaugu ditugu. Itunek, "ETAren indarkeriaren kontrako borroka" edo, oinarria izanik, ezker abertzalea lurperatu nahi izan dute, baina horien egiazko emaitzak kontraesan bezala daude eta ez dute lortu nahi adinako eragina. Arestian aipatutakoa eta mugimendu politiko-sozialaren aldagai orokorrekin honako gogoeta hauek egin erazten dizkigute:

#### **a) Itunen ondorioak eta bilakaera.-**

Itunek, Ajuria Eneakoa Baskongadatan eta Bakea eta Tolerantziaren Akordioa Nafarroan, euskal politikan eta gatazkaren beraren garapenean izan dituzten ondorioei buruzko azterketa egiterakoan, irakurketa ximpleak saihesti behar ditugu, eta azterketei dagokien sakontasuna eman.

Itunek PNV, EA, EE eta UPN politikoki PSOEtik eta Estatutik hurbilago jarri zituen ezker abertzalearen kontrako borroka politikoan, eta hori dela eta, biziki aldatu dira gatazkaren gakoak. "Abertzaletasun demokratikoa" deritzonak, burujabetasunerako

tresnatzat omen zuten bide estatutarioaren porrot politikoa onartu ezinik, Madrilen aurrean erreibindikazio abertzaleak agertzeko mugimendua bultzatu beharrean, bere eginahal guztiak erabiliditu PSOE eta PPrekin batera ezker abertzalea inguratu eta akatzeko. PNVren ahulezia, EA sortu zeneko banaketaren ondorioa, garrantzi handiko faktore izan zen buruzagi jeltzaleek jokabide politiko bat hartzeko. Jokabide honek bi xede nagusi ditu: - ezker abertzalea haz dadin galeraztea, horretarako PSOErengana hurbildu behar bazuen ere.- denbora irabaztea, banaketaren ondorioak neutralizatzen.

Hori horrela, Itunek gatazka "ilundu" nahi izan dute, eta euskal gizartearen beraren erdian kokatu. "Euskal gizarteak konpondu behar ditu bere arazoak", "euskaldunek berek garbitu behar dute terroristen indarkeria". Horiek ziren mezuak, eta gaur egun ere entzuten dira. Hori dute tresna politikoaren filosofia orokorra, eta horren erruz, haundia egiatan PNVren erantzukizun politikoa!, dago gatazka dagoen bezala.

"Ibilbidea"ri buruz, hots, Itunen ondorio politikoei buruz eta egoeraren gaineko irakurketa orokorraz eta horien ustezko geroaz, honako hau esan dezakegu:

- Itun politikoei ez dute lortu bere eragina euskal gizartearen nahi zuen neurrian, baina lortu du ENAMen kontrako sektore gogorrenei babes psikologikoa ematea, eta gizarteak haiek hobeki entenditzea. Horri dagokionez, dena den, garrantzitsua da komunikabideen zeregina azpimarratzea, gaur egun "Itunen informazio-euskarria" baino gehiago, ezker abertzaleari kalte egin eta kritikatzeko bultzatzaile amorratuak baitira.
- Itunak eta Akordioak ezker abertzalearen kontra erabilitako elementurik nabarmenak haiek izan dira: "borroka armatuaren inguruan eztabaida sortzea" eta "ezker abertzaleak proiekturik ez duela" eta "bere eskakizunek ez dutela ez zentzurik ez egiazkotasunik" frogatu nahia. Helburu horiei dagokionez, eta gizartearen izandako eragina gutxietsi gabe, emaitzak ezker abertzalearen aldekoak izan dira, zeren, desafio politiko-dialektiko honen aurrean bere tesiak

indartzeaz gain lehorte egin baidituzte Estatutuen aintzirak, non igerian egiten zuten Ituneko eta Akordioko alderdiek, eta gero eta kontraesan haundiagoak azaldu zaizkie. Duda izpirik gabe, nazioarteko gertaerak bitamina moduko zerbait izan dira ezker abertzalearen osasunarentzat, eta Itunentzat, aitzitik, birusa.

- Baskongadetan Ajuria Eneako Itunean gertatu den kontzentrazio politikoak, "denok HBren kontra..." lemapean, nortasun politikoaren zeinuak galtzea ekarri die zenbait alderdiri, eta indartzea PNV eta PSOEri. Hau da, desberdintasun politikorako espaziorikeza dela eta, itunaren "jokabide politiko-dialektikoaren arauak" sortua, EA eta, ezker abertzalearen kontrako borrokaren bultzatzaile haundiena den, EEren heriotza ekarri dute.
- Itunaren gerrikoak estuturik, EAK ezin izan du garatu bere "hirugarren bidea"ren hitzaldi teoriko eta praktikoa, eta "orain baietz eta gero ezetz" kako politika egin du, nortasuna galduz eta bidean gorabehera asko agertuz. Azkenean, Itunaren barrinean sartu izana dela eta, galdu egin du PNVrekiko lehia berezia, eta are larriago dena, tokirik gabegelditu da bere estrategiak bizirik iraun ahal izateko, ezker abertzalearen politika, taktika eta antolamenduaren osasun eta sasoi onaren aurrean.
- Nafarroako Bakea eta Tolerantziaren aldeko akordioari dagokionean, nahiz eta Ajuria Eneako Itunaren irudia berbera den, eta beraz nahiz eta helburu berberak eduki bi puntu zehatzak aztertu behar genituzke: lehena, UPN-PPEk Nafarroako Gobernua lortu ondoren, akordioak beste izakera edo jokoak hartu dezakeela, ezker abertzalearen zeregin politikorako; eta bigarrena, Nafarroan PSOEren bidailagun garrantzitsuak diren IU eta EAK, E.N.A.M.a eta bere proiektu politikoa oztopatu eta galerazteko daramaten estrategiaz, aurrera eramaten dituzten ekimenei adi egon beharko dugula.
- Hori guziaz horrela, eta azken hilabeteotan sortutako mugimendu politikoei esker (Au-

tobia, Diputazioen gobernua, tripartitua zati-tzea...) itunak eta akordioak gizaratean INDARRA ETA EGIAZKO PRESENTZIAz gain, SINESGARRITASUNA GALDU DU BERE ESANNAHI ETA ERAGINKORTASUNEAN. "Gesto por la Paz" en ahuleria (itunaren berpiztea behin eta berriz eskatu duena, bera bizi ahal izateko iturria baita), itunaren alderdien arteko hartu-emanen okerragotzea, eta bereziki, ezker abertzalearen indartze politiko-organizatiboa kokokan jartzen ari dira itunaren eragina eta proiektzioa. Hala ere, EZIN DA INOLA ERE ESAN "ITUNAREN FILOSOFIA POLITIKOA" (ezker abertzalearen kontrako borroka eta beste jauzi politiko batzuetarako traba) GAINDITU DENIK.

#### b) Gatazka politikoaren aldagai orokorrak.-

Ituna eta Akordioaren ondorioak zehazki aztertu ondoren, beharturik gaude gatazka politiko bere makrodimensio guzietan kokatzera, geroago zehatz-mehatz begiratu ahal izateko beste elementu txiki batzuei.

- Estatuko gobernuak eta bere baliabide politiko-zapaltzaileek geldierazi dute azkeneko urteotan ENAMenganako indar biltzea, baina EZ DUTE LORTU BORROKA-MULTZOAREN ERAGIN POLITIKO BIDERKATZAILA AHULTZEA, ez eta bere estrategia eta linea politikoaren OSASUN IDEOLOGIKO-ERREIBINDIKATIBOA MAKALTZEA ere, horretarako erabilitako ahalegin eta bitarteko haundi eta sofistikatuekin ere. ETAK agertu duen berpizteko ahalmenak (ekintza armatuak beste lurralde batzuetara eramanez, helburu militar bereziak indartuz, hala nola ekonomikoa eta frogia, baita teknologia arloan Estatuaren aurretik joanez ere) ikusterrazten digu Estatu ez dela gauza bere helburuak nahi bezala betetzen aurrera segitzeko.
- Halaber, Herri Batasunak hauteskunderen emaitzetan gora egiten ez badu ere, dudarik ez da ezker abertzalearen proiektuak arlo guzietan aurrera eginen duelako susmoak eta zeinuak baditugula. Hortaz, Estatuak EZ DU LORTU GARRANTZIKO DESGASTERIK ENAM-en BARRENEAN, eta aitzitik, KARTU-

TXO ASKO ERRE DITU, bai politikan bai denboran, ezker abertzalea GARAITZEKO ASMOTAN, eta Burujabetasun, Demokrazia eta Normalizazio parametroetan oinarritutako Negoziazio politikorako bideak itxi nahian.

- Nazioarteko egoera, nahiz eta ezkerreko indar guziendako kezka eta azterketa ideologikorako elementua izaten ari den, INDAR EMAILE ETA AIRE FRESKO INPORTANTEA DA ENAM-en PROIEKTU POLITIKORAKO. Komunikabideek, eta alderdi batzuk -PNV bereziki- ESSBeko krisia aurkitu nahi duten arren ezker guziaren krisia balitz bezala, eta beraz baita ezker abertzalearena ere, horien hitzak HUTSIK DAUDE ETA EZ DUTE LORTZEN euskal errealitatean zerikusia duten faktoreak ahazteraztea: estatuaren eredu antidemokratikoa da, espainiar konstituzioa borontatearen kontra jarria, autodeterminazio eskubidea ukatua dago... Aspektuok zabalitzen eta ezagutzen ari dira Europako Ekialdeko herrietan gertatutakoari esker.

- PSOE eta bere botere mediatikoek ez dute aitortu nahi izan, orain arte behintzat, beren politikaren porrota eta bideraezintasuna. Agerian daude, bestaldekik, edo igar daiteke, haien artean ez-adostasunak badaudela erabili beharreko taktika erabakitzeko orduan. Ezker abertzalearen barrenean Itunak hain gutxi lortu izana, Europako mugimenduak eta Euskadin eta Estatuko beste herri batzuten izandako eragina, gaur egun Estatuan indarrean dagoen eredu politikoki baliorik gabe gelditzea, eta nazionalismo moderatuaren "nahiak" (ezker abertzaleak eta nazioarteko egoerak mugituak) egiazko aldaketarik gabe asetzeko zailtasunak baldintzak prestatzen ari dira taktika mistoak burutzeko: alde batetik, solasaldi-elkarriketa-negoziazio bidean aurrera egiteko zerbait, eta bestetik eta batera, proiektu abertzalearen kontrako sabotaiak-ekintzak.
- Nazioarteko egoerak gero eta eragin handiagoa izanen du gertakizunen bilakaeran, gatazka "izoztuz" irtenbide bat bilatzeko. Horretarako erabiliko dituzte beren baliabide ideologiko, informatibo eta politikoak, negoziatutako edukinetan atzera egiteko.

Sektore ekonomikoek protagonismo handiagoa hartuko dute seguraski.

- Bizkitartean, gogortu da azken hilabeteotan Espainiar Gobernuarekiko lehia, bere helburuek kale egin arren ETArekin hitz egiteko bideak irekitzerik nahi ez duelako.
- Hurrengo hilabeteetan pakto autonomikoan ikusi ahal izanen ditugu PSOEren jarrera politikoak, baita sektore mediatikoen sentzibilitate eta taktika ere (PSOE estu dabil hauteskundeetako galeragatik, eta hurrengoak hurbil daudelako). Bi mailatako negoziazioak, lehenbizi "bide geldo"ko autonomiak, eta gero "historikoak" deritzenena, "guziendako kafea" agortzea ekar dezake, baina ez digu klabe berezirik ematen.
- PNV euskal politikan aktiboago izateko baldintzak lortu ditu, hauteskundeetan lidergoa berreskuratu eta EA baztertu ondoren, nahiz eta gogoan zuten hegemonizazio prozesuak min hartu zuen M-26ko hauteskundeetan, zeren horren ondotik mugimendu politiko arriskutsu eta mediatizatuak egin behar izan baitzituen. Arriskutsuak, bai, mugimendu horien izaera, eta egiteko modua ere, traba baitira berehala arrakasta edo fruituak eskuratzeko, bidean sortutako tirabirengatik. Hala ere PNVk, hauteskundeetan zein proiektu politikoan (orain ez ongi kokatua Europa aldeko haizeek bere linea autonomista kolokan jartzen dutelako) askatasun handiagoa aurkituko du bere hariak nahi bezala mugitzeko. Gauza bat dago argi eta garbi: PNVk orain arte izan du, eta hemendik aurrera ere izanen, erantzukizun izugarria gatazkak gaur eguneko koordinadetan segitzen badu. PNVren mugimendua, negoziazioaren aldeko bideak bultzatzekotan, honako hauetan oinarrituko da: **BERE AUKERAREN BILAKAERA ESTRATEGIKOAREN SEGURTASUNA, ETA PSOE-REN LAGUNTZA EDUKI BEHARRA.**
- PSOE eta PNVren paperaren indarra edo eraginkortasuna gabe, Nafarroan UPN-PP bikoteak duen espazio politiko eta egiazko indarra ezin dezakegu ahaztu. Bere jarreratik eta Nafarroako PSOErekin batera, bere

jokaerak euskal gatazka politikoa eragingin dezakete.

### c) Gizartearen bilakaeraren gakoak.-

Koiuntura edota bilakaera politikoaren gaineko edozein azterketak, behar bezalakoa baldin bada, ez die erreparatuko jokabide politikoei edo gako politiko-ekonomiko handiei, baizik eta gizartearen pentsamolde ideologikoen mailen garapenari, gizarte horretan ALDAKETA SOZIO-POLITIKOA bultzatzeko. Eta, jakina, oinarritzat hartuko du elementu horien arteko erlazioa, eta ez garapen isolatu edo endogenoen gaineko azterketa.

Horri dagokionez, nabarmentzen ari dira joera edo jokabide berri batzuk, Langile Mugimenduan lan egiteko eta ezker abertzalearen zeregin soziopolitikorako aipatu behar ditugunak:

- Euskal gizartearen jokabideak eta ohiturak eskuinaldera mugitzen ari dira, edo hobere-nera jota, ez dira mugitzen. Hori guziaz gatazka politiko orokorraren bilakaeraren araberakoa. Itunaren filosofiak bere-bereak dituen baloreak (utopiak eta alternatibak lurperatu; desideologizazioa, arazo politikoen aurrean alderdiek garrantzia galtzen dutelako, denak ENAMen kontrako borrokan elkarrekin egoteagatik...) kontzientzia abertzalearen erlatibizazioa sortu zuten, pragmatismora eramanez, eta gure herriaren geroa arrisku bizian jarriz. Baina aipatu dugun bezala, nazioarteko gertaerek BIZKORTU DUTE ERREIBINDIKAZIO NAZIONALA, AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA... (eskubide hau telebistaren bidez egunero irensten du euskal eta espainiar populazioak; aldaketa hau biziki inportantea da kontzeptu hauek normaltasunez har daitezen). Gertaera hauek lurrera bota dute azken urteotan PNVk eta PSOEek aspektu honen gainean egindako lana.
- Dena den, kontzientzia nazionala (gatazka eta proiektu politikoaren klabe nagusia) azken urteotako eraso hilgarria garaitu eta gainditu duela uste badugu ere, badira gauza batzuk hain baikor azaltzeko arrazoirik ematen ez dutenak: kontsumismoa, elkarta-

sun sozialik eza, pragmatismoa izatea ihardun-bidea. Balore horiek euskal gizartean errotzen ari dira, eta ezker abertzaleak bultzatzen duen transformazio proiektuaren eta estrategiaren kontrako elementuak dira. Aspektu horietan mezu fina garatu behar dugu norabide askotan, eta nola ez, LABek, sindikatu den aldetik, munta haundiko erantzukizun eta zeregina izanen ditu.

- Ezker abertzaleak arazo garrantzitsuak izan ditu euskal gazteriarengan gertatu diren eraguztietako aldaketara egokitzeke. Mezu eta interbentzio eskemak klabe mugikaitz eta dogmatikoetan mantentzeak ezker abertzalearen posizioaren permeabilitate zailtasunak eragin ditu. Gazteriaren erreibindikazio, bizitza filosofia, kontextu sozio-ekonomikozko balore berriak ez dira behar bezala interpretatu eta aztertu, zenbait sektoretan exzeptizismo eta tanjenzialitate boltsak sortuz.
- Gogoeta edo hausnarketa hau ongi baino hobeki aztertu behar du KASEk eta ezker abertzale osoak, erabaki ahal izateko, bai edukinean bai moduan, zein den gazteekiko lotura haunditzeko interbentzio politikorako perfila, inolaz ere ahaztu gabe gazteria gaur egun gizarteak kutsatua edo pozoindua dagoela pentsalmodu edo pentsamentu balore askotan.
- Aipatu beharrekoa da beste elementu batzuk sortu direla indarrez mugimendu sozialean. Intsumisioa, ekologismoa (daukaten karga estrategikoarekin), bakearen aldeko lana bere filosofia guzietan, mugimendu sozialean berpiztea.... Horiek guztiak erakunde bezala konprometitu behar dugun arazoak dira, gure proiektu alternatiboarekin lotzen jakin behar dugularik gainera ezker abertzalearentzat, eta harremanak eta loturak egin behar ditu horiekin, beren proiektu alternatiboa eboluzionatu eta aberastu dadin. Ezker abertzaleak izugarritzko ahaleginak egin behar ditu mugimendu horien balore potentzialak bere gain hartzeko, eta mezu aldagaitz edo panfletarioetan sarturik ez gelditzeko.

#### d) Mass-Mediak Euskadin

Pentsa liteke puntu honek ez duela zentzurik hone-lako ponentzia batean, baina komunikabideen papera euskal gizartean hain da handia, ezen ez aipatzea akats eta traba bailitzateke interbentzio politikorako "klabeak" aztertu eta erabakitzerakoan.

Azken urteotan, eta Itunaren babespean, karakterizazio eta eragin izugarria izaten ari dira egoera politikoa, eragin hau batzutan alderdi politikoa berena baino haundiagoa. Autobiaren auzian agerian gelditu zen mass-mediaren jokabide "autonomo" hau (zenbaitzuk zuzendua, dudarik gabe). Gogoeta bera egiten ahal dugu, maiz, ETA eta ezker abertzalearen kontrako intoxikazio politiko-polizialen euskarria izateko aurkezten baitute beren burua.

Errealitate honek bidea eman behar digu KOMUNIKABIDEEN ARLOA BERE NEURRIAN BALORATZEKO, baliabide eta proiektio egokiak emanaz.

#### 1.3.1.2. ARLO EKONOMIKOA.

Atal honetan axal-axaletik aipatuko ditugu gure analisiak, bigarren ponentzian zehaztasun eta xehetasun guzietan azalduko baita egoera ekonomiko eta industrialak. Baina azterketak ibilbide logikoa izan dezan gauzarik inportanteenak aipatuko ditugu:

- Hegoaldeko egoera ekonomiko orokorra biziki kezkatzeko modukoa da. "Desmantelamiento industrial" a bueltarik gabeko egoera larri batera ailegatzen ari edo ailega daiteke hurrengo hilabeteetan (burdingintza, altzairu bereziak, untzigintza, papera...) eta sektore gutxi salbatuko dira krisi honetan, krisi honek, gainera, duela urte batzuk baino ondorio okerragoak izan ditzake, lehenagotik kalteetako arloak hartzen baitu min.
- Lehen mailako sektorea hiltzorian dago, heriotzera bidean eta irtenbiderik gabe egitura-neurririk hartzen ez bada. Horien lehen-gaiak lantzeko industriak (deribatua) ere estu eta larri dabilta (esnekien sektorea, kontserbak...).

"Akta bakarra" irekitzen denean, gainera, konpetibitateak egoera berria sortuko du merkatuan.

- Sektorearen bilakaera hau multzo ekonomiko desorekatu bati lotua dago, eta "eskupeko" politikoaren menpe bizi da administrazioak emandako laguntzekin (perspektibarik gabeko laguntzak, bestalde).

- Ondorio sozialak gogortzen ari dira, LANGABEZIAk gora egiteko joera nabarmena duelako. Arazo sozialetarako diru-iturrien mozketak, gero eta haundiagoak; erakunde autonomikoek ez dute botererik beren politika soziala egiteko; laburbilduz, badirudi haundituko direla langileriaren bizi-mailaren desorekak, eta gazteria, enpleguetarako zabaltze-aldia igaro ondoren, LAN MERKATUAN OZTOPO HAUNDIAK IZAN DITZAKE.

- Estatutu-Foru Hobetzea bikoteak erakutsi digu ez dela gauza euskal ekonomia babesteko, gutxieneko burujabetasunean, eta batez ere, ez da gai gure herria globalki "erakitzea" bermatzen duten neurri politiko eta ekonomikoak hartzeko. Gasteizko eta Iruşeko Gobernuak kexu azaltzen dira Madrileko Gobernuaren politikaren aurrean, baina ez dira kapaz dituzten lokarri politikoak askatu eta eskatzen eta exigitzen hasteko.

- Euskadiko sindikalismoak, ELA UGT eta CCOOekin batera burutzen ari den iharduera eta interbentzio ereduaren ondorioz, ez dio erantzun egokirik eman egoera horri. Halaber, marko autonomikoak EUSKAL SINDIKALISMOAREN EGIAZKO LAN KUALIFIKATUA galeratzen du, garbi baitago EZ DAGOELA, eskumen arlo honetan, LANHARREREMANETARAKO MARKO AUTONOMIKORIK. Erabaki ekonomikoak eta neurri sozio-laboralak Madrilen hartzen dira, euskal sindikalismoak parterik izan gabe, eta BATEZ ERE, HEGOALDEKO ORDEZKARITZAK ETA ESKAKIZUNAK KONTUAN HARTU GABE.

Egoerari buruzko azterketa orokor honetatik konklusio politiko-sindikal batzuk atera behar ditugu:

- Bilakaera ekonomikoak garrantzi handia hartu du sindikalgintzan eta politikagintzan, azterketak egin eta lan egiterakoan. Ezker

abertzaleak lan xehea egin behar du arazoaren benetako gakoan inguruko hausnarketak mailak sortzeko.

- Ildo honetan, egoera sozio-ekonomikoaren aurreko "frente soziala" (bere ateraldi edo erreibindikazio proposamenei dagokienez ongi antolatua eta objetibizatua), politikagintza eta zeregin sindikalerako tresna baliotsua da.

- Ezker abertzaleak zalantzak sortu behar ditu eredu sozio-ekonomikoari buruz, betiko gogoetaren parametroak erabiliz, eta horretarako beharrezkoa da alternatiba politiko eta ekonomikoak aurkeztea.

- Testuinguru sozialak atzerakada ezagutuko du, eta zailtasun haundiak izanen dituzte sistemaren alderdiek jendeak beren proiektuaren aurrerapenean sinesteko. Ezker abertzalearen kontrako itunek koiuntura ekonomiko egokia izan bazuten (gora egiten zuena, itxuraz behintzat, gizarteari pragmatismo dosiak sartzeko), hemendik aurrera, ordea, egoera ez da ona izanen beren interesetarako.

- Behin eta berriz entzunen dugu, naski, egoeraren erantzukizuna ETArekin indarkeariena dela, nahiz eta bigarren mailako kontua den, egituren egiazko faktoreen aurrean.

- PNVk bere interesak defendatzeko hobe-kuntza ekonomikoak "negoziatzeko" premia du, eta nahi izanen du guk sinestea horien truke amore ematen duela "eskakizun abertzalean". Pakto autonomikoa hurbil daukagunean, eta Europa aldeko joerak agerian egonik, PNVren isiltasuna lotsagarria da. Horretan behintzat, begibistakoa da PNVren MEZU EDO JARRERAREN AHULEZIA KUALITATIBOA, eta bestetik, BADIRUDI PSOEk ESTU-ESTU LOTZEN DUELA. Hori guzia aintzakotzat hartzekoa da, zeren PNVren egiazko berreskuratze politiko elektoralaren azpian ere Estatuaren politikaren menpekotasuna da nagusi, PNVk Euskal Herriarentzako proiektu nazionalari uko egiten dion neurrian.

- Nafarroan, UPN, PNV Baskongadetan duen antzeko egoeran dago. Nahiko luke baina Madrilek jarraitzen du erabakitzen. Eta gainera PSOEkin gobernagarritasun Ituna lortu behar du probintzia bakarreko komunitatearen bideragarritasun ekonomikoaren ideia saltzen jarraitu nahi badu. Bitartean, kapital atzerritarren etorrera lortzen ahalginduko da, eta egungo egoera sozio-ekonomikoari adabakiak jartzen "Lurralde berroreka"rako Europako Ekonomi Elkarrearen baliabide ekonomikoaren erabilera areagotuz, eta bereziki, mirariak egin beharko ditu PYMES delakoa baldintzetan jartzeko erronka europearrari begira.

### 1.3.1.3.- GAUR EGUNEO MAPA POLITIKOA ETA PERSPEKTIBA.

Gauza asko aurreko ataletan aipatu baditugu ere, azterketa edo analisia osatzen saiatuko gara, Hegoaldeko euskal indarren osasun politiko, elektoral eta organizatiboa baloratuz:

- PNVk berreskuratu du indarra, bai politikagintzan bai hauteskundeetan ere, baina oraindik urrun dago alderdia erdibitu zeneko nagusitasunetik. Azken hilabeteotan erabilitako taktika, EA lehenbailehen hiltzen saiatzea eta lehenago zituen ordezkariak mailak berreskuratzea, uste baino zailagoa gertatu zaie, eta kontraesanak baditu. Horrela ententitu behar da behintzat urte hasierako tripartitokoaren ondoko M-26ko hauteskundeen emaitza.
- Bestetik, egoera sozio-ekonomikoak, ezker abertzalearen sendotasunak, Europa aldeko haizeak, eta marko autonomikoaren agortzeak, OZTOPO ETA TRABAK JARRI DIZKITE BERE MEZU BAIKOR, SEGURU ETA PRAGMATIKOAREN GAKOEI. Horri buruz, aipatu beharra dago PNV bere irudi abertzalea zuritzeko erabiltzen ari zen planteamendu "abertzale"aren oinarrietako baterori egin dela. Hau da, "Herrien Europa" ideia, Autodeterminazio eskubideari kontra egiteko modu gisa, indarrak gabe gelditu da, eskubide honen garapen eta indarraldiagatik, baita ere EEEko estatu gehienek (bereziki Espainiak) prozesu horien gainean adierazi

duten jarreragatik. BEGI BISTAN DAGO GAUR EGUN PLANTEATZEN DEN BATA-SUN EUROPARRA eskakizun abertzaleen kontrako eran egin nahi dela. Eslobenia eta Kroazia-ren auzian argi eta garbi isladatzen da aipatu eritzia.

- Oro har, PNV dirudien baino baldintzatuagoa dago, eta nahi luke agian Euskadi eta Estatutuaren arteko gaurko gatazkaren egoera aldatu, egoera aldatuta errezago garatuko lukeelako bere proiektua, eta hobeki lortuko lukeelako hegemonia. Beraz, gatazkari irtenbidea bilatzea izan liteke bere helburuetako bat eta zerbait ere egin lezake hori lortzeko. Dena den eginen duena nolakoa edo zer izanen den jakitea zaila den arren, honelaxekoa izan liteke: mugimendu batzuk eginen lituzke, PSOE eta sektore mediatikoekiko koordinazioa zeharo utzi gabe, negoziazio bideak aurrera egiteko, baina MAHAIAREN BESTALDEAN IZANEN DA NEGOZIAZIOAREN EDUKINAK UKITZEAN.

- PSOE ongi kokatua dago eta espazio politiko eta sozial segurua dauka, baina ez zaio gora jotzeko ahalmenik igartzen, nahiz eta heldu diren hilabeteetan Eeko zenbait sektoreen laguntza izan dezakeen. PSOE, barneko antolamendua garatu eta gizartearengana hurbiltzeko "gestioa" behar duten alderdi horietakoa da, bestela "mezuak emateko makina" bat besterik ez litzateke izanen. Tesi ofizialen kontrako kritikoak bazter batera utzi ondoren (Damborenea, adibidez) Jauregik zuzendutako alderdia da nonbait, nahiz eta potere-banaketak istilu bat edo beste sortzen duen arren. Nafarroan gobernua galtzeak, gaur egun, PSOE oposizio sistematikoa egiera bultzatu du. Ahalegin guziak UPN ahultzera bideratzen ari da (Alliren airoepank direla eta, elkarriketako jarrerak, ... etab.). Hauteskunde Orokorrek aurreratuko balira prest egoteko asmoz. Halaber ENAmren inguruko politika tinko eta hertsia azaltzen du. Hala eta guztiz ere garbi dago gobernu-politika hauteskundeetako gorabeherak gaintitu ondoren argituko dela.
- HBk eta ezker abertzaleak mantendu dute beren maila elektorala azkeneko hauteskun-

deetan, inguruabarrak gogorraz badira ere, eta HBren indarra ahultzeko bideek porrota ezagutu dute. M-26aren ondotik, Euskal Herriko eta kanpoko gertaerek SENDOTU ETA BIZKORTU EGIN DUTE HBren JARRERA POLITIKOA, beste indar batzuk une larritan edo desagertzeaz dauden bitartean.

- HBren mezua eta linea politikoa indarberri- turik eta legitimaturik ateratzen ari da, eta somatu daiteke haunditzen ari direla bere dinamismoa, egokitze organizatiborako gai- tasuna, eta bereziki, orain arte geldoak eta efikaziarik gabekoak ziren iniziatiba-mailak. Argi eta garbi dago HB momentu onean da- goela hurrengo hilabeteetan etor dakizki- gun gertakizunei aurre egiteko.

- EA eta EE nortasun politikoaren krisiaren barrenean daude, eta euskal gatazkaren azken 3 urte honetako bilakaeraren ondoren espazio soziala galtzen ari dira. EE desager- tzeiko arriskuan dago, bi sektore baitaude elkarren kontra bai politikan bai harreman pertsonaletan. "Añamendi"koak puzzle eta hondarrekin esperimentu politiko berria egin nahian dabilten bitartean, "Berrikuntza demokratiko"koak goxo-goxo hurbiltzen ari dira PSOEngana, postu baten bila "pro- yecto 2000"ren laguntzaz. Batzuk hala egin dute, eta Bandresek eta bere lagunek ere halaxe egingen dute.

Hori bai, ezker abertzalearentzat pozgarria da jakitea EE DESAGERTZEA ENAMEN BES- TE GARAIEN BAT DELA, askok bestela uste badute ere.

- EA bere egitura mantentzeko botere insti- tuzionalik ez duenez, ez da gauza (Bizkaian ezik) oinarrian hazteko, eta publikoki masa- alderdi gisa azaltzeko, oso desberdinak eta elkartzen zailak diren sensibilitate politikoek baldintzatua dagoelako. Oztipoz betetako geroa dauka, eta bere azkeneko mezua, "HB, EE eta PNVtiko pertsonekin indar abertzale progresista" bat sortzea, azkeneko oihu poli- tiko omen da, hondarreko saioa bere he- riotza galerazi ahal izateko. EAk PSOEekin Nafarroan egin duen paktuarekin herrial- dean finkatzen saiatu da, ezker abertzalea-

ren jarrera «txiak» bere proiektu politikoaren bidez ordezkatu nahiean.

- Hala eta guztiz ere, hurrengo hilabeteetan "híbrido" hori gauzatzeko ahaleginetan iku- siko dugu seguraski, "ume hori" erditu na- hian, jaoitze horrekin batera frogatzeko ezer ere mugitzen den HBn edo beste inon.

- UPNren regionalismoan istilu batzuk eta barreneko borrokak gertatzen ari dira, na- hiz eta hauteskundeetan emaitza onak izan dituzten. Alli, Aizpun, Del Burgo eta abarren arteko tentsioak areagotzen ahal dira, eta ELKARREKIN BIZITZE HORI zail-zaila izan daiteke hurrengo hilabeteetan, gestioaren ezta dastatzen ari diren arren. Guzia gora- beheara, "egokitze" maila inportantea gara- tzen ari da beste historia eta erroak kontutan hartzen baditugu, eta intzidentzia soziale- rako marko berriak izaten ari da Alliren alde burgesia "berri"ko sektore batzuen apostua garrantzitsua izan daiteke gaur egungo egoera ulertzeko.

- UAren regionalismoan oportunismoa eta demagogia hutsa nahasten dira, eta esan dezakegu UAk ez duela ez oinarri ideolo- gikorik ez proiektu politikorik. Baldintza ja- kin batzuk probetxatu ditu garatzeko, eta orain agian kostata erauziko da "kiste" hori. Fenomeno hori beste herrialdeetara hedat- zeake ez du arrakastarik ezagutuko (Bizkaian, esate baterako), baldintza soziologiko eta kulturalak, baita denborari buruzkoak ere, oso bestelakoak direlako.

- PPK mantendu egiten du bere espazio poli- tiko, gorabehera haundirik gabe, baita gora egiteko aurkerarik gabe, espazio garbirik edo hutsik ez dagoelako (PNV eta PSOEk berenganatuak). PPK ez du, egia esan, egi- turarik, eta TVEren bidez eta komunikabi- deen bidez bere buruzagiek emandako irudiari esker bizi da. UPNrekin egindako paktuak ahalmenu du Nafarroan alderdi honekin batera gobernatzek aukera. Horre- la indartu du estatu mailan PSOEren aurrean aurkezten duen alternatiba politikoa. Azpi- marratu behar da UPN eta PP duten lotura organiko estua eta horiek baldintzatzen di-

tuela UPN alderdiaren erabakiak, PPK Madrilen erabakitzen duenak batez ere.

- Ezkerreko beste sektore batzuei dagokienez (Batzarre, EMK, LKI...) azpimarratzekoa da HBren kontrako amorruez betetako kritika haunditu dela, baita ere HBrekiko desberdintasunak nabarmendu nahia, eta ezker abertzalearengandik aldendu nahia. Harritzekoa da, zerenez, ezker abertzale osoak ahaleginak egiten dituen mugimendu sozialei eta gizarte osoari ateak irekitzeko (oker eritzitako garai bateko jarrerak gaindituta), EGI AZKO ERREFERENTZIA ETA EZ TEORIKO HUTSA izaten saiatuz, sektore hauek, haiek jakin behar zergatik, ITXIEGITENDIRA ETA NOLA EDO HALA "TINTE" BEREZIA bilatzen dute, oportunitate eta testuinguru kontutan hartu gabe, askapen prozesu nazional edo sozialari kritikak egiteko. EB alderdiak, oso kokapen egokia eskeintzen dion ordezkari tza lortu du Nafar Parlamentuan hala nola zenbait udaletan. Badu honekin batera islada estatu mailan ere, baita ENA-Mekiko jarrera tinkoa ere : hau dela eta badauka eragina zenbait eskualde jakinetan eta bera indartzen ari da BHren aldeko sektoren kontua, Batzarre edo PSOEren ezker aldekoak esate baterako.

## **ATAL HONETAKO ZENBAIT KONKLUSIO**

Atal honetako aspekturik inportanteenak, ponentziaren ibilbideari segitu ahal izatekoak, ondoko hauek dira:

- Gatazka politikoak bere hartan irauten du, eta porrot egin dute Itunek ezker abertzalea akatu asmotan (nahiz eta aldaketa-faktoreak hor dauden).
- Ezker abertzalea tinko mantentzen da bere presentzia politikoan (borroka politiko-militarraren indar guziaz), eta antolamenduan eta mezuan indarberiturik, nazioarteko gertaerengatik eta euskal mapa politikoak argitu delako.
- Egoera ekonomiko larria, pakto autonomikoa eta eskakizun nazionalaren berpiztea erre-

ferentzi elementu nagusiak izanen dira hurrengo hilabeteetan PNV, PSOE eta ezker abertzalearen ekintza politikarako. Pakto autonomikoa garrantzi berezia izan dezake, egiazko eta sakoneko gatazkari irtenbidea emateko laguntzen ahal duten mugimendu paraleloak sortu daitezkeelako (jokoan daude faktore ekonomiko batzuk: olinpiadak, Expo-92..., PSOEren beraren faktore politikoak).

- Tripolo politiko-elektorala egonkortzen ari da, eta bidenabarkoan, bi proiektu derberdin azaltzen dira. Diseinua hau da: tripolo politiko eta 2 PROIEKTU, PNVren proiektua PSOEren estrategian sartzen ari delako.
- Ahalegin haundiak egin behar dira ezker abertzalearen proiektua gizarteari eskeintzeko, iniziatiba politikoak ongi pentsatu eta zehaztuz, eta "komunikazio sozial" erako bideak irekiz. Hori guziaz egin behar da, kontutan hartuz "aldaketak" gertatu direla gizartean eta espazio berri batzutan sartu ahal eta "sartu" behar dugula.

### **1.3.2.-**

#### **IPARRALDE.-**

##### **1.3.2.1.- PLANO EKONOMIKO-SOZIALA.-**

Egoera ekonomikoak halako huts estrukturalak isladatzen ditu hemen, bertako egoera okerragotzen ahal dutela. Ikus daiteke nolako egoera larri gaiztoan gertatzen ari den sektore primario osoa, sektore industriak ez du inolako proiektiorik eta bada halaber "turistikazioa" -agintari politiko frantziarren hauxe dute Iparraldearen proiektiorako faktore nagusi gisa bururatu-, gure herrialde honetan eboluzio ekonomikoaren egiazko oinarri sorreraztea galarazten duena.

Eta gogoeta generiko bezain motz honi gehitu behar diogu besterik, hau da, turistikazio politika masiboak ikaragarritako eragin kulturala duela Iparraldeko gizarte osoan (politika hau beste zenbait naziotan ezagunak diren "asentamenduen" ezauzgarri berdintsukoa dugu), eta nahi dute honela, emeki-emeki, euskal sentimendu nazionala galerazi, besteak beste, beraren oinarri linguistikoa eta kulturalak "likidatuz".

### 1.3.2.2.- PLANO POLITIKOA

Aipagarria eta esanguratsu da azken hauteskundeetan zenbat goratu den ezker abertzaleko botua. Jakina, esan behar da halaber, horrekin batera organizazio eta planteamendu politikoaren aldetik finkotasun gutxi nabari dela ezker abertzalea osa dezakeen espektru guzti horretan. Iparraldeko errealtateari buruzko planteamendu taktiko desberdinak; hauek nola proiektatu errebindikazioetako edukinetan, nolako interbentzio dinamina desarroilatu, ENAMen eta ezker abertzalego osoaren helburu estrategikoen bila Hegoalde eta Iparraldeko bururak elgarretaratzeaz diren ikuspegi kontradiktorioak... guzti hauek, gaiaren heldutasunari eta gaietan elkargatzeari begira, eginkizun direla oraino agerikoa da.

Ikusten ahal da Iparraldeko gazteen artean, sektore batzutan, berriro ere ernatu dela egoerari ihardes- teko eta politikoki konprometatzeko mugimendua, eta hau etorkizuneko oinarria izan daiteke, Iparraldeko antolamendu organizatibo abertzalean odol berria zabaltzea bait dakar.

Gainetikoan, eskuindarren nagusitasunak, direnak direla, Frantziako Alderdi Sozialistak gero eta indar gutiago izateak, eta aukera ez-abertzaletan FASen ezkerrean ikusten den hustasun politikoak markatzen dute egungo panorama politikoa, abertzalegoaren aitzinamenduak egunetik egunera baldintzatuago duena.

Finean, azpimarratzekoa da plano politikoan, indar abertzaleen artean, bizi duten "desberdintasunak" bere eragina duela interbentzio sindikalari dagokionez. Ezker abertzaleko sektore desberdinetarik, nork bere "logikari" segituz, desarroilatzen dituzten taktika desberdinak ikusita, ezin esan epe laburrean Iparraldean langile klasean interbenitzeko tresna organizatiboren bat tajutzen urrats erabakiorrik emanen dutenik. Eta gai honetan LAB obligaturik dago gauzak analisatzera eta horietan informatzera, bertako errealtatea eta diren ahalbideak sakonago ezagutzeko, beti ere logika argi bati jarraituz: Euskalerriko sindikalgi gintza abertzaleak eta langile mailakoak nahitaez aurreratu behar du elkarlan analitikoan eta, ondorioz noski, alternatibak elkarrekin bideratzen, sektore jakin batzuetan batez ere.

## 2.- EUSKAL LANGILEEN MUGIMENDUA.

### 2.1.- AZKEN URTE HAUETAKO BILAKAERA.

Eskuhartze bideak ezartzeko, LM eta MSaren bilakaeraren tasunak ekar eraztea nahitaezkoa da. Orobat egun lanaren giltzarriak aurki daitezkeen guneenak, Euskalherriko langileen klasearen helburu hurbil eta objetiboen mesedetan, aldaketa soziopolitikoaren ahaleaginean aurrera egitearren. LMaren bilakaerari buruzko gogoeta sakon eta guztiz zehatzak beste baterako utziz, hona mene egungo egoeran eragina duten aldi eta faktoreak:

#### a) Industriaren errekonbertsioa eta sindikatu erreformisten itunak.

Erreformaren hasierako urteak -Moncloako Itunek markatuak- igaroz gero, eta bereziki PSOE estatua- ren interesak kudeatzera heltzen denetik, industria- ren errekonbertsio prozesuak markatuko ditu Eus- kadin eta Estatu Espainolean LMaren jarrera eta ekinbidea. 82tik 86ra bitartean Euskal Langileen Mugimendua PSOEek legitimaturiko neurri ekono- mikoei erantzun egokia ematen saiatuko da. Izan ere, aipatu neurriek ondorio ezin kaltegarriagoak ekarri zizkion Langileen Mugimenduari: enpresak istea, langabeziaren handitze ikaragarria ... Aldi honetan CCOO-UGT-ELAk botere ekonomikoei aurre egiteko indargabeturik eta beraien morront- za politikoak baldintzaturik, LMren desitxuratze ideologikoa gauzatzen dute, patronalaren eta siste- maren aldeko pentsakera atzerakoiak bertan sar- tuz. Errekonbertsio plangintzaren onartzeari buruzko teoria, "gelditzen direnak zaindu" argu- diopean (honela, enpresarien eta politika eta ekono- miaren arduradunek aurkeztutako arrazoi berbe- rak erabiliz) eta horrekin batera berrindustrializa- zio plangintza benazkoa ez galtzeak, aurreko urtee- tan ELMak izandako ihardueraren ahultze pro- zesuaren gako bihurtuko da. Sindikalismo errefor- mistak errekonbertsioaren borroka langileetara bi-

deratu zuen (batetik, "kanporatutako" zerrendetan agertzen zirenak eta bestetik enpresan jarraituko zutenak), sasierrekonbertsio prozesuari maila poli- tikoan eta ekonomikoan erantzun egokia eman be- harrean.

Industri sare osoan ondorioak izan zituzten sekto- rez-sektoreko birmoldaketa neurriei, sindikatu erreformisten azpiko edo ageriko onespenerekin legeria oso bat gaineratu zitzairen, horrela sindikal- gintza eta langile klasearen iharduera ahulduz.

Enpleguari buruzko Oinarrizko Legea, SALOa, se- gurtasun sozialaren egitura aldatzeko eta murrizte- ko neurriak... LMaren erantzuteko, antolatze, era- giteko gaitasunaren eta Administrazio eta patrona- larekiko harremanetan haiek zituzten eskubideen aurkako kolpeak izan ziren.

Aldi honetan, LABen ekinbidea, errekonbertsio pro- zesuaren eta honen neurri osagarrien planteamen- du orokorraren guztiz aurkakoa, egokitza jo behar da, azterketa sozioekonomikoa, gogoeta ideologikoa eta sindikalismo eredua beste era batera egin zi- tezkeela frogatu baitzuen. Guzti horrek, gerora, bere fruituak eman zituen.

Dena den ELMn prozesu honen emaitzak, errekon- bertsio garai horretan "Euskalduna" enpresaren borroka ondoren, argi geratu ziren:

- Sindikalismo erreformistas bere ekinbidea planteatzeko erabiltzen dituen marko murriztaile eta desideologizatuei erantzuteko Langileen Klaseak galdu duen gaitasuna.
- Langileen arteko elkartasunak behera egi- tea eta sindikalismoaren iharduerari buruzko eszeptizismoa. Hots, langileek sindikalgint- za bulego aholkulariarekin edo arazo txikiak konpontzeko tresnekin lotzen dute, beste maila edo sakontasunik eman gabe.

- Lan harremanen mundua eta klase borroka burokratizatzeko joera... Sindikalgintza langileen leku-hartzaile bihurtuko da.

Noski faktore guzti hauek ez dira era berdinean hedatzen eta ez dute LABen garapena edo langileen borroka askorik galeraziko. Joera nagusiak mahairatu nahi dira hemen.

#### b) Ab-14a. Aurreko urratsak eta ondorioak.

Abenduaren 14a inflexio gunetzat hartu ezin bada ere, horretan balorazioak kontrajarriak bailirateke, zera esan behar da: aipatu gertaera Estatutko eta Euskalerriko Langileen Mugimendua sakonean markatuko duen puntua dela. Horregatik, hain zuzen, erreferentzi puntu berezizat jotzen da, nahiz eta "aldaketa edo bira historikoen" sailean ezin den sartu, lehen esan den bezala.

Abenduaren 14aren aurreko aldiaren ekonomiaren aintzinatze garaia da (honen gakoia ez da bilatu behar Euskalerriko edo Espainiako ekonomien egitura). Delako aintzinatzeak eragin kontrajarriak sortuko ditu. Sistemak eta honen kudeatzaile politiko-ekonomikoen, alde aurretik garatutako oinarri "legalez" baliaturik (kontratazio politika...) gizarte-harremanak desorekatzeko neurriak areagotuko dituzte: behin-behineko kontratazioen ugaritzea, gazteria lan merkatuan nolahi erabiltzea, e.a. Sindikatu erreformistek bere aldetik, industri errekonbertsioaren garaietan dezentente saiatu zirenen iritziarekin (garai txarrak, nolarebait adierazteko), testuinguru ezberdinean (garai oparoak), langileei gehiegi zurgatzen zaiela uste dute eta horien gainean bere ahotan "aldaketa soziala" delakoaren aurkako neurri atzerakoi eta ukatzaileak eratzen direla diote.

Hau gertaia dela begibistan dago eta aurreko aldiaren ondoren, zeinetan sindikalismo erreformistak kapitalaren krisia bideratu eta gozatu baitzuen, sistemak aurrera daramatza betiko eraso sozio-ekonomikoak (joera liberalak...) gizartean oreka eta justizia handiagoak ukatuz. Testuinguru honetan bada, aurreko aldiaren ondorioak direla karia ernatzen da piskanaka Ab-14a. Garai horretan sindikalismoa aberastu egin zen teoria aldetik ere, sozioekonomiaren kritikarako oinarriak sendotu zituen eta gero eta biziago gorputzu zen gizartean (sindikalismoak eta gai sozioekonomikoen mass-median "boom" a ukan zuten garaia).

Euskalerriko Langileen Mugimenduan aldi honen mugak ez dira horren garbi ikusten, CCOO-UGTren antolamenduaren ahuleziak eta ELAren ohizko pasibotasunak ezker abertzalaren esku utzi baitzuten Ab-14aren sakontze lana eta berari behazko zentzua ematea.

Dena den, LABek langileen mugimenduan eta ezker abertzaleak gizartean sozioekonomiari eta gizarte aldaketaren beharrari buruzko kontzientzia kritikoa garatzen jakin zuten... hori bai, beti ere borroka hori aldaketarako beste egitura-elementuei lotuz, "Ab-14ean ez itozteko" helburua zutela.

Oro har, esan dezakegu, Estatuan Ab-14a lan egitea eta eskuhartze ezberdinak lortzeko gertakari oinarrikoa izan zela CCOO-UGTrentzat. Honen jarraipnea (PSOEren barreneko talde arteko harremanak, IUren porrota, e.a. zirela kausa) kolokan gelditu zen, helbuu gabeko sindikalismo eta Langileen Mugimenduaren iharduera, eta haiek alde aurretik eraman zuten politikarengatik. Esan nahi da, Greba Orokor haren balorazioa alde batera utzita, Ab-14ak ez zuela jarraipenik izan.

Euskalerriri dagokionez ez zuen hartarainoko garrantzirik ukan. Herri honek gizarte ezberdin eta aldaketa sozio-politikorako bidean aurrera egiteko subiranotasun politiko eta ekonomikoaren bilaketan, borrokaren beste faktore bat bezala ikusi behar da. Hori bai, langileen klasean gure aldaketa eta azterketa puntuak sartzeko bidea eman zuen (langileen eta sindikalismoaren partehartzearen onartzea), orduarte eta CCOO-UGT-ELAK bultzatutako desideologizazioa tartean zela, politikaren alortzat jotzen zena. Horrela, langileek eta sindikalismoak Langileen Mugimenduan behar dugun ekimenaren zuzpertzera suposatu zuen Ab-14ak, ideologia lantzeko LABentzat interesgarriak diren esparruak zabalduz, gero azalduko dugunez, gure ihardueran egoki bete eta orekatu behar ditugun esparruak. Izan ere, ELAke gitura eredian eta diskurtsoan eman dituen aldaketetan nabari da esparru honetaz ohartu dela.

Aldi honetan LABek euskal gizartean eta Langileen Mugimenduan gogoeta garbia sartzeari lortu du: Erakunde Autonomikoen eta euskal sindikalismoak ez dute neurri sozioekonomikoak eraginkorrak izan daitezkeen inolako ahalmenik. Gobernu zentrala, estatuko erakundeak eta CCOO-UGT sindikatuak dira

euskal langileen ordezkari gisa agertzen direnak, nahiz eta Euskadiko benetako ordezkartza politikoa eta sindikalarekin zerikusirik ez izan. Hau da, lan eta gizarte esparruan legegintzarako eta ekinbide ekonomikorako euskal sindikalismoaren organoak ezinduririk ikusirik, beharrezkoa bihurtzen da egoera hau haustea.

### c) Ab-14etik aurrera.

Estatuari dagokionez, lehen esan den bezala, Ab-14ak ez du jarraipneik izanen eta sortzen diren joera "negoziatzaileek", PSOEek berriz ere gehiago absolutua lortzeak eta CCOO-UGTren jarrerak zuzenduko dituen hautabide ezak, L.M. hartzara ohizko ekinbideetan sartzea lortzen dute, tarte horretan sistemaren aurka izandako borroka ideologikoaren maila beheratuz.

Azken hilabete hauetan ekonomian gertatu den atzerakadak, Akta Bakarrak izanen dituen eraginak eta Solchagak arlo hauetarako dituen planak, Konpetibitate Ituna kasu, borroka sindikala berrindartu dezakete. Norantz, ordea? Zer indarrez hornitua?

Euskadin hauteskunde sindikalek ELA eta LABen gorakada berretsi dute eta CCOO - UGTren ahul-tzea.

Bestalde, gure lurraldean krisia areagotzeak eta 90. urtean berriro ere industri sarearen deuseztapen prozesuan aurrera joateak kezka guztiz handitu dute, ezker abertzaleak eta LABek sindikagintzan lan egin dezaten baldintzak erreztuz. Hau da, hauteskunde sindikalak eta itxurazko hobetze ekonomikoa erpin zituelarik Ab-14aren ondoko "lasaitasun" garaia igaro eta gero, ondorio larriak izanen dituen geldiene ekonomikoa etorri da.

Egun ikus daitezkeen arabera, har daitezkeen neurriak kontutan harturik, ahitaezkoa da horiei erantzuteko benetazko gizarte frontea eraikitzea, gure herriaren ekonomi egitura arrisku bizian baitago.

## 2.2.-

## EUSKAL LANGILERIAREN EGOERA

Aurrean aipatu den aldien mailaketaren osagarri gisa, Euskal Langileen Mogimenduaren egoera eta

osaketa zehaztean, nahitaezkoa da euskal gizarteak behar duen aldaketa soziopolitiko gogoz aurreratzea eta haren interesak defendatzeko sindikatuen partehartze ekonomiko eta ideologikoaren gradua egokitzea.

Ez dugu L.M. an salbatzaile izan nahi, ahazturik Mugimendu horen kezka eta mailak. Era berean, ez dugu sindikalgintzak monopolizatuko duen ekinbiderik gura, alde batera utziko dituen militante gisa burutu behar ditugun lan eta iharduerak langile bakoitzaren eta ororen kontzientzia (sistemari aurre egiteko gaitasuna) garatzeko. Funtsezko oreka hau erdiesteko, beharrezkoa da lan arloa zehaztea, nolabait ere izena emateko:

- Ekoizpen sistemaren bilakaera teknologikoak, lan baldintzetan aldaketa sakonak ekarri dituenak, sindikalgintzan kontutan eduki beharreko faktore berriak sortu ditu. Sail ezberdinetako langileak egoteak, hala nola "zuzeneko esku-langileak", teknikariak, erdi mailako nagusiak, administrazioa... patronalaren politika diskriminatzailearen emaitza, zartadura bihur daitezke azken honentzat. Faktore hau kontutan eduki behar dute langileek erreibindikazioak era baturatuan, elkarrekin, planteatzeko garaian. Langileen klasean korporatibismoak garatzeko joerek sindikalgintzan kalte gogorak ekarri eta, okerragoa dena, langile klasean berean liskarrak sor ditzake.

- Langileriaren ohizko osagarriek aldaketa sakonak jasan dituzte, sindikalismorik bere interbentzioaren egokitze bat behar duelarik. Aurreko puntuan aipatuaz gain, errejistratutako populazio aktiboa deiturikoan, prozesu ekaiztearen garapenetik (sistema kapitalista) eta bere ondorioetatik sortutako beste langileria sektore batzu aurkituko genituzke. Lan merkatutik sortutako langabetuak, langabetu gazteek, "azpiralanetik" bizi diren langileak (gero eta gehiago), langile autonomoak, ezarritako lege dinamikaren ondorioz behi kili-kolozko egoeran dauden langileak, interbentzioa zehatz bat behar dute, langileriaren zati bait dira. Hau da, garapen teknologikoa eta produkzio sistema kapitalistaren garapenaren ondorioak langileriaren atomizazioa sortzen ari da.

- Nahiz ELMan, nahiz gizarte osoan, sindikal-gintza Erreformistaren laguntzari esker, gi-zarte balore atzerakoiak sendotu egin dira. Elkartasunik eza, bakoitza alde banatan ibil-tzea, langileen klasearen indarrean ez sines-tea... hedatu egin dira, sistemak, desorekak, injustiziak eta neurri atzerakoiak aurrera eramane baditu ere.
- CCOO-UGT-ELAren ustez ideologia eta klaserik gabeko sindikal-gintzak, "zerbitzuak" soil-soilik eskaintzen dituenak, "mass-me-dia" delakoaren itxuraketa ideologikoare-kin batera, ELMa desmobilizatu dute.
- SALOren izpiritua garatuz, sindikal-gintzaren eskuhartzearen hazkundera, alde batera uz-ten dituen langileen protagonismoa eta hauen ordezkariak, erabakitze eta eztabai-darako organoak (Enpresa Batzordea, Bat-zarrea...), hedatu da guztiz. Lantegi askotan, klase interesen aldeko borroketan, LAB bertan dagoenari esker soilik eutsi hal izan zaio langileen jarrera aktiboari.
- Euskalerrian gertatzen den borroka poli-tikoak ondorio kontrajariak sortu ditu. Bate-tik, ezker abertzalearen borroka, ELMan erresistentzia politiko eta soziala eragin du, honla lotu direlarik nazio mailako borroka eta langileen premia hurbil eta objektiboen aldekoa. Esan nahi baita ELMko sektore ba-tek garbi dituela bere xedeak eta hori lortze-ko beharrezkoak diren borroka eta errei-bindikazioak.
- Kontrakarrean ordea, bide horretan sakont-zeko ezina eta morontza politikoak direla eta, CCOO-UGT-ELAren sindikal-gintzak ELMan ezker abertzalearen garapenari kon-tra egiteko despolitizazioa erein du han eta hemen. Jarrera honek, hots, ELMa baldintza-tzen duen goiegitura politikotik isolatu nahia edo hura propaganda egiteko aldizkako erreferentzi bihurtzeko joerak, egun dirauen lehia da.
- Honetaz zera esan daiteke, maila politikoan gertatu diren abertzaleen aurkako itunek sindikal-gintzan bere horretan isladatu ez badira ere, antzetsuko filosofia bederenik

atzematen ahal dela sindikatuen ihardueran: CCOO-UGT-ELA ardatzaren bat egitea eta LAB baztertzeko joera (ez homogeneous, ez leku guztietan), ezker abertzalearen egitas-moa zikindu eta haren zilegitasuna ukatzea, ELMan "politika" sartzearen galeratzea (al-derdi politikoei udaletan egiten dutenaren antzekoa)...

- Nolanahi ere, lantegietako eguneroko bo-rrorak, patronalak inposatzen duen za-palketek, administrazio ezberdinek ezart-zen dituzten neurri atzerakoi eta edono-lakoek, premia konkretu eta zuzenak betet-zeko langileek etengae landu behar dituzten puntuak, ezinezko bihurtzen dute "Itunak" bere horretan ELMan ezartzea. Dena den, haien antzekoak, ordezkariak eta taju bereko filosofia dutenak sartzen saiatu dira.
- Guzti hauek gora behera ELMak baditu berezko indarrak, etorkizuna prestatzeko antolaketa tresnak (LAB), eta eragin sozial eta ekonomikoan maila sendoa berreskura-tzeko aldaketarako proiektu politikoa. Tres-na horiek begi bistan geratzen dira zenbait egoera puntualari aurre egiteko indar aktibo erabakior gisa zuzpertzeko bideak lortu behar ditu. Gabezia horiek betetzeko oso saiatu behar du LABek.

### 2.3.- MUGIMENDU SINDIKALA, ORO HAR.

Orain balantze global bat egin behar dugu Mugi-mendu sindikalaren eboluzioz eta egoeraz, bere ezaugarri eta gogoeta-faktore determinatzaileak ausnartuz:

- Ereduek erreformista, gehienbatean, lur jotzen ari da. "Errepresentazio" kontuak alde batera utzirik, nola AFILAZIOAN hala ERANTZUNIK EMATEKO GAITASUNEAN jasaten duen ahultasunagatik, sindikal-gintza estruktural-ki gizarte-agente bat izatera mugaturik dago, besterik ez, (beharrezko dituen organoak eta egiturak), eta trukean galdua du dagoe-neko bere funtsezko esentzia, hau da, langile

klaseko interes objetiboen defentsarako tresna izatea (GIZARTEAREN BENETAKO ALDAKUNTZA ETA TRANSFORMAZIOA inguruan dugun sistema kapitalista honetako injustizia eta esplotazio kakapilo honetan). Eta lur jotzen ari dela esan dugu, SINDIKALGINTZAREN EGINKIZUNA ESTRATEGIKO-KI UKATU NAHI DUEN joera, nolabait esan, zalantzan jarri dutelako azken bolada honetan organizazio sindikalek, interbentzio sindikalari globaltasun zabalagoa emanaz.

- "Sindikalgintza zerbitzuemailearen" bidea, langileria insertatzeko mekanika bezala, interbentzio sozial ekonomikoan sujetu AKTIBO BENETAKOA izateko gaitasun bezala, AGORTURIK dagoela esan behar da, eta BERE EBOLUZIO ERREALA CCOO eta UGTrentzat EMAITZARIK GABEKO "topea" da, hots: afiliazioak ez du gora egiten, interbentzio sindikalean izan dezaketen bitartekotzak behera egin du...
- Ikusirik sindikalgintza erreformitaren oinarri "teorikoak" edo definitzaileak (klase sindikatu, sozial politikoa...), eta ikusirik beren eguneroko praktika, argi dago horien arteko DESFASEA eta erabateko KONTRADIKZIOA, nabarmena izan dela Patronalarekin eta sistemarekin izan duten desafioan (industri birmoldaketa, krisi ekonomikoa...), eta nabarmena izan da, halaber, beren "haziera" dinamikan, hau langile klasea ideologizatze edota politizatze egitekoetatik aparte dagoen "zerbitzu" sindikalean oinarritu delakoz. Eta puntu honek sistemari arrontzitate inportanteak eman dizkio langileen kontzientzian "aurreratzeko".
- LABek bere urte gutxitan erakutsi duen bereizkuntza eta desarroilatu duen jokamoldeak, batetik bere EBOLUZIO KUANTITATIBOrako faktore DETERMINATZAILEA izan da, eta bestetik, SINDIKALGINTZAREN EGINKIZUNA benetako interbentzio parametroan LEKUTZEKO oinarriak jarri ditu. Gatazka bakoitzeko signifikazio analitikoak, sistema kapitalistaren eta langileak moztzen dituen gainegitura politikoaren kontrako guda ideologikoa, lurralde eta sektore mailako egituren arteko oreka, nola laneko or-

ganigraman hala organizazio langile baten interbentzioan; egitura lokalek eta sekzio sindikalek izan duten inportantzia ezinbestekoa... Guzti hauek erakutsi dute bete-betean asmatu dela LABek izan duen eboluzioan, eta FUNTSEZKO FAKTOREAK izan direla, berriro diogu, KLASE SINDIKATU ABERTZALE HAUNDI BATEN ERAIKUNTZA GARANTIZATZEKO, eragin eta bizkortzeko, parte hartu arazteko langile klaseari bizi dugun transformazio sozialeko prozesu honetan.

- Euskadiko sindikalgintzaren ekintza instituzional edota sozial ekonomikoko parametroak, baldintzaturik egon dira erakunde autonomikoei gai ekonomiko-laboretan kompetentzia mailan duten ezintasunagatik (diogun interbentzio hori funtsgabetu baitute neurri handi batean); eta baldintzaturik, halaber, ELA CCOO eta UGTekin "akordioak" lortzeko bidean INSTALATU delako, akordio horiek langileen gogoeta eta erantzuneko dinamika aktiboa izan zitekeena hipotekatu dutelako, jakina, analisi politiko-ideologikoen mailan. Hegoaldeko ekonomiarik somatzen zaion egoera larriak, administrazioaren ekintzengatik eta LABen indarragatik ere, aldaketarik ekar dezake mugimendu sindikalaren egoera gelditu honetara.
- Politikariek, oro har, gaitzesten dute edo "aldegiten dute" sindikalgintza agente sozial inportantetzat hartzetik, "nolabaiteko garrantzia edo inportantzia" duten okasioetan ezik, edo bestela "suhiltzailearena" egiteko sistema krisian dagoenean. Egia esan, ezker abertzalea, Herri Batasuna, da gogoz ikusten den bakarra ELMren gaitasuna eta sindikatuen eginkizuna -ELMren errealtate osoak ez badira ere, bai funtsezkoak sakontzeko eta garatzeko.

## 2.4.- EUSKADIKO PATRONALA EDO UGAZABERIA

Guk lan honetan Euskadiko patronalari buruz eskaini nahi dugun gogoetaren sustraia hauxe da: gure herriak euskal proiektu nazionala tajutzeko egiten

ari den borrokarekin arras dibortziaturik dabil hemengo patronala. Euskal enpresarien arteko sektore garrantzitsu batek dituen ezaugarri "nazionalistak" MENPEKOTURIK DAUDE, "merkatuaren" eboluziozko balore batzuetara, egitura politiko-ekonomikoetara... eta hauek, aldiro sortutako krisi ekonomikoetatik aparte, beti jokatzen dute ESTATALITATEAREN ALDE EREMUEKONOMIKO ETA LABORALEKO AUZI GUZIETAN. Azken finean, euskal enpresari guztiek, nazionalista izan ala ez, EZ DUTE HARREMAN LABORALETAKO ESPARRU PROPIORIK TAJUTU NAHI, EZ DUTE EUSKADIN DIREN BERTAKO HARREMAN POLITIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOETAN KOKATURIKO KONFRONTAZIO SOZIOEKONOMIKOARENTZAKO ESPARRU PROPIORIK NAHI.

Euskal sindikal gintzaren ekintza sozial-ekonomikoak esparru instituzional batzuk izan ez ditzan etengabe jarritako trabak eta holakoetan erakutsitako jarrera eragozleak -konpetentzi mailan bizi dugun hutsune ikaragarria kontuan hartu nahi gabe-, enpresarien jokamolde bat erakusten digute, nola mugimendu sindikalak hala euskal indar politikoek berek biziki konbatitu beharrekoa.

Gogoeta zabal hau gorabehera, aipa daiteke enpresarien arteko diferentziarik ere. Jarreraz, jokaeraz eta jokabidez, CIM, Adegui, SEA... ez dira homogeneoak, hori erakusten digu, behintzat, praktikak gure interbentzio sindikaletan.

## 2.5.- ESPARRU POLITIKOA, ELM ETA EMS

Lehen ere esana badugu ere, azken hamabi urteotan indarrean den esparru politikoa, Konstituzio Espainolaren eta bere garabide diren Estatutu-Hobekuntzen frutua, TRABA IKARAGARRIA DA EUSKAL LANGILE KLASEAK EBOLUZIONATZEKO, HERRI HONEN INTERES SOZIAL-EKONOMIKOAK DEFENDATZEKO ETA SINDIKALGINTZAREN EGINKIZUNETARAKO ERE. Honek esan nahi du MUGAPEN ESTRUKTURALAK DITUGULA, eta hauek nabarmen eragiten dutela bai langileen bai sindikal gintzaren egiteetan.

• Erakunde autonomikoei ekonomi kontuetan

duten konpetentzi ezgaitasuna dela medio (Estatuaren konpetentzi eskusiboak dira "iharduera ekonomikoaren planifikazio orokorreko oinarriak eta koordinazioa", "sistema monetarioa", "banketxe, aseguroak eta abarren ordenazio-oinarriak", "Aseguro Sozialeko legeak eta oinarritzko erregimena"...), Gasteiz eta Iruşeko Gobernuak Madrilen onartutako jokamolde eta erabakien beso exekutatzailerik edo ikusle soil bihurtuz doaz. Aldez aurretik halako kostu ikaragarria izan duen integrazioa eman delarik, ikusirik nolako ajuste eta doitzeak, nolako desarroilo prozesu konplexuak planteatzen dituen EEEK gurerako, erakunde horretan industrien ordenamenduaz, ardatz ekonomikoen potentziamenduaz, etab. kalibre ekonomiko garrantzitsuko erabakiak hartzen dituztela... PLANO EKONOMIKO SINDIKALETIK BEGIRATURIK EXIJITZEN ZAIGUN FUNTSEZKO FAKTOREA DA jasaten dugun ezgaitasuna, bai konpetentzien mailan, bai influentzi esperruetan izan beharreko egiazko "errepresentazio" politikoaren mailan.

• Ez dugu "EUSKAL BARRUTI SOZIAL-EKONOMIKORIK", ez ekonomi mailako konpetentziazko botere batean oinarritzen denik (Banku Nazionala, euskal sektore publikoaren garapena...), ezgure interesak foro internazionaletan defenda ditzakeen errepresentazio batean oinarriturik. Honegatik, gero eta sakonagoa izanen da orain urte batzuk Gobernu zentralak ezarri digun bidea: DESMANTELAMENDU INDUSTRIALA, honen ondoren sozialak nabarmen areagotuko direlarik. Desmantelamendu industria edo Euskadirekiko politika ekonomikoa, beti aztertu izan baitugu ikuspegi politiko batetik eta ez ekonomiko hutsetik. PSO Eren jokabidea EUSKAL PROIEKTU NAZIONALAREN OINARRIAK HIPOTEKATZEA DA, EUSKAL BURGESIA ETA EAJ GERO ETA GEHIA-GO BALDINTZATZEA, eta jokabide horrek ekin eta presionatzeko zutabe inportantea dira bai politika ekonomikoa bai INDUSTRI DESMANTELAMENDU PROGRESIBOA.

• Puntu honetan, hala ezker abertzaleak nola sindikal gintzako mundu osoak, zuzenki ob-

jetibatu behar dituzte gertakari hauek, duten garrantzia emanez eta, konfrontazio politikoan biltzen diren beste faktore batzuk gogoan izanik, SABOTAIA GELDI BAINA EFEKTU ESTRATEGIKO HANDIKO HAUSAI-HESTUZ.

- Giltza ekonomikoak, beraz, Estatuaren ondare dira, eta honek arma politiko moduan darabiltza Euskadiren aurka. Indarrean ditugun erakunde autonomikoei beren kabuz NEURRI SOZIAL-EKONOMIKOAK artikulatzeko duten gaitasuna maila eta kalibrerik eskasenerako "eskaletza eta errumestza politiko" da (Pobreziako soldata...). Ikusi behar da nolako baliabideak eta ahalmen legalak konzentratzen diren Estatuko erakundeetan: Ase-guro Soziala, INEM... Guzti honen eraginez, erabat Estatukoa ez bezalako mapa sindikala baitu, EUSKAL SINDIKALGINTZAK EZINDURIK ETA EGIATZKO INTERBENTZIO-RAKO GAITASUNIK GABE IKUSTENDU BERE BURUA, eta ezintasun hau bera kutsatzen dio Euskal Langile Mugimendu osoaren eguneroko bizitzari. Hauxe esan nahi da: euskal langile klaseak eta Sindikalgintzak oro har JOKU PASIBOA DUTELA OSO aipaturiko gertakari guzietan, ESPARRU POLITIKOAN DIREN KONDIZIONAMENDU ESTRUKTURALEKETA CCOO-UGT-ELASINDIKATUEN ERANTZUNAREN AHULTASUNAK -erantzukizun berezia du ELAk bere ezaugarri eta errepresentazio mailagatik-, elkar osatuz eratzen duten binomioagatik.

- Laneko kontuetan konpetenzi gaitasunik ez izatean, Estatuko legedi laboral osoa zuzenki TOKIALDATU DA esparru autonomikoetara. Langilearen Estatutua, Askatasun Sindikaleko Lege Organikoa, Magistratura eta Prozedura Laborala... den-denak zuzenean aplikatzen dira, halako gaitan eskuhartzeko inolako lege gaitasunik ez dutelako ente autonomikoei. Honek esan nahi du HARREMAN LABORALETAKO AZPIEGITURA LEGALA, bere ondorioak eta guzti, Hego Euskadin EZARRI dela Estatuko beste leku guzietan bezal-bezala, eta honela HARREMAN LABORALETAKO ESPARRU AUTONOMOIA BENETAN tajutu ahal izatea galerazi dela. Hortaz, ildo honetan ente autonomikoei

desarrolatu dituzten tresnak (CRLak batez ere) elbarriak eta ezinduak daude, konpetentzien eboluzioan jasaten dugun defizitagatik, HARREMAN LABORALETAKO ESPARRU AUTONOMOIA finkatu ahal izateko.

- Azken urteotako praktikari begiratu ezker, ELAk zenbaitetan azaltzen duena azaltzen duela, ikusiko dugu Gernikako Estatutua eta Nafarroako Hobekuntza negoziazio kolektiborako esparru "autonomoak" eta sare instituzional "polita" izan direla organi-grama bezala (nahiz zalantzan jartzekoa den beste alderdi batzuen arabera), baina egiazko edukinez hutsik daudela Harreman Laboretako Esparru Autonomoa desarrolatu ahal izateko.

- ELAren jokabidea hau da: Estatutuari nabarmen zaion ezgaitasunaren ordez "de facto" ko beste bide batzuk erabili (ikus PRECO-2 nola bideratu den), baina hauek arras motz gertatzen dira sindikatuak berak sekulako ezgaitasuna duelako Euskal Langile Mugimenduan edukin estatutarioak dituen efektu atzerakoiei eta estrategikoki baldintzatzailei erantzunik eman ahal izateko. LAB prest egon daiteke, puntu hau zehaztuko dugu geroxeago, "de facto" bide honetan aurrera egiteko, baina gauzak exigitzeko jarrera garbi batekin jokatuz, abiapuntutako langileen eta enpresa komiteen presioa erabiliz eta, abiapuntutako halaber, egun dugun konpetentziatzko esparruaren mugapenak hartuz (eta hau baldin eta kontuan hartzen bagaituzte. Ez daitezela etorri guregana "pastela" alde aurretik ELAk eta CCOO-UGTek ondua dutelarik). Bestela esanda, "epe laburreko" mugimenduak burutuz, baina argi markatua gelditu behar du beti, langile arteko interbentzio sindikaleko praktikaz, Lan Harremanetako Esparru Autonomoa eraikitzeko Konstituzio Espainolak paratzen dizkigun mugapen estrukturaleri kontra egiteko dugun plana, erantzun eta exigentzi mailako plana.

ildo honetan, lan bikoitza egiten aritu da LAB: bate-tik, konpetentzi-sareak sorterazitako organo instituzionaletan interbenitu; eta bestetik, gogor salatu

du ez zaiela EUSKAL LANGILE MUGIMENDUARI eta EUSKAL SINDIKALGINTZARI JOKO AKTIBO BAT IZATEKO BIDERIK EMATEN, exigitu ahal izateko, honela, alor sozial-ekonomikoan eta laboralean langile interesak hobeki defendatzea ekarriko duten kompetentzia berriak. Honelako errebindikazioak

edota exigentziak "alor politikoan" situatu nahi izatea, hauxe egiten baitu ELAK, ZENTZUGABEKERIA da. Eta azaltzen du, bestalde, sindikatu honek nolako profil ideologiko hertsia erabiltzen dituen egoera sozial-ekonomikoa eta laborala benetako sakontasunez analisatzean.

### 3.-

# EUSKAL MAPA SINDIKALA - ERREFERENTZIA LABURBILDUAK

Euskal Mugimendu Sindikalaren inguruan egin beharreko lehen gogoeta hauxe da: Estatuokari dago-kionez erabat berezia, espezifikoa dela. Estatu mailan nagusi den mapa sindikalean bi sindikatu ditugu, CCOO eta UGT, ordezkotasun sindikala elkarren artean banatua dutenak eta "batasun organikorako" bidean sakontzen dihardutenak; eta batasun honek Euskadin dinamika berezia izan dezake.

Batetik ELA daukagu, 33,4%-arekin, gehiengoaren ordezkari. Bestetik, LAB, bere 12,7%-arekin. LAB gero eta itzal haundiagoa hartzen ari da, bai ordezkotasunean bai interbentzioetan, erreferentzi poloa den organizazio bezala, eta gerora bere baitan bil dezakeelako gaurko ezker sindikala -honek badiu bestelako errepresentazio espazio batzuk ere. Guzti honi CCOO-UGT pareari, egitura dinamoko eta aktibotan eratua ez dagoelako, nabari zaion ahultasuna gehitzen badiogu, esan daiteke Estatuan parekorik ez duen mapa sindikala duela Euskadik.

Ezin da zalantzan jarri errepresentazioan ELA dela lehenbizikoa. Dena den, ikusi behar da datu anitz faltseatu dela azken hauteskundeetan, bai CCOO-UGT eta bai, batipat, ELA delegatuak "ehizatzen" ibili baitira, itxuragabe gainera, eta enpresarien ageriko laguntzarekin frankotan. ELAren lehentasun hau, baina, ez da hainbestekoa gizartean organizazio bezala proiektatzen denean erakusten duen ahultasunagatik. "Politikarien artean" ikusten dute ELA zerbitzu sindikatua dela, aparato on batekin, afiliatu jenderik gehiena "abertzalea" duela, nahiz eta lehengoaz batera sektore "zuriko" jende amorratu mordoa izan, bere interbentzioak pragmatismo desideologizatu batek monopolizatzen dituen... eta bere jarraitzaileek gizartea deitzeko eta mugitzeko gaitasun haundirik ez izan. Honek esan nahi du nagusitasun kuantitatibo horren atzean, gizarteko agente aktibo gisa izan dezakeen jokoan BENE-

TAKO AHULTASUNA nabari zaiola, eta honegatik EZ DEZAKEELA MINIK EMAN iduri du. Guztiz ere okerrera, ordea, praktikan alferrikako gertatzen dela, euskal langile klaseak mejora sozial-ekonomiko bikain batzuk lortzeko tresna izan beharrean.

Badirudi arazo hau soma daitekeela ELAren proiektzioan, nola interbentzio mailan, hala bere egitura organizatiboko ezaugarrietan batez ere, eginak izan behar dituen "aldaketa" batzuetan. Euskal politikaren eskenategian joera batekoengan azkenaldian ikusten ahal diren transformazioak eta finkamenduak ere, aipaturiko "aldaketa" horien faktore ausnargarri dira.

CCOOren eboluzioaz azpimarratu behar dugu gainbehera doala nola errepresentazio kontuetan hala organizazio indar gisa ere. Bere baitan "burrukan" diharduten jokamolde desberdinak (carrillistak, Euskadiko Ezkerra, Izquierda Unida, LKI...) sindikatua poliki-poliki indargabetzen ari dira eta identitatezko krisian sartzen organizazio sindikal bezala. Hegomendebaleko probintzietan, gogoan izan behar dugu carrillistak PSOEratu direla, EE hautsi dela, IU ez dela hemen, eta guzti honetaz aparte bere organizazioa "autonomoki" eraikitzeko nabari zaion ezgaitasuna. Beraz, baldintza gero eta hobeak CCOO-UGT fusioa azkartzeko eta azeleratzeko. Edo, gerta daiteke UGT indartuko dela eta erreferente sindikal "bakarra" izanen PSOEn gerizpean politikoki eta sindikalki finkaturiko sektore sozial batentzat. Gertakarien eboluzio hipotetiko hau ezin dugu Nafarroan emanen denik suposatu, CCOOk organizazio errotuagoa duelako eta politikoki hornituagoa ere bertako IUri esker.

Esandakoaz gainera, aipatu behar du CCOOk nolako indefinizioak azaltzen dituen Lan Harremanetako Esparru Autonomoari buruzko errebin-dikazioetan, eta zenbateraino jarraitzen zaien alor

honetan UGT-PGOEK dituzten jokamoldeei. Honenbestez, bada, indar sindikal hau benetan motza da eta ez du gaitasunik Hego Euskadin nortasun berezirik izateko ez analisiaren mailan ez interbentzio sozial eta ekonomikoen mailan.

UGTez erran dezagun lehenik oso bestelako desarroiloa izan duela hegomendebaldeko probintzietan eta Nafarroan, bateko eta besteko errealtate politiko desberdinen arioren. Nafarroan, PSOEn gestio-lanari esker eta, aitzineko erregimeneko sindikalgintzaren estilorik ohizkoenean, jaso dituen laguntza "instituzionalei" esker (hegomendebalean ELAk jaso dituen bezalaxe), errepresentazio neurrian haziera nabaria lortu du UGTk (8,5%), hegomendebalean estankamendua eta behera egitea duelarik nabarmenena. Interbentzio sindikalari dagokionez, bere jendearen aldetik eta ekinbidearen aldetik, erabateko "zuria" da, eta gaurkoz biziki "eroso" sentitzen da ELMko sektorerik desideologizatuenean eta ahulenen tresna sindikal izanez. Geroari begira, berriz, egungo konzentrazio politikoa-gatik eta CCOOen arazoengatik, iduri du UGT izanen dela ELMko "sindikatu espainola", gisa horretako gizarte-sailetan sartzen eta sustraitzen saiatuko delarik.

Eta panorama sindikal honetarik LAB kanpoan uzten badugu -gero dagokion analisia, propioa eta xehe-tua egiteko-, ezker sindikaleko beste jokamolde batzuk gelditzen zaizkigu aztertzeke, hauek ELMko organizazio desberdinetan taldekatuak daudelarik, hala nola: CUIS, CNT, CCOOko Ezker Sindikala, STEE... hauen itzal errepresentatiboa beheraka doa, nahiz eta inzidentzia sindikaleko puntu fuertek dituzten. Esan daiteke errore benetan handia dela interbentzio sindikala momentuan sorturiko "puntu beroetara" murriztea, sindikatu hauek egiten duten bezala (halako filosofia numantinoz edo ELMraturiko "gatazkaren autonomiaren" teoriak proiektatzen dituzte), noiz eta klaseen arteko konfrontazioan atzerakada ideologikoan aurkitzen garenean. LABen jarrrerak, ELMk egun bizi duen giro honetan, euskal ezker sindikalaren biltzaile organizatibo gisa agertzean, eta aipaturiko proiektuari aterik ireki gabe eta hurbildu gabe ihardutean, sindikatu hauek EGO-ZENTRISMOA LANTZEN aritu dira, eta LABekin duten DESBERDINTASUNA LANTZEN, nahiz eta agerikoa izan bolada honetan beharrezkoa dela ELMko ezker indar guzien aldetik zertu daitekeen interbentzio sindikal, sozial-ekonomikoa eta ideologikoa sendotzea.

## 4.- LAB -EBOLUZIOAREN BALANTZEA

Azken urte hauetan LABek izan duen eboluzioak agerian utzi du helburu bikoitza lortu duela; batetik, afiliatu-kopuru aldetik izan duen gorakada eta bestetik, kontestu politiko-ekonomikoak eraginik, Biltzarrean garatuko den eskuhartze sindikal eta sozio-ekonomikoari buruzko koordinatuei egokitzea. Gaur egun antolamendu eta afiliazio aldetiko hedapen prozesu osoa aintzina eramaten ari den erakundea da, ELMaren barnean oinarri izanik, bertan duen presentzia eta eragina sendotu ahal izateko. Batez ere, perspektiba estrategikorik duen klaseko sindikatu abertzalea osatzen ari garen ilusioz. Erakundeak duen historia txiki bezain oparoan "froga" zenbait gainditu ditu. Beraz, gure geroari oinarri sendoak ditugula aurre egingen diogu.

### 4.1.- KOPURU ALDETIK.

Sindikatoaren garapen kuantitatiboa bi ikuspuntutatik baloratu behar genuke, ez bakarrik hauteskunde sindikalek emandako ordezkari kopuruarenetik, baita gure antolamendu egiturak haunditu eta funtzionamenduan jartzetik ere. Halaber, azpiegitura teknikoak (lokalak, propaganda tresnak...) dituen behar guztiak garatzen. Sindikatoak izan duen eskuhartzearen ikuspegitik beharrezkoak gertatzen dira biak. Begi bistakoa Biltzarren balantze xehea egin behar duela eta neurri zuzentzaile zein hobetzaileak mahai gainean paratu, garapen orokor horren barnean desoreka zenbait egiteaz gain, egun ere "aparato"aren barrenean desegokiak diren lan tresna batzuk baitaude. Hala eta guziz ere, erakundearen eboluzioa baldintzatu duten faktoreak ikusirik (batez ere Bizkaian "krisialdi" batzuren barne izan baikara) OSOTARA BALANTZEA POSITIBOA DA.

Erakundeak kopuru aldetik izan duen eboluzioa aipatzean, balantzean eta egokitzapen bide posiblean sakontzeko moduari buuzko gogoetarik egitea derrigorrezkoa egiten da: behar genuena hazi al gara? kontestu politikoa kontutan hartuz gehiago hazterik al zegoen?

Gogoeta pausatuxeagoa egingen bagenu, egun Sindikatoa alor orotan dagoena baino "gorago" egoten ahal zela erranen genuke, egitua maila egokiagoe-kin eta eduki ditugun baliabideak banaketa hobea- go batez, LABen ordezkari %15 baino haundia- go izanen zen. Bestalde, erran behar litzateke LA- Bek ELMaren barnean aintzina egiteko ahalbideak "argiak" direla eta hazkuntza parametro desberdi- netan kokatzen direla. Batetik, oraindik "geurega- natu" ez ditugun langile sail haundiak, politikoki ezker abertzalekoak, daudelako eta horren ge- hiengoan (ELAko sektore batzuk ez beste) sindikal- gintzatik at bait dago. Bestetik, klaseko sindikato abertzalea delako, eskuhartze sindikal eta sozioe- konomikoaren koherentziaren aldetik, nahitaez EMANean lerrokatunik ez dauden langile klaseko sektoreetan aintzina egiteko ahalmena dauka LABek.

Ildo honi jarraikiz garbi dago LAB koadro eta masa- tako erakunde izanik, linealtasun batzuk ezabatu behar dituela eta "masak" izenak duen izaerari neurri egokia eman, erakundeak duen hedapenean. Hori bai, gure eskuhartzearen nortasunak ez du arlo eta ezaugarri guzietan inolako kalterik jasan behar. Kopuruz hedatzeak ez du itsutasun izan behar, ezta LABen ezaugarriak baldintzatu dituen helburu bihurtu ere; aitzitik, sindikatoak era berean langile kopururik haundiena "koadrotan sartu", "antolatu" eta bere baitan kokatzeko ahalegina egin behar du, ZERA HONEN BALIOA GUTIETSI GABE edo afiliazio eta ordezkari "perfil" itxi batzutar mugatu gabe.



# 5.- LAB-EN INTERBENTZIO SINDIKALAREN SIGNIFIKAZIO GLOBALARI HURBILDU NAHIRIK

LAB-en interbentzio bidearen karakterizazio eta sakonketa beste ponentzia berezi batean eginen bada ere, definizioa emanen dioten puntu "zehatzetan" lur hartuz, ponentzia honen atal honetan zenbait adierazgarri generiko azalduko ditugu, gai honi perspektiba globala eman diezaioketen ardatz zentral batzuetan oinarriturik.

## 5.1.- INTERBENTZIO SOZIAL- EKONOMIKOA ETA IHARDUERA SINDIKALA.

Behin eta berriro esana dugu eta argi geratu da zein negatiboa den sindikatua "eraikitzea" lantegi bakoitzeko interbentziora mugaturik besterik gabe. Fabrika edo lantegi bakoitzeko interbentzio "mikro" hau BEREGANATU ETA DESARROILATU BEHAR DUTE LABeko militanteek ahal duten ahalegin eta bitartekorik gehienez, zuzen eraman dezaten eta hauxe delako GUK SINDIKATU GISA DUGUN IHARDUERAREN LEGITIMAZIOAREN OINARRIA. baldin eta ez bagenu lortuko langileen aurrean beren lantegiko arazoetan zuzenki, tinko eta kontsekuenteki, dihardugula erakustea, gero, langile horiek inizaera sozial-ekonomikoa edota politikoa duten elementuak sartu ahal izateko konektatu nahi dugunean, "bizkarra emanen digute" eta ez digute entzun ere egin nahiko.

Azken urteotan sindikatua anitz aurreratu da interbentzio "mikro" honetan eta, guk uste, LABeko militanteen, delegatuen eta basekoek duten irudi hori

AIPATUBIDEANS AKONTZEN SEGITU BEHAR DELA, errebindikaziorik zuzenen eta hurbilenen defentsa lanean INSERTATUAK gaudela demostratuz. Hauxe da, beraz, LAB-EN INTERBENTZIOAN GARANTIZATU ETA ZORROZTU BEHARREKO LEHEN GAIA.

Eta interbentzio OINARRIKO honekin batera, sindikatuak, bere militanteek, bereganatu behar dute beste zenbait erantzukizun ere ELMri doakionez. Azken boladan, frankotan oharatu gara -erantzukizun desberdinak izategatik- gure interbentzio ez dela alor sozial-ekonomiko eta politikoko ideologi eta masa burrukako beste iharduera batzuekin behar adina osaturik eta garaturik agertzen. Eta halakorik gertatzen denean, "kanpaina" kutsu ikaragarria izaten du, hori militantearen eguneroko lana izan beharrean. Ildo honetan, jakina, sindikatuak ahalegin du behar du bere sare estruktural guzian, bere interbentzio dinamika guzian, militanteengan eragiten, pixkana baina sendo, borroka ideologikozko lana egiteko ELMren baitan. Orain arte LABeko militanteen lana (egitekoen lehentasunari dagokionez desoreka anitz erakutsiz) edo lantegiko problemetan murgiltzea izan da, edo ENAMeko "gaiak" zuzenean sartzea, ez duelarik bitartean lan ideologikorik egin, behar den agitazioa eta mugimendua bultzatuz errealitate sozial-ekonomikoaren inguruan, Gobernuaren erabakien aurrean, etab. Eta halakorik egin denean, nabari izan da goragoko estrukturatik sortutako "olatua" izan dela, ez berak NORMALKI EGIN BEHARREKO LANA.

Honetan, bada, funtsezko ikusten dugu, eta halakorik atera beharko luke Kongresu honetatik, LABeko militantearen PROFILAK (egituran diren 3.000 delegatu eta militante horiek) KONBINATU BEHAR DUE-

LA, "BIZI" EGIN BEHAR DUELA BERE MILITANTE SINDIKAL EGINKIZUNA bere lantegiko langileen errebindikazioak defendatuz eta ELMren baitan errealtate sozial-ekonomiko eta politikoaren inguruan erantzuteko eta borrokan egiteko gaitasuna desarroilatuz. Eta egiteko honetan LABeko militanteak "hautsi" behar du bere fabrikako "barruti hori" eta sindikatuko egitura guzietan kolaboratu langile klase osora iristeko (langile aktibo, langabe, gazte langabe, eta abarretara) gure jarrera, alternatiba eta buruka nahiz mobilizaziorako dinamikarekin. Hegoaldeak pairatzen duen egoera sozial-ekonomiko konplexu bezain delikatuak eta Gobernu espainolek datozkigula soma ditzakegun neurri atzerakoiak, gogoeta hau LABeko egitura guzietan egiaz eta benetan egin eraztera derriortzen gaituzte.

LABeko militantearen laneko profilararen ezaugarri determinante honek, gainerako gure karakterizazio osoarekin batean, zuzenki isladatu behar du gure organizazioaren egituraren eta horretarako definitu beharreko bitartekoetan. Behar dugu, beraz, ELM-EN IZAN INTERBENTZIO INTEGRAL BAT, kontsolidatu ahal izateko honela KLASE SINDIKATU ABERTZALE haundi bat ETA GIZARTEAREN TRANSFORMAZIOAN AURRERA EGITEKO.

## **5.2.- LANEKO AZPIEGITURA NORMATIBOA ETA LAB-EN INTERBENTZIOA.**

Lan kontuetako estatuko lege-bilbadura Hegoaldean inplantatzean, efektu inportanteak sorrerazi ditu ELMren borroka eta erantzun mekaniketan. Langileen Estatutuarekin (gogoan dugu honi erantzunez Euskadin burutu zen greba) eta geroko LOLS-ekin, benetako sabotaiak praktikak eta dinamikak posibilitatu dira langileen parte hartzearen kontra eta klase sindikalgintza ahultzeko. Egun indarrean den "eredua", duen izaera "estatalagatik" eta duen edukin zehatzagatik, zalantzan jartzea eta kuestionatzea, LABek bere eguneroko borrokan definitu eta egin beharrekoa IZAN BEHAR DU.

Beraz, LABek argi dauka ezin izanen dugula INOIZ LAN HARREMANETAKO ESPARRU AUTONOMOAZ

hitzezin eta beraren indarra ezagutu euskal erakundeek, logikoa den mugimendu langile eta sindikaren parte hartzearekin batean, lan harremanetako azpiegitura edo arautegi legal berria tajutu arte. Edo gutienez, orain indarrean dagoena, hala deritzoten puntuetan, eraberritzeko ahalmenik izan dezaten arte.

Honi buruz aipatu behar ditugu hemen interbentzio ardatz batzuk:

- LABek langileen BATZARRA eta Enpresa Komitea potentziatuko ditu, debate-erabaki eta errepresentaziorako organo unitario gisa, langileen partizipazioa eta Mugimendu sindikalean duen interbentzioaren gardentasunik garbiena garantizatuz.
- LABeko Sekzio Sindikala da Sindikatuaren lehenbiziko esparru organizatiboa, baina ez die, horratio, bere eginkizunik ukatuko langileen errepresentazio eta erabakietako organoei. Eta ez du onartzen (behar bezala azterturiko okasi bakan batzuetan salbu) patronalak eta sindikalgintza erreformistak sendotu nahi duten jokabidea.
- LABek exigitu behar du langileen ordezkariak enpresaren eboluzioa aztergai duten organoetan presente egotea (Administrazio Kontseiluetan egon ahalizatea, aldiroko bilera Administrazio Kontseilu osoarekin...), nahiz eta oraindik ez daukagun diseinaturik, halako maila definitu batean, enpresetako organigraman nola proiektatu behar duen sindikalgintzak (babes legala eman beharra ikusten dugu, beraz kapitulu honen sakonera itzuli behar).
- Sindikatuak BERRIRO AKTIBATU behar du, jatorrizko zentzu benetazkoan, Kooperatibetako egituretan parte hartzeko organigrama (horretarako egoki litzatekeen interbentzio mailan), gaur egun jasaten ari den degenerazioari edota deskonpoizioari erantzuteko, enpresa pribatuan bertan baino efektu negatiboagoak nabari baitzaizkio.
- LABek interbentzio modu batzuk ezarri behar ditu INEMen, Aseguro Sozialean, etab. abiapuntua izanik sindikalgintzak alor horie-

tan egiazko eta benetako botere-kota batzuk BEREKANATU behar dituela. Eta bereziki azpimarratu behar dugu INEMekoa, zeren guk uste SINDIKATUAK BAIT DIRA LANEKO KONTRATAZIOA KONTROLATU BEHARKO LUKETENAK, EBITATZEKO HONELA ASKOTAN GERATZENDEN DINAMIKA GAIZTOA: NEPOTISMOAK, IRUZURRAK, ETA ENPRESARIEK EGUNGO LEGEDIAZ BALIATUZ EGITEN DITUZTEN GUZIAK. Esperientzia hauek eman dira beste eremu batzuetan ere, eta onargarria litzateke guztiz sindikal-gintzaren iharduera honek ondorio inportanteak ekarriko lituzkeelako. Agerikoa denez, planteamendu honek ez du zerikusi haundirik "derriorreansindikalizatzearekin", nahiz hau pentsatu beste aukera sindikal batzuek.

**5.3.-  
BORROKA  
EKOLOGIKOA -  
LANEKO OSASUNA  
ETA GIZARTEAREN  
GARAPENA.**

LABek jakin badakienez, laneko osasun eta higiene baldintzak, kutsadura akustiko ohargarri ala oharkaitza, airean harroturik dabilzan partikulak eta hautsak, makinei darizkien gasak, teknologia berriek igorritako izpi-sortak, aireztapena eta oreaketa... eta honekin batean, orobat, hazitzenago den kutsadura atmosferikoa, nola ibaiak hala itsasoak ximaurzulo gisa erabiltzea, enpresa eta desarroilo-dinamikaren aldetik naturan eragiten dituzten kalteak eraginez... guzti hauek itxuratzen dute gaur egun langileak eta sindikalgintzak, laneko eta bizitzako baldintzak defendatzeko, interbenitu behar duten eremua.

Espiral kaltegarri eta azken urteotan kontrolik gabe jasaten dugun horren motibuak eta arrazoiak hauek dirateke: 1) Ugazaberiak eta burgeseriak, patronalak, ahal den etekinik haundiena atera nahi diotela produkzio-sistemari. 2) Gai honi dagokion Estatuko legeria. 3) Sindikal indar tradizional-erreformisten ekintza pasiboa. Gure lurraldera begiratu, faktore hauek egiazkoak dira benetan. Euskal burgeseriar bost axola izan zaio beti ekosistemaren oreka nahiz zainketa, edo langileen osasuna eta bizimodua. Eta Estatuak, bere aldetik, babestu egin du enpresarien etekin-grina hori. Baimendu eta justifikatu egin du edozein astakeria. Sindikatu erreformistak, berriz, Ugazaberiak azaltzen duen eskema berean erori dira, inportantzia kenduz ondorio ekologikoei, irabazirik haundiena kosturik txikienarekin lortzeko mekanikak, ugazabeenak, dakartzan ondorioei.

LAB bezala esan behar dugu gai honetan erakutsi dugun sentsibilitatea edota interbentzioa aski deskoordinatua izan dela eta ikuspegi orokorrik gabekoa. Eta garrantzi haundirik eman gabe berez hala lantegietako barne arazoei, nola hauek inguru herri eta auzoekin dituzten harremanei, edota lantegietako desarroilo-eredua integrala, kualitatiboa eta lakra kapitalistak egunez egun gaintitzenago dituenetako den begiratu gabe. Azken puntu hauetan bide zuzenetik jo behar dugu, ez bakarrik berehalako batean izanen genituzkeen ondorioengatik, baizik eta gure eraikuntza nazionaleko ereduak horixe eskatzen digulako, gai honetan dugun praktika sindikala sendotuko duen autokritika. Izan ere, agerikoa da ongi bizi beharrean nekez bizi garela hain tratu txarra sufritu behar duen nazio honetan, leporaino kutsatua bait dago, zenbait eritasun sozial eta ekologikotan Europako estadistiketako lehenbiziko postuetan gaudelarik gure kalterako.

LABek, beraz, auzi honetan eta lantegi guzietan erreferentzi puntuzatean lortu behar du. Eta militanteok saiatu behar dugu, gainera, gai hauetan beharrezko diren ezagutza tekniko-juridiko guziak ikasten.

## **1.- EGOERA EKONOMIKOA**

1.1.- NAZIOARTEKOA

1.2.- ESTATU ESPAINIARRA

1.3.- HEGO EUSKAL HERRIA

1.3.1.- Ezaugarri orokorrak

1.3.2.- Baskongadetako Autonomi Elkartea

1.3.3.- Nafarroa

1.4.- EEE eta AKTA BAKARRA

## **2.- LHMA AURRERAKOI ETA AURRERATUAREN LORPENA, URRATS HANDIA GIZARTE ERALDAKETAAREN BIDEAN**

2.1.- ESTATUTAKO LAN HARREMANETAKO EGUNGO EREDU ZENTRALISTA ETA ERREALITATE NAZIONAL BEREIZTUAK UKATZEN DITUENA.

2.2.- LHMAREN DEFINIZIOA, EUSKAL NAZIO SUBIRANOTASUNAREN LORPENETIK SORTUA, ETA IHARDUERAREN FUNTZIOA ETA ESKUHARTZE SINDIKALERAKO TRESNEI BURUZKO KONTSIDERAK.

2.3.- LHMA AURRERAKOI ETA AURRERATURAKO GURE PROPOSAMENA OSATZEN DUTEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK.

2.4.- LHMA LORTZEKO BIDEAN LABen LANAREN NORABIDEA

## **3.- FASE HONETARAKO EKINTZA ERREIBINDIKATIBO ETA SINDIKALA**

3.1.- HELBURU OROKORRAK

3.2.- ARLO SOZIO-POLITIKOAN BI ERREALITATERI ERANTZUN BEHARRA: ENPLEGUAREN BEHINBEHINEKOTZEA ETA EUSKAL INDUSTRI EHUNAREN OINARRIAREN ERAISPEN ARRISKUA.

3.3.- NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA ETA PRECO (Gatazken Konponbiderako Prozedura)

3.3.1.- NK

3.3.1.1.- NKren errealitatea

3.3.1.2.- NKko gure dinamikaren helburuak

3.3.2.- NK eta PRECO

3.4.- ENPRESA ETA SEKTOREKO ESKUHARTZE SINDIKALA / GATAZKA EKONOMIKOAK

3.5.- IHARDUERA SINDIKALA KOLEKTIBO ESPEZIFIKOENGANA HEDATZEA: EMAKUME ETA GAZTEAK.

3.6.- IHARDUERA SINDIKALA GIZARTE-EKONOMIARA HEDATZEA.

3.7.- IHARDUERA SINDIKALA ETA EKOLOGIA

3.8.- IHARDUERA SINDIKAL INSTITUZIONALA, GURE EKINTZA SINDIKAL ETA ERREIBINDIKATIBOAREN OSAGARRI ETA LAGUNGARRIA.

3.9.- IHARDUERA SINDIKALA EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIAL OROKORRERA HEDATZEA.

3.10.- EKINTZA ERREIBINDIKATIBOAREN ANTOLAKETA-GARAPEN ETA NEURRIAK

# 1.- EGUNGO EGOERA EKONOMIKOAZ

## 1.1.- NAZIOARTEKOA

### 1.1.1.-

#### HERRI DESARROILATUAK

Izan dira munduan halako gertaera batzuk, batetik gaur egun bizi dugun nazioarteko egoera hau ekarri digutenak eta, bestetik, gizateriaren geroa bera moldatzen ari direnak, datozen hogeitakoa behintzat, bai. Besteak beste, nahitaez aipatu behariko ditugu hemen ondoko hauek: «benetako sozialismoa(?)» deituaren kiebrea eta porrota; Perestroikak daraman martxa; nola sakabanatu den Varsoviako Paktua; Persiar Golkoko Gerraren ondorioz sortu eta «ordena berria» deitzen dugun hori; emantzipazio nazionaleko mugimenduen berpiztea; alemaniarrak berriro batu egin direla, etab. Gertaera hauek guziek batera, Bigarren Mundu Gerratik hona ezagutu den aldaketa politikorik inportanteena errepresentatzen dute dudarikan gabe.

Munduaren gaurko egoerak duen ezaugarri berezietako bat hau da: ekonomia, globalki begiraturik, desazelerazio prozesu batean sarturik dagoela. Ekonomiaren mundu mailako haziera-tasa 3%-koa baldin bazen lehen, 1990ean 2%-ra jaitsi zen eta gainbehera honetan segitzen du oraino ere. Badira, hala ere, joera honetatik ateratzen diren salbuespen aipagarriak: Alemania, Japonia, Austria eta Turkia, lehen biak batez ere.

Munduko ekonomiaren «joera natural» hau mantsotzen eta leuntzen du, herri desarroilatuek lehen materien gain ezarri duten galga edo kontentzioa, artifiziala bada ere. Joera hau, beraz, depresioa dela defini dezakegu, nahiz eta Persiar Golkoko gatazkaren akaberak, eragin zuen «euforia» hartatik, orduan zuzperraldi baten itxaropenak ekarri.

Herri desarroilatuetako ekonomiaren «egonkortasuna» dela eta, jakin beharreko datu inportante bat

PEHO-ri (a) dagokiona da (Petrolio Esportatzaile Herrien Organizazioa). Hauek, petrolioaren erauzketa politikari dagokionez, petrolio upelaren prezioa estabilizatuko omen dute, beti ere, herri industrializatuen garapena «errazteko» mailan. Jakina, hauxe izan zen Golkoko Gerra ekarri zuen egiazko motibuetako bat, eta ez printzipio demokratikoen defentsa, egun haietan esan bezala. Arrazoi diferente samarrak, beraz.

Azpirarratu behar da hemen iparramerikar ekonomiak jasaten duen ralentizazioa eta mantsotzea, traza atzerakor edo rezesiboak ere nabarmen direla. Industri mailako desazelerazioa, dolarraren ahuldea, haziera-tasa eskasak: hauek dira ezaugarri bagusiak. Haziera-tasa 1989an 2,5%-ekoa baldin bazen, 1990ean 0,9%-raino erori zen.

Alemaniar ekonomiak osasun sendoa duela esan daiteke, baina kontuz hori ere. Batasunak espektatiba eta itxaropen baikorrak ekarri ditu, mendebaldean batez ere. 1990eko haziera-tasa 4,9%-koa izan zen, baina honek tentsio inflazionista jarraiak eragiten ditu.

Alemaniko ekialdean, aldiz, espektatibak ezin baikorrak izan. Egoera eskasa bizi dute benetan hango bost eskualdeetan. Gaur bat bihar bestea, etengabe ari dira enpresak ixten; langabezi-tasa 9%-koa dute (Lehen Errepublikakoan 6%-koa zuten), eta langabezia bikoiztuko zaiela ikusten dute oso urte gutxitan. Beraz, lehengo AEDn latz ordaindu behar dute integratu izana.

Japoniako ekonomia, bestalde, bolada onean dabilela esan daiteke. Daukaten haziera-tasa (6,1%-ekoa 1990ean) munduko batezbestekoa baino altuagoa da; industri produkzioko indizeak etengabe ari dira goraka eta langabezi-tasa, berriz, beheraka. Agerikoa denez, guzti honen ondorioz yen indartsua daukate.

1991 urtea hasi arte, gogorrak ziren Erresuma Batuan errezesio eta inflazio sintomak. Atonia eta ahulezia ziren, berriz, ezaugarriak nagusienak Italian, Frantzia eta Kanadan. Hauetako langabezi-tasa, espero denez, 1990eko 6,1%-etik 6,8%-ra pasako omen da 1991ean.

Lerro hauek idaztean, esan dezagun bada, hobetu egin dira herri industrializatu guzietako espektatibak eta itxaropenak, hasiera-tasak igoko direla espero da, nahiz eta Europan, datorren 1992rako, langabezi-tasa 9%-ra igoko dela uste izan. Iduri du, hala esan liteke, guzti hau ekarri duena Persiar Golko Gerraren akabera «zoriontsuaren» eta 1993an martxan jarriko den E.A.B.-ek (Europar Akta Bakarra) (b) sorturiko espektatiben konbinazioa izan dela. Egia, ordea, besterik da: ez dago benetako arrazoirik joera desazeleratzailea gainditzeko itxaropenik izateko.

#### 1.1.2.-

#### **EKIALDEKO HERRIAK**

Europa Ekialdeko herrien egoera nabarmen okertu da akenaldi honetan. Beren egoera hori determinatzen dutenak, batez ere, lau faktore hauek dira: inestabilitate sozial eta politikoa, harrreman komertzialen erreforma, SESB ohiari dagokionean batipat, bertako sistema ekonomikoak merkatu-ekonomikarako sufritzen dituen nahasketak, eta prolioaren prezioaren garestitzea.

Halako ziztuan gertatu bait dira aldaketa politikoak, ez dute egitura politiko iraunkorrak sendotzeko aukerarik izan. Honez gainera, kontutan izan behar nolako tentsioak sortu dituen leku horietako herri zapalduen emantzipatu nahiak, Baltiko aldean batez ere. Herri hauetako egoera ekonomiko eskaseko (edo negatiboko) testuinguruan, finantzazio problema ikaragarriak ditustela, infrastrukturaren aldetik sekulako eskasia dute, baliabideak erabakitzean efikaziarik eza da nagusi, produkzio ekipoa zaharritua dago oso, etab. Merkatu-ekonomiarako iraganbidea, bada, gehienetan mingarri gertatzen ari zaie. Produkto nazional gordina esaterako, Ekialdeko herri guzietan erori da 1.990ean, nahiz eta ezberdin izan leku guzietan. Errumanian, 1.990ean, 15% erori zen PNG-a, Polonian 12%, Bulgarian 10%, Hungarian 5%, Txekoslovakian eta SESB ohian 3%.

Dauden bezala daudela, nekez egin daiteke gero-

rako prebisorik, are gutiago dagoen informazio eskasia dela eta. Transformazio ekonomiko hauek sekulako baliabide finantzarioak eskatzen dituzte eta hauek, berriz, estabilitate politikoa eskatzen dute, batez ere. Geroari buruz esan daiteke, ziur samar gainera, SESB ohia sistema kapitalistan integratuko dela argi eta garbi.

#### 1.1.3.-

#### **GARABIDEAN DIREN HERRIAK**

Golkoko Gerraren akaberaketorkizun beltza ekarri die garabidean diren herriei. Akabera honek suposatzen du mundu garatu eta desarroilatua indartu egin dituela berriro esplotazio moduak, hauen helburua herri garatuetako haziera eta ongizate mailak garantizatzea delarik.

Herri hauetako egoera ekonomikoak okerrera egin zuen, gogor gainera, 1990 urtean. Haziera-tasak beherakada latza jasan zuen (0,5% 1990ean, baina 4,2% 1988an eta 3% 1989an); per-capita errentaren aldaketa-tasa ere negatiboa da.

Herri hauek aurrera egin ezinik egoteko eta hala segitzeko arrazoirik nagusia herri garatuen aldetik sufritzen duten esplotazioa dute. 1990ean sufritu zuten, ordea, derrepenteko frenaldia, haziera-tasa urte honetan lehengo 3,1%-tik 0,6%-ra jaitsi bait zen, eta honen motibua petrolioaren garestitzea izan zen. Petrolioak sekulako inportantzia dauka herri hauetariko anitzetan, inportatu beharreko energia honen hagitz menpeko bait dira.

Zaila da egoera orokor hau banan-banatzea, desberdintasun handiak direlako batzuetatik besteetara. Esate baterako, Asiako haziera-tasa (5,3%) munduko batezbestekoa baino franko haundiagoa izan zen 1990ean; baina haziera-tasa negatiboak izan zituzten Afrikan (ia 2%), Hegoamerikan (-1%), Ekialde Erdian (-1,5%) eta Europan garabidean direnek (-2,9%).

Datu global hauen azpian ere badira desberdintasunak. Haziera oso potentea da Asiako Hegoekialdeko herrietan (Tailandia, Hego Korea, Taiwan), nahiz eta egun hauetan geldi samar dauden herri industrializatuetako desazelerazioagatik. Ekialde Erdian, Kuwait, Irak eta Jordaniako produkzioa uzkuertzera behartua gertatu da eta honek ondoren negatiboak ekarriko ditu zona horretarako. He-

goamerikan ere nabarmenak dira diferentziak. Petrolioaren esportatzen duten hegoamerikar herriek 2,5% inguruko haziera-tasa lortu dute, baina esportatzen ez dutenek 3% inguruko beherakada.

Kontu korrontearen mailako balantzaren defizitak, jakina, areagotze nabaria bizitu du petrolioaren inportatzen duten herrietan, baina petrolioaren prezioa igo delako bakarrik ez. Kontuan izan behar da, baita ere, esportatzen dituzten lehengaien prezioak asko erori direla, dolarra depreziatu dela, munduak nolako estankamendua jasaten duen gaur, etab.

Bi arazo itogarri inflazioa eta kanpozorria dira, Hegoamerikan batez ere. Hango prezioen hazieraren batezbesteko tasa 1.500% ingurukoa da. Banku Mundialak emandako datuetan agerienez, garpenean diren herrietako kanpozorria 1,34 bilioi dolar ingurura ailegatu zen 1990ean, urtero 6% igotzen delarik (80.000 milioi dolar). Haziera honen erdia baino gehiago zorrak sortutako interesengatik da.

Faktore guzti hauek, agerikoa denez, ikaragarritako eragina dute herri hauen haziera ahalmenean eta bertako bizi-mailan. Duten egoera, gainera, zirkulu bizioso bihurtu zaie eta ezin dira zirkulu horretatik irten, herri desarroilatuek, iparramerikarren kontrol zorrotzaren azpian, lehengaietan ezartzen dieten prezio-politika gatik.

Eta 1991n berriro, «zazpieko» ez diote kasurik egin nahi izan garabideko herri hauen dei larriari, hain itogarria gertatzen ari zaien kanpozorriaren arazoari irtenbide bat emateko. Auzi hau dagoeneko espoleta berandutuko leherkari bihurtu da eta geroan kolokan jar lezake ahaltsuen klub'ak mundu guzian astoindarrez ezarri duen oreka zalantzatsua.

#### 1.1.4.-

#### MUNDUKO ORDENA BERRIA

Persiar Golkoko Gatazkaren desarroiloak eta akaberak aukerarik ematen digu hain izen ponposoko Munduko Ordena Berri honen ezaugarriak igerri ahal izateko. Honek, damurik, ez du gauza berri haundirik, mantentzen bait dira esplotazioaren oinarritzko parametroak. Ageriko da, beraz, ordena berriaren inestabilitatea hainbat eta hainbat arazorengatik: kurdoak, palestindarrak, nazionalitate emergenteak, garabideko herrien esplotazioa, etab.

Guzti hauen borroka geldi erazteko arront aparatuko politiko-militar indartsua behar da, erabat errepre-siboa, eta honek gero eta problema haundiagoak izanen ditu itxurazko oreka bat mantentzeko, baita demokrazia formaleko koordenaden barruan ere.

Aipatzekoa da nola ekonomiak mundu mailako akumulazioa izateko joera duen bere promotore nagusien eskutik, enpresa multinazionalak eta nazioarteko bankuak. Samir Amin bat etorritz, prozesu honek mundu-mailako akumulazioa, pilaketa, dakarrela ikusten dugu. Are gehiago, epe luze batean, gaurko sistemak munduko estatu bakarra sortzera bideraturik daagoela ematen du. Hau ez da lehen aipaturiko mundumailaratzearen ondorioa baizik, honetarako gainegitura politikoak, legislatiboak eta militarrek egokitzen joan behar badu ere. Guzti honek, argi dago, kontraesan -foko indartsu bat sortuko dela esan nahi du, batetik mundumailaratze-zeko prozesua eta bestetik egundo estatu-nazioak direla, eta bigarren hauek izateko arrazioa bera galtzen joanen direla. Sistema, agian, egoera berri batera eboluzionatzen ari da, eta geroan indar nahiz zentzu gehiago izanen dute herriek gaurko estautek baino, gaur diren bezala behintzat.

Dirudenez, nabaria da oraingoz behinpein sistema kapitalista mundo maila sendotuko dela, eta sistema bakar gisa, gainera. Gizarte sozialista deituak sistema kapitalistan integratuko dira, nahiz desberdin egin. Batetik, AED-Alemania Handian bateraturik-, Txekoslovakia, Hungaria eta Polonia, seguraski, Aberatsen Klubera pasako dira, Sistemaren Gune deituko degunera. Honetarako bitarteko urrats bat emanen dute, Europako Komunitate Ekonomikoan osotara integratuz, aurrez ekonomi egokitzapen eta birregituratze prozesu kostoso eta mingarriak bizi beharko badituzte ere. Bestetik, Jugoslavia, Albania, Errumania eta Bulgaria ditugu. Herri hauek teknika-ren aldetik atzeratuagoak dira, baliabide gutiago dituzte, eta Sistemaren Periferia deituko dugunaren mugen barruan geldituko dira.

Dena den, Txekoslovakia, Hungaria eta Polonia "Aberatsen taldea" egonarren ez dira egongo "herri aberasten" gisa, baizik eta Ekan, Portugal, Grzia edota Irlandako Estatuaren antzerako papera jokatzea tokatuko bide zaiela. Areago, pentsa daiteke Txekoslovakia, Polonia eta Hungaria "koltxoi" gisako papera jokatzen deituta daudela. Ekialdeko gainetarako herrien aurrean (SESB ohia osatzen zutenak,

alegia), Ipar Amerikan kapitalismoak Mexikorekin egin duen antzera.

Edozein analisisilerentzat, galderarik nagusia SESB-ohia eta bere etorkizuna dira. Aipatu dugu arestian, gainetik bederen, SESB-ohia jasatzen ari den egoera ekonomiko kaotikoa. Orain nekez esan daiteke SESB-ohiko prozesua zer-nolako gizartera bideratuko den, ekonomia kapitalista garbi-garbi baten ezaugarriak izanez bukatuko duen, edo Perestroikak bere abiapuntuan izan dituen sustrai sozialistek bestelako gizartera bideratuko duten. Guztiarekin ere, aipa ditzakegu bi puntu: SESBko prozesuak ez ditu Ekialdeko beste herrietakoak dituen ezaugarri sinplistik, eta, jakina, ezaugarri batzuekin ala besteekin, SESB-ohia mundu mailako ekonomia kapitalistan integraturik geldituko da.

Ikusten ahal da, halaber, gerora hiru area kapitalista izanen direla: USA, EEE eta JAPONIA. Kontradizio gogorrak izanen dituzte beraien artean merkatu mundialengatik elkarren lehian, norgehiagoketa hauek gatazka beliko izatera iritsiko ez badira ere. Hiru gune ekonomiko eta gune militar bakarra, Estatu Batuak buru direla. Bloke politika hau galtzen joanen da sistema bakarra izanen delakoz. Baina, nolana ere, ez da militarismoa desagertuko. Funtsean Hirugarren Munduko estabilitate eta egonkortasun politikoa «kontrolatzeko» erabiliko da, eta lehengaiez hornitzen duten zentruen mantenimendua garantizatzeko, hauxe bait da Gunearen garapena eta ongizatea garantizatuko duena.

Europar bizi den bateratze prozesua areagotuko da. Sistemaren logika ekonomikoa gailenduko zaie bateratzearen aurkako resistentzia politikoei. Aldez aurretik, ordea, asmatzen zaila da bateratze prozesu honetan, SESB-ohia beste edozein gizarte kapitalista bezala sartuko den ala nahiz hurbilean ibili kanpoan geldituko den, gizarte "misto" bat eraturik. Itxura guzieren arabera estatuak izanen dira bateratze hau burutuko dutenak. Alabaina, estatu-nazioen egokitzapen historikoak, nazionalitateen pizkundearekin batera, gaindituko du, iduri duenez, estatu-nazioen erresistentzia hauek bere egiteko zaharkituari utzi beharko dioten neurrian. Luzea eta garestia izanen da prozesu hau, baina azkenean iritsiko duen Europa Bateratuko ordezkapen organoak herrietako ordezkari osatuak egonen dira, ez gaur egun ezagutzen ditugun estatuen ordezkari. Agerikoa da halako egoera batera iristeko premia-

zkoa izanen dela emantzipazio nazionaleko borroka aregotzea, eta hau litekeena da baldin eta Historiaren gaur egungo joerari begiratzen badiogu.

Ekialde-Mendebalde arteko kontradizioak desagertu eta, bizkortuko diren kontradizioak Ipar eta Hegoaren artekoak, Sistemaren Gunea eta Periferiaren artekoak izanen dira. Ez da baztertu behar, dena den, Hirugarren Munduko herrien artean eman daitekeen enfrontamendurik (Iran-Irak, Arabiar Herriak-Israel, Irak-Saudi Arabia...). Honela, bada, sistemaren «egonkortasuna eta estabilitatea» garantizatu ahalizateko, ez dezaten desordenarik ekarri presio demografikoak, goseak, elikadura ga-beziak eta politikoki ebatzi gabeko auziek, Hirugarren Munduaren gainean kontrol politiko-militar haundiagoa egitera «behartua» gertatuko da sistema bera.

Badirudi, gaurko sistemak 20 edo 30 urteko bizia duela, eta datozen hamarkadetako ezaugarri nagusia teknologia berriak agertzea izanen dela. Hauek batetik gorakada ekonomikoa ekarriko badute ere, bestetik haragi bizitan jarriko dituzte problema ekologiko eta ingurugirozkoak. Baliteke konklusio hauek norbait ezkor iruditzea, baina errealistak dira. Halako indarra bait dute prozesuaren barneko kontradizioek, Ipar eta Hegoaren artekoek, Gunea eta Periferiaren artekoek eta epe luzeago batean kontradizio hauek leher daitezke, eta Periferia periferia izateari uzteko borrokatuko da. Hura izanen da, orduan, hori erdiesten duenean, Gizateria osora zabalduko den gizarte berdinzale eta igualitarioaz, zuzen eta libreaz hitzegiteko ordua.

## 1.2.- ESTATU ESPAINOLA

1990ean, Persiar Golkoko krisiak eragindako itxarobideak franko hoztu baziren ere, gaur egun esan dezakegu ez dela gatazka hartarik eratorritako sintoma negatibo haien arrasto haundirik gelditzen. Ondorio zuzenik izan zuen, halako eragintxo bat kontu korrante alorreko defizitean eta prezioetan. Estatu espainoleko ekonomiak aspaldiko okerrak ditu, berezkoak, egitura mailakoak. Hauek gero eta defizit hazkorragoak eragiten dituzte kontu korronteen balantzan, enpresarien etekin-tasa gainbeherako aldera jota dago duela urte bitik hona, mundu

mailako krisia turismo bidezko dibisen sarrera gutitzen ari da... Baina, E.A.B. martxan jarritakoan kapital multinazionalak estatu espainolari asignatzen dion eginkizuna da buruhausterik haundienak sortzen dizkiena, bai PSOE Gobernuari, bai enpresari eta langileei, motibu diferenteengatik bakoitzari, noski.

1990 urteko datuek argi erakusten dute estatuko ekonomiak bizi duen desazelerazio prozesua. BPG (a) 1989an 4,8%-koa baldin bazen, 1990ean 3,7%-koa da, aldi berean demanda globalaren hazieran beherakada bat gertatu delarik.

Adierazgarria da oso kapital finko mailako inbertsioen hazierak izan duen beherakada, 13,7%-tik 6,7%-ra erori bait da 1990ean. Eta adierazgarria diogu desazelerazioaren elementu bultzatzaile gisa izan dezakeen eraginagatik.

Defizit publikoak aurrera darrai bere progresioan, dagoeneko BPGaren 3,5%era iritsi delarik. Egoera honek izanen du ondorioz Gobernuaren politika sozial-ekonomikoetan, aitzinago ikusiko dugun bezala.

Ezin ukatu 1990ean enplegu alokatua, soldatapekoa, hazi egin zela berriro. Datu ofizialen aurrean, baina, bi ohar egin beharko gutienez: lehena, abaila geldiezinean doala goraka enplegu prekarioa, estabilitate eta luzera gutikoa, dagoeneko 30%-eko kota pasatua bait du. Bigarrena, errealitate mingarri bat izkutatzen dela estatistika ofizialetan, langabezia desanimatuari eta etsituari dagokiona, hau da: ekonomia "ez-ofizial" edo izkutukora gero eta gehiago pasatu behar duten hiritar guztiak. Eta guzti-guztiak kontuan harturik ere, eta datu ofizialetara mugatuz, enplegu-sorreraren haziera desazeleratu eta mantotu dela esan behar dugu.

Laburbilduz erran behar dugu gaurko egoera ekonomikoaren ezaugarriak hauek direla: aipatua dugun desazelerazioa, inbertsio-tasaren eta irabazitasaren beherakada enpresarien aldetik, estankatu dela langabezia, gehitu honi enplegu prekarioa eta langabezia etsituaz lehen esan duguna, gehiagotzen doaz krisi-espedienteak, ikusten denez inflazioari bide monetarioz aurka egitea arras zaila gertatzen ari da, defizit publikoa alarmatzeko modukoa da, eta balantza komertzialak, zerbait hobetu bada ere, mantendu ezin den defizitarekin segitzen du.

### 1.2.1.-

#### KONPETENTZI GAITASUNERAKO PAKTUA

Atal honetan luze aritu behar dugu, besteak beste datozen urteotako ekintza sindikala izugarri baldintzatuko duelako. Konpetentzi gaitasunak loa galarazten dio gaur egun Solchagaren Kabinetari. Hala behar, gainera. Europako Elkarte Ekonomikoan itsumustuka eta zentzurik gabe sartzeak, eta Europako Akta Bakarra martxan jartzetik datorren "desafioak" -Estatu espainoleko kapitalismoak Europa mailan duen posizio subsidiarioa, hots, besteren laguntzaile huts izatekoa, kontsideratu behar bait da-, ekarri dute ondorioz, eta hil ala biziko bihurtu diote Estatuko Ekonomi Kabinetari konpetentzi gaitasunaren auzia.

Berdin segitzen du Estatu espainolaren eta EEEn artean zegoen desfaseak. EEEn sartzeak zenbait diferentzia leuntzeko aukera eman du, baina nabarmenak dira hauek oraino. Konparazio batera, BPGri dagokionez, per capita indizea komunitateko batezbestekoaren 79,7%-ra iristen da; enplegurik eza (16,3%) Europako batezbestekoa baino bi aldiz handiagoa da; eta inflazio-tasak hiru puntuko diferentziarekin segitzen du EEEn erdialdeko herriekin konparatu ezker.

Baldin eta estatuko langabezia eta komunitatekoa parekatu nahiko balira, estatuko ekonomiak komunitateko batezbestekoaren gainetik hazi beharko luke hamarren bat urtez jarraian, oinarritzko orekarik hautsi gabe beti ere.

Baina gaur egun Gobernu Espainola guztiz ere kezkatzen duena konpetentzi gaitasunean duen desfasea eta atzerapena da. Azken kinkenioan, OCDEko herriekin konparaturik, konpetentzi gaitasuneko diferentzuala 22,8% erori da; eta trukamoldeen eta kostu laboral unitarioen aldetik 13,1% erori da EEEn erkatu ezker.

Dena den, lehen lehenik egin beharrekoa hitz hau, konpetentzi gaitasuna, argitzea da, adiera anbigua bait du.

World Economic Forum delakoak kontsideratzen ditu, besteak beste, honako alderdi hauek: inbertsioak erakartzea, enpresen "erasokortasuna", Gobernuaren bizkortasun ekonomikoa nola barnekoa hala nazioartekoa, finantzak, zientziak, administra-

zioa, teknologia... Kontzeptu guzti hauen arabera esan behar da Estatu espainola OCDEkoen artean azkenetako postuan dagoela, diren 24ren artean 19garren, hain zuzen ere.

Egoera honek, logikoa eta sinesgarria izanik, Solchagaren Kabineta ondorio interesatu eta bere aldekoak ateratzera bultzatu du, hau dau, kompetentzi gaitasunik ez omen da soldatengatik; eta axolagabeki ahazten ditu bertan jatorriz diren egiturazko akatsak eta enpresarien jokaera negargarria. Ez digute honela ezer berririk erakutsi.

Egia da, bertako produkzio mailagatik Gobernu espainolari sekulako arazoak etorriko zaizkio Europako Akta Bakarra martxan jartzean. Problema honi irtenbiderik ematea arras nekeza zaio, eta ez du moldatuko ez epe hurbil batean ez soldatak "geldituz" ere, Gobernu Sozialistak "saldu" nahiko lukeen bezala, ezta gutxiagorik ere.

PSOeko Gobernuak elbarri aurkitzen da azpi-azpiko problema moldatzen hasteko. Hau da, zintzo aztertu beharko lituzke bai politika enpresariala bai bere politika sozial-ekonomikoa bera. Eta elbarri dela esan dugu, PSOE kapitalarekin bat eginik dabilela nabaria delako. Honi esker patronalaren laguntza dauka, Gobernatzen segitzen du, baina ezin du politika sozial-ekonomiko ezkertiarrik ondu eta moldatu. Kompetentzi gaitasuna irabazteko, beraz, duen bide bakarra ideologia kapitalista zaharrenaren irtenbide historikoa du, ahal den merkeena saldu, honetarako soldata kostuak behar adina gutxituz. Logika honek bultzaturik eta bideraturik, Solchaga Kabineteko teknokratek, Estatu espainoleko kostu laboralak, neurri unitarioen arabera, EEEkoen artean azken puntan daudela oharturik, posizio erlatibo horretan mantendu behar dituztela erabaki dute. EEEko estatu zentralak konparazioz kalitateko produktuak saltzen dituzte, teknologia aurreratukoak, horretantxe bait dute haiek abantaila. "Estatu espainolak konparazioz duen abantaila bertako lan-esku merkea du, eta horixe behar da erabili eta esplotatu", dio Solchaga jaunak.

Gobernuak, bada, helburu politiko garbia eduki du sindikatuekiko harremanetarako. Konprometatu nahi izan ditu langile klasea itotzen duen tuerkari buelta bat gehiago eman ahal izateko, langileen errebin-dikazioak apaltzeko. Eta hori egin nahi izan du langileak lehen, hain lazgarri gertatu zaien birmol-

daketa prozesu guzian, egin zitzaizkien planteamentu faltsuez biziki oharturik daudenean.

Azken batez, bada, Kompetentzi Gaitasuneko Plana (eta hobe Plan izena ematea eta ez Paktua, zeren Pakturik lortu ala ez, Gobernuak prest bait dago Plana, gertatuko dena gertatu, aurrera ateratzeko) honelaxe ager dezakegu funtsean eta labur-labur:

**HELBURUA:** Balantza Komertzialeko defizita jaistea, "kompetentziatzko" prezioak mantentzea, eta katalaren eta lanaren arteko indar erlazioa lehenbizikoaren aldera jartzea. Hitz batez, kapitalaren irabazi edo etekin-tasa haunditzea.

#### **BITARTEKOAK:**

- Soldatak gelditu, soldaten dirua ez dadila produktibitatea baino gehiago hazi. Bestela esanik, soldatek Produktu Nazional Gordinean duten parte berriro ere txikiagoa izan dadila.
- Zabalduta eta ugaritu enplegu prekarioa (maniobra hau ederki disimilatu nahi dute "lan-merkatuko malgutasuna" hitz teknikoaren azpian).
- Presio fiskala haunditu, baina ez nolana, laneko errenten gaineko zergak eta kontsumoaren gaineko zerga-kontua errelatiboki areagotuz. Azken batez, kapitalaren aldekoa da zerga-ezartze hau ere.
- Asistentzi gastuak gutxitzera jo. Bestela esanda, segituko dute Ongizateko Estatua desmantelatzen, hauxe bait da politika sozial-ekonomiko neoliberalaren joera. Gobernu espainolaren 1991 urteko aurrekontu murriztaileak, inbertsio publikoetan jaitsiz, eta Abril Martorell-en proiektua plazaratzea, pentsionistendako botika-laguntzak gutxituz, PSOEko Gobernuak urte batzuetatik hona hartzen ari den neurrien antzekoak baizik ez dira. Filosofia eta jokamolde honen esanplurik lazgarriena Aseguro Soziala poliki-poliki behar nola doan ikustea da.
- Produkzio aparatua birmoldatu, honetarako birmoldaketa berriak eginez, hauek lanpostu galtze ikaragarria ekarriko dutelarik Esta-

tuko hainbat lekutan, Euskal Herri aldean batez ere.

- Politika monetario murriztailea, soldaten gelditzearen elementu osagarri gisa, xedea inflazio-tasa behin betikoz kontrolatzea izanik.

CCOO eta UGT bide honetan sartzeko lehen intentuan porrot egin du Solchagak, ez du sindikatu horiek paktua onartzerik lortu. Ondoren hartu dituzten neurriak, nahiz eta paktua onartua izan ez delako hartu direla esan, aurrez ere argi iragarriak zituen Solchagaren Kabinetak modu batez ala bestez, eta ez dute inor ustekabeen harrapatu. Datozen hilabeteetan ikusi beharko da CCOO eta UGTren jarrera, paktua ez onartuz, benetakoa den ala, protagonismorik emanen liekeen zenbait kontsesioren ondoren, gerora prest azalduko diren Plana aurrera atera dadin. Bizitzak erakusten digunez, halakorik gertatzea ez litzateke batere harriztekoa.

Ezin du inork ukatu Plan hau gogorra, arras gogorra dela langile klasearentzako. Orain hilabete batzuk dagoeneko parekatu genituen Moncloako Paktuak eta Kompetentzi Gaitasuneko Plana. Lehenbizikoak "saldu" zizkiguten "demokraziarako iraganbide" zuzen bezain beharrezko zirela esanez. Oraingoan "Europarako iraganbidea" da abonatzan duten aitakia, kaltetuak lehengoak berak izanik.

Salatu behar dugu, inondik ere, Plana aurkezteko darabilten hizkera maliziosa. Batzutan "Progresuko Paktua" ere esaten diote. Inork, ezker gogorik zerbait duenak behintzat, ezin du progresuaren aldeko eritzi hain erreakzionarioa eta langileen aurkakoa den neurri sorta hau. Benetan latza da produkzio ahalmena haunditu ahal izateko patronalak honetan duen erantzukizuna ahanzte. Patronala ez da gauza izan produkzio sarean europar kutsuko "arrazionaltasun" apurrik ezartzeko; euforia handiko boladan ahaztu egin zitzaion autofinantzatu behar zuela bere burua, eta ez aritu orduko eszedenteak, soberakinak, xahutzen eta bururikan gabe gastatzen; ekipo erdi zaharkituak dituela iritsi da 1992garrenera; ez du ikerkuntzan batere kezkarik izan, eta hala gaude, teknologia modernoetatik urrun baino urrunago, ...

Plan hau austeritate programa bat da. Demanda globala uzkur eraziko du eta, ondorioz, irabazi

enpresarialetako itzaropideak geldieraziko ditu. Eta itzaropiderik gabe, espektatibarik gabe, patronalak ez du inbertituko. Inbertsiorik gabe, berriz, nekez hobetuko da produkzio ahalmena benetan...

Honen bestez, bada, berriro ere "hispano" gisako irtenbidea da planteatzen: soluzio kojunturalak. Jakina, honelao konponbideek klaserik ahulenaren bizkarrera botatzen dute zamarik astunena eta ez dute problemaren benetako muinera jotzen laguntzen inoiz. Egitura mailako birmoldaketa produktibo-ekonomiko-soziala behar da hemen, Administrazio desberdinetako pentsamoldeak eta mentalitateak aldatu behar dira, ustelkeria kendu eta, baita ere, normalizazio politika erraztuko den aldaketa konstituzionala (autodeterminazio eskubidearen onespena, batez ere).

Arrazionaltasunik eta banaketa-justiziarik somatzen ez dugulako, utzi diguten bide bakarra Paktu edo Plan honi aurre egitea da, erabat eta buruz-buru gainera. PSO Eko Gobernu oso tara lotsagaldu da, ahalkegabetu da. Dagoeneko esan dute Plana "kosta ahala kosta" beteko dela. Ezer guti espero genezake Gobernu honen eskutik ikusirik zertara eramana nahi duen greba legea laneko munduan, hiritar segurtasunerako legeak orohar duen helburu bera ezarri nahi bait dio, hau da: ez du disidentzia bakarrik kriminalizatu nahi, disidentzi itxura bera ere kriminalizatu nahi dute.

## 1.3.- HEGO EUSKALERRIA

### 1.3.1.-

#### PUNTU OROKORRAK

Ez da dudarik. Gaur bizi dugun egoera honetan Euskal Herriaren etorkizuna jokatzeko ari gara, gaur dugu geroaren giltza. Eta hau esatean ez dugu alde politikoa bakarrik aipatzen. Alde ekonomikoa da egungo kojuntura honetan garrantzia berezia hartzen duena, eta hainbestera inokoa hartu du, non eragin eta eragiten bait du gure berehalako etorkizun politikoan, geroaren giltzarik nagusia izan den delarik.

Ongi dakigu denok birmoldaketa fase berri bat datorkigula gainera, eta arras bortitza. Hau aski ez balitz, ikusirik E.A.B. martxan jartzeak eskaintzen digun perspektiba hain ezkorra eta Gobernu Zen-

tralaren Konpetentzi Gaitasuneko Plana, zindo eta tinko ekin beharreko egoera latza baino latzagoa dugu begi aitzinean. Badakigu borroka hau arront zaila dela. Bai. Baina badakigu, orobat, guduka honetan langile klasearentzako irabazitako guzia gure askatasun prozesurako ere irabaziko dugula.

Hego Euskal Herriaren egoeraz analisiren bat egitean, gogoan izan behar dugu egoera ekonomikoaren eboluzioa ez dela berdina izan Mendebaleko hiru probintzietan eta Nafarroan. Eta hau bi arrazoi nagusirengatik batez ere: lehen lehenik, bateko eta besteko egitura sozial-ekonomiko desberdinagatik. EKAn industria da oinarri nagusia. Hau dela eta, 70eko hamarkadan produkzio eredu kapitalista jasaten hasi zen krisiagatik eratorritako ondorioak benetan bortitzak izan genituen, ikusirik gainera euskal industriaren sostengua zirela gainbehera joandako produkzio ereduaren artean (siderurgia, eraikuntza, itsasuntzigintza, kimika...) krisiak gehien jotako sektoreak (edo mundu mailako birregokitzapen boladan zirenak).

Nafarroan oinarri agropekuarioak eragin espezifiko indartsuagoa dauka, errelatiboki harturik. Honexegatik, bada, birmoldaketako lehen fasearen ondoriozko nahasketak leunagoak gertatu dira, baita bere eragin sozial-politikoak ere.

Gure ustez, hala ere, bada bada bigarren faktore baldintzatzaile bat ere, politikoa alegia. Erreforma Politikoak, batetik, bi esparru politiko diferente ezarri dizkigu. Honek, nahitaez, konpetentzi mailak indartsuagoak ala ahulagoak izan, beti izaten du ondoren desberdintzailerik. Are gehiago, PSOeren politika sozial-ekonomikoa desberdina izan zen gai askotan EKA eta Nafarroan. Birmoldaketa politika, alderdi askotatik, EKAn "kastigu politiko" izan zen -gogoratu Euskalduna Astilleroko kasua-. Aldiz, Nafarroan garatu den politika sozial-ekonomikoa EKArekiko diferentziak areagotzera bultzatu dute, azpikeriaz bada ere, EKA eta Nafarroaren arteko harreman politikoak, ekonomikoak eta sozialak indartzea kaltegarria zela senti erazteko.

Honenbestez, eta esparru juridiko disgregatzaile honek zail egiten digulako gure nazioaren mailako datuak prestatzea ere, zatika eginen dugu egungo egoeraren azalpena.

### 1.3.2.-

#### EUSKAL KOMUNITATE AUTONOMOA

Arestian aipatu dugunez, krisi ekonomikoak zartako ikaragarria eman dio EKAn industri munduari. 1975-85 hamarkadako haziera-tasa 0,3%-koa izan genuen, eta Estatukoa orotara 2,1%-ekoa izan zen aldi berean. Praktikan, beraz, esan daiteke bolada horretan geldialdia, estankamendua izan zela nagusi. Orduan 150.000 lanpostu galdu genituen, 100.000 industriakoak zirelarik. Hargatik, industri sektorea 1975ean 50% izatetik 1985ean 42% izatera pasa zen.

Agerikoa da "industriak teknologia berrietara egokitzeko ezintasuna, eta nola haziera ekonomikoari hala enplegu mailari eusteko aukera emanen zuten irtenbideak bilatzeko ezgaitasuna, ezintasuna, erakutsi duela", Gasteizko Gobernuak dioen bezala. Eta egia da, baita ere, "enpresak saiatu zirela produkzio maila hobetzen batipat plantilak ajustatuz eta produkzio ekipoak arrazionalizatzeke eta gaurkotcheko inbertsioak eginez". "Honela kostu laboralak asko gutxitzea lortu zen orduan", diote Gasteizkoek, eta gaineratzen dute "Krisi ekonomikoari emandako konponbideak ez duela euskal produkzio aparatuen dibertsifikaziorik lortu". Esan dezagun, gainera, altzeiruaren eta transformazio metalikoen industriak segitzen duela, mundu mailan egoera depresiboan dirautelarik, EKAn ekonomiaaren sostengu nagusia izaten, industriako balio erantsi gordinaren 57% izatera iritsiz gaur egun.

Gasteizkoen analisi hau akatsak eta hutsak kontatze- ra mugatu da. Ez du inoren erantzukizunik aztertzen, ezta entresariena ere, nahiz hauek errealtate teknologiko eta ekonomiko berrietara egokitzeko gai ez izan, itsuturik ihardun direlako kostu laboralak gutxitu asmoz plantilak murrizten eta erritmoak azkartzen. Ezta EAJko Gobernuaren erantzukizunik ere. Hauek, zegokien esparruko konpetentzien eskastasuna izkututzen ahalegindu dira, eta kontua ez da Gobernu Zentraleko politika sozial-ekonomikoari aurre egiteko ausardiarik izan duten ala ez, politika horren kolaboratzaile eta garantizatzaile fin eta sendo gisa jokatu bait dira.

Egia da, bai, EKAn Gobernuak halako neurri batzuk hartu eta erabili dituela (Sustaketa Planak, Inbertsioen Laguntzarako Planak...), baina, gero ikusi zen bezala, jendaurrean ongi gelditzeko, estuasunetik nolabait ateratzeko planak baizik ez ziren. Gogoratuko ditugu, baita ere, Foru Diputazioek

emandako laguntza fiskalak eta Zamudioko Parke Teknologikoaren antzeko proiektuak. Guzti honetan milioi mordoska ederra sartu dute, ez da gezurra. oso gutxi balio izan dute, ordea, lorturiko emaitzetara eta industriaren gaurko egoerari begiratzen badiogu, nola Gobernu Zentraletik zetozen dirutza guzkiek (Enpleguaren Sustaketarako Fondoak, Industrialtze Larriko Zonaldeak,...) hala EKako Gobernuak beretik jarri dituenek. Erabili dira, batez ere, lanpostuak galtzea subentzionatzeko, produkzio ekipoen itxurazko modernizazioak finantzatzeko, eta herri-diruak onestasanik gabeko iharduera batez zahutzeko.

Eta gaur egun gertatzen gara Industri Birmoldaketaren II Fasea deitu beharreko honen aurrean. Hau gainera datorkigu eta alde zurretik esaten digu etorkizun beltza dutela gure industriak eta ekonomiak oro har. Ez dugu gai hau gehiago jorratuko, zeren 1991ko Maiatzaren Lehenetik burutzen ari garen politika sindikalean, GEUREA DEFENDA DEZAGUN lemapean, aski xehe eta sakondu dugulako bizi dugun egoera hau.

Gasteizko Gobernuak ikuspegi benetako eta errealista batetik iheska dabil. Ezin duelako, gai ez delako? Erantzukizunik ez argitzearren? Egungo esparru politiko honen mugaoen ikaragarriak ez aitorztearren? Gure errealitate gordin honek, baina, ez du halakorik ezkutatzeko aukera haundirik ematen: arrisku bizian dago enpresa askoren etorkizuna. AHV, altzeiru bereziak, Sestaoko Itsas Astilleroa, itsasuntzigintzako sektore osoa, papergintza sektore osoa... baita enpresa txi eta ertain anitz ere (Durangaldea, Behe Deba Arroa). Base industrialik gabe gelditzeko arrisku bizian gaude, base ekonomikorik gabe beraz, honek gure proiektu politikoa, birreraikuntza nazionala, indarririk gabe utz dezake larrik.

80ko hamarkadaren hasieran oso analisi buruga-beak egin ziren Euskal Ekonomiaz. Analisi horien sustraia zerbitzu sektorean jarri beharreko konfiantza zen, industriaren ordezkatzeko zuelakoan eta hala ekonomia bizkortuko. Hego Euskal Herriko ekonomiaren ezaugarrietara begiratuz, ezinezkoa da halakorik gertatzea. Lortu behar duguna besterik da, hots, Euskal Ekonomia egokitu, baina gure nortasuna bazterteraziko duen eta gure etorkizuna itoko duen inolako menpekotasunik gabe. Urte hauetan, egia da, asko hedatu da zerbitzu sektorea, baina

Administrazio Publikoen hedapenagatik batez ere. Euskal ekonomiak bere ezaugarrietara egokitzen ez den zerbitzu sektore ahul bat dauka, eta ez da iristen ekonomia desarrolatuetako ratio-etara (EEEen 62% baldin bada, guti gorabehera 50%-era iristen da hemen). Urgentea eta larria da, beraz, egitura industrialareneuskarri izanaren diren zerbitzuak hedatzea.

Gaur gaurkoz, Hego Euskal Herria gainbeherako industri zonalde bat da. Eta krisi ekonomikoak erretutzi dituen honelako zonaldeetako historia berriskusten badugu, ikusiko dugu ez direla batere leku erakargarriak gertatzen kapitalak inbertsioak birzikla ditzan. Era guztietako ahalegin gogor bat behar da berriro erakargarri gerta daitezen, zerbitzuen eta azpiegituren aldetik batez ere

### 1.3.2.1.- HEGOALDEKO SEKTOR

#### AGROPEKUARIA

Azpinarratzekoa da EEEen sartu izana, izan ere duela 30 urtetik hona Politika Agrario Komuna bait du, eta honek nekazaritza edo agrikultura eredu jakin bat determinatu eta baldintzatu du. Gure nekazaritza EEEkora moldatu beharra, beraz, PAK delakoak jasaten duen krisiak eta doitze-neurri gogor batzuek markatu dute. Honekin esan nahi dugu galeren eta enpleguen prozesua azkartu egin zela 1986tik aurrera.

Egokitzapen honek etengabeko birmoldaketa ekarri du euskal nekazal mundura. Eta kontuan izan behar ditugu hemengo nekazal-unitate txikiak, zailtasun geografiko eta orografiko objetiboak, eta sektore honetako populazio aktiboaren prestakuntza eskasa batetik, eta zaharkitze nabarmena bestetik. Estrategikoa da, bai, nekazaritzaren funtzio sozial-ekonomikoa eta ekologikoa, baina PAKen esparru honetan ez du inolako kompetentzi gaitasunik.

Gelditu gabe ari da jendea lan hau uzten, lanbide misto batera pasatzen, eta errenta agrarioen galera etengabea da. PAKek markaturiko politika esplotazio edo ustiategi handien aldekoa izan da, eta ahalbide ekonomiko haundiak dituzten herrien aldekoa. Baztertu egin du osotara nekazal ustiategi familiar txikiaren eredua. Honek, berriz, nola produkzioa hala laguntza publikoak esku gutxitan konzentratzea ekarri du. Eta gehitzen badizkiogu honi PAKek berak jasaten duen krisi presupuestarioa,

eta egituragatiko eszedenteekin sortutako arazoak, lehengo desoreka areagotu egin dela esan behar. Zera esan nahi dugu, prezioak, produkzio-kotak, tasak etab. murriztean, eta hauek beste neurri batzuekin batera linealki aplikatu direnean, sekulako kaltea egin dietela Euskalerrikoa bezalako agrikulturei eta baita EEEko nekazari gehienei ere.

Gero eta gehiago, transformazio-industriak dira prozesu agroalimentarioko nagusitasuna eta hegemonia dutenak, eta banaketa enpresen esku azken bolada honetan. Hauek dira, beraz, merkatuko jokorerregelak markatzen dituztenak, eta nekazariak produzituriko lehen gaiak ahal den preziorik txikienean hartzeko orduan hitza dutenak. Esan daiteke, hortaz, goraka doala industri agroalimentarioa, eta lehentasunez laguntzen diotela administrazio euskotarrak, nafarrak, estatalak eta europarrak, jakina, produktoreen aldekoago liratekeen neurri politikoen kaltetan. Industria hau gero eta gehiago ari da konzentratzen eta honek, noski, multinazionalak azaltzea dakar; bestalde, produkzio-prozesu osoaren kontrola (makineria, haziak, genetika, teknologia, transformazioa, banaketa...), produkzio egitura lagungarri izatera pasa bait da, funtsezkoa izatera iritsi da.

Nekazal politika estatala eta autonomikoak ez dira PAKen besoak baizik. Eta beste maila batean, PAK hau area baldintzatuago geldituko da GATTen nazioarteko negoziazioetan, hauetan hegemonia duela USAk eta honek merkatuetako protekzionismo gutiago eta liberalizazio handiagoa nahi duelako mundu guzian.

Testuinguru honetan, beraz, euskal nekazaritzaz hitzegitean, nekazaritzan aplikaturiko eredu ekonomikoagatiko ondorio negatibo zuzenak konpentsatu ahal izateko jasaten dugun babesgabatasunaz, eta politika nahiz gestio mailako defenda ezinaz eta gaitasunik ezaz hitzegin behar dugu nahitaez. Hau da, gero eta enplegu eta errenta gehiago galduko ditugula, eta honek bere eragina izanen duela sektore honek ukitzen dituen herri eta eskualdeetan. Ez baldin bada aldaketa sakonik egiten nekazal politikako neurrietan, eta PAKeko berrikuntzek ez dute honelakorik deus ere erakusten, ezin hitzegin dugu etorkizun itzarobidez. Laguntzako neurriek leunduko dute eboluzio hau hein batean, baina ez dute inoiz dinamika sozialaren eta produkzio egituraren zuzperketarik ekarriko. Ezin gara hemen

hobeki ala okerrago egon daitezkeen produkzioko azpisektoreez hitzegin hasi. Problema globala da, orokorra. Gehienetan, nekazariak geroari buruz apostu haundiren bat egin dutela entzutean, ongi dakigu hortik zer datorren: inbertsio izugarriak, kapitalik gabe gelditzea eta lehen baino zor haundiagotan sartzea.

Honenbestez, esan dezagun PAKen mugatan den nekazal politikako sistema hau, bere besoek gestioatzen dutelarik, kaltegarria zaiola euskal agrikulturrari, ondorio txarrak epe laburrean ezagutu daitezkeelarik. Ez dago beste biderik gure nekazarien interesak defendatuko dituen euskal politika agrarioa, bertakoa eta autonomoa, egiteko, hots, gure esparru juridiko-politiko hau aldatu behar dugu.

### 1.3.2.2.- ARRANTZA SEKTOREA

Arrantza sektoreaz mintzatzean, analisisa benetakoa izan dadin, bere azpisektoreak ere analisatu beharreko ditugu. Alde batetik, azpisektore bakoitza esparru diferentea delako, eta bestetik, denak ere egoera arras desberdinetan murgilduak bizi direlako. Beraz, desegokia litzateke sektore hau globalki aztertzea, ondoren ikusiko dugunez arront errealitate desberdinak direlako.

Arrantzak 6 azpisektore lituzke, hau da: Bajura, Altura, Bakailaoketa, Atunontzi izoztaileak, Arrastreko Izoztailak eta Legazketari edo Palangrero txikiak.

Gure inplantazioa sindikatu gisa bi azpisektoretan zentratzen da: Bajura eta Altura, biak ere arront inportanteak izanik gure ekonomiakarako, hauen arrantza bait da gure itsasportuetan deskargatzen (eta ez besteetakoa, Legazketari txikiena salbu). Hauek hemen uzten dituzte beren irabaziak eta bidenabar beste sektore anitz dute baldintzatzen. Beste azpisektoreetako untxiek baseak Canariasen, Vigon eta beste hainbat lekutan dituzte, Euskalerriko marinel asko badabilte ere.

Egungo errealitatearen azterketari ekinez, erran dezagun Bajurakoa dela azpisektorerik haundiena, 4.000 arrantzale edo enplegatzen dituela. Eta azpisektore hau da egoerarik kritikoenean bizi dena. Asko dira Galiziako hainbat tokitara saldu diren arrainuntziak, eta beste hainbeste daude salgai. Hauxe dugu, halaber, azpisektorerik abandonatuen ere: barku txiki eta zaharrak, arrantzaleak batez-

beste urtez zaharrenak, teknologia berririk erabiltzeko urratsik apenas eman gabe eta arrantza egiteko modu ia tradizionalari eutsiz osotara.

Europatik sorturiko legeen arabera, hiru hilabete ere egin behar dituzteitsasoratu gabe. Jakina, hone-la gutxitzen da produkzioa, arrain gutxiago atrapa-tzen da, antxoa eta hegaluzea batipat, hauek gero eta gutxiago izaki gure itsas bazterretan.

Bigarren azpisektorean, Alturakoan, Euskalerrriak bi portu ditu arrantza-mota hau biltzen dutenak: Pasaia eta Ondarru.

Orain 10 urte inportantzia handikoa zen Pasaia eta gaur egun desagertzeko zorian daukagu. Besterik gertatu da Ondarrun, azken 10 urteotan gero eta inportantzia haundiagoa irabazi baitu. Gaur egun bera da arrain freskoan porturik garrantzitsuena.

Azpisektore honetan sekulako eragina izan du 200 milako legea egin den bezala indarrez aplikatzeak. Debekatua zuten beste nazioetako itsasertzetara hurbiltzea bera, azken finean lege horiei kasurik egin gabe jokatu behar izan dutelarik, honek izaniko ondoren guziak izanik (beste herrietako patruilari-kin istiluak, multak, etab.).

Gaur egun eta dagoeneko Europako Ekonomi Elkartean sarturik, Bruselan dituzte itsas-munduko legeak erabakitzen, han ematen dituzte arrantza-baimenak, han arautzen dute nolako tresnak erabili eta nolakoak ez, han dute arrain-kala eta lekuetako atsedenaldia nolako eta zenbat denborakoa izanen den; eta jakina, gu Estatu espainiararen menpean gaudela, eta hau Bruselaren menpean, arrantzapolitikari dagokionez, egoera honek sekulako problemak sortzen ditu arrantzan egin ahalizateko. Hau garbi daukate Holanda, danimarka eta Europako beste zenbait naziok, hain zuzen ere, gurea baita haien merkaturik hoberena, geu garelako kontsumitzaileak haundienak.

Eta hauxe izan daiteke arrainuntziak gutxitzeko onetsi nahi duten proposamenaren arrazoia. Aitzaki gisa diote itsasoa sobera esplotatzen ari garela eta eskatzen diote espainiar Estatuari 1966rako bere manpeko itsasuntzietarik 40% kentzeko.

Arrantza klase honetan ari diren arrantzaleak 1.750 inguru dira.

Bakailaoketarien azpisektorean, berriz, aurrerapen gutxi azken hamar urte hauetakoa. Ez da barku berririk egiten, lehendik dauzkatenak zaharkiturik daude oso, eta aski hondatuak gainera.

Arrantza klase hau Kanada eta Groenladiako itsasertzetan egiten da, hots, europar itsasertzetarik urrun usatzen da.

Lan-modua alde batera utzirik, azpisektore honen arazorik larriena eta haundiena arrantza-tokiak mantentzea da. Beste Estatuak urtetik urtera traba gehiago jartzen dituzte beren itsasertzetan arrantzan egin nahi duten atzerritarrentzat, eta hau dela eta, espainiar Estatu behartua dago akordio bereziak izenpetzera matrikula espainola duten itsasuntziak ur horietan ari daitezen. 575 dira azpisektore honetan lanean jarduten dutenak.

Beste azpisektorea dugu Atunontzi Izoztaileena. Honetan ere ez da aldaketa haundirik somatu azken hamar urteotan, arrantza klase honetako barku kopourua mantendu eta bizpahiru berri ere egin direlarik.

Hauek ere europar uretatik urrun dihardute lanean, Akrika erdialdeko uretan batez ere. Honegatik ezinbestekoa da akordioak paktatu beharra hango estatuekin, arrantzan han egin ahal izateko. Azpisektore honetan 650 inguru dira langileak.

Hurrengo azpisektorea Arrasteko Izoztaileak. Hauek ere Europatik kanpoko uretan dihardute, Amerika Erdialdean eta Hegoamerikan gehiena. Eta arrantzarako akordioak behar dituzte hauek ere. Azpisektore hauxe dugu gehien aurreratu duena. Gaur egun barku berriak ditu, teknologia modernoa dabil, etab. Azpisektore honetan 800 arrantzale inguru ditugu.

Azkenik, Legazketarien edo palangreroen azpisektorea. Gaur egun krisian amilduak dauzkagu. Bate-tik, barku txikiak dituztelako, barkuko bizpahiru arrantzale gehienez; eta bestetik, urrutira ere joan ezin direlako arrantzura, eta denboralea denean itsasoratu ezin direlako, gainera. Gure itsasbazterretan aritu behar dute, bada, nahitaez.

Gure itsas bazter hau, dagoeneko sobera esplotatua dago, bertan arrantzuan ibiltzen diren barku asko Legazketarienak baino haundiagoak ere izaten di-

relako eta gure inguruko arraina izugarri gutxitu delako.

Bermeotarrak eta Hondarribiakoak dira arrantza klase hau egiten dutenak. Ikusgarria da zenbat gutxitu diren barkuak. esate baterako, Bermeoko 30 barku, arrantza mota honetan ari direnak, desguazera eramanez dituzte datorren urtean, ezin bait diote gaurko kompetentziari aurre egin dauzkaten bitartekoak dauzkatala.

Bukatzeko erran dezagun arrantzak, oro har, bada duela denekikoa den zer bait: agortzen eta ahitzen ari direla kaladeroak, hauek gero eta gutxiago direla, gelditzen diren gutxi horiek kontrolpean daudela eta, bestalde, orain izenpetuak dauden trataduak ez berritzeko izugarritzko arriskuan garela.

Arraina bera arras baldintzatua eta mugatua daukagu saldu behar denean ere. Europa probesten ari da Espainiaren ahultasuna, eta egunetik egunera inportantzia haundiagoa ematen zaie aipatu baldintzei, hauek arrantzarako baimenak zailtzen dituztelarik. Eta arrainaren prestakuntza ere, izoztu, ondu, etab., askoz aurreratuago dago Europako beste edozein herritan.

### 1.3.2.3.- GASTEIZKO GOBERNUAREN "KONPETENTZI GAITASUNEN" PLANA

Ez dirudi Gasteizko Gobernuak onduriko lanak halako Plana edo proiektu ekonomiko-soziala direnik. Esan daiteke asmo onez beteriko aitorpenak direla, egoera kezkarri baten aurreko alarma seinaleak eta beren burua zurrizteko asmoz eginiko lanak. Nabari da guzti horien azpian halako ezintasun bat, kompetentzi eskasiaren eta PSO Eren jarrera idorren frutu dena, hau beti prest bait dago ekonomia mailako edozein larrialdi txantaila politikoetarako tresna gisa erabiltzeko.

Nolanahi ere, eta argi dago, Gobernu Zentraleko Planaren eta EKAkoaren artean diferentzia nabariak daude. Nahikoa zabal eta luze aztertu dugu lehenbizikoa, bai dituen asmoen bai erabiliko dituen bitartekoen aldetik. Gasteizko Gobernuarenak, berriz, onartzen ditu Gobernu Zentraleko diseinaturiko birmoldaketa plan guztiak, ihes egiten du Bizkaiko Labe Garaietako auzia dela eta, honen etorkizuna azken finean Gobernu Zentraleko erabaki behar duela ezinbestekotzat emanez, eta gainerako industriei

dagokienez, protagonismo administratiboa eta gestio ahalmena ditu eskatzen. Ez da gai, ordea, Euskal Herriaren etorkizuna hil edo biziko egoerara darmaten halako plan industrialei aurka egiten dieten indarren buru jartzeko. Ikustekoa da dagoeneko erabat abandonaturik daudela sektore agropekua-ria eta arrantzalea, nahiz egoera larria duten. Bada beste datu bat ere komentatzea merezi duena: langabezia egitura moduan txertatu dagure ekonomian. Gaur egungo langabezi tasa 18% inguruan dabil (154.455 langabe 1991ko ekainean, 16.899 Araban, 70.436 Bizkaian, 41.455 Gipuzkoan eta 25.496 Nafarroan), eta 1981ean ez zen 16% baino haundiagoa. Honez gainera, gogoan izan behar dugu zenbat hazi den laneko prekariotasuna, Estatukoaren antzeko samarra, eta langabezi etsitua, izanen bait dira 30.000 pertsona hurbil enplegua bilatzeari utzi eta horretan etsi dutenak alferrikako eritzita. Guzti honek ondorio paregabeak dauzka, nahiz eta gizartearen alde "ezkutuan" estaliak gelditzen diren, ondo arduratzen bait da sistema halakorik halakorik kanpora atera ez dadin.

Gasteizkoen Kompetentzi Gaitasuneko Plana E. Porter-ek gasteizko Gobernuak berak hala eskaturik egindako lanean oinarritu da (jakingarria da, edonola ere, lan hau zentzugabekeria handitzat hartu zuela Gasteizko Gobernuan lehen egon zen Ekonomi Kontseilariak, Luis Atienza jaunak). Porter-en kompetentzi gaiotasuneko printzipioak Euskadiko kasuan aplikatu eta hara zer dioten:

- 1.- Elkarrekin kompetitzen dutenak enpresak izaten dira, ez nazioak. Enpresa bakoitzak beste nazioetako enpresa arerioekin konparaturik sortu eta mantentzeko abantaila kompetitiboa da nazioarteko kompetentziaren oinarria. Kompetentzi abantailak klase askotakoak izan badaitezke ere, bi kategoria hauek batean sartzen dira den-denak: kostu txikiagoak izan edo desberdin jokatu (kalitate hobeko produktu edo zerbitzua emateko gaitasuna, prezioaz gainera eskatzeko moduan, beraz).

- 2.- Industriaren etengabeko berrikuntza eta hobekuntza funtsezko dira kompetentzi abantailari eusteko.

- 3.- Nazioarteko kompetentzia geografian aldetik bildurik dauden industriren "clusters" moduan agertzen da frankotan (kontzeptu honekin

industri multzo edo elkarketa adierazi nahi da).

4.- Konpetentzi abantaila lortzeko hamarkada batzuk behar dira, eta ez da halakorik ziklo enpresarial laburretan lortzen. Beraz, nekez ebitatzen ahalko da Euskadik 1993an sufritu behar duen konpetentzi txokea. 1993ko zartakoa aritzearren hartutako babes neurri guziak, ez da pentsatu behar luza70ko produkzio ahalmena hobetu asmoz egin daitekeenaren ordezeko direnik.

5.- Zer daukan hartan oinarrituz saiatu behar du nazioak bere abantaila lortzen. Baldin Euskadik konpetentzi gaitasuna hobetzeko lanaren emaitzak bost urteren buruan ikusi nahi baditu, bere ahaleginik haundienak jarri beharko ditu, hain zuzen ere, lehendik nazioarteko konpetentziarako basea emanez arrakastaz desarroilatu dituen area ekonomikoetan. Konpetentzi abantaila alor edo area berrietan desarroilatu nahiak arrisku haundiak dakartza eta zaila izanen da horietan ezer lortzea datorren menderarte, baldin eta lortuko balitz.

6.- Ez da industriarik berez ona edo txarra denik. Euskadiko arazo larria bere ahaleginak industria batzuen konpetentzi gaitasunean zentratzea da, bezeroen beharrari oraindik urte askotan erantzuten jarraitu behar dioten industrietan, alegia; eta ez du hainbesteko inportantziarik industria berri topikoenetan parte hartzeak (super eroaleak, robotika, bioteknologia, etab.).

7.- Ez nazioak ez bertako industrietan ez dute zertan haundiak izan behar nazioarteko mailan konpetitu ahal izateko.

8.- Konpetentzi abantaila mantentzeko prozesua ez da batere eroso enpresentzat, ezta horietan ari diren langileentzat ere.

Ikusten denez, lan honetan egiten den bakarra "konpetentzi abantailaren printzipio" konbentzionalak funtsean dituen oinarriak zerrendatzea da. Kontzeptu tekniko honek, dena den, ez ditu Euskadik nazio gisa dituen ezaugarri bereizgarriak eta premiak kontsideratzen, ezta inolako erakuntza nazionaleko proiekturik ere. Ekonomiako teknokratek egin ohi duten analisisietako bat, beraz, bere ikuspegian EAJ ere bat datorrelarik. Beren asmoa, hain zuzen ere, gaurko egoera abiapuntutako harturik, "daukagu-

nik errentagarriena, produktiboena eta konpetitiboena indartzea da". Logikaz, bada, politika honek egin dezakeen bakarra gure ekonomiak dituen desajusteak, deskonpentsazioak eta desorekak areagotzea da. Eta ahaztu egiten ditu, gainera, bai Nafarroa bai Iparraldea. Beraz, gure azken ondorioa da Gasteizkoen Plan hau partxe eta adabaki mordo bat dela, ez dituela azpi-azpiko problemak konponduko, eta ez duela eraikuntzara nazionalaren oinarriak sortzeko balioko.

Industri Kontseilaritzak honako cluster edo sailak hautatu ditu: makina-erramintarena, elektrodomestiko handiena, altzeiru bereziena, unitziratze eta manipulatuena (Bilboko Portua), elikadurarena, turismoa eta aisiarena, eta paperarena. Lehenbiziko hirurak lehentasuna dutenak dira. Cluster edo azpi-sektore hauek dira, uste denez, 92tik aitzinera konpetitzen ahalko dutenak, eta horietan zentratuko dira produkzio maila hobetzeko ahaleginak.

Eta lan honi hasiera emanen zaio, Gasteizkoek iragarri bezala, makina-erraminta sektorearekin, gero elektrodomestiko handiekin eta ondoren altzeiru bereziekin. Makina-Erraminta sektorearekin erabiliko den filosofia honetan datza: kontsideratzen dute sektore honetako atal batzuek badutela konpetentzi gaitasunik eta beste batzuek ez. Hortaz, "arreta jarri behar da ziklikoenak ez diren eta konpetitiboak diren ataletan, batipat Taiwan-ek egiten duen gero eta konpetentzia haundiagoari aurre egiteko". Makina-Erramintak EKAko BPGren 75% errepresentatzen du eta bertako esportazioen 4,3%.

Altzeiru bereziei dagokienez, berriz, abiapuntuko premisatzen hartu da "Euskadin altzeirua funtsezkoa dela", baina bide berriak hartu behar dituela: "gaur ez da txaparen demandarik diote-, kontua da altzeirua oinarritzen hartuz osagaiak edo konponenteak produzitu behar direla, baina, produktu bukatu gisa, ensanblatuak eta muntatuak izateko aukera ematen dutenak". Gasteizko Gobernuak proposatu dio BCI-ri (Banco de Crédito Industrial) Acenor Taldeko akzioen 15%-a erosiko duela. Gobernu Zentralak onartu zai daude. Halaz guztiz ere, gainean dago oraindik iragarritako birmoldaketa, eta honek, bate-tik, 1.000 lanpostuz goiti galtzea ekar dezake, eta bestetik, 60.000 milioiz goitiko "birflotamendu" kostuak.

Ohar gaitzezkeenez, Gasteizko Gobernuak aipatu

gabe utzi ditu Siderurgia Integrala, Itsasuntzigintza eta Ekipo Elektriko Ondasunen sektorea (Estatuaren kontrolpean daudelako!).

Industri Sailak 30.000 milioi izanen ditu eskuartean zailtasunak jota dauden 20 bat enpresari laguntzeko, guztira 6.000 lanpostu dituztelarik galtzeko arriskuan. Laguntza hauek "erreskate" moduan eman daitezke momentuko krisietatik ateratzeko, edo "birregituraketa" moduan baldin eta lanen birmoldaketa, merkatu berriak irekitzea, etab. suposatuko duen "bideragarritasun" planik badago, edota "orientazio laboral berrirako laguntza" moduan, langileak prestatu eta birtzikatzeko.

Gasteizko Gobernuak prestatu duen organigraman bada mahai hirukia, Sindikatuek, Patronalak eta Administrazioak osatu behar dutena. Mahai honen eginkizuna EKAKo Administrazio Planen segizioa egitea da. Gure organizazioak ere egon behar du mahai horretan, inolako aitzakiarik gabe, Administrazio desberdinek planifikaturik daukaten lanpostu galtzea eragozteko.

Eta mahai horretan egon behar dugu, baita ere, bertako analisi eta erabakietan euskal ikuspegitik emandako enfoke global eta makroekonomikoa emateko, Administrazioek, Patronalak eta Sindikatuek, soma daitekeenez, emanen duten ikuspegi sektorial eta partziala ez bezalakoa.

### 1.3.3.- NAFARROA

#### 1. SARRERA

Hego Euskal Herriko ekonomi egoeraren azterketa egiterakoan EAE eta Nafarroaren egoeren bilakaerak bereiztu egin behar dira zalantzarik gabe, aipatzen diren honako inguruabar hauengatik: egitura sozioekonomiko ezberdina eta ondore baldintzagarri politikoa, bi marko ezberdinak.

Hala ere, zehaztu egin behar da Nafarroan eta EAEn ekonomi egitura ezberdinak daudela esateak adierazten duena. Bion ekoizpen-egitura ezberdinak direla egia bada ere (horixe egiaztatzen du bi ekonomia hauen bilakaeraren azterketa historikoak), egia da ere bi ekonomiok (zenbait ikerlanek frogatze duenez) integraturik daudela eta elkarren osagarri direla.

Ekonomia hauen bilakaerak izandako erritmo ezberdinak nabarmendu behar dira. Nafarroa, tradizioz lehenengo sektorean oinarritutako elkarte, 70.eko urteen hasieran hasi zen industrializazioa ezagutzen eta, ondoren hirugarren sektorea hasi zen nabarmentzen, EAEn prozesu hau askoz lehenago bizi izan zelarik.

Beraz, Nafarroako ekoizpen-egitura azken hogeitau urteotan gertatu da biragarrantzitsua. BEGn sektore bakoitzak izan duen partehartzea aztertuz gero, 1960an lehenengo sektorea beraren %38,3, bigarren sektorea %27,5 eta hirugarrena %34,2 zirela ikus daiteke. 1990-91n ordea, portzentaia hauek bilakaera handia jasan zuten: lehenengo sektoreak %13,8 dakarkio BEGri, %34,1 bigarrenak, eta %52,1 hirugarrenak.

Hiru ondorio garbi atera daitezke honetatik: lehenengo sektorearen galera garrantzitsua, bigarren sektorearen aurrerakada eta ekonomiaren gaur egungo hirugarreneratzea. Geroxeago aztertuko ditugu sakonkiago ekoizpen sektoreak.

Nafar ekonomia nolabait definitzekotan, "industri gaztetasuna" z gain, oinarritzko sektore estrategikorik ez daukan izaera zabal eta esportatzaile hutsa daukan ekonomia dela aipatu beharko genuke.

#### 2. EGOERAREN AZTERKETA

1985 eta 1989 artean nafar ekonomiak hedakortasunezko hazkunde erritmo garrantzitsua mantendu zuen, %5,2ko batezbesteko tasekin. 1989tik aurrera atzeranzko ekonomi prozesu nabarmenean erori da, %3,9tik gorakoak ez diren hazkunde tasekin.

PSOEn kudeatzaileek beren agintaldian zehar etengabe aldarrikatu zituzten Nafarroaren ekonomiaren pribilegiozko "egoera ezin hobea" eta beraren garapen eta aurrerapen maila altua, eta beroriek erabili zituzten ezkututzat, autogobernurako eta autofinantzatzeko benetako gaitasuna zegoela baiezteko. Ezer ere ez faltsuagorik, ordea, 80.eko garai ezin hobek goia jo duzelarik, erakutsienez ekonomiarik dagokionez eskumen-subiranotasunik ez politikorik ez dagoelarik, sasi-garapen ekonomiko hori, PSOEek kapital transnacionalari gure ekoizpen-ehun osoa emateak baldintzaturik dago. Amejoramentuak dakarren hesiak ekonomiaren plangintza burutzeko gutxienezko eskumenak ego-

tea galerazi du. Ez da zorakeria beraz, hainbestetan aipatutako "Nafarroa probintzia bakarraren bidera-garritasuna" kolokan dagoela esatea.

Gure eritziz bi elementuk zantzutuko dute nafar ekonomiaren etorkizuna; izan ere, berorien ondoreak dagoeneko hasi dira nabaritzen. Batetik, 1990eko ekainean Nafarroa eta Estatu espainiarren arteko ekonomi komenio berria sinatu izana, eta bestetik, PSOEek zazpi urteotan burutu duen "eralkitze" politika.

1990era arte, Nafarroak finantz gaitasun handia edukitzeko balio zion pribilegiozko egoera gozatu zuen, Madrilek, 1969tik indarrean zegoen ekonomi Komenioa zela-eta, ematen zion trataera bereziak ahalbideratzen zuelako. Gaur egun, eskumen berriak bere gain hartzea (Hezkuntza eta Sanitatea) eta Madrili egin beharreko ekonomi ekarpen berriaz (36.000 milioitik gora urtean) izugarritzko bira gertatu da sektore publikoaren egoeran. Urte askotan lehenbizikoz nafar Administrazioak "zorpeketa" ezagutuko du, etorkizunean iraunkorra izango den zorpeketa, beraz, gero eta handiagoa izango den bola.

Ez dugu demagogiarik egiten PSOEek azken urte hauetan "zarrasteltze" eta "eralkitzean" oinarritutako politika burutu duela esatean, "asfaltoko Midas" izena merezi izateraino. Inork ere ez du zalantzatan jartzen ekonomiaren garapenerako azpiegiturek daukatengarrantzia. PSOE sasi-aurrerapena saltzekotan ibili da, Nafarroan, errepidetan batez ere, egin diren inbertsioak bere burua laudatzeko erabiliz. Milioi asko alferrikaldu dira, haren ihardunbidea gizarte-erantzun indartsua sortarazi duten garapen eta sektore-politiken burutzapenak markatu duelako, inolako lurralde-plangintzarik egindako politikak izan direnak, herrialdeko lurralde-desorekak areagotzen ari direlarik, gune batzuren alde eginez eta beste batzuek baztertuz.

Honez gain, inbertsio hauetako asko proiektu erraldoiak izan dira, indarraren arrazoiak ezarritako erabateko fede-egintzak, inola ere nafarrenak ez diren interesen mesederako direla esanez bidetzotzen direnak.

Honela beraz, kudeaketa sozialistak zazpi urte betetakoan, saltzen saiatu direna ez bezalako ekonomi egitura aurkitzen dugu, Administrazioa finantz ar-

loan oso makal, gure ekonomiarentzako oso ondore kaltegarriak ekar ditzakeena sektore publikoak bete dezakeen eginkizun garrantzia dela-eta, eta ondoren ikusiko dugun bezala, ekoizpen sektoreak oso egoera larri eta kezkarriari aurre egiten ari zaizkiolarik.

### 3. EKOIZPEN SEKTOREAK

EEEen sartzearen ondorioak Nafarroan ez omen dira EAEn bezain gogorrak izan. Hau ez da erabateko egia, lehenengo sektoreak hasiera-hasieratik bortizki pairatu bait ditu eta industri sektorea orain ari zaie aurre egiten. Beraz ondoreak "geroago" somatzen ari dira agian, eta zoritxarrez, nahiko bortitz.

Lehenengo sektorea nafar egitura berebiziko garrantzia edukitzetik bizirik irauteko bazterketa-egoera batetara igaro da gainontzeko sektoreen aldean. NPBren ondoreak izugarri nabaritu dira Nafarroan azken urteotan. Ekonomian oro har zeukan pisu espezifikokoaren galeraren adibide argia BEGn daukan gero eta paper axalekoagoa da, biztanlego aktiboaren jarraikako beherakadak eraginik ekoizpen gaitasuna galdu duelako, beraz %112-13ko enplegu-mailetatik gaur egungo %7-8koetara igaroaz.

Egunez egun ikusten dugu hustiraketa kopuruak eta sektore honetan ihardunean dauden langileenak beharantz egiten dutela etengabe, guzti hau gainontzekoen bizi-kalitate eta eskuratzeko ahalaren galera arduragarria ahazteke.

Nekazal politika eta berezko merkaturik ezak, eta nekazal-elikagaien industria, ekoizpenak, prezioak eta banaketa-bideak bere menpean dauzkan aniznaziotako kapitalari saldu izanak sektorea suntsitu dute.

Lehenengo sektoreko plangintzari dagokionez, Madrilgo Gobernua, EEE eta beronen (NPB) Nekazal Politika Bateratuaren menpean dagoen Nafar Gobernuaren eskumenik ezak oso desegur eta arriskutsu bihurtzen dute nafar nekazari eta abeltzainen etorkizuna. Hona hemen honen froga, Nafarroako azpisektorerik garrantzitsuenetako bi pairatzen ari diren krisialdia: esnea eta laborearena alegia.

gabe utzi ditu Siderurgia Integrala, Itsasuntzigintza eta Ekipo Elektriko Ondasunen sektorea (Estatuaren kontrolpean daudelako!).

Industri Sailak 30.000 milioi izanen ditu eskuartean zailtasunak jota dauden 20 bat enpresari laguntzeko, guztira 6.000 lanpostu dituztelarik galtzeko arriskuan. Laguntza hauek "erreskate" moduan eman daitezke momentuko krisietatik ateratzeko, edo "birregituraketa" moduan baldin eta lanen birmoldaketa, merkatu berriak irekitzea, etab. suposatuko duen "bideragarritasun" planik badago, edota "orientazio laboral berrirako laguntza" moduan, langileak prestatu eta birtziklatzeko.

Gasteizko Gobernuak prestatu duen organigraman bada mahai hirukia, Sindikatuek, Patronalak eta Administrazioak osatu behar dutena. Mahai honen eginkizuna EKAko Administrazio Planen segizioa egitea da. Gure organizazioak ere egon behar du mahai horretan, inolako aitzakiarik gabe, Administrazio desberdinek planifikaturik daukaten lanpostu galtzea eragozteko.

Eta mahai horretan egon behar dugu, baita ere, bertako analisi eta erabakietan euskal ikuspegitik emandako enfoke global eta makroekonomikoa emateko, Administrazioek, Patronalak eta Sindikatuek, soma daitekeenez, emanen duten ikuspegi sektorial eta partziala ez bezalako.

### 1.3.3.- NAFARROA

#### 1. SARRERA

Hego Euskal Herriko ekonomi egoeraren azterketa egiterakoan EAE eta Nafarroaren egoeren bilakaerak bereiztu egin behar dira zalantzarik gabe, aipatzen diren honako inguruabar hauengatik: egitura sozioekonomiko ezberdina eta ondore baldintzagarri politikoa, bi marko ezberdinak.

Hala ere, zehaztu egin behar da Nafarroan eta EAEn ekonomi egitura ezberdinak daudela esateak adierazten duena. Bion ekoizpen-egitura ezberdinak direla egia bada ere (horixe egiaztatzen du bi ekonomia hauen bilakaeraren azterketa historikoak), egia da ere bi ekonomiok (zenbait ikerlanek frogatze duenez) integraturik daudela eta elkarren osagarri direla.

Ekonomia hauen bilakaerak izandako erritmo ezberdinak nabarmendu behar dira. Nafarroa, tradizioz lehenengo sektorean oinarritutako elkartea, 70.eko urteen hasieran hasi zen industrializazioa ezagutzen eta, ondoren hirugarren sektorea hasi zen nabarmentzen, EAEn prozesu hau askoz lehenago bizi izan zelarik.

Beraz, Nafarroako ekoizpen-egitura azken hogeitau urteotan gertatu da biragarrantzitsua. BEGn sektore bakoitzak izan duen partehartzea aztertuz gero, 1960an lehenengo sektorea beraren %38,3, bigarren sektorea %27,5 eta hirugarrena %34,2 zirela ikus daiteke. 1990-91n ordea, portzentaia hauek bilakaera handia jasan zuten: lehenengo sektoreak %13,8 dakarkio BEGri, %34,1 bigarrenak, eta %52,1 hirugarrenak.

Hiru ondorio garbi atera daitezke honetatik: lehenengo sektorearen galera garrantzitsua, bigarren sektorearen aurrerakada eta ekonomiaren gaur egungo hirugarreneratzea. Gerorago aztertuko ditugu sakonkiago ekoizpen sektoreak.

Nafar ekonomia nolabait definitzekotan, "industri gaztetasuna" z gain, oinarritzko sektore estrategikorik ez daukan izaera zabal eta esportatzaile hutsa daukan ekonomia dela aipatu beharko genuke.

#### 2. EGOERAREN AZTERKETA

1985 eta 1989 artean nafar ekonomiak hedakortasunezko hazkunde erritmo garrantzitsua mantendu zuen, %5,2ko batezbesteko tasekin. 1989tik aurrera atzeranzko ekonomi prozesu nabarmenean erori da, %3,9tik gorakoak ez diren hazkunde tasekin.

PSOEren kudeatzaileek beren agintaldian zehar etengabe aldarrikatu zituzten Nafarroaren ekonomiaren pribilegiozko "egoera ezin hobea" eta beraren garapen eta aurrerapen maila altua, eta beroriek erabili zituzten ezkututzat, autogobernurako eta autofinantzatzeko benetako gaitasuna zegoela baiezteko. Ezer ere ez faltsuagorik, ordea, 80.eko garai ezin hobek goia jo duelarik, erakutsi denez ekonomiari dagokionez eskumen-subiranotasunik ez politikorik ez dagoelarik, sasi-garapen ekonomiko hori, PSOEkapital nazionalari gure ekoizpen-ehun osoa emateak baldintzaturik dago. Amejoramentuak dakarren hesiak ekonomiaren plangintza burutzeko gutxienezko eskumenak ego-

tea galerazi du. Ez da zorakeria beraz, hainbestetan aipatutako "Nafarroa probintzia bakarraren bideragarritasuna" kolokan dagoela esatea.

Gure eritziz bi elementuk zantzutuko dute nafar ekonomiaren etorkizuna; izan ere, berorien ondoreak dagoeneko hasi dira nabaritzen. Batetik, 1990eko ekainean Nafarroa eta Estatu espainiarren arteko ekonomi komenio berria sinatu izana, eta bestetik, PSOEek zazpi urteotan burutu duen "eralkitze" politika.

1990era arte, Nafarroak finantz gaitasun handia edukitzeko balio zion pribilegiozko egoera gozatu zuen, Madrilek, 1969tik indarrean zegoen ekonomi Komenioa zela-eta, ematen zion trataera bereziak ahalbideratzen zuelako. Gaur egun, eskumen berriak bere gain hartzea (Hezkuntza eta Sanitatea) eta Madrili egin beharreko ekonomi ekarpen berriaz (36.000 milioitik gora urtean) izugarritzko bira gertatu da sektore publikoaren egoeran. Urte askotan lehenbizikoz nafar Administrazioak "zorpeketa" ezagutuko du, etorkizunean iraunkorra izango den zorpeketa, berau, gero eta handiagoa izango den bola.

Ez dugu demagogiarik egiten PSOEek azken urte hauetan "zarrasteltze" eta "eralkitzean" oinarritutako politika burutu duela esatean, "asfaltoko Midas" izena merezi izateraino. Inork ere ez du zalantzatan jartzen ekonomiaren garapenerako azpiegiturek daukatengarrantzia. PSOE sasi-aurreapena saltzekotan ibili da, Nafarroan, errepidetan batez ere, egin diren inbertsioak bere burua laudatzeko erabiliz. Milioi asko alferrikaldu dira, haren ihardunbidea gizarte-erantzun indartsua sortarazi duten garapen eta sektore-politiken burutzapenak markatu duelako, inolako lurralde-plangintzarik egindako politikak izan direnak, herrialdeko lurralde-desorekak areagotzen ari direlarik, gune batzuren alde eginez eta beste batzuek baztertuz.

Honez gain, inbertsio hauetako asko proiektu erraldoiak izan dira, indarraren arazoiaz ezarritako erabateko fede-egintzak, inola ere nafarrenak ez diren interesen mesederako direla esanez bidezkotzen direnak.

Honela beraz, kudeaketa sozialistak zazpi urte betetakoan, saltzen saiatu direna ez bezalako ekonomi egitura aurkitzen dugu, Administrazioa finantz ar-

loan oso makal, gure ekonomiarentzako oso ondore kaltegarriak ekar ditzakeena sektore publikoak bete dezakeen eginkizun garrantzia dela-eta, eta ondoren ikusiko dugun bezala, ekoizpen sektoreak oso egoera larri eta kezkarriari aurre egiten ari zaizkiolarik.

### 3. EKOIZPEN SEKTOREAK

EEEen sartzearen ondorioak Nafarroan ez omen dira EAEn bezain gogorrak izan. Hau ez da erabateko egia, lehenengo sektoreak hasiera-hasieratik bortizki pairatu bait ditu eta industri sektorea orain ari zaie aurre egiten. Beraz ondoreak "geroago" somatzen ari dira agian, eta zoritxarrez, nahiko bortitz.

Lehenengo sektorea nafar egituraren berebiziko garrantzia edukitzetik bizirik irauteko bazterketa-egoera batetara igaro da gainontzeko sektoreen aldean. NPBren ondoreak izugarri nabaritu dira Nafarroan azken urteotan. Ekonomian oro har zeukan pisu espezifikokoaren galeraren adibide argia BEGn daukan gero eta paper axalekoagoa da, biztanlego aktiboaren jarraikako beherakadak eraginik ekoizpen gaitasuna galdu duelako, berau %112-13ko enplegu-mailetatik gaur egungo %7-8koetara igaroaz.

Egunez egun ikusten dugu hustraketa kopuruak eta sektore honetan ihardunean dauden langileenak beherantz egiten dutela etengabe, guzti hau gainontzekoen bizi-kalitate eta eskuratzeko ahalarren galera arduragarria ahazteke.

Nekazal politika eta berezko merkaturik ezak, eta nekazal-elikagaien industria, ekoizpenak, prezioak eta banaketa-bideak bere menpean dauzkan aniznaziotako kapitalari saldu izanak sektorea suntsitu dute.

Lehenengo sektoreko plangintzari dagokionez, Madrilgo Gobernuak, EEE eta beronen (NPB) Nekazal Politika Bateratuaren menpean dagoen Nafar Gobernuaren eskumenik ezak oso desegur eta arriskutsu bihurtzen dute nafar nekazari eta abeltzainen etorkizuna. Hona hemen honen frogak, Nafarroako azpisektorerik garrantzitsuenetako bi pairatzen ari diren krisialdia: esnea eta laborearena alegia.

Nafarroako industri sektoreari dagokionez, agerian dago desegituraketa, kariak honakoak direlarik:

- Ekoizpen sistema bera dago desegituraturik eta ekoizpena geldirik. Nafarroako ekoizpen egitura aniznaziotako kapitalak kontrolatzen du erabat. Nafarroa lanaren nazioarteko banaketaren katearen maila bat da, eta herrialdeak berak ere ezin gaindi dezakeen eginkizuna egokitu zaio, funtsean kanpora doazen ekoizpenetan espezializaturiko ekoizpen egitura daukalako.
- Nafar industria geografikoki bilduegi dago Iruñeko gunen metropolitarran eta, hein txikiagoan, Ebroren iraganbidearen gunean, iparraldea alde batetara utziz eta guneen arteko desorekak sortaraziz.
- Enplegu-egituraren itxuraldaketa garrantzitsua gertatu da ere, berba absolutuak erabiliz lanpostu asko galdu, eta arlo honetako gune-orekak apurtu direlarik, enplegu berriak sortuz egokitu ez direnak. Berba erlatiboak erabiliz, enpleguaren beherakadak %10eko galera globala ekarri du 1975koaren aldean.

Nafar sektore publikoaren presentzia testimonial hutsa ere nabarmendu behar da, neurri txikiko enpresa bakar batzutan parte hartu -sekula ere ez maioritarioki- besterik ez bait du egiten. Argi dago Nafarroako Gobernuak enpresa publikoa baztertu duena industri aldaketan eragile eta enplegu iraunkorraren sortzaile gisa. Nafarroan sektore publikoak, inbertsore pribatuak lagatutako enpresak berrabiarazi baino ez du egiten, ondoren, nafar guztien diruaz sendatutakoan sektore pribatuari itzultzeko. Kapital pribatuaren urgazle bihurtzen da beraz, industri polikaren tresna nagusia den aldetik daukan eginkizuna ahaztuz.

Nafarroako Gobernuaren industri politika, gure ekoizpen-egitura behar bezala egokitzeko interesik ezak zantzutua, Administrazio zentralak burututako politiken jarraipena egitea da huts—hutsen. Bertako izaeradun enpresal sektore publikoa lortzeko edozein helburu baztertu duela azpimarratu behar da halaber.

Nafar industria oraintxe somatzen ari da aurrean

daukagun industri eraispena eta EEEn sartu izanaren ondorio guztiak, oro har. Siderurgi sektorean dauden enpresa gutxi horiek ez diete alde egiten Madrilek beraiantzat gordetzen dituen eraispen-egitami. Honen adibide adierazgarria dira Laminaciones de Lesaka, Perfrisa edo Funvera izeneko enpresak. Ez dugu ahaztu behar Nafarroako industri egitura funtsean automobilaren sektorean eta beronen laguntzaileetan, SEAT buruan, oinarritzen dena, eta era honetako sektoreak krisialdi gogor baten arrisku iraunkorraren pean daudena. Nafarroako industriarentzako ondorioak zorigaitzoko eta atzeraezinezkoak lirateke.

Lehenengo sektorearekin zuzenean loturik dagoen arren, Nafarroako industri egiturako azpisektorerik garrantzitsuenetako beste bat nozitzen ari den krisialdia nabarmendu behar dugu: Kontserba industria, alegia. Merkatal estrategia egokirik eta merkaturatzeko biderik ez egotea eta finantzatzeko iturriak lortzerakoan gertatzen diren hutsak berehalako itxierak sortarazten ari dira eta gehiago sortaraziko dute.

Zerbitzu sektoreari dagokionez, EAEn bezala, ekonomiak hirugarren sektorerantz egindu. Nafarroako zerbitzu sektorearen oinarrietariko bat Administrazioan bertan dago, urteetan zehar hazi eta gaur egun milaka funtzionario eta langilek osaturiko bilbapena bait da. Sektorearen gainontzekoa industri sektorearentzako zerbitzuan, hain zuzen, diharduten enpresa nahikotxok osatzen dute batik bat.

Ez da nafar administrazioaren aipatutako krisi egoera ahaztu behar, azken urteotako aurrekontu-politika ezin txarragoaren emaitza, eta ondorio larriak ekar ditzakeena.

#### 4. LAN MERKATUA

1991ko martxoan 27.120 langabetu zeudela kontutan harturik, langabeziaren egitura azpimarratu behar da, nafar ekonomi egituraren barne zama finkoa bait da. 1985etik langabetu kopurua 7.500 langabetu inguru gutxiagokoa dela behatzea besterik ez dago. Denboraldi berean biztanlego aktiboa 180.000 pertsonetara izatetik, oraingo 207.000kora igaro dela kontutan hartuz, langabeziaren urritzea iragarria izan da.

Bestalde emakume eta gazteek lanean pairatzen

duten bereizkeria salatu behar da ere. Langabetuen kopuru osoaren %32,5 gizonetzko eta %67,5 emakumeak zirela isladatzen dute 1990aren amaierako portzentaiek. Halaber, gizonetzkoen guztirakoaren %32 gazteak ziren.

Behinbehineko enpleguaren igoera nabarmendu behar da ere. 1990ean Nafarroan 84.320 kontratu egin ziren guztira, 1989an baino 27.429 gutxiago, hots, %24,5eko jaitsiera. Hona hemen enpleguaren behinbehinekotasunaren froga argia: egindako kontratu horietarik %2,3 baino ez ziren mugaga-beak izan, gainontzekoak inoizkako kontratazio mota ezberdinetakoak izan zirelarik.

Enpleguaren behinbehinekotasunak oso maila altua dauka Nafarroan; aspaldidanik ezagutzen ez ziren mailak. Erregulazio espedienteak eta kontratu murritzetak eguneroko gauza dira. Egun Nafarroako ospe handiko enpresak Enplegu Erregulazio Egita-moen barruan daude eta honek langile ugari kalean geratzeko arriskua dakar.

#### 5. ATZERRIKO INBERTSIOEZ

Lan honetan Nafarroan azken urteotan sartu den atzerriko kapital kopuru garrantzitsuak azpimarratu ditugu. Honen ondorioz nabarmenena hauxe da; Nafarroako ekoizpen-egitura gehiena kapital transnazionalaren esku dagoela alegia.

Zenbaitek esaten duenez, atzerriko kapitalari esker ari da Nafarroako ekonomia sustatzen baina hau zehaztu eta baita gezurtatu ere egin behar da. Merkaturan eragiten duten kontrolaz gain, egun Nafarroan dauden multinazionalak dira politika ekonomikoaren ildoak zehazten dituztenak, Nafarroako kudeatzaileak beraien morroi huts izanik. Ez dago kapital honen gaineko inolako kontrolik; gainera kapital honen helburua ez dago inondik inora ere ekoizpena edo enplegu sortzearekin loturik.

• Datuak azpimarragarriak dira. 1990 urtean zehar atzerriko enpresek Nafarroan egindako inbertsioak 40.604,19 milioi pezetakoak izan ziren (kapital espekulatzailerik kanpo). Portzentaia oso altua da Estatu espainiarreko beste lekuetan sartu diren kopuruekin erkatzen badugu. Errioxan esaterako, kopurua 2.546,8 milioitara heldu zen. Vascongadasetan kopurua 52.652 milioitakoa izan zen, bai-

na ezin dugu leku bat eta besteko biztanle kopurua erkatu...

- Beste datu garrantzitsu bat atzerriko inbertsioek Nafarroako 58 enpresetako kontrola daukatela da, guztira 66 enpresatan parte hartuz.
- Nafarroako industriako azpisektore nagusiak kapital transnazionalak kontrolatzen ditu. Automobila eta lagungarriak eta elikadur industria alegia.

#### 6. KANPO MERKATARITZA

Azkenik, lan hau amaitzeko, aspektu hau aipatu nahi dugu daukan garrantziagatik. Nafarroako ekonomiaren izaera esportatzailea iruzkindu dugu. Azken urteotan nafarroako merkataritzan errotiko aldaketa gertatu da.

1983an esportazioak (47.734,3 milioi) inportazioen bikoitza ziren (21.868,7 milioi) eta 1989an kopuruak antzerakoak ziren (esportazioak 166.739,5 milioi eta inportazioak 137.503,5 milioi). 1990ean esportazioak %11,4 hazi ziren 1989ari dagokionez eta inportazioak %26,8.

Nafarroako ekonomiaren esportatzeko gaitasuna galtzea eta inportazioen hazkunde masiboa Nafarroako ekonomiaren balantza egoera guztiz defizitario batetara eramaten ari dira.

#### 1.4.- EEE ETA AKTA BAKARRA

Europar Akta Bakarra martxan jartzea dela eta, horren inguruko hizketa guzua arontzian triunfalista da, eta ez da irabazi enpresarialen irabaziak nola haziko diren eta zenbat lanpostu sortuko diren baizik aipatzen. Dударikan gabe, propaganda kanpaina ikaragarria dute antolatu, Estatu langileen gainean izanen diren efektu negatiboak ixil erazi eta izkutatu nahi dituenak. Lehena berriro, orain ere beste guztien gainetik ageri dira Kapital Multinazionalaren interesak, zokoratzen dituztelarik langileen bizi-maila eta etorkizuna. Hego Euskal Herriari dagokionez ere, "Europa Berri Handia" jendea liluratzeko darabilte, gure jendearen artean sakon bezain zabal senti-

tzen den subiranotasun errebindikazioa estaltzeko.

Europar Akta Bakarra dela eta, gure jarrerak erabateko prebentzioa izan behar du, eta ez batere baikorra, zeren Gobernu espainolak guzti honetan erakusten duen menpeko posizioagatik, "oinarri-zko" birregituraketa (siderurgia integrala, altzeiru bereziak, itasuntzigintza, etab.) prozesuen aurrean halako jarrera pasiboa hartzearen alde bait dago, Euskal Herriko gobernu autonomikoen aldetik ere gauza bera ikusten delarik, inoperatibitatea, konformitatea eta kontrajokorik eza. Guk, aurrenberrian, ez dugu Europar Akta Bakarra gaitzesten, ezagutzen ditugu industrietako birregituraketa eta erreajuste premiak ere. Ezin dugu onartu, ordea, halakoak beti irabazi hutsaren ikuspegitik egitea, langile klaseaz ahazturik, eta beren kalkuluetan "Euskal Herria" aldagaia eta bertako behar bereziak kontuan hartu gaberik.

Gure eritzirako, Europar Akta Bakarra martxan jarzteak langileentzako dakartzan arazoak hauek dira:

- Diferentzia teknologikoak direla eta, produkzio eta konpetentzi mailako diferentziak beraz, erreajusteak, birregituraketakeragin dira enpresa handi, txiki nahiz ertainetan. Zerbitzuetako sektorean, orobat, publikoak nahiz pribatuak izan, sortu berri den konpetentziak jendea kaleratzea, lan-baldintzen aldatzea, etab. dakartza.
- Hartzen baditugu, batetik, haziera akumulatiboa duten eskualdeak, eta bestetik, gainbeherako eskualdeak, horien arteko desberdintasun gero eta handiagoak, nola bizimoduari hala lanari dagokienez, ondorio txarrak dakartza. Ez ahaztu Hego Euskal Herria gainbeherako industri area dugula, eta gaurko sistemaren joera "eskualdeen arteko diferentziak" handitzearen aldeko dela.
- Langile mugimendu "nazionalak" ekiteko bezala defendatzeko ahalmenak ahultzeko arriskuan dituzte (gurea bezalako herri txikitetan batez ere), eta, aldiz, Brusselan enpresa handiak eta han-hemengo politikak gero eta gehiago "multinazionalizatu" behar direla erabakitzen dute. Gai honetan, behar-beharrezko gertatuko zaigu Langile Mugi-

mentuaren borroka koordinatzea Multinazionalen botereari aurre egiteko.

- Laneko organizazioa "unilateralki", alde-bakarretik eraberritzeko joera gero eta handiagoa (malgutasuna, denbora partzialeko kontratuak, etab.)

Mugak "desagertzen" direnean, enpresa arteko konpetentziak produkzio maila handitzea ekarriko du, soldata eta alokairuak "geldieraziz", erritmoak azkartu eraziz, eta lan merkatua "malguago" egin. Kapitalak horrela "europar konpetentzi gaitasuna" haundiagotu nahi du, Japonia eta USArri aurre egiteko.

## ESKUBIDE SOZIALAK

80ko hamarkadaren hasieratik, gehienon adostasunaz, "europar eremu sozialaz" hitzegiten ari gara. Hasieran "europar legislazio sozialaz" ere aipatu zen. Ikusten denez, batzuek derriorean bete beharreko testu bat egitera jo badute ere, beste batzuek ez dute asmo onez beteriko deklarazioa besterik egin nahi izan. Beraz, Europar Akta Bakarraren motibazio neo-liberalek, Estatu batetik besterako diferentziek eta europar patronalaren jarrerak-honek ez bait du Europa mailako legislazio sozialik ikusi ere egin nahi-, gauden egoera honetara bultzatu gaituzte, eta Delors berak ongi dioenez, hemen ez du inork deklarazio "moralak" baizik egin nahi.

EEE sortu zenean, eskualde pobre eta aberatsen arteko desberdintasuna 1:2 neurrikoa zen. Gero Danimarka, Erresuma Batua eta Irlanda sartu ziren eta desberdintasun eskala 1:5 izatera pasa zen. Eta Grezia sartu zenean desberdintasuna 1:10 izatera iritsi zen, gero Portugal eta estatu Espainola sartzean mantentzen delarik.

Inperialismoaren zentruetako bat da EEE, eta honen baitan ikusten da nazioarteko lan zatiketa bat. Estatu batzuek (Portugal, Grezia, Espainia) lan-esku merkea jarri behar dute (hauen kostu laboralak dira komunitateko bajuenak). Diferentzia hauek areagotzea da Sistema Kapitalistaren oinarria. Eta "eskualde" eta herri diferenteen arteko desberdintasun sozialen aurka egiteko EEEen halako fondo estrukturalak ere diren arren (FEDER, FEOGA, FSE), kontua da EEE jaio zenetik herri hauen arteko diferentziak haunditu egin direla. Beraz, nekez espero genezake

halako Europako Karta Sozial bat izatea, herri guziendako obligaziozko arauak bilduko dituen, hau sistemak dituen printzipioen beraien kontra bait dago.

Honenbestez, bada, 1992tik aurrera, langileari hara nolako Europa eskainiko zaion: merkantzien, kapitalen eta lanaren zirkulazioa libre izanen da. Bizigiroa, berriz, txarra eta makurra. Estatu aberatsek

pobreen aurka egingen duten kompetenziaren ondoriozko zartakoa latza izanen da. Soldata, bizimodu eta laneko diferentziak aregotuko dira. Merkatu ekonomiako "lege basatia" maila guzietan zabalduko da, eta ezin nabarmenago gainera, nahiz eta itxura arrazionala eta gizatiarra emanen zaion. Urrun gara, urrun, paradisu laboraetik, justiziazko, demokraziazko eta libertatezko erresumatik.

## HANDIA GIZARTE ERALDAKETAREN BIDEAN

### 2.1.- ESTATUKO LAN HARREMANETAKO EGUNGO EREDU ZENTRALISTA ETA ERREALTATE NAZIONAL BAREIZTUAK UKATZEN DITUENA.

Estatu espainiarreko lan harremanen egungo ereduak lan arloko arau-ekintza ceptasunean, Estatuaren organo zentralen eskumenen da. Alpetu estatutuen arau-gatasuna legeak onartu ziren arandak egiteko ezarri dago. Ondorioz Autonomi Elkarteak (gurean Baskoak eta Nafarroa), ez daukate legeak egiteko gaitasunik arlo sozio-laboralean. Estatuak daukiren lan-legeria ezarriko gaitasun zela da; izan ere, Estatuaren organo zentralak garatu dituen lan harremanen dagokien oinarriko arautegia, Langileen Estatutu eta Askatasun Sindikaleko Lege Organikoa dira arauak alpegiariek, biek behar izan, lan harremanetarako estatu marko bideratzen zentralizazio-finkoa bermatzen dutelarik.

Beste alde batean, Gizarte Segurantzaren eta halako gau garrantzitsuen dagokionean, lege eta arauak egiteko Estatuari dagozko erantzukizuna Autonomi Elkarteek ez daukate inolako eskumenik arlo horietan. Gertu behar dago ordea, Konstituzio Epilogotik 1981ko urriaren 26ko artikuluan, baldintza estatuaren indar-eremuetan, eta berean, estatu-

ri dagokien arloetan zuzen, alpetu eraldatzen "karta berria" jela ereduak, Gizarte Segurantzaren indar-eremu Autonomi Elkartei transferitu dezentralizazio eragotzia.

Lan harremanen ereduaren zentralizazio politikak Autonomi Elkarteek beren iberrua eremuak lan legeria eta beronizako beharretako diren administrazio zerbitzuen bidez arautzeko bermak mugatzen da.

Finan, lan legeriaren arloan, Elkartu Autonomikoen legegintza-gaitasunik ez dela eta, estatuko legeriak eta zehazki LE eta ASLOk lan harremanen arautetarako leku garrantzitsuak dira.

Era berean, LEren alpetu gure berria goratu egiten da arau-ahizaren iberruaren utziko margen zabalak. LEk babesten egin ditu hainbat Erret Dekretu eta Ministrantza Agindu guri garrantzitsuak arauterakoan, kontratu moztak, gutxienezko alokairuak, lan baldintzen funtsezko aldaketak, kontratuen etenak eta deuseztatzeak, ASL (FOS), hauteskunde sindikala.

Langileen Estatutu eta ASLO (Askatasun Sindikaleko Lege Organikoa) lan harremanen estatu-ereduetan eraberritze oinarriko arauak dira. Bai halaber, Puntzio Publikoaren Erakundearen 84/30 Legea eta Ordenantza Organuak Legea... LOES, funtzioaren eremuari dagokionez behinik behin.

LE eta ASLOren oinarriko lan harremanen estatu-ereduetan zuzen zentralista eta bideratzen horako

## **2.- LHMA AURRERAKOI ETA AURRERATUAREN LORPENA, URRATS HANDIA GIZARTE ERALDAKETAREN BIDEAN**

### **2.1.- ESTATUKO LAN HARREMANETAKO EGUNGO EREDU ZENTRALISTA ETA ERREALITATE NAZIONAL BAREIZTUAK UKATZEN DITUENA.**

Estatu espainiarreko lan harremanen egungo ereduak, lan arloko arau-ekintza osotasunean, Estatuaren organo zentralen eskumena da. Aipatu estatuaren arau-gaitasuna legeak onartu zein araudiak egiteko ahalari dagokio. Ondorioz Autonomi Elkarteek (gurean Baskongadak eta Nafarroa), ez daukate legeak egiteko gaitasunik arlo sozio-laboralean, Estatutik datorren lan-legeria betetzeko gaitasun soila daukatelarik. Estatuko organo zentralak garatu dute lan harremanei dagokien oinarritzko arautegia. Langileen Estatutua eta Askatasun Sindikalerako Lege Organikoa dira araurik aipagarrienak, biak helburutzat, lan harremanetarako estatu marko bakarraren zentralizazio tinkoa bermatzea daukatelarik.

Beste alde batetik, Gizarte Segurantza eta halako gai garrantzitsuei dagokionez, lege eta arauak egitea Estatuari dagokio ere, honela Autonomi Elkarteek ez daukate inolako eskumenik arlo honetan. Gehitu beharra dago ezen, Konstituzio Epaitegiak, 1989ko uztailaren 7ko epaitzan, baliabide ekonomikoan kudeaketa eta Gizarte Segurantzaren sistemaren finantz administrazioa, era berean, estatu-

ari dagokiola adierazi zuen. aipatu erakundearen "kutxa bakar" jitea sendotuz, Gizarte Segurantzaren kudeaketa Autonomi Elkartei transferituz dezentralizatzea eragotziz.

Lan harremanen ereduaren zentralizazio politikoak Autonomi Elkarteek beren iharduera eremuak lan legeria eta beronentzako beharrezko diren administrazio zerbitzuen barne araupeketa berrira mugatzea dakar.

Finean, lan legeriaren arloan, Elkarte Autonomikoen legegintz-gaitasunik eza dela eta, estatuko legeriak eta zehazki LE eta ASLOk lan harremanen araupeketan leku garrantzitsu dute.

Era berean, LEren aipatu gune berezia goratu egiten da arau-ahalaren iharduerari utziriko margen zabalaz. LEk babestu egin ditu hainbat Erret Dekretu eta Ministraritzak Agindu gai garrantzitsuak araupezerakoan; kontratu moetak, gutxienezko alokairuak, lan baldintzen funtsezko aldaketak, kontratuen etenaldi eta deuseztatzeak, ABF (FGS), hauteskunde sindikalak.

Langileen Estatutua eta ASLO (Askatasun Sindikalerako Lege Organikoa) lan harremanen estatu-ereduaren eraketarako oinarritzko arauak dira. Bai halaber, Funtzio Publikoaren Eraldaketaren 84/30 Legea eta Ordezkaritza Organuen Legea... LORS, funtzionari-eremuari dagokionez behinik behin.

LE eta ASLOn ezarritako lan harremanen estatu ereduaren izaera zentralista eta bateratzailea honako

aspektu hauetan nabarmentzen da batik bat:

1.- LEk, estatuko sindikatu adierazgarrienek negoziaketa menpera dezaten ahalbidetzen du eta maila baxuagoko alderdi negoziatzaileak baldintzatzen ditu konbenio markoaren figuraren aintzatespenaren bitartez. Komenio markoak negoziazio kolektiboaren egitura araupetzen du, berau piramide modura antolatuz eta "kaskada" erako negoziazioa ekidinez. Zenbait arlo araupetzen ditu, berauek maila baxuagoetan ezin daitezen negoziazio gai izan.

Komenio markoen bigarren moeta aipatu gaien negoziaketa maila baxuagoetara eramatea du ezaugarritzat, baina komenio edo akordio markoan aipatu gaien negoziazioa beheragoko mailetatik bidera dezaten erizpideak ezarriz. Dena dela, artikulaturiko negoziazio kolektibo eredu honekin, goiko erabakiek, negoziazioaren behe mailak eraginkorki binkularaztea nahi da. Ondorioa erpinean, sindikatu eta ugazaberiaren goi karguen artean estatu mailan ematen den negoziazio kolektiboaren eta alderdien autonomia kolektiboaren printzipioaren nola baiteko porrotaren zentralizazio eta burokratizazioa besterik ez da, euskal eremuan negoziazio kolektiboaren praktika bereiztuaren garpenerako oztopo bilakatzen dena.

2.- ASLOk "ordezkaritza sindikal handiagoa" ren kontzeptua egi bihurtzen du eta diskriminazio argia ezartzen du sindikatuen artean iharduera sindikal eta ordezkartzakoari dagokionez. "Sindikaturik ordeztuenek" "ordezkaritza ordezkagarria gozatuko dute lurralde eta funtzio eremu guztietan" ezartzeak, berauei funtzio ordezkagarriatiboak bete daitezkeen eremu guztietan egon eta ihardutea ahalbidetzen die, eta batez ere negoziaketa kolektiboan. Honela, eremu zehatz batetan ihardun dezakete nahiz eta ordezkaritza txikia izan ala inolakorik ez izan. Ondorioz, akordio interkonfederalak edo lehen aipaturiko akordio markoak negoziatzeaz gain, lurralde eremua edozein delarik ere, sektore-komenio guztiak negoziatzen dituzte, edo negoziatze ditzakete.

Kategorizazio honen ondoreak honako honetara ere hedatzen dira:

- Ordezkaritza instituzionala, GANI(INSS) IGI(ISM), ENI(INEM), ABF (FGS)etan parte hartzen dutenak sindikatu hauek direlarik.

- Ondare sindikala, ALOSen babespean eta praktikan "ordezkagarrienak" ekonomi-irabaziak ateratzen dituzte ondare publikoaren erabileraz.

Honi, sindikaturik ordezkagarrienei lehentasuna emanaz subentzio banaketan Administrazioak daraman diskriminazio politika gehitu behar zaio.

## 2.2.-

### **LHMAREN DEFINIZIOA, EUSKAL NAZIO SUBIRANOTASUNAREN LORPENETIK SORTUA ETA IHARDUERAREN ETA ESKUHARTZE SINDIKALERAKO TRESNEN FUNTZIOARI BURUZKO KONTSIDEROAK**

1.- Lan harremantzat, botere berbetan, indar antagonikoen artean ematen den harremana jotzen dugu, kapitala eta lanaren artean alegia.

LHMA beraz, harremana definitu eta zehazten duen eta kapitala eta lanaren arteko indar koerlazioa baldintzatzen duen lan ordenamendu juridikoa da.

Lan ordenamendu juridikoan jatorri ezberdineko bi arau mota dira izankide; ohizkoa, alderdi bien autonomia kolektiboaren ihardunean, ugazaberia eta mugimendu sozialaren dialektikatik sortu eta NKren bitartez adierazia, eta gure kasuan, Euskal Nazio Institutioetatik, Euskal Nazio Subiranotasunetik ondorioztaturiko Euskal Botere Politikotik, sorturiko arau eta legeak, eta egun Estatuko organo zentralak berretzat dauzkatenak.

2.- Politika ekonomiko eta sozialak (politika fiskala, aurrekontuena, errenta politika, politika industrialak, enplegu politika,...) modu oso ga-

rrantzitsuz eragiten du indar koerlazio egoera zehatz bat osatzean, indar egoera honen adierazpen orokorra ordenamendu juridiko eta legezko baten modura agertu arren. Ezarria izan ondoren, aipatu ordenamendu juridikoak kapital eta lan arteko indar koerlazioa bera baldintzatzen du. Politika ekonomikoa eta soziala definitzen duen neurri multzoaren mota eta ezaugarriak (politika fiskala, aurrekontuei dagokiena, errenta politika, industri politika, enplegu politika,...) oso eragin handia daukatela indar koerlazio egoera jakin bat osatzerakoan.

LHMA euskal eremurako errebindikatzeak estatuen eskumen eksklusiboa ukitzen duen neurrian, honen materializazioa marko juridiko-politiko berri batetan baino ez da posible, marko berri honen ardatza euskal nazio Subiranotasunaren aintzatespena delarik, eta honek politika ekonomikoa eta soziala diseinatzeko legegintz-gaitasuna darama barnean.

Beraz, kapitala eta lanaren artean eremu berri bat proposatzen dugunean, zentzu zabalean egiten dugu, lan ordenamendu juridikoak definiturikoa baino zabalagoa, nahiz eta hau, Lan Harremanetarako Marko Autonomoaren gune kontzeptuala izan.

3.- LHMA errebindikatzerakoan, langileentzat funtsean mesedegarriagoa izango den indar koerlazioa lortu nahi dugu, askoz ere oreka handiagoa adierazten duen harremana nahi dugu. Eta hau, teorikoki baino gehiago, benetan egingarria da, euskal eremuan indar koerlazioa, esperientziak erakutsirik, Estatuko gainontze-koan baino mesedegarriagoa den neurrian, nahiz eta legegintz-materializaziorik ez daukan Euskal Nazio Subiranotasunik ezean.

Beste alde batetik, nazio Subiranotasunaren lorpen berreskuraketarako, eta ondorioz, LHMArenerako, gertuturiko estrategia bakarra ENAMetik dator, gu bertako partaide garelarik, kultura aurrerakoia, aldaketa nahia eta izpiritu iraultzailea. Ondorioz, burutzapena, ENAMen behar beste indar biltzearen eta jauzi politiko garrantzitsu baten ondorio da.

4.- Joan den hamarkadan izandako esperientziak erakutsi digu, ez Hegoaldeko instituzio politiko

eta administratiboek ez eta gizarte-eragileek ere (ugazaberia, sindikatuak) ezin izan dutela estatu zentralako instituzioek, sarritan estatuko gizarte-eragileengandik eta EEEtik datorren laguntzarekin ere egindako ekonomi, gizarte eta lan politikaren planifikazio eta burutzapenean pisuzko aldagai bakar bat ere sartu.

Euskal langileriaren bizi baldintzak baldintzatu eta zehazten dituzten oinarriko prozesu guzti hauek, euskal gizartearen eskuhartze eta erabaki eremutik kanpo daude eta gizarte honen "garapen kanporakoa" eragiten dute, langileen beharizan ekonomiko eta sozialen aldean lehentasuna daukaten estatu eta nazioarteko interes ekonomikoen garapena hain zuzen.

Kapitalaren boterearen mugaketak eta, ondorioz, indar koerlazioan eta politika ekonomikoa eta soziala diseinatu eta burutzeko eskumenetan ematen den jauziak, LHMAren errebindikazio eta programaren ondoriozkoa delarik eta gure Nazio Subiranotasunaren aintzatespena darmanez, ekintza errebindikatibo eta sindikalarako birtualtasun handiagoa eta gure gizartearen garapena beraren interes eta beharreztatik orientaturik egotea ahalbidetzen du.

5.- Problematika honekin loturik bi pentsamolde nagusi daude euskal eremuko sindikalismoaren baitan, gurea eta ELAren.

ELAk, "EUSKADIn lan harremanetarako berezko sistema" baten alde egiten du, zenbaitetan ere aipatzen du "EUSKADiko lan harremanetarako berezko markoa". Kontzeptua oinarrian garatzean euskal eremuko negoziazio kolektiboko praktika bereiztu batekin identifikatzen du. Negoziazio kolektiborako egitura egonkor bat ezartzean, hots, dimentsionamendu osoa ondoriozko instituzio—garapenarekin, LHKn (CRL) eta, NK eta besteetatik ere, PRECO, sortutako arazoan epaizkanpoko konpontzean materializatuz, eta NKari hauteskunde sindikaletako espazio garrantzitsua emanez, hots, lan harremanen edukin guztia NKren bitartez gauza dadin sustatuz, euskal eremuan, lan harremanetarako gune autonomoa izan daitekeena.

Proposamen honi honako kontzeptzio hauek eusten diote:

- Gizarte eragile eta lan legezkotasunak lan harreman arloan bete beharreko espazio mugatzean, leku garrantzitsu bat ematen dio gizarte eragileenari eta lan legezkotasunak sustaketa eta laguntza funtzioei atzekirik soilik eta oso edukin gutxi araupetu behar duela uste du. Alde sozialen autonomia kolektiboaren printzipioaren ihardunean, eta negoziazio kolektiboaren bitartez araupetu behar dira lan harremanen edukinak. Autonomia kolektiboa alderdi sozialek, patronala eta sindikatuak, lan harremanetarako sistema erregulatu eta ordenatzeko duten ahalmena esan nahi du.

Autonomia kolektibo printzipioa ezarriz, alderdiek lan harremanaren edukia ezartzen dute, Estatuaren partehartze erreglamentariorik gabe, negoziazio kolektiboaren instrumentuaren bidez, askatasun sindikalari eta gatazka kolektibo neurriak hartzeari erabat lotutako eskubidea.

- Estatu baskongadoak, arlo sozio-laborean eskaini duena kolokan jartzen du, baina ez du zalantzan jartzen autogobernua ahalbidetzen duen arau gisa dauzkan legezkotasun eta potentzialtasuna. Estatu datzan Hitzarmen-izpiritua desnaturalizatu izan dela uste du eta beronen emaitzak PSOE Gobernuaren zekenkeria politikoari leporatzen dizkio.
- NK berezko iharduera delako ezaugarria ematen dio, ia ekintza sindikal eta erreindikatibo bakarra. Beronen funtzioa beraz, oinarrizkoa da eta ia eskusiboa, eta beste batzuek garatu behar baditu (espedienteak), abagadune arazoiek eragina da. Eta uko egiten dio bere iharduerak dimentsio politikoa ere izateari.

Kontzeptzio hauetatik eta ente autonomikoen legegintz-gaitasunik ez horretatik abiatuz, eta "legegintz-aldaketarik egongo ez dela" ikusirik, alde sozialen autonomia kolektiboaren tresna planteatzen du, metodo eragile gisa ere, NKari ahalik eta espazio negoziatzaile gehien emateko nahiez, hots, LE eta ASLO NKren bitartez inguratu, aurre egin beharrean, eta arautegi zentralistak ezarritako baldintzak ahaztu. Honela, estatu—

markoaren gutxiegitasunaren arazoari aurre egitea ekiditen du. Ez du konstituzio eta estatutu-markoa espreski osotasunean zalantzan jartzen, edo gutxienez ez dio nabarmenki aurre egiten, honek planteamendu koherente bat exijituko bait luke Konstituzio espainolaren aldaketa bat erreindikatzeari begira, berau bait da orohar euskal nazio erreindikazioak eta partikulariki arlo sozio-laboreari dagozkionak guztiz mugatzeaz arduratzen den oinarrizko araua, finean, euskal nazio subiranotasunaren aintzatespenaren barruan, benetako LHMA bat eratzea eragotziz.

6.- LABek, autonomia kolektiboarako eskubidea erabiltze soila eta negoziazio kolektiboa finkatzen duten mekanismo instituzionalak erabiltzea lan harremanetarako benetako autonomia lortzeko ez dela nahikoa uste du. Hau dela eta Konstituzio Epaitegiaren 1982/35 epaitza gogoratu behar da; LHKak ezin duela berez lanbidarteko erabakirik hartu, ez eta "lan harremanetan eragiteko araurik" ere, hauek Estatu organo zentralen eskumen eskusibo direlako.

7. Arazoari aurre egiteko zeharbide honen eraginkortasun eta bidegarritasuna balioesterakoan, kontutan hartu behar da ELAren tesiak garatzen gunean, estatuaren arau-iharduerak beronen eskumen eskusiboa izaten segitzen duela, eta datu honek ASLO eta LE eta gainontzeko arauak, aipatu ditugu hauen ondorioak, oraindik indarrean daudela adierazten digu. Badiraute ere beste abagadunetan, estatu mailan konertzazio akordioak berregiteko aukerak. Beraz, Estatuaren oztopatzeko gaitasuna, baita gizarte eragileena ere, handia da, aipatu epaitza adibide bat da, eta arrisku handiko faktoreek ukitzeke diraute, NKren praktika bereiztuaren sakontzeko strategiari dagokionez behinik behin. Horrek, ELA proposaturiko metodoek eta diseinutako bideak sorospen eta behinbehinekotasun izaera daukatela adierazten digu.

Inguru hau jadanik oso partzialki baldin badago ere, Baskongadetan asko geratzen zaigu oraindik NKren praktika bereiztuaren garapen asebetegarria lortzeko eta Nafarroako egoera are larriagoa da, baina egoeraren diagnostikoak - euskal langileak ukitzen gaituzten arazo larriak, kapitalaren aldeko indar koerlazio ikaragarria,

bide honen gutxiegitasunen adierazle argi eta garbia dela esatera garamatza, lan, gizarte eta ekonomi arloan Euskal Nazio Institutioek arauak emateko gaitasunik ez dagoen bitartean.

8.- Beharrezkotzat jotzen dugu NKren praktika bereiztua euskal eremuan, euskal eremuko sindikalismoaren hedapenaren isla delako, euskal langileen beharrezko erantzuten delako, eta, hemen ezarriko dauden gizarte eragileengandik, lan harremanen edukinaren atal bat araupetzen delako.

Hala ere ez da zuzen eta hertsia NKri egitura arazoaren konponbidean mugagabeko birtualtasuna ematea, berau garatzen den eremuaren abstrakzio egirik, hots: kapitala eta lanaren arteko indar koerlazioaren egoera ahaztuz. Baina ez eta, egitura arazoak konpontzea ahalbidetuko duen tresna estrategikoaren kategoriaraino ere. Esperientziak adierazten digu NKren emaitzak, egungoa bezalako egoera ez mesedegarrian, zoritxarrez honetara mugatzen direla: kasurik hoberenean, partzialki, ugazaberiak harturiko epe luzerako neurriak leuntzen ahalgintzera, alegia. Adibidez, enpleguaren behinbehinekotasunaren errealitatea izugarritzko abiaduraz ezarri da eta Mugimendu Sindikalaren ekintzetatik ezer gutxi lortu da. Plantemendu honen oinarritzko gabezia, dinamika sindikalak ukitzen duen testuingurua eta indar koerlazioa zehazteko legegintz/arau-gaitasunak daukan funtzioa ahaztea da. Horregatik, LABentzat LHMA erreibindikatzea, ezer baino lehen, Euskal Nazio Institutioen legegintz-gaitasuna erreibindikatzea da.

9.- Ondorioz, uste dugu negoziaketa kolektiboak ez duela izan behar instrumentu bakarra gure ekintza sindikal eta erreibindikatiboaren interbentzioa bideratzeko. Honek instrumentu abaniko zabalago, atal gehiagoko batez hornitu eta jaso behar ditu, gure ekintza sindikala gaur egungo errealitate ekonomiko eta sozialak langileentzat planteiatzen dituen arazo larriak gainditzeko perspektiba argi eta erabaki bategan kokatzea nahi badugu. Interbentzio instrumentu modura ia erabat negoziazio kolektibora bakarrik jotzea, sindikal murrizte antzeko zerbituetan erortzea eta ekintza sindikalari arazo estrukturalen konponketan perspektiba estre-

tejioz hornitzeari uko egitea da. Ekintza sindikalak, NKren iharduera ekintza sindikaleko elementu eta ataza garrantzitsutzat hartzeaz gain, tresnak dibertsifikatu eta atazei ekiteko gauza izan behar du, alde erreibindikatibo, eragileari garrantzi emanez, gomentzitzeko daukagun ahalmena areagotzeko asmoz, eta kapitala eta lanaren arteko indar koerlazioan jauzi garrantzitsuak lortzeko perspektiba eta lehentasunaz. Indar koerlazioko jauzi garrantzitsuek adierazpen eta dimentsio espreski politikoa daukate eta ondorioz, gure erantzunkizun eta funtzioa da, ekintza sindikal eta erreibindikatiboaren tresna eta atazak hedatzeaz gain, gure iharduera sindikalari dimentsio politiko argi eta zehatza ematea. Gure iharduera tresna-esparru zabalago batetan oinarritzen dugu eta gure atazak dibertsifikatzen ditugu, indar koerlazioan oinarritzko aurrerapausuak eman nahi ditugu, NKk eta ekintza sindikal eta erreibindikatiboak emaitza hobekak eskaini eta birtualtasun nabarmenki altuagoa izan dezaten.

## 2.3.-

### **GURE LHMA AURRERAKOI ETA AURRERATURAKO PROPOSAMENA OSATZEN DUTEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK**

#### 2.3.1.-

##### **ORDEZKARITZA KOLEKTIBOA ETA HAUTESKUNDE SISTEMA**

Enpresetan langileen ordezkari organo bateratuak iraun erazi beharra, eginkizun nagusitzat hartuz, sekzio sindikalen iharduerarekin bateragarria.

LABek ez du zuzentzat hartzen langileen ordezkari bateratuen protagonismo eta eskumenak sekzio sindikalenetakoez ordezteko nahia.

Ez da onargarria sindikatuari enpresa barruko ordezkari - monopolioa ematea, hau baino hobek delarik ordezkari-bide bikoitza, bata hauteskunde bidezkoa eta bestea sindikatu bidezkoa.

Ez dugu planteatu behar ordezkari modu bi hauen

arteko harremana, hauteskundera eta sindikala, lehia edo alternatibitate berbetan, osagarritasun eta laguntza berbetan baizik, batez ere sekzio sindikala organo bateratuarekiko.

Ordezkaritza bateratu eta sekzio sindikaletako organoen eskumenen arteko oreka sustatzen da, ordezkari-erakunde biak indarreango legeriak emandakoak baino eskumen zabalagoz zuztatuz.

Enpresa batzordeek langile guztien ordezkari-erakunde globala daukate, eta ez partzial hutsa, beren afiliatuak ordezkatzeko dituzten sindikatuek bezala.

Beste alde batetik, enpresa batzordeen gailentzeak langile eta enpresaren arteko batasun prozesua ahalbideratzen du, bai halaber, sindikatuena berriena ere, organo bateratuetan beren afiliatuak egotearen bidez. Berez, negoziazio kolektiboa sekzio sindikalek egiteak komenio kolektiboen pitzaketa ekar lezake, langile mugimendua sakabanutuz.

Euskal langileek, sindikatoen bidez, beraien bizi baldintzetan eragiten duten erabakiak hartzen dituzten erakunde erabakiekin eta instituzio guztietan ordezkari-erakunde edukiko dute: sindikatuek euskal gizartearen eraldaketan eginkizun garrantzitsua garatuko dute eskudun foro eta estamentu ezberdinetan egonik, arlo sozio-laboral eta ekonomikorako politika bat garatzeko.

Lan harremanetarako marko autonomo bat ezartzeak nazio eremuko instituzio erakundeak eratzea ekarriko du, bertan, gizarte eragile, sindikatu eta ugazaberiak presentzia eta partaidetza nabarmena eduki beharko dutelarik.

Azpimarratu beharra dago indar sozialen partehartze-erakundeek politika ekonomiko eta sozialak definitzeko lanetan eskuhartzeko ahalak izango dituztela. Nabarmendu nahi dugu ere sindikatuek, aipatu instituzioetan daukaten presentziaren bitartez, Botere Publikoek hainbat arlo buruz hartzen dituzten erabaki politikoetan eskuhartuko dutela; alde batetik, arlo sozio-laborala (lan legeria, Gizarte Segurantzak, Lanbide Hezkuntza, lan osasuna, e.a.) baina baita ekonomi arloa eta beroni loturikoak ere (fiskaletatea, industria, energia, garraioak, etxebizitzak, kontsumoa, ingurugiroa, e.a.)

Hauteskunde sindikalak ezereztatzeari begirako planteamenduen aurrean, LABek hauteskunde hauetara aldizka deitzeko beharrezkoak baiezten du, erakunde sindikal ezberdinen ordezkari-erakundearen benetakotzeko metodo kontrastagarri gisa, enpresa batzorde eta langile-ordezkari-erakundearen burokratizazioa ekiditeko, ekintza sindikalaren kontrola egiteaz gain.

Hauteskunde prozesuaren antolaketa eta garapenean administrazioak eskuhartzearen aurrean, protagonismo sindikal eskusiboa, gutxiengo sindikal azpimarragarriekiko begirunez. Ordezkaritzak aniztasun eta proportzionala izan behar du, gehiengoaren arauera oinarritutako ordezkari-erakundearen aurka.

### 2.3.2.-

#### ASKATASUN SINDIKALA

ASLOn ezarritik dagoen sindikaturik ordezkari-erakundearen figuraren egungo eraizpidea ezereztatzea. Sindikalista abertzaleok ezin ditugu onartu ordezkari-erakundearen sindikalerako indarreango parametroak; hauek estatuko sindikalismoari irradiazio-erakundearen ordezkari-erakunde ematen bait diote sektore eta eremu guztietan, sarri askotan beronen ordezkari-erakunde eskasa edo hutsa kontutan hartu gabe, NKn eragin bereziko arazoa dena, berau.

Hurrenez-hurreneko hauteskundeetan gutxienezko ezarpena lortu duten sindikatuek instituzioetan partehartzeko daukaten eskubidearen aintzatespena.

Pilatutako ondare sindikalaren banaketa orekatua; bai halaber, sindikatuaren arteko diskriminazioa ekidituko duen sindikatuaren subentzio politika, beraien ordezkari-erakundearen guztiz proportzionala.

### 2.3.3.-

#### NKRAKO ESKUBIDEAREN ARAUPEKETA

Enpresazgandiko eremuko komenio kolektiboen batzorde ordezkari-erakundearen parte hartzeko ordezkari-erakundearen beharrezkoak exijitzea, exijigarri den gutxienezko ordezkari-erakundearen lortu duten sindikatu minoritarioen presentzia proportzionala bermatuz, diskriminazioa eta ondoriozko aukera sindikal minoritarioen bazterketa espreski debekatu behar delarik.

Zenbait herritan negoziazio kolektiboak negoziatzeko legezatasuna eskuratzeko era gisa erabiltzen den aldean elkarren aintzatespenaren sistema goitik behera arbuiazen dugu.

Aurrekoarekin loturik, LABek komenio kolektiboen eraginkortasun osoa sustatzen du eta estatutuzkanpoko edo eraginkortasun mugatuko komenioen kontra dago, langileen banaketa eta aldentzerako faktore bat delako, are gehiago, kontutan hartzen badugu ugazaberiak NK desnaturalizatzeko agertutako nahia, izenpetzen duen sindikatuko afiliatuak eskusiboki ukitzen dituzten komenioak sinatu nahiez, plantilaren gainontzekoa banakako paktuen pean geratuko litzatekeelarik.

#### 2.3.4.-

#### **ALDEEN AUTONOMIA KOLEKTIBOA ETA BOTERE PUBLIKOEN ARAUEMATE-AHALA**

LHMAren testuinguruan eta lan harremanen araupeketan botere publikoen eginkizunaren murrizketaren aldekoekin aurkajarriz, botere publikoek kapitalaren boterearen mugaketan eta indar koerlazioa bidezkoago eta, beraz, langileentzako mesedegarriagoa izango den testuinguru bat sortzen funtzio garrantzitsua bete behar dutela aipatu behar da.

Alde sozialen autonomia kolektiboa lan harremanen araupeketaren oinarritzko printzipio artezlea, eta negoziazio kolektiboa lan harremanen araupeketaren oinarritzko tresna izateak, konpatiblea izan behar du marko juridiko-politikoaren aldaketaren ondorioz sortutako Euskal Botere Publikoek lan harremanetan eskuhartze garrantzitsua eduki behar izatearekin, iharduera sindikalari birtualtasun handiagoa emateko indar koerlazioa mesedegarria ahalbidetuz.

Botere publikoen arauak gutxienezkoaren izaera edukiko dute negoziazio-autonomia kolektiboaren aldean. Horrela, komenioaren klausula batek lan baldintza bat legezko gutxienezkoaren azpitikezartzen badu, klausula hori hutsala izango da. Beraz, negoziazio-autonomia kolektiboak ezin izango du gutxienezko legezko trataera langileen kalterako derogatu.

Autonomia kolektiboaren funtzioa izango da, alde batetik, aipatu legezko gutxienezko hori hobetzea, beronen txartoagotzea galeraziz. Adibide gisa, or-

gano bateratu eta sindikalen eskumenak, legearen arabera ezarriko dira, baina komenio kolektiboek hobetu ahal eta behar izango dituzte, eskumen haiek zabaldu eta garatuz.

Negoiazio kolektiboaren edukinak gainera, askoz ere zabalago eta sortzaileagoa izan behar du, legez ezarritako gutxienezkoak hobetzera mugatzerako baino; negoziazio kolektiboa ez da lan baldintzak ezartzea soilik, aitzitik, lan harremanak arautu behar ditu osotasunean, gatazken konponbiderako epaizkanpoko bideak, enpresetako euskalduntzea sustatzea, e.a. ek. noegoiazio kolektiboaren xede izan behar dute, nahiz eta hobetzeko gutxienezko araurik ez egon.

Botere Publikoen arauemate-ahalari funtzio garrantzitsu bat ematea ez da ikusten lan harremanetarako araupeketan NKri gorderiko espazioa mugatzearen ikuspegitik, langileen bizi eta lan baldintzei babes nahikoa eta gutxienezkoa emango dieten eta, Nazio Subiranotasuna aintzatestea den jauzi politikoaren kontestuan, gure gizartearen indar koerlazioaren egoera lege bidez gauzatu eta adierazten duten berme batzuren beharizanaren filosofia inposatzea baizik.

Aipatu arau nahiko eta gutxienezkoak egoteak, ez du inolaz ere NKren eginkizun eta edukina gutxien.

Lan harremanak arautu eta zehazten dituzten edukien errotiko desaraupetzeak Ugazaberiaren asmoen alde jotzen duela egiaztatu behar da; malgutzeko politikak deiturikoak dira.

#### 2.4.-

#### **LHMA LORTZEKO BIDEAN LABEN LANAREN NORABIDEA**

LHMA aurrerakoi baten lorpenak, berarekin batera Euskal Nazio Subiranotasunaren aintzatespena eta Euskal Nazio Instituzioen legegintzarako ahalmen nahikoaren erreibindikapena dar amatan neurrian, ENAMen borroka politikoari irispide luzeko betekizuna ematen diogu zeregin honetan, hau da, borroka politikoa tresna nagusizat hartzen dugu Marko Juridiko-Politikoaren aldaketarako.

Ildo horretatik, LABek ENAMi egiten dion aportazioa ondoko honetan zehazten da:

- Gure praktika politiko-sindikala, euskal langileriaren interesekiko uztartze bezala ulertuta, ENAMen koordinada politiko, estrategiko eta taktikoetan barneraturik dago.
- ENAMen iharduera politikoaren parte aktiboa gara. Erakunde eta militante bezala hartzen dugu parte -ENAMeko gainerakoekin batera- mobilizazioetan, kanpainetan, hauteskundeetan, ... Zentzu honetan, afiliatuek ere ENAMen ihardueretan parte hartzea lortu behar dugu.
- Langileen Mugimendua eta ENAM osatzen duten gainontzeko burruken arteko lotura sendotzeko lan egiten dugu. Euskal langileriaren aurrerapena ENAM osoaren aurrerapenaren menpe dago. Beraz, L.M.k ENAMen garaipena behar du bere interes estrategiko eta berehalakoak aurrera eramateko bideak zabaltzeko.
- Euskal langileriaren eta L.M. an daukagun eragin sindikalaren hedapena, geure antolaketa-hazkundera, LABen inguruan indar biltzea, horixe da ENAMen beraren indar bilketa, hazkundera eta hedapena areagotzeko hartu behar dugun bidea.
- ENAMen beste burruka batzuren osagai direlarik, lan eremuetan agertzen diren aspektu eta egoera guztien erreibindikazio eta garapena, gure karakterizazioaren funtsezko ezaugarria diren aldetik, gure eskuhartze politiko-sindikalarren barruan daude (euskalduntzea eta euskararen erabilpena, errepresaliatzen direnen lan eskubideen iraupena, ...).

Geure eskuhartze-alor espezifikoan honako lan hauek burutzen ditugu, ENAMek Euskal Nazio Subiranotasuna lortzeko garatzen duen burruka poli-

tikoa indartu eta osatzeko xedez:

- Erizpide orokorra (gizarte/ekonomi-eskuhartzarako egitaraua) edo, euskal eremuan eta euskal langileriaren helburu partzialak estaltzen dituen eta, langileen interes orokor eta zuzenen ikuspegian dauden gizartedesoreka eta beharrezanetan oinarritutako erreibindikazio sail bat garatzen dugu, Negoziazio Politikoaren helburu politikoezko loturari begira egon behar duena. Eta, egingarri izanez, izaera sozio-politikodun gizarte-mobilizazio prozesuak sustatzeko balio izango duena.
- Bereziki ekonomi-arloan azaltzen diren lan gatazkak bulkatzea ahalbidetzen duten baldintza objektiboak dauden esparrura bideratzen ditugu, sektore-eremu mailetara, edo beraien lurralde- hedapena sustatzen dugu sorburu ezberdina daukaten mobilizazioak bateraraziz, ukitutako langile eta gizarteguneez beren bizipen eta praktikatik bertatik, edozein ekonomi-gatazkatan datzan osagai politikoa nabaritu eta, indarreango Marko Juridiko- politikotik eratorritako oraingo instituzioek konponbide asebetegarriak proposatzeko erakusten duten gaitasunik eza egiazta dezaten.

Oraingo instituzioengandik etorritako politika eta neurrien jarraipen sistematikoa eginik (Industri-politika, Txirotasunaren aurkako burruka Plana, Aurrekontuei buruzko Politika...), berauen mugapenak, gabekeriak eta, errekurtsuak eta bete nahi dituen beharrezaneren arteko korrespondentziarik eza nabarmentzen ditugu.

Zenbait instituzio-eremutan daukagun presentziak beraiek ezkatuzten dituzten barrutiko mugapenak erakutsi eta hedatzea dauka oinarritzko helburutzat.

Gizarte-mobilizazioa areagotzearen alde dihardugunean, sorburu eta edukin politikodun mobilizazioekin baterarazteko asmoaz jokutzen dugu.

# 3.- EPEALDI HONETARAKO EKINTZA ERREIBINDIKATIBO ETA SINDIKALA

## 3.1.- HELBURU OROKORRAK

Oraingo gizarte/ekonomi-egoerak erabateko lehenasunezko tratamendua eman erazten digu enpleguaren behinbehinekotzeari eta, euskal eremuan dagoen industri-krisi larriari.

Aldibaterako kontratazio mota ezberdinen ugaltaren azpian, ugazaberiak lan harremanetan daukan kontratu-boterea areagotzeko, mugimendu sindikalaren izaera sorosgarria azpimarratzeko helburua datza. Ugazaberiak horrenbestez bilatu duen lan harremanen zatiketarako joera arriskugarria nabarmenki faboratzen duen bide bat da eta mugimendu sindikalaren garapenari eusteko linearen aurkako eraso zuzena.

Euskadin oinarrizko industria bere eraispen partzial edo osoaren arrisku larriaren menpean dago. Gure geure ekonomi eta gizarte-garapen ereduari ekiteko, eraispen arriskuak dakartzan ondore asaldariak tamaina handikoak dira. Jokuan dauden faktoreen garrantziak era berean erantzutera behartzen gaitu, tamaina handiko eskuhartze politiko-sindikala, eraispen prozesuaren aurkako tamaina handiko burruka garatzera, alegia.

Lan merkatuaren degradazio eta, euskal langileria-  
ren ondoriozko desegituraketa soziologiko prozesu  
gogor baten aurrean gaude. Desegituraketa pro-  
zesu hau sistemaren krisiaren eta burututako poli-  
tiken emaitza da. Halaber, kapitalak, gobernuaren

oneritziak, kapital bilketa bermatzeko ezarri duen baldintza soziopolitikoak da ere. Oso jarrera aktiboa hartu behar dugu, geure eragin sindikala langileria-  
ren eraketaren bilakaerari egokitzeko xedez.

Ekoiaren indarren eraldaketa prozesu zorrotz eta sendoak langileria-  
ren industri-osagaiaren garrantzi erlatiboaren murrizketa dakar ondorioz. Inerziak gida gaitzan ahalbidetzen eta geure eragina sektore honetara mugatzen badugu, epe luzera begira, ahultzeko arriskuarekin egingo dugu topo.

Emakumeak eta gazteak lan merkatuko talderik zokoratuenak dira eta, gure helburua langileria-  
ren lan baldintzak homogenotzea den aldetik, geure iharduera sindikala bi kolektibo hauengana hedatu behar dugu aktiboki.

Euskadin gizarte-ekonomiak, eta kooperatiba-mu-  
gimenduak bereziki, daukan garrantziak, gure ihar-  
duera sindikala eremu honetara ere hedatzera be-  
hartzeko gaitu. Kooperatibetako lan harremanak  
sindikaldun behar ditugu industri-demokrazia be-  
rreskuratzeko orientabideaz, lan antolamendu eta  
enpresal ihardueraren gainean langileek daukaten  
erabaki eta kontrol ahalmena murrizte eta desnatu-  
raltzerantz dagoeneko ezarrita dagoen, eta areago-  
tuz doan, joeraren aurka egiteko norabidean. Asanbladaren boterea baztertu eta gizarte-kontrola mugatzerantzko joera ahuldu behar dugu.

NKren dinamika beheraldi batetan dago, UGT, ELA eta CCOOko garatutako politika sindikalaren ondorioz, batik bat. Iharduera sindikalaren aldiune hone-

tan, doinu erreibindikatzaile eta mobilizatzailea igoko duen dinamika sindikal urrakorragoa garatu behar dugu.

Bestalde, NKren edukinak eta industria eta, lan merkatuko aldaketen bilakaeraren artean dagoen dis-funtzioak, NKk ekin behar dien gaiak eman beharreko garrantziari dagokionez, berrorientaketa sakon bat exijitzen du. Edukinak, funtsean, alokairu eta lantsaioetara mugatzeak, gero eta garrantzi handiagoa daukaten gaiak ugazaberiaren aukerakotasunezko boterearen eremuan gera daitezzen dakar. Mugimendu Sindikalaren kontrol eta botere ahalmena areagotu behar da. Euskal eremuan NKren praktika bereizturantzko joera hedatu eta faboratze-ko geure linean sakondu behar dugu.

Enpresan eskuhartzean, bai eta sektore mailan ere, gure iharduera sindikalean berebiziko jauzia ematea lortu behar dugu. Geure ihardun sindikala ekonomi/finantz errealtatea, kudeaketa eta etorkizunerrako planak era gaurkotu eta sistematizatuz ezagutu eta jarraipen egitera bideratu behar dugu, errealtate eta politika hauen enpresaren etorkizuna eta, enpresako lan harremanen gainontzeko aspektuetan burutu beharreko iharduera sindikala baldintzatzten bait ditu. Abantaila hartzea da helburua, lan harremanetan boterea eta kontrol ahalmen sindikala, enpresa batzordearen bitartez areagotzea, eta enpresariarena murriztea. Indarreango legeriak ematen digun sorospidezko funtzioetik enpresako indar korrelazio zehatzean oreka handiagoa isladatzen den maila batetara igaro behar dugu, lan aspektuak enpresariak zehaztutako irispide luzeko neurri eta egitateen inguruabarretan tratatzera etsi gabe. Lan antolamenduak zehaztutako lan baldintzak, lan osasuna eta enpleguak behinbehinekotasuna enpresaren esparruan, gure eskuhartze sindikalean lehentasun maila handia eman behar diegun arazoak dira.

Eskuhartze sindikal osoagoa burutu behar dugu, lantegietan bertan zuzenean eskuhartzeari ematen diogun lehentasun berberaz; instituzioetan parte hartzea, eskuhartze politiko-sindikalaren linea nagusiei laguntzeko zeregin osagarri gisa ulertzen bait dugu.

Gizarte-desoreka eta beharizanen errealtatean eta langileen interes orokorretan oinarritutako erreibindikazio sail baten garapenerantz jo behar dugu,

euskal langileriaren helburu partzialak beteaz, LHMA aurrerakoi eta aurreratuaen norabidean gizarte-mobilizazio prozesuak sustatu ahal izateko.

Ekonomi eta gizarte-politikaren plano orokorrean, geure eskuhartze eta erantzuna areagotu eta sistematizatu behar dugu.

Bideratu nahi ditugun zereginen burutzapen asegarriak Ekintza Erreibindikatibo eta Sindikalaren egituraren garapenean jauzi garrantzitsua eskatzen du; honexek izan behar du kongresu honetan bete beharreko erronka nagusia, sindikatuaren afiliatu guztien antolagarritasuna eskaini ahal izateko modukoa, oinarriko militantzia erregulatu eta egonkortzeko, beren lan ihardueraren esparru zehatzean arazoei erantzutean protagonismo nagusia har dezaten, hobeto antolatutako barne iharduera politiko-sindikala ahalbidetzeko eta zuzendaritza organo ezberdinei beren esparru ezberdinetan, iharduera sindikal ausart eta bereziagoa ahalbidetzeko.

### **3.2.- EUSKAL INDUSTRI- EHUNAREN OINARRIAREN ERAISPEN ARRISKUA ETA ENPLEGUAREN BEHINBEHINEKOTZEA: Bi errealtateri sozio- politikoki erantzuteko beharrizana.**

#### **3.2.1.- INDUSTRI-EHUNAREN OINARRIAREN ERAISPEN ARRISKUARENTZAKO ERANTZUN SOZIO-POLITIKOA**

Ondorio gisa eta, Euskadiren oraingo industri eta ekonomikoari buruzko atalean egindako azterketa ekonomikoari atxekituz, gauza bakar bat gertatzen da azpimarratzeko: Euskadiko industri-ehunaren oinarriaren eraispen arrisku handia dakarren irispide luzeko industri-doikuntzazko prozesu zorrutz baten garapen betean gaudela, hain zuzen.

Iragan hamarkadaren lehenengo erdialdean aplikatutako zoritzarreko industri-politikaren ondoren, non lanpostu suntsipen ikaragarria ezarri, enpresa garrantzitsuak eraitsi eta ekonomi-baliabi-

de eskergak gastatu bait ziren, industri-egiturak eta euskal ekonomiak duela 7-8 urte agertzen zituzten arazo berberak diraute funtsean, dagoeneko EEEen praktikoki sarturik egoteak larriagoturik, neurri politikoak hartzeko aukerazko arloa EEEk inposatzen dituen mugapenek erabat baldintzaturik bait dago.

Egoera honetatik erator daitezkeen ondorio sozial eta politikoen izaera dramatikoak euskal burgese-riarengan berarengan eta Eusko Jauriaritzan somatzen den urduritasun eta igurikapen-krisian dauka islada.

Egoera honen aurrean, arnasaldi luzerako planteamendu oso baten bitartez aurrea hartzea besterik ez dago, abagadunezko ekimen batetan ahitu ez dadin. Sindikatuak proposatutako GIZARTE-FRONTAren ekimenean gauzatutako lan norabideak, gainera datorkigun eraispen arrisku handia balaztazten saiatu behar du, gobernu zentralak bere jarraera errotik alda dezan behartuz. Aipatu ekimenak langilearen mobilizazioa ENAMen iharduera politikoarekin batera jokatzen du, Herri Batasunean adierazia, urraskako prozesu baten bitartez, euskal gizartearen mobilizazio handi bat sortzeko xedez, eta mobilizazio honek, unean uneko ekintza batetan ahitu beharrean, iraunkortasuna eduki dezan.

### 3.2.2.-

#### ENPLEGUKO BEHINBEHINEKOTASUNA

1-Lanmerkatuko 'zurruntasuna', hots, kontratazio mekanismoak, mugikortasuna (geografikoa, funtzionala eta balioaniztasunezkoa), eta kanporaketa, batetik, eta aleko lan-kostuak bestetik, ekonomi-arazoen sorburu nagusia direlako atxaki eta gezurraren azpian, PSOEn hurrenez hurrenko gobernuek, ugazaberiaren pentsakera ultraliberalistekin erabat ados, lan merkatua desorekatzeko obsesiozko iharduera oldarkor bat hedatu dute. Iharduera horrek erdiguneetariko bat okupatu duela baieztatu daiteke, azken urteotan zehar garatutako ekonomi-politika eratzen duten neurri-sailaren barruan protagonismo handiena daukana agian.

Bere burua sozialdemokratizat jotzen duen alderdi baten Gobernutik eta, ekonomiaren lehiakortasunik ezak, EEEen sartzekak, teknologialdaketen tamainuak eta lanaren nazioarteko zatiketa berriak ezartzen duten ekonomi-erronka

gogorren aurrean, industri-ekoizpen apartuaren zuzenketa eta eraldaketarako politika artez eta eraginkor bati ekin beharrean, ugazaberiaren ahalmen eragilea, oraindik areago, zabaldu eta indartzeko jarrera hartzen du, aurkeztutako arazoak konponduko dituen estrategia gisa.

Logika neoliberal horri esker, enpresalgaori esku-eskura jartzen dio lan merkatua 'malgutzeko' neurri sail oso bat, lan harremanen arloan ugazaberiaren boterea areagotzeko tresna gisa, mugimendu sindikalaren kontratu-ahalmena, dagoeneko murriztua, kaltetuz.

2.- Lan kontratazioari buruzko araudiak, gizartea eta langileak ukitzen dituzten premiazko arazoei ekiteko benetan eduki ez den izugarritzko borondate eta abiaduraz burututako eraldaketa atzerakorra pairatu du. Desorekatze eta behinbehinekotzean PSOE Gobernuak diseinatu eta garatutako enplegu politikan ia eskusiboki oinarri dela esan daiteke.

Ekonomi-krisialdia hasi zenetik hainbat xedapen gertatzen aritu dira ildo honetan, baina 1984ko Langileen Estatutuaren eraldaketarekin heldu da oraingo egoera onartezin honetara, non, aldibaterako kontratazio era ezberdinen ugalketaren bidez, lanerako eskubidearen oinarritzko printzipioak hutsaldu bait dira. Legegintzaldaketa hauek zuzen-zuzenean erasotzen dute botere sindikala, lan harremanetan, negoziatiorako beraren ahalmena eta legezko estatutua murrizten bait ditu.

3.- Aplikatutako desorekatze neurrien emaitza, behinbehineko kontratuak azken urteotan zehar izan duten gehikuntza esponentziala izan da. 1987an, estatu-mailako estatistika ofizialen arabera, aldibaterako kontratazioa alokairudun enpleguaren osotasunaren %15,6koa zen bitartean, gaur egun alokairudun enpleguaren herenaren inguruan dabil. Euskadiko egoera oso ezberdina ez delakoan gaude.

Joera, larrituz segitzekoa da INEMen erregistratutako inoizkako kontratu kopurua, kontratu berrien multzoaren %95en inguruan dago. Egoera honek ez dauka inolako zerikusirik EEEko herrien egoerarekin.

Halaber, behinbehineko lanaren gehikuntza basatia eta lan istripuei dagokienez, gertatzen den hazkunde korrelatiboa azpimarratu behar da.

4.- Martxa honetan, behinbehineko enpleguak urte gutxiren buruan, enplegu osoaren portzentaia nagusia edukiko du eta, epe ertainera, beraz, bai jubilazio jariapenez zein beste arrazoiez, enplegu finkoa behinbehinekoaz ordeztaren dinamika galgatzeko gai ez bagara, enpresetan gertatuko zaigun panorama inoizkako enplegua gehiengoa deneko plantilak izango dira, ekintza errebindikatzailerako tinko eta erasokorra burutzeko ekarriko dizkigun zailtasunekin.

5.- Kontutan hartu behar dugu lan behinbehinekotasun eta zatiketak mugimendu sindikalaren amiltze arrisku larriak ezkututzen dituela Indarreango legeriak langileak ordezkatzeko dituzten erakundeei ematen dien kontrol eta kontratu-ahalmena, dagoeneko murriztua, desnaturalitzeaz gain, behinbehinekotasun egoerari erabat loturiko otzantasun, menekotasun eta etsipen jarrerak sortzen dira. Enpresariak, langile finko eta inoizkako arteko aurkaketa eta zatiketa sustatzeko daukan namiobera boterea indartzen da. Aipatu jarrera horren hedapenak indar, sendaratasun eta erantzuteko ahalmena kentzen die erakunde sindikalei enpresalagoaren erasoan aurrean, eta ez du ahalbidetzen behinbehinekoturiko langileak erakunde sindikalei hurbildu, edo bertan afiliatu eta ordezkaritza eduki dezaten.

6.- Kontratu-moten abusuzko erabilpena eta iruzurra, ugazaberiak aukerakotasunez manio-bratzeko daukan boterearen indartzearen gauzapena dira. Eta, besteak beste, honako era hauetan agertzen dira:

- Aldibaterako kontratuaren erabilpena, finkutako mugak gaindituz, gehienezko iraupe-nari buruzko mugapenei iseka egiteko hainbat bide baliatuz, kontratu-figura ezberdin, langilea enpresaz enpresa igaroz doaneko balizko enpresa-nahasketa, e.a. en bidez.

- Obra edo zerbitzu zehatz batetarako kon-

tratuak, non ez bait da ez obra ez zerbitzua agertzen.

- Esku-lanaren kostua merketzeko asmoz eta gonbentzitzeko daukan boterea probetxatuz, enpresariak lantsaio osoan lan egitera behartzen du denboraldi batetarako kontratatutako langilea.
- Trebakuntzarako kontratuak, non ezarritako prestakuntza ez bait da ematen, lanean bertan egiten delako atxakipean.
- Praktikarako kontratuak, ezateko arrazoirik ez duten egoeratan.
- Aldibaterako kontratazioa, edonolako delarik ere, zeinetan langileari maila bat egokitzten zaion arren, goragoko beste bati dagozkion zereginak bete behar bait ditu.

7.- Behinbehinekotasunak langile finko eta inoizkako arteko zatiketaren aldeko baldintzak sortertzatzen ditu. Ildo honetan, ugazaberiak alokairu-baldintza ezberdinak ezartzeko egin dituen ahaleginak komenio nahikotan gauzatu dira, bai aintzintasun kota zehatz bat ezarriz, zein inoizkako langileei besterik aplikatzen ez zaizkien alokairu baxuagodun maila zehatzak sortzeko mekanismoaren bidez.

Hainbat balizkotan aldibaterako kontratazioa langile finkoen aurkako arma gisa erabiltzen da, adibide gisa:

- Enpresariak telegidatutarako ihardunez, inoizkako langileek batzordekideen aginduaren kontraerabakia.
- Zenbait baldintza kaltegarriren ezarpena lanean, presiobide gisa inoizkako langileak erabiliz...

8.- Gazteak eta emakumeak dira behinbehinekotasunaren baldintzak eta ondoreak bizikien pairatzen dituzten kolektiboak, lan merkatuko talderik zokoratuenak diren aldetik, hau da, langabezi tasa ikaragarriak bildu eta, ekonomia ezkutua zein txartoen ordainduriko lanbide-mailak areen jasaten dituztenak.

9.- Gobernuaren neurriek faboraturik, ezarri den endakatzea hain larria da ezen hura, langileen ordezkariei kontratuen oinarritzko kopia deritzana eman dakien behartzen duen 1991/2 Legea aldarrikatzeko beharrean aurkitu bait da. Hala ere, ez dugu ahaztu behar desorekatze, behinbehinekotze eta iruzurraren funtsak, faboratzen eta legezko estaldura ematen dieten arau multzo zabala indarrean dagoen bitartean iraungo duela.

Behinbehinekotasunaren fenomenoari datzekion bidegabekeri eta hurrupakuntz mailak eta, garapen sindikalari dakartzkion arriskuak ikusirik, jarrera sindikal ausarta, erradikala eta mingarria hartzeko beharrezana ondorioztatzen da, enpleguaren degradazio fenomenoaren hedapenabalaztatu nahi badugu, behintzat. Arazoaren gaindikotasunak irispide luzeko ekintza eta erantzun sindikal eta politikoa eskatzen du.

Lehenbizi, behinbehinekotasunaren aurka burrukatzeko borondateak iharduera urrakor eta erneagoa ekarri behar du negoziazio kolektiboaren bidez, sektore-eremuetan eta enpresa mailan, NKri buruzko atalean garatzen den bezala.

Arazoaren gaindikotasun eta garrantziak, negoziaketa kolektiboaren tresna eta enpresan garatutako iharduera sindikalaren bidez soilik, ikuspegi orokorrean asebetegarria daitekeen konponbide bat lortzea zaila dela pentsarazi behar digu.

Ez da aurretiaz baztertu behar, edo daukan garrantzia kendu edo jaramonik egin ez, gizarte-mobilizazio partziala edota orokorrak lortzearen bila ibil daitezkeen ekintza sindikal orokorragoko beste linea batzuren garapenari. Ezin zaio legezko markoaren eraldaketari ekin, ohizko ikuspegitik soilik. Behinbehinekotasunak lortutako garapen mailak eta, enpresariak behinbehinekotasunaren sakontzean eta lan harremanen desegituraketan erakusten duen erasokortasun eta pozak, Gobernuan bere burua defendatzen agertzen duen uste sendoa egiazaturik, parametro orokorragoetatik bideratutako ekintza sinkikal bat garatzera behartzen gaitu. Gizartea eta langileak lan harremanen desegituraketaren arazoaren hedapenak daukan egitur

irispidearen jakitun ipini eta partaide bihurtuko dituen ekintza sindikala behar da, fenomenoaren maltzurkeria eta klase elkartasunik ezak, langileen arteko zatiketak eta bizitza-baldintzak desomogenotzeko joerak Langileen Mugimenduari, gizarte-harremanen garapenari eta bizitza zein lan baldintzei dakartzkieten ondorio kaltegarriak barnera ditzaten. Eta balio beza, gizarte-mobilizazio partzial edota orokorrerako baldintzak faboratzeko, osagai politikoa areago nabarmenduko den eremurantz gidatuz gatazka, lorpen partzialak konbinatu, osatu eta egituratuz, aldibaterako kontratazioaren legezko markoaren errotiko eraldaketa batek behar dituen aurrerapausu politiko nabarmenek, lan harreman aurrerakoien marko autonomoen iparra ikusteraz diezaieten euskal langileei.

### **3.3.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA PRECO**

#### **3.3.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA**

##### **3.3.1.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREALITATEA**

Azken urte hauetan, desnaturaltze prozesu bat ikusten ari gara Negoziazio Kolektiboaren periodo-prozesuan, langile borroka eta borroka sindikalaren arloan. Politika sindikal motak, CCOO, UGT eta ELAren tankerak, neurri haundi baten, dinamika erreibindikatioaren galtze kezkarria, langileen partehartzearen gutxiagotzea eta espero zitezkeen presio gaitasunarena ere sortu duten kausak azaltzen ditu. Politika honen ondorioz, batez ere, nolabaiteko interes falta eta mobilizazio apatiaren tonuan areagotze kezkarria ezarri da.

Sindikatu erreformisten politika sindikala, erreibindikazio prozesu bat sortzerakoan, interes instituzional-korporatiboak, aparatuen interesen osagarria langileen interes zuzen eta lehentasunezkoen ginetik geratzea sortzen duen filosofia sindikalean inspiratuta dago, filosofia horretan negoziazio prozesuaren osagarri autoerregulatuzailea erreibindikatioaren ginetik ezartzen delarik. Negoziazioa, interes eta ideia kontrajarrien eztabaidatik elikatutako prozesua baino, berez helburu beza-

la kontsideratzen da. Kontzepzio hauek, aipatutako sindikatuek, base eta langileekiko gero eta zabalagoak eta autonomoagoak diren erabaki espazioak autojasotzeko duten interesa daukate atxekituta, eta fenomeno honen finkapena da NKren prozesuan dagoen egoera azaltzen duen zergatiatariko bat.

Ekintza sindikal horren ondorioz enpresa komiteak langileen organu bateratu izatetik koordinadora sindikal hutsak izatera pasatu dira eta lantegiko asanbladak beren gaitasun kritiko eta mobilizatzailerak baldin badira informazioa biltzeko organu pasiboak bihurtzeraino. LABek enpresa komiteen barruan eta sektoreetako negoziaketetan indar-koerlazio desberdinetan egon delarik, ezin izan du Negoziazio Kolektiboaren jarrera hori aldaerazi bestelako dinamika eskuhartzaile eta apurtzaile baten alde.

Erabakitze gaitasunaren autonomizazioa eta, negoziazio prozesuan, langile baseekiko, aparatu sindikalen protagonismoaren areagotzeak, NKren marku bera higatu egiten duten praktikak ekarri ditu, eraginkortasun mugatuko akordioak bezalako praktikak.

Patronalak, bere interesak jarraituz eta aipatutako sindikatu eta buruzagien interesekin duten harreman maila batetik abiatuz, sekzio sindikal eta aparatuetako buruzagitzarekin negoziatzearen aldeko joera bultzatzen du, bere interesak gehiago faboratzen dituzten koordenadetan negoziatzeko eta negoziazio metodologia honen bidez, kontratu markua degradatzea eta lan harremanak zatitzea ahalbidetuko duten baldintza potentzialak bultzatzeko helburuak gidaturik.

Komenioen iraupena bi urtetara luzatzea NKan aipatutako egungo egoeraren isla da, eta beste alde batetik, langileen agitzeko eta erreibindikazio maila galtzeko joera faboratzen duen faktore bilakatzen da.

NK funtsean, soldata gaitetara eta lantsaiora mugatu da. Euskadin, Estatuarekiko dagoen dinamika sindikal handiagoa eta gure presentzia ere, sendotasun erreibindikatio hori azaltzerakoan garrantzia duen faktorea bada ere, eta bi aspektu horietan lorpen hobekiak ahalbidetu arren, urteanitzeko perspektiban, gure ustez, balorazioa ez da asebetegarria. Lortutako lantsaioaren murriztea, langabezi

maila ikusirik, baita bere funtzioa enpleguaren banaketan eta bere irispide luzeko izaera ere, eznahikoa da, argiro. Ugazaberiarengan erresistentzia handiagoa sortzen duen erreibindikazioa dela aipatu ere. Murriztea 1987tik aurrera gertatu da, batez ere, eta murrizte eznahiko hori partziala izan da, edo, beti inbertsioekin loturik egon ez diren produktibitatearen igoeren bidez erabat moteldua, eta bestalde, ugazaberiak ordu-gertutasuna, urteko ihardunaldiaren birbanapen parametroak bezalako mekanismoak ezarri ditu, lantsaioan burututako murrizketan gutxiegi izan diren irispideak desnaturaldu egin dituenak.

Ugazaberiaren jarrera ofentsibo garbi agertzen da ere NKan. Edukinak ia soilik soldata gaitetara mugatzeak, langileen lan-baldintzen zehaztapenean gorako garrantzia eta izaera inportantea duten aspektuak, ugazaberiaren esparru mugatua izatea ahalbidetu du, bere botere diskrezionalaren esparruaren zati izatea eta beraz, alde batetik ezarriak izatea. Ondoko honetaz ari gara: behinbehineko kontratazioaz, aldaketa teknologikoen organizazio eta enplegu eraginez, inbertsio politikaz, lanbide birziklapen eta hezkuntzaz, Lan Segurtasun eta Osasunaz, zatikatze eta azpibanaketa sortzen duten enpresen plan estrategikoez. NKan jasotako edukinaren espazioaren mugatze-murrizte honen azpian, mugimendu sindikalaren potere murriztua oraindik gehiago mugatzearen asmoa dago, klase-sindikatuaren papera eta eragina murriztea da helburua, eta lan harremanak zatikatzearen asmoa, edo bakoiztearena ere, indartzea da, erakunde sindikalen izateko arrazoia zalantzan jarriz, eta norberekeria eta elkartasunik eza bultzatuz.

Ugazaberiaren jarrera ofentsiboaren beste froga bat komenio askotan, borroka, ez lehenago aipatutako gaien aztertzean, baizik eta lan ordenantzetan araututako edukinak, batzuk baliogabetuak jadanik, ez galtzea edo ugazaberiak ez badiu betetzen, egoera gatazkatsuak sortzen duten aspektu sozialetan sinatutakoa bete araztea lortzean zentratzeak erakusten du.

Hausnarketa gai izan behar da langileria osaketan emandako aldaketa buruzgarriak eta NKak osaketa berri honenganako duen irispidearen artean dagoen disfuntzioa. Sistemaren krisi urteak eta garatutako politikek klasearen zatikatze soziologiko prozesua eragin dute, multzo heterogeneo bi-

hurtuz; langabetuez gain, behinbehineko langileen eta autonomoen hazkunde azkarra ezagutzen ari gara, enpleguaren deribazioa, zerbitzuetan aktibitate berrietaruntz, azpiekonomiaren errealitatea, lanbide-kategoria berrien agerpena eta ondoko teknikoen hedapena, enplegua SALESetan, ezagutzen ari gara. Langileriaren industri-osagarriak inportantzia erlatiboa duen galtze adierazgarria jasan du. Errealitate honen ondorio sozio-ekonomikoak gaidinkotasun handikoak direna esan beharrik ere ez dago, eta haietariko bat, gure oraingo gaia, NKren dinamika prozesu honen atzetik joan izana da; ondorioz, NKren dinamikaren hedapenaren eremua eta lan merkatuak inposatutako errealitatearen arteko korrespondentziarik eza somatzen da.

Sindikatu erreformistek NKren dinamikaren mugapenkezkagarriak diagnostikatzean, beraren edukin murrizak eta, langileen baldintzak homogenotzeko funtzioaren askiezak azpimarratzen dituzte eta egitarau-mailan egon beharreko orientabide aldaketa predikatzen dute. Hau, hala ere, ez da nahikoa NKren dinamika murgildurik dagoeneko joera arriskugarriari beharrezko inflexio puntua ezartzeko, haien ondorioztapenak beraien estrategia eta filosofia sindikalaren ardatz nagusiak erabat birbideratzera heltzen ez diren artean.

Euskal eremuan negoziazio kolektiboa, estatu mailako akordioak tartean sartzeko arrisku eta tentsioaren menpean dago. Bai Gizarte-Itunak bai estatu mailako sektore-komenioak. Maila baxuagoko akordioak estatu mailakoek baldintza ditzaten ahalbidetzen duten LE eta ASLOn isladaturiko mekanismoak dagoeneko aipatu egin dira.

Azken urteotan Gizarte-Itunik sinatu ez den arren, beste abagadune batzutan birpizteko arriskuek ukigabe diraute eta, estatuko sindikatuek estatu mailako sektore-komenioak osatzean agertzen duten jokaera eta beraien ondoreak maila baxuetara eramateko ondoriozko asmoa ez dira aldatu. Vascongadetako eremuan, baldintzatze eta tartean sartzeko arrisku iraunkorren gainetik, negoziazio kolektiboaren praktika bereiztuaren hedapen garrantzitsua dago, nahiz eta oraindik ere estatu mailako komenioei atxekituz diharduten sektore eta enpresa garrantzitsuak dauden.

### 3.3.1.2.- GURE DINAMIKAREN HELBURUAK NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN

Eskuhartze sindikalaren oinarritzko funtzioetat eta aro garrantzitsutzat hartzen dugu NK. Horrek ez du esan nahi ataza horretan gure eskuhartze sindikala eta erreibindikatioa agortuko denik.

Ia arazo guztiak konponduko dituen eskuhartze sindikalaren tresnatzat NK mugitzen den indarren arteko koerlazio esparruaren abstrakzioa eginez, sasi-birtualtasuna ematea, koartada da, oso generalizatua bestalde, gatazkaren osagarri politikoaren dimentsionamendu handiagoa dakarten interesik eza eta mobilizazio eta presio estrategia orokorrenak aurrera eramateari ukoa estaltzen du, indar koerlazioan mesedegarri diren ladaketa nabarmenak eragiteko eta egitura ukitzén duten problematika sozio-ekonomikoei aurre egiteko hain beharrezkoak direnak hain zuzen.

NK prozesuari eskuhartze sindikalaren oinarritzko tresnatzat, erreibindikazio dinamika gogorra eman behar diogu eta murgilduta dagoen gelditasun eta ohikeriatik atera.

Horretarako, langileen protagonismoa berpiztu eta eskuharzeko mekanismoak indartu behar ditugu.

Negoizazio-mobilizazio konbinaketa egokia ahalbidetu behar dugu eta, mobilizazioa eta presioa funtzio lagungarri eta testimoniala betetzera bartzerturik geratzen den negoziazio prozesuaren kontzeptziorantz duen joera hautsi.

Sindikatu erreformisten aparatuetako ordezkarien maniobra eremua mugatu eta hertsatu, langileen gonbentzitzeko ahalmena areagotu eta negoziazio mailako indar koerlazio hobea urgatzi eta lortutako emaitzak eta denbora eremu zabalago batetan espero diren orientabideak ikustea ahalbidetuko duten konfrontazio prozesuak sustatu behar ditugu mobilizapen strategiaren prestakuntzaren aldetik. Lantegiko asanbladen bidez dinamika horrekin haustea eta langileen egiazko partehartzearen bidez asanblada horiek sustatzea paraleloan doa bestelako ikuspuntu sindikal batekin. Ikuspuntu horren arabera, erreformisten ikuspuntuaren alderantzizkoa, LABeko sekzio sindikalek herrialdeko zein nazio mailako egiturek, langileen partehartze horren aldeko dinamika bultzatu beharko dute. Langileen beharrian

erreibindikatiboetik abiatu berriaren jarrera desmobilizatzaileekiko eztabaida ideologikoa bilatu behar dugu. Negoziazio kolektiboetan aurrera egiteko mobilizazioak bitarteko izan daitezkeela langileei agertaraztea ezinbestekoa da langileen baitan ikuspegi orokor eta sakonago baten kontzientzia haundituz joan dadin eta hala gure helburuek gero eta leku gehiago izan dezaten haiengan.

Aurreko lerroaldean aipatutako lan ildo sektore-herrialde eremuan garatu behar dugu batez ere. Gure posibilitateen arabera, eta egungo egoera ikusita, sektore-herrialde markoek eskaintzen duten indar-batze potentziala finkotzea da gure funtzio eta ataza. Gure aldetik, ataza honi uko egitea ardura-geberia litzateke; ELAk, UGTk, eta CCOOk erabiltzen duten zentralizazio eta kontrol joeraren zorrotasuna ekarriko bait luke eta eskuhartze sindikalizat ulertzen dutena erosoago ezartzeko bidea emango bait lieke. Zentzu honetan, gu bertan egoiteak, ezin egona, nolabaiteko tentsio maila eta jokatibideen polarizazioa dakarzikela nabarmena da. Aspaldion hiru sindikatuen artean hitzartutako ekintza bateraturako akordioaren azpian gure bidea ixtearen saiakera datzala esatea ez da batere zentzuzgaberikoa.

Eremu honetako komenioek, bertako langileen lan baldintzen homogenizaziorako joera bultzatzen duten neurrian garrantzitsuak dira.

Lan harremanak zapuzteko ugazaberiak duen nahirik handienetarikoa bat da eremu hau desnaturalizazioa.

Sektore eremua, enpresa mailarekin kontrajartzearen dilema faltsua alde batera utzi behar dugu. Osagarritasun eta lagungarritasunezko harremana sortu behar dugu. Herrialde mailako emaitzek, enpresa mailako negoziaketari ekiteko orduan abagadune lagungarriagoa ahalbidetu behar dute.

Lantsaioaren murrizketak, asteko 35 orduko lantsaioa lortzeko ahaleginetan, gure eskuhartze sindikalaren helbururik garrantzitsuenetarikoa bat izan behar du. Eskakizun hau, sistemarentzat aldagaririk ez egonkortzaileena den neurrian eta LMrentzako edukin hedatuena biltzen duena izanik, ugazaberiarekiko kontraesan mailarik handiena sorterazten duena da.

Gaur egun dagoen indar koerlazioa ikusita, ezin dugu pentsatu NKaren dinamikaren bidez soilik ildo honetatik aurrerapausu nabarmenak lor daitezkeekin, eremu honetako aurrerapausuek NKaren dinamikan jarritako ahaleginak osatu eta ekintza sindikal orokorrago baten garapena bait dakarte. Honen agitazioak, lagileen artean oihartzuna lortzen badu, eta bere garrantzia barneratzen badute, erreibindikazio dinamika bizia eragiteko baldintza potentzialak ekarriko ditu. Nkan oinarrituz, lantsaioaren murrizketa lanaren birbanaketa kontzeptuarekin lotu behar dugu, enplegu sorkuntzarekin eta bizitza kalitatearekin alegia.

Urteko lantsaioaren murrizketa progresiboaren aurrean, ugazaberiak, urteko lantsaioaren banaketaren malgutasuna, oporrak eta atsedena erako neurrien bidez egiten du eraso; ordutegi-eskuragarritasuna... kontratazio berriak ez egiteko asmoz. Gure iharduera sindikala, neurri hauek enplegua sortzerakoan dakartzaten ondore negatiboak murrizteko bidean burutu behar da.

Beste aldetik, urteko lantsaioaren murrizketa aparteko orduen burutzapenaren aurka jarri behar dugu.

Enplegu egonkortasuna lehentasunezko eskabide-tzat hartu behar dugu, behinbehinekotze prozesuari dagokion alorrean aztertu ditugu enpleguaren behinbehinekotasuneranzko joerari inflexio puntu argi bat emateko gai ez bagara, fenomeno honek bai mugimendu eta iharduera sindikalarentzat dituen ondore larriak. Sektore-arloan eta enpresa mailan NK mekanismoaren bitartez iharduera sindikal ebakior eta jagolea bultzatu behar dugu. Enpresa arloan ondoko iharduera sindikal hau zabaltzea beharrezkoa da:

- Lanpostu finko bati lan kontratu mugagabea egokitu behar zaion printzipioa ezartzea.
- Behinbehinekoak finko bilakatzeko joera gauzatu eta indartu.
- Apurka apurka gertatzen den lan finakoaren murrizketa (jubilazioak) aldibaterakoaren orde ez ahalbidetzea.
- Kontratazioaren zaintze eta kontrol sistematikoaren iharduera burutuko du eta iruzurra

ekiditeko asmoz, lan kontratuan agertzen diren lan baldintzen betekizunaren segimendua egingo du. Honi dagokionez, kontratazio mailan langileen oredezkariek dituzten informazioarako eskubideei buruz, 1991/2 legeak biltzen dituen aurrikuspenak mugatu, hitzarmendutakoa ez betetzekotan aldi-baterakotasun klausularen eraginkortasunik eza barne hartuz.

- Aparteko orduen hazkunde arriskugarri eta istilutsua eragotzi eta lan iharduera burutzen den baldintzen hobekuntzan eta kontratazioaren gehikuntzan lehengoratu.

NKak ekin behar dien edukinen nondik norakoan eta enpresetan eguneroko eta iraunkorra izan behar duen iharduera sindikalaren sorreran jauzi kualitatiboa ematea beharrezkoa dugu.

NKren dinamika lansari eta lantsaioen edukin murriztean oinarritzen den bitartean, eta enpresetan burutzen den iharduera sindikala iraunkorra izan beharrean noizik behinekoa den bitartean, eta bilakaera ekonomikoa, aldaketa teknologikoak eta lan merkatuaren bilakaera, iharduera sindikalaren esparrutik kanpoko gaitzat hartzen diren bitartean edo ingurualdeko tratamendua emateko gai direnean, ugazaberiaren nahiadinako botere diskrezionala eta maniobra gunea gure kalte zuzenerako hedatzen ari gara, omisioz. Gure lan baldintza eta norakoari buruz ugazaberiak ezarritako oinarritzko parametroak faboratzen ditugu. Eta are gehiago, enpresa batzorde eta mugimendu sindikalak lan harremanen arloan duten izaera soroslea sakontzen dugu.

Esperientziak erakusten digu lan sindikalari ekiteko modu honetatik ugazaberiak, langile eta sindikatuak harremanetan, beretzat guztiz onuragarri diren baldintzetan jokatzeko duela; berak sorrarazi edo onartutako gertaera edo atzerazinezko neurrien ondorioak jasatera alboratzen gaitu, atzera ezintasuna edo burututako egitatearen muga iragan baino lehen, debatitu, eztabaidatu edo negoziatzeko aukerarik gabe (ekonomi eta finantz narraiadura zorrotzaren krisi-espedituek, izapidetu eta gero adierazitako ordainketa etendurak, ondasun altxamenduak, denbora luze pasa ondoren jakinak; antolakuntza eta lan baldintzetan ondorio larriak ezarri dituen aldebatekotasunezko inbertsio politika, salmentak, enpresen bategite edo irenspenak...).

Beharrezkoa da ugazaberiak daukan botere zabaltsua mugatzea eta posizioak eskuratzea, egoera hauek ekiditeko eta lan harremanak maila orekatuago batetan ahalbidetzeko asmoz. Ataza honi negoziatio kolektiboaren dinamika eta enpresa mailako ihardueraren jarrera aldaketatik ekin behar zaio enpresa mailan erregular, iraunkor eta integralago bihurtuz.

NKren dinamikari, sektore eta enpresa mailan, langileen oredezkarien informazio eta kontrolaren eskubidea eskatzea eta zabaltzea dagokio.

Honako hauek ere eskubide honen barnean egon behar dira:

- Enpresen bilakaerari buruzko ekonomi eta finantz informazio aldizkako eta exhaustiboa.
- Praktikan jarri baino lehen, kudeaketa eta estrategia planen ezagutza zehatza.
- Diseinatutako inbertsio politika.

Gure etorkizuna abiapuntutik ahalik eta unerik hurbilenean kokatuko duten oinarritzko elementuak ezagutu eta eztabaidatzeko aukera lortzean datza, hau da, egitasmoen diseinu eta sorrera.

Eguneroko iharduera sindikaletik NKn lortutako eskubide hauek betetzea gauzatuko litzateke, ekindako politikek gure lan-baldintzetan negatiboki eragin ez dezaten orientazio edo perspektibarekin eztabaidatu edo negoziatuko litzateke, ugazaberiaren eskutik orientatu eta ezarritako atzerabideak legitimatu gabe, aitzitik, gure lan eta bizi baldintzetatik, hots, gure interesetatik aldaketa teknologiko edo aplikatuko litzatekeen politika eta beronek enplegu, antolaketa eta lan baldintzetan izango zukeen eraginaren zentzu eta orientazioa baldintzatuz.

Ildo honetatik eta ondorioz, teknologia berriak ezartzearen kasuan, aurretiaz, langileen birziklaia eta lanbide heziketari lagunduko lioketeen mekanismoak sortu eta egonkortu behar dira.

Lan baldintzen zehaztepenean langileek duten protagonismoa areagotzeko helburuari jarraikiz NKren edukinen barruan Lan-Osasunaren gaiari garrantzi maila handiagoa eman behar diogu; egungo Se-

gurtasun eta Higiene batzordeen osaketa eta konpetentzien aldeko aldarazpena egin behar dugu.

Estatu mailako komenioen agindupean dauden sektore, enpresa eta zentro publikoetan, gure estrategiaren helbururik nagusia, estatu mailako negoziazio batasuna hautsi eta Euskadi mailako negoziazio baten alde burukatzearen beharra adieraziz aipaturako komenioek ukitzen dituzten euskal langileenganako mezua indartzea da.

Horretaz gain, estatu mailan gure kideko diren beste indar batzuekiko harremanak bilatzen saiatuko gara, indar hauek nazionalitateak zein ezker sindikalekoak direlarik, eta beharrezkoa eta egingarria baldin bada koordinaketa eta ekintzarako batasuna lortzera jo behar dugu, ondoko bi helburu heuekin:

- a) Sindikatu erreformazaleen kontraesanak bilatzea eta estatu osoko langileengan presioaren bidez sindikatu erreformazale horiek ekintza sindikalerako darabilten ildoan aldarazi eta beratu negoziaketa kolektiboan gauzaraziko duen eritzia sortaraztea.
- b) Estatu mailako enpresa eta sektore hauetako langileen artean gure mezua eta helburu nagusia zabaltzea eta langile horiek gure alde jartzea.

Hori guztiari aipaturiko komenioek ukitzen dituzten sektore eta enpresetako langile guztiekiko elkartasun jarrera batetik.

Langileen lan baldintzak homogenotzeko, lan merkatuko sektorerik babesgabe eta baztertuenak defendatzeko eta, kapitalak eta PSOE Gobernuaren politikak sorteraizitako banaketaren aurka burukatzeke, NKren dinamika, lan merkatuaren bilakaera eta langileraren osaeran dauden aldaketen arteko korrespondentzia handiagoa egon dadin ihardun behar dugu, halako eraz ezen NKrako eskubidea enpleguriko langileen kolektibo guztiek erabiliko bait dute, oinarritiko NK dinamikari, hots, kontratamarkorik ezak ukitutako kolektiborik babesgabeenengandik datorrenari, lehentasuna emanez.

Gure pentsaera sindikalak eraginkortasun mugarikomenioen aurka jotzera garamatza, berauek langileen arteko zatiketa sustatu, ukitutako langileen aldean, sindikatu erreformisten kupulak autonomo

bihurtzeko joera negatiboaren alde egin, ugazaberiak horren gogotsu bilatzen duen lan harremanen banaketarako joera indartu eta, finean, negoziazio kolektiboa gertatzen deneko kontratu-markoa doilortzen dutelako.

LHKn negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko zenbait poriektu eztabaidatzeak -lan ordenantzak autonomi elkarte mailako komenio edo akordioez ordezte, adibidez, kasu honetan proiektua Nafarroara hedatuz; gaur egun estatu-komenioez iharduten duten sektore batzutan sektore-komenio berriak negoziatzea, bai eta komeniorik ez daukaten langileentzako komenio bat negoziatzea ere-, guk beraien emaitza eta ondorioez egin dezakegun baliopresenaren kalterik gabe, interesgarria da estatuko araudian diseinatutako NK eredu erdirakoi eta bateratzailea interferitzen duten heinean, LHKri buruzko atalean adjudikatzen dizkiogun izaera eta funtzioei dagokienez, inolako orientabide-aldaketarik inplikitzen ez duelarik ere.

Gizarte euskalduna lortzea gure helburu estrategikoetarik bat delarik eta, mugimenduaren barruan euskalduntzearen aldeko iharduera eta bururari ematen diegun garrantzi politikoarekin bat, sindikatuari dagokio ere iharduera hau Langileen Mugimenduari hedatzeko ardura. Beraz, lehentasun maila handia ematen diogu NKren edukinetan euskalduntzearen aldeko neurriak sartzeari eta jarrerara aktibo eta urrakor bat erakusten dugu, lan harremanak euskalduntzeko prozesuari laguntzen dioten neurriak gauza daitezten.

Administrazioan bai Baskongadetan baita Nafarroan ere negoziazio kolektiboa lantokiz-gaineko komenio-hitzarmenetan dago egituratuta; sektoreetako mahaietan Baskongadetan eta Mahai Orokorrean Nafarroako kasuan, nahiz eta azken boladan alderantzizko bidea bultzatzen ari den instituzioetatik (sektoreetako Nafarroan eta orokorra Baskongadetan). Gure nahia Hego Euskal Herriko Administrazioetako langile guztien lan baldintzen homogeneizazioa izanik eta egungo artikulazio administratiboa zalantzan eta auzian jartzen dugularik, honako izan beharko litzateke LABen jarrera marko juridiko politiko berri bati begira: udal, diputazio eta gobernu desberdinetan bitartekoak eta eskumen mailak desberdinak direla jakitun eta indar koerlazioak eta mobilizaziorako ahalmenak ere desberdinak direla kontutan harturik, LABek negoziaziorako esparru

zabalen aldeko apostua egin beharko du.

Bestalde, arian-arian barneratzen ari diren aginakeriazko eta ustelkeriazko jarrerak Administrazioaren barruan bereganatu ez ezik insolidaritate eta are ustelkeriazko portaerak agertzeraz eramaten dutela ikusirik eta guk gura dugun gizarte justu eta solidario horri iristeko Administrazioak duen funtsezko paperaz jabeturik, lehen aipatu ditugun jarrera eta portaera horiek langile publikoek beregana ez dituzaten lan egin behar dugu, horretarako behar den interbentzio ildoak garatu beharko dugularik.

### 3.3.2.-

#### **NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA PRECO (Gatazken Konponbiderako Prozedura)**

PRECO lan gatazkak konpontzeko epaiz kanpoko mekanismoa da, gatazka batetan, bi aldeek onarturik, bitartekariarena egin eta erabakitzen duen instantzia da, eta ordezkariak handiena daukaten sindikatuek eta ugazaberiak sinatutako akordio interkonfederalaren itxura juridikoa hartzen du.

Borondatezko prozedura da, gatazkak ukituriko aldeetarako batek ere ez du derrigorrez PRECO erabili behar. Adiskidetzaille, bitartekari eta tartekariak gatazkak zuzenean ukituriko aldeek aukeratzen dituzte.

Adiskidetzak eta Bitartekaritza bideei dagokienez, bateragarria da berauetara jotzea grebarako eskubidearen erabilpenarekin, eta beraien proposamenak ez dira loteraztekoak.

Tartekaritzaren kasuan ebazpena loteraztekoa da eta eten egin behar da garatzen ari den edo deitu den greba, aginpidezko bidean, gatazka kolektiboaren prozeduraren pean jartzeko langileek grebari utzi behar dioten bezala.

Beraz, oro har, PRECO rako errekurtsoak ez dakar beharkizun gehiago, ez du baldintza txarragorik ezartzen aginpidezko bidea erabiltzeak baino.

PRECOari buruzko geure eritzia agertzeak ikuspegi bat baino gehiagotik aztertzeraz eta, alde bateko eta besteko argudioak haztatzera behartzen gaitu.

Komenioetako batzorde parekideen garrantzia, gizarte-aginpidearen eginkizuna den beraien inter-

pretazio eta aplikaziora zabaltzen duen heinean, hots, alde negoziatzeek, eurek erabakitakoaren aplikazio eta interpretaziotik eratorritako gatazkak berez konpontzeko daukaten gaitasuna bultzatzen bada, alde negoziatzaileen borondateetik hurbilago dagoen interpretazio konbentzional (ez aginpidezkoa) baten alde egiten duela ondoriozta daiteke. Sindikatuek zuzenki ezagutzen dituzte eurek sinatzen dituzten komenioen interpretazioak sorterazten dituen arazoak.

Komenio kolektiboak negoziatu eta burutzeko botere arauemale autonomo bat dagoelarik, kontraesankorra dirudi beraien interpretazio eta aplikazioa gizarte-aginpidearen eskuetan egoteak. Honela beraz, aginpidezko bideari eskumen eta funtzioak ohosten zaizkio, berauek aldean autonomia kolektiboaren eremura lekualdatzeko, haien botere eta gaitasun arauemalearen osagai gisa.

Epaileak izeneztatzea konstituziobidez estatuari iratxikiriko eskumen eksklusiboak denez eta beronek Epaia Boterearen Kontseilu Nagusiaren bitartez izeneztatzen dituzenez, eta izaera juridikodun gatazka bat PRECO rantz desbideratu, eta tartekariaren izendapena aldean arteko akordioz egiten den heinean, PRECO mekanismoak Estatuari eskumen eksklusibo sail bat ohostea ahalbidetzen duela ondoriozta daiteke, lan tartekaritzak ia aginpidezkoak diren funtzioak beteko dituelarik.

Eraginkortasunezko erizpide batetik eta iruzkin honi garrantzi handirik eman gabe, epaileak bitartekari edo tartekariez ordezteak, baldintza hobeak ekar ditzakeela esaten ausartzen gara, bi bideetara jotzeko aukera bertsuekin, beraien iharduteko edukiko duten askatasun handiagoaz, bitartekaritza edo ebazpenaren emaitzak PRECO an beste bideetan baino hobeak izan daitezela.

Balioespen sindikala egiten ari garen aldetik, PRECO ren karakterizazio eta balioztapena, bere funtzioari dagokionez, klase interesen aurkakotasunean egin ahal izango duen interferentzian eta, lan gatazkak gertatzen diren ingurunea baldintzatu eta zehazteko daukan gaitasunean kokatu behar ditugu.

Berba formal eta abstraktuetan beraren neutraltasuna argudia daitekeen arren, PRECO ren funtzioa ezin isola daiteke sortu dutenengan datzan interesetik, ezta, batez ere, dinamika sindikala garatzen den

ingurune eta errealitate zehatzetik ere.

Ugazaberiaren interesa nabaria da: irekitako gatazkak likidatzeko instantzia gisa erabiltzea.

CCOO, UGT eta ELA sindikatu sinatzaileei dagokienez, beraien praktika sindikala ikusirik, burruka prozesuak moteltzeko eta gatazkak desnaturaldu eta eredu instituzionaletarantz berbideratzeko tresna gisa erabiltzea litzateke.

ELAren kasuan, beraren baliagarri nagusia delarik eta bere 'nazio'-ikuspegitik, katemailetariko bat da estatu-eskumenak usurpatu, aginpidezko bideari oraingoan, eta gizarte-aldeen autonomia kolektiboaren eremura lekualdatzeko bere estrategian. Gizarte/lan arloan euskal aldarrikapenak mugatzen dituzten ardatz zentralen aurka zuzenean egin beharrean, etekina ateratzea ahalbidetzen dioten zeharkako bide lagungarriak erabiltzen ditu, PRECOren antzerako ente eta mekanismoak sortuz.

Gure lehentasuna NKren dinamikan, ahal dugun heinean, langileen mugimenduak erreibindikazio-eskalan maila batzu igo ditzan laguntzean eta, sindikatu erreformisten metodoei indarra kentzean datza.

Interesen gatazka kolektiboetan, komenio kolektibo baten negoziazioeko desadostasunetatik eratorritakoak gehienetan, gure dinamika sindikalak zalan-tzarik gabe, mobilizazioaren bidez ugazaberiarekiko burruka eta, negoziazioa mahaian langileen erreibindikazioak inposatzen saiatzea izan behar du, marko zehatzeko indar korrelazioan aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintzak sortzearen alde eginez.

Baina gure ustez, honek ez du bitartekaritzaren noizik behineko erabilpenarekin bateraezina izan behar (eztabaidagarriagoa zenbait gatazkatan, zeintzuren iraupen eta garapenak langileengan higidura handia sorterazi bait dute, edo konponbide zaileko egoeran dagoenean -tostartekoengatazkak).

Izaera juridikodun gatazka kolektiboetan, hauetariko gehienak epai-ebazpidera birbideratzen direla erakusten du praktikak, epaiz kanpoko konponbidea, tartekaritza batipat, komenigarria litzatekeelarik. Nahiz eta azaldutakotik ez den derrigorrez ondorioztatu behar lan tartekaritzak epai-sistema la-

boral ordeztu behar duenik, hau da, beronen alternatiba orokor gisa planteatu behar denik.

PRECO onartzea eta gaiztakeriarik gabe erabiltzea, gure helburu eta lehentasunekin, hots, negoziazio kolektiboaren dinamikan batez ere, eskuhartzeko geure linearekin, noraino datorren bat aztertzean datza eztabaida.

NKren diagnostikoan azaldutako dinamika sindikalaren errealitateak; indar korrelazioak mugimendu sindikalean; UGT, ELA eta CCOO bide instituzionalez egiten duten erabilerak, dinamika mobilizazioarekin kontrajarria; finean, oraingo egoeraren pisuak eta berori gainditzen saiatzeko finkatu ditugun lehentasunek, gure aldetik PRECO orokorrean onartzeak, akordio interkonfederala onartzeak ekar ditzakeen arriskuen balioespina kuestionatzera eta arreta handiz ibiltzera garamatzate, gure onarpena gauzen oraingo egoera finkatzeko, edo sindikatu erreformistek ezarritako korrontearen alde egiteko faktore gerta bait daiteke, gure lehentasun eta helburuak erabat ezberdinak diren arren. Guk PRECO sinatzean ondoriozta litekeen UGT, CCOO eta ELAren ihardun sindikalaren zeharkako indartzea; NKri buruzko beraien kontzepzio/ulerkera artezkari eta ordeztailarena; burrukatasuna, partaidetza eta erreibindikazio-bulkada eragozteko xedea daukan aparailu sindikalaren protagonismoan garatutako beraien iharduna, greba edo mobilizazio bat has-tean portaera aiduruak sarrerazteko edo prozesua-ren pil-pileko uneetan itxarobideak sorteraziz eskuhartzeko PRECO metodoaren bidez... PRECOri atxekitzean, gatazkek instituzionaldutako konponbidearen komenientziarentzako abal ideologikoa emanaren mezua, gure helburu orokorrak, PRECOren erabilera egokiari dagozkionak, eta segurtasunez balioetsi behar ditugun beraren arrisku eta kontsideroak baino gehiago nabarmentzea...

Beste gai bat, gatazka zehatz bat hirugarrenen bidez konpontzeko baliabidea da, positiboa izan daitekeena gertatzen den ingurune eta baldintzak kontutan harturik. Iharduera sindikalean, gatazkak hirugarrenen bidez konpontzeko bide anitz dago, aginpidezko bidez bereziki, baita NKtik eratorritako interes gatazketan ere, bide hau nahi genukeena baino ohizkoagoa bait da; eta beste gai bat, une honetan gatazkak hirugarrenen bidez konpontzeko sistema oso baten egituraketari lagutza ematea eta, aipatu onarpena NKn botere gonbentzigarri eta

kontraktuala areagotzera, interesen aurkatasun prozesua gogorki tinkatzera zuzendurik markatutako lehentasunekin bateragarri bihurtzea da.

Azaldutako kontsideroek, sindikatuak alde batean eta bestean jokatzeko duten faktore eta arriskuen jarraipen eta balioespen lana burutzeko behar beste denbora hartu behar duela esatera garamatzate, akordio interkonfederala sinatu ala ez, erabakitze-ko. Atal honetan azaldutako kontsideroak direla-eta egindako balioespenen pean egongo den jarrera-hartzea eta atzetiko gauzatzea, Sindikatuaren egitura guzti-guztietan eztabaidatu ondotik eragin horretarako deitutako konferentzi Nazionalak har dezala azken erabakia, proposatzen da.

### **3.4.- ENPRESA ETA SEKTOREKO ESKUHA RTZE SINDIKALA- EKONOMI GATAZKAK**

Enpresako iharduera sindikala aspektu kopuru zenbatezin batek osatzen du, baina badago, gure ustez arreta berezia behar duen zenbait gai funtsezko.

Ekonomi-izaerazko arazoak dira nabarmenenak, enpleguaren iraupena edo enpresaren etorkizuna baldintzatzen eta mugatzen duten neurrian eta egitura sindikalari zereginik gehien sorterazten diotenak dira; honexegatik nagusitzen da enpresaren ekonomi/finantz egoera eta bilakaeraren azterketa-ri eta, enpresariak diseinatu eta garatutako kudeaketa eta strategi egitasmoen lehentasuneko tratamendu berezia emateko beharrezana. Finantz eta ekonomi inguruneak, enpresal kudeaketaren kalitateak eta enpresaren etorkizunerako egitasmoek eta industri-egoerak zehazten dituzte lan harremanen oinarriko parametroak enpresan eta baldintzatzen dute sindikatu/ugazaberia dialektika gainontzeko arazoetan.

Lan baldintzekin batera, lanaren antolamenduak, laneko osasunak eta enpleguaren aldibaterakotasunak sorterazitako arazoek, NK edo enpresa-itunaren dinamikaz gain, iharduera sindikalak aurre egin behar dien gaien multzoa osatzen dute.

Gure iharduera sindikala ekonomi/finantz egoera sistematikoki eta hertsiki ezagutzera bideratu eta kudeaketa zein egitasmo estrategikoen jarraipena egitea, enpresan lan harremanetako gorapiloari ekitea da, enpresariaren nahi erarako boterea eztabaidatu eta beraren maniobra eremua mugatzea dakar, bai eta enpresa batzorde eta mugimendu sindikalaren boterea eta kontrol ahalmena areagotzea ere. Kudeaketaren garapena puntualki eta aldi-zka, garatu ahala, eta etorkizunerako egitasmoak sortu eta diseinatzen direnean ezagutzeko eskubidea aldarrikatu eta lortzean datza gure zeregina, honela ekidin egingo bait dugu ondoreak eta ondorioak eztabaidatzea, enpresariak alde batekotasunez ardatz nagusiak aplikatutakoan.

Ekonomi eta finantz narriadura sakon baten erdian, izapidetutako ordainketa etendura tartean, bideragarritasun plan batetan, berregituraketa planean, enpleguaren araupeketarako espediente batetan sartzeak iharduera sindikala enpresariak alde batekotasunez aurretik mugatutako jokagune baten barruan garatzera behartzen du, lan ondorioak ageriko ezberdintasuneko baldintzetan arintzen saiatzen garelarik.

#### **EGITASMOAREN LAN ATALREN EZTABAIDATIK IRTEN ETA, BALDINTZARIK ALDEKOENETAN, ESTRATEGIAREN ARDATZ NAGUSIAK EZTABAIDATZERA JOTZEKO LOGIKARI EGIN BEHAR DIOGU, BIHURGARRITASUNA ORAINDIK BIDERA DATTEKEENEAN, ENPRESARIAK EZTABAIDAREN ERRITMOA ETA UNEA INPOSA DEZAN AHALBIDETU GABE ETA, AITZITIK, GUK INPOSATZEN SAIATUZ.**

Aurrikuspena eta ondoriozko aitzinapena dira gakoak:

- Bestela egitera, ugazaberiak prestatutako irtenbideetara, non, industri-harremanetan sorospidezko funtzioan iraunerazten gaituztelarik, burruka sindikalaren emaitza kalteordainaren gehikuntza lortzera edo kanporatuen kopurua txikiagoa izan dadin lortzera mugatzen bait da, kondenaturik egon daitezkeen egoera askok konponbide duinak eduki ahal izatea ekar dezake.
- Arazo bat konpontzerakoan, printzipio-jarrerara eraginkortasun sindikalarekin bateratzea ahalbidetu dezake; mugaturik gauzate-

neko dilema -printzipio-jarrera 'eraginkortasun sindikalaren' aurka- gaintzea ahalbide diezaguke, berori neurri atzerakorren legebidezkoketa dakarren koartada ideologiko gisa erabiltzen bait dute.

- Irispide luzeko egitasmo baten aurkako oposizioa azaldapen positiboan bidez instrumentalizatzea ahalbidetzen du; argudioetan indartsu den jarrera batetan kokatzea, erasotzeko jarreran kokatzea, eta ez, ordea, defentsiban, hauxe bait da ezarketa berregituratzaileen aurrean hartu ohi den jarrera orokorra; aurrea hartzea ahalbide diezaguke, alegia.
- Eskuhartzean kalitate handiagoko iharduera sindikala burutu eta prestigio maila altuagoak lortzea ahalbidetzen du; baita eskuhartzeko oldarkoiago bat ere: talde artezkariaren aldaketa...

Azaldutako guzti honetatik ondokoa ondorioztatzen da:

- Ulerkera militante, erregular, egonkor eta, sektore eta AErako organoetatik diseinaturako lan metodologia eta egitarau bati atxekiriko batez garatu behar da iharduera sindikala, enpresa barruko lan harremanetan botere eta kontrola eskuratzeko helbururantz zuzendua.
- Informaziorako eskubidearen aldarrikapena NKren mekanismoaren bitartez burutu behar da, dagokion atalean adierazitako eran edota ihardun sindikal zorrotz eta iraunkor eta, EB-ren barruan jarraipena egiteko organo baten instituzionaltzearen bidez inposatzea lortuz.
- Sektore-erreferentziak eduki behar dira beti, bai orokorrak zein azpisektorea edo sektorea osatzen duten enpresa nagusia, teknologiko - egoera, inbertsio politikak, ekonomi/finantz bilakaera eta dauzkaten lan baldintzak alderatzen xedez, norberaren egoerarekin gonbaratzeko elementu gisa.

Argi geratu behar da, lan sindikal afinatu eta gogorrago batek ez dakarrela enpresetan sortutako ara-

zo latz guztien konponbide asebetegarri eta positiboa, eta sistemaren logika kontraesankorretik eratorritako baldintza 'objektiboek' funtsezko garrantzia hartzen dutela askotan. Hala ere, 'krisia orokorra da' edo 'sektore osoarena da', sarritan gezurrezko eta interesatua den atxaki honen atzean, norberaren enpresal erantzunkizunaren salbuespenerako koartada ezkututzen da, eta lan metodologia honen bitartez, enpresariaren erantzunkizunak amaitzen diren tokia eta kanpoko zioei egotzi dakizkiekeen arazoiena bereizten eta mugatzen saiatzen da. Arazoaren inguruko geure Ugazaberiak, bere erantzunkizun zehatzak itzultzeko asmoz, guztirako azalpena kanpoko zioetan oinarritzeko erabiltzen duen errekurso erraza, arazoaren gure ezagutza zehatzik ezak baldintzatua, ez ahalbidetzen da gure helburua.

Komenigarria da aurkeztutako arazoaren izaera zuzenki diagnostikatzea:

- Beraren abagaduneko edo egiturazko izaera.
- Aurkeztutako arazoa dagokion ingurunean sartu: enpresa multinazional handitik azpikontratazioko lantegi txikiak.
- Proposatutako neurrien zioen osagai nagusia, hots:
  - Enpresaren esparruan kokaturiko lehiakortasun arazoek sortarazitakoak, sektorea nahiko ondo dabilenean, teknologiaren zaharkeriari, ekoizkinaren kalitate edo nolabaiteko zaharkiduragatik arazoei egotzizko arazoak, baita beraren merkatal, finantz, ... bertsioan dagoen kudeaketa askieztatik eratorritako arazoengatik ere.
  - Haien teknologiko baldintza eta ekoizkinari dagokienez potentzialki errentagarri eta lehiakorren diren enpresak, zeintzuren narriadura burututako kudeaketa defizitarioari egotzi behar bait zaio basikoki.
  - Sektorearen krisi orokorreko ingurune batetan murgildurik dauden enpresak.
  - Lehiakortasun akats 'teknikoek' baino,

estrategiarraioiek sortera zitezkeen arazoak, multinazionalen kasuan batik bat (Michelin, Suchard,...), industri-erakunde oso zein partzialak dakartzatenak, ekoizpen-iharduera beste leku batzutarara lekualdatuz.

- Arrazoi politiko hutsen eraginez ixtera kondenatutako enpresak. (EUSKALDUNA,...)
- Azpikontratazioaz bizi diren enpresak, hots, eurena den ekoizkinik gabe; beraien bilakaerak zuzenkiago pairatzen ditu ekonomi abagadunearen gora-beherak.
- Enpresa handietan, txiki eta ertainekiko kontrajarpenaz, ekonomi arloan azaldutako gatazkak, zeintzuren konponbideak, enpresa txiki eta ertainei aplikatzen ez zaizkien laguntza instituzionalak behar bait du.

Zioek sarritan elkarrekiko erlazioa daukate eta ez datoz bat hertsiki hemen azaldutako ebakipen partzialarekin; gatazka sortarazi duten zioen osagai nagusia zein den zehaztea da helburua, baliabide eta formetan egokiago eta itzulkorragoa izango den politika sindikala burutzeko xedez. Kasu orotan, oinarritzko printzipioei tinkoki eutsiz: irispide luzeko edukin atzerakorrak dakartzaten egitasmo eta neurrien aurkako oposizioa, berauek onartzeak ukitutako langileen kolektiboaren ideologi, erreibindikazio eta mobilizazio-desartikulazioa suposatzen bait du. Eta halaber, enpresal erantzunkizun zehatzen exijentziari dagokionez, ezertan ere amore eman gabe. Krisia, oinarrian, kanpoko zioei egotzi ahal izango balitz ere, nabarmenki gailendu behar da neurri atzerakorrak legebidezko zerearen aurkako printzipio-jarrera.

Hala ere, balio beza egindako karakterizazioak, enpresa multinazional batetako jubilazio plan baten aurreko jokaera sindikala edo azpikontratazioko lantegi txiki batetan zenbait jubilazio gertatzen deneko oso ezberdina dela ondorioztatzen da.

Aurrea hartzeak, enpresa itxi ala LSA bat osatzearen arteko dilema ezagunetan erortzea ekiditzeko balio behar du. Garatutako iharduera sindikal osoa eta

guztiz ere, aurkeztutako hautapenera ezinbestez heltzen bada, kontutan hartu behar dira:

- Enpresaren errentagarritasun potentzial eta lehiakortasun maila.
- LAS osatzeak ekar dezakeen gizarte-kostea.
- Enpresa kokaturiko ingurunearen baldintzak, hau da, herrian edo eskualdean daukan ekonomi-garrantzi ertiboa.
- Ukitutako langileen kolektiboaren eritzia.

Enpresaren esparrurako proposatutako iharduera sindikalaren aldiak egokiro gauzatzeko, era berean erregular, metodiko eta iraunkorra den azpisektore/sektore-iharduera behar da:

- Sekto-re-iharduera sindikal oso bat garatzen duena.
- Aldizkako txostenak egiteak exijitzen dituen eta oinarritzkoak diren ekonomi/finantz parametroei, industri/teknologikoei eta gizarte/sindikalei buruzko uneko ikuspegi gaurkotua edukiz.
- Epe labur eta ertainera eskuhartzeko sindikalerako egitarau bat diseinatu eta garatuko duena.
- Azpisektore/sektore-mailan iharduera sindikala homogenotuko duena.

Egoera gatazkatsuetan, lurralde-eremu zehatz batetan gatazka nahiko biltzen denean, gatazka sektore edota lurralde-mailan neurtzen saiatzeko orientatibideaz gidatu behar da.

Ekonomi arazoek enpresaren kontratu-markoa gainditzen dute gero eta gehiagotan, hots, enpresa batetan 'krisi egoeraren' azalpeneko kanpoko faktoreak gero eta gaitasun handiagoa hartzen duenean, ez dugu enpresaria, egoeran daukan erantzunkizunetik zurrutu behar.

Gatazka eremua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da artekoketa 'teknikoa' eta are nabarmenkiago agertzen da zioen, eta beraz erreibindikazioen osagai politikoa. Askoz jokagune alde-

koagoa da, enpresaren esparruan defentsiban egotetik, goragoko eremuan erasoan egotera igarotzea ahalbidetzen bait du. Irtenbide orokorrakoak erreibindikatzea, instituzio politikoak inplikatzeko, mobilizazio-maila eta gradua areagotzea... ahalbidetzen du, eta askoz hurbilago dago eskuhartzeko gure linea orokorretatik.

Industri eta zerbitzu sektorean gertatzen ari diren teknologialdaketek, lanaren antolamendua enpresako lan harremanetako aspekturik aldakor eta dinamikoenetako bat bihurtzea dakar. Lanaren antolamendua geure interesen arabera zehazteko ahalmena areagotzeak, hau da, gure bizimoduaren kalitate eta lan baldintzetan atzerapausurik ez dakarren eran egiteak izan behar du enpresan garatu beharreko gure iharduera sindikalean ezarri behar dugun erronka. Alokairu egiturari, sari sistemari, lanpostuen balioespenean ezarritako atarramendu/etekin sistemak sortera zuzentzen dituzten ondorioak; mugikortasun funtzionalak eta balioaniztasunak, lanbide-mailei dagokienez, daukaten eragina; lantsaioa malgutzearen arazoa eta beronek langileen bizitzaren kalitatean daukan eragina... sindikatuak global eta analitikoki ekin behar dien gaiak dira, lan eremu espezifiko batetan gauzatu beharreko jarraibide orokorrak ondorioztatuz. Era berean jokatuz behar da Lan Osasunari buruzko arazoaren aurrean.

### **SINDIKATUAREN JARRERA LANEKO IHARDUERA BERRIEN AURREAN**

Deitzen den merkatu librearen sortarazten duen kompetibitatearen ondorioz kapitalak eraso mota berria egiten digu, somatzen hasi garena eta urte askoz iraungo duena.

Orain arteko produkzio sistema atzeratua gelditu da, lana soldata eta sari gehigarrien bidez ordaintzeko prozedurak ez bait du asetzen kapitalak nahi duen ez kalitate ez produktibitatea.

Klase filosofiak desagertarazi eta kapitala lanarekin interes berak defendatuz ihartuerazteandago eraso. Horrela lortzeko litzake kompetibitate, produktibitate edota kalitatea haunditzea enpresaien ahalegin gutxienaz.

Sistema berriaren bidez langileak ez du soilik lana

egin behar baita bere adimen osoa kapitalaren interesak bultzatzean jarri ere.

Filosofia hau Japonen ezarria da, mendebaldean ere bidean, eta honako hau uzten du agerian:

- Klase desagertzea baieztatzen duela.
- Enpresarekiko elkarlan estuan sindikalizazioa, alferrikakoa suertatzen da, nolana izan ere.
- Langileen arteko bereizketa: langile trebeak alde batera eta traketsak, zabarrak, elbarriak... bestera.
- Produktibitatea ugaltzen den neurrian lanpostu kopurua muriztuz joango da.

Enpresarekiko harreman estua suspertzen duen filosofia, besteak beste, lana taldeka eginez eta etengabeko hobekuntzaz ezartzen da. Langilego osoa lan mota guzietarako trebatuz, funtzionamendurako ideiak eskeintzen dituelarik eta bai garbiketaz bai absentismoaz arduratzea ziurtatuz halanola kalitateaz, kapitalaren arrakasta bermatua gelditzen da.

Produkzio sistema berri hau langile mugimenduari kontzientziatutako langileen artean ezartzea hagitzen baldin bada, ez da horrela suertatzen langile berriengan (beren kontratuaren baldintzengatik hain zuzen ere).

LAB sindikatuan ahalegin guztiak egin beharrean gaude langilea enpresan integratu nahi honen aurka, langileria eta sindikalizazioaren inguruko aldarrikapen guztiak ukatzen dituelako.

Onartu beharra dago, bestealde, taldeka lan egiteak badituela alderdi onuragarriak: langile mugimenduari: laneko iharduera aldatzeak dakarren egunerokotasun zama haustea esate baterako, edota beti postura berean ez aritzeak suposatzen duen laneko osasunaren hobetzea hala nola lanerako balioaniztasunak eragiten duen kualifikazio sustapena. Puntu hauek lortzearen borroka daiteke elakoan gaude, baldin eta ez bada elkartzuna baztertzen, lanpostuak galtzen, langile elbarrien egoera okertzen edota, azkenik, klase-sindikalizazioa desagertzen.

### 3.5.- **IHARDUERA SINDIKALA KOLEKTIBO ESPEZIFIKOENGANA HEDATZEA: EMAKUMEAK ETA GAZTEAK**

Gazteak eta emakumeak dira behinbehinekotasunaren baldintzak eta ondoreak bizikien pairatzen dituzten kolektiboak. Lan merkatuko talderik zokoratuenak dira, langabezi tasa izugarriak biltzen dituzten eta ekonomia ezkutua eta txartoen ordaindutako lanbide-mailak areen jasaten dituzten taldeak, alegia.

Langileriaren lan baldintzak homogenotzeko asmoaren ondorioz eta kolektibo hauek nozitzen duten bereizkeria eta ezberdintasun gradua kontutan hartuz, sindikatuak beraiei bereziki zuzendutako iharduera bat garatu behar du.

#### **EMAKUMEARI DAGOKIONEZ**

Gaur egun Hego Euskal Herriko emakumeen 2/3a, lanpostu bat betetzeko adin eta egoeran egon arren, ez da populazio aktibotzat ematen; ez dira, lanpostu bat betetzeko eskubidea duten pertsonatzat, alegia. Ez dira ez langiletzat ez langabetutzat hartzen, ez dira estatistiketan azaltzen ere; «langabezi tasa» jeisten laguntzeko eraabila besterik ez dugu. «erreserba poltsa» bezala ordea leku garrantzitsu bat betetzen dute.

Emakumeen langabezi tasa altuena da adin guztietan, egoera hau 25 eta 54 urte bitartean larriago bilakatzen da eta 35-44 urte bitartean iristen da maila gorenera. Emakume ezkondu aktiboan langabezi probabilitatea hirukoitza da gizon ezkondu aktiboanarekin alderatzen badugu. Hego Euskal Herriko emakumeen aktibitate tasa Europako batz bestekoa baina txikiagoa dugu.

Krisi industrial egoeran lehenengo emakumeak botatzen dituzte lanetik, lan-merkatuan diskriminatu egiten dituzte eta lana lortzen dutenean bere promoziorako aukerak askotzaz txikiagoak dira. Lan bera eginda soldatan mailan gehien diskriminatuta daudenak emakumeak dira baita ere.

Beraiek jasaten dute aldi baterako kontratazio gehiago. Langabeziak berengan duen eragina, emakume gehienak lan jakin eta gutxi batzutan aritzea, familiarekiko laguntza milan gehiegizko ordezkantza, e.a.

Diskriminazio mota asko dago. Egia da gaur egun itxura gehiago gordetzen egiten dela, horretan datza aldaketa, baina normalean horrek marginazioa indartu besterik ez du egiten. Horrela izkutuan dauden bitartean ez zaie soluziorik ematen. Gizonengan zalantza jartzen ez den gaitasun eta prestakuntza emakumeok frogatu behar dute.

Lana sexuaren arabera banatzeak eta Gizarte honen emakumeari ezarri dion menpekotasun funtzioak heziketa eta promoziorik eza dakarte; eta ondorioz langileen kolektibo zapalduenetan geratzea. Ikasketa mailak ere ez du bermatzen diskriminaziorik eza; unibertsitari mailako pertsonen artean ere emakumeek dute langabezi tasarik altuena.

“Gizonena” kontsideratzen den munduan (lan munduan, adibidez) sartzera ausartzen diren emakumeak, arrotz eta ez onartuak izaten jarraitzen dute hori ez bait da «bere lekua».

Lan Zentroetan ere lan banaketa sexuaren arabera egiten da. Honela, batzuen eta besteen, «berezko jarrera» edo arrazoi fisikoen arabera egiten da oraindik banaketa profesionala. Emakumeak soldata, status eta maila txikiagoa duten «emakume lanetara» baztertzen dira, praktikaan ohituraz etxean egokitzen zaizkion lanen jarraipen bat besterik ez dira lan hauek.

Gizon batek lan soldataduna, soziala, sindikala eta aitatasuna batera oso ondo eramaten dituen bitartean, azpimarratu beharra dago, emakume batentzat hori egin behar heroikoa dela eta zerbait baztertu beharrean aurkitzen dela.

LAB bezalako Erakunde sozio-politiko batek Nazional eta Sozial askapenerako borroka eta ondorioz emakumeen, aurrera eramateko konpromezua hartzen badu, bere burua askatzeko konpromezua hartu behar du. Sindikatuaren antolakuntza Marko guztiek, salbuespenik gabe, arlo honetan egiten diren aurrerapen eta atzerapenak agerian utzi behar dituzte.

LAB gizarte beraren ispilu bat da, nahiz eta garbi egon gure Erakunde barneko kontraesanak beste maila batekoak izan eta halaxe beste maila batean mugitzen direla.

Gainera, gure Erakundeak emakumearen lan eta antolakuntza problematika bideratuko duen Lan-Arlo berezi bat eduki behar du.

## GAZTEEI DAGOKIENEZ

Gazteriak Euskadin langabezi tasa ikaragarriak biltzen ditu, %42 alegia, Elkarteko gazteen %17ren aldean. Haietarik gehienak lehenengo enpleguaren bila dabilta eta ez dute, beraz, langabezia dela-eta inolako laguntza edo sorospiderik jasotzen.

'Lan merkatua malgutzeko' neurrien destinatari nagusiak dira, hau da, enpleguko behinbehinekotasuna gehien biltzen deneko kolektiboa osatzen dute. Lehenengo ogibidea inoizkakotasun eta erabateko desegurtasun baldintzetan lortzen dute. Behinbehinekotasunari buruzko atalean adierazi den bezala, aldibaterako kontratazioetan, enpresarien aldetiko edonolako iruzur eta abusu motaren pairatzaileak dira. Langile finkoenak bezalako lanak burutzeko, langilego merke gisa erabiltzen dira, alokairuaren aldetik bereizkeria jasaten dutelarik. Baina baita bereizten dira ofizialki ere; komenio askotxoetan agertu dira ugazaberiak alokairu-baldintza ezberdinak, mekanismo ezberdinen bidez, ezartzeko saiamenak.

Gazteriaren langabezi tasa ikaragarriaren fenomeno erabiltzen da langileen lorpenak murriztu edo ezabatzeke. Ugazaberiak gonbentzitzeko erabiltzen dituen bitartekoak gogorak dira, langile hauek ez badute gainontzekoen elkartasuna eta laguntza lortzen, gainontzeko langilegoarenak ez diren interes espezifiko eta urrunkorrek dauzkan kolektiboa bailitzan senti daitezten. Beraren behinbehinekotasun egoerak ez dio bereziki laguntzen jarrera erreibindikatzaileak hartzeari, ezta hurbiltzeko, afiliatzeko... prestutasunari ere, enpresal mehatxuak erraz baldintzatzen dituelarik. Behinbehinekotasunak epe ertainera eduki ditzakeen ondorio ikaragarriak berorri espreski dedikatutako atalean aztertu ditugu jada; sindikalismo eta Langileen Mugimenduaren ihardueraren aurkako eraso zuzena da.

Gazteak, beraz, lan merkatuko bi errealtaterik gogorrenek zapaldurik daude: langabeziak eta behinbehinekotasunak alegia. Bi egoeretan kolektiborik ugariena dira, alde handiz. Eta egoerak ez du konponbide antzik agertzen, sistemak bildutako egitur-langabezi maila oso altua delako, behinbehinekotasuna izugarritzko abiaduraz ugarituz doalarik. Beraz, fenomeno honek finkatze eta areagotzeak oso arrisku larria dakarte eurekin, langileria-aren belaunaldi berriek klase-erakunde sindikalena ez den norabidean begiratzea, hain zuzen. Sistemak gazteak murgil dituen peitutasunezko egoerak gizarte-ondorio izugarriak eduki ditzake; ez dugu ahaztu behar gizartearen berehalako etorkizuna direla eta.

Bestalde, logikoa denez, errebeldia gradurik handiena eta sistemaren defentsan sortutako interesik gutxien daukan talde soziologikoa dira. Esatea ere, gure mezu politikoak gazteen artean begikotasun erlatiborik handiena jasotzen duela. Mugimenduak gazteria organizatibo zein politikoki antolatzearen kezka eduki dezake eta behar du beraienganako bide garrantzitsu bat, eskuhartze sindikalean, langileak eta, zatiketa soziologiko prozesuan dagoen langileria oso kolektibo garrantzitsua diren aldetik. Gazteekiko lanean, bai eta emakumearekikoan ere, inplikatzeko egitur irispiderik handiena daukaten ekonomi eta gizarte-arazoei aurre egitea da, langabeziaren aurka eta enpleguaren egonkortasunaren alde burukatzea da.

Behinbehinekotasunaren azterketari buruzko atalean NKrako iharduketa-jarraibideak azaldu dira eta, arazo honi izaera sozio-politiko eta irispide handiagodun erantzuna emateko beharrezana aipatzen da, arlo politikoan behinbehinekotasunari edukin eta estaldura ematen dizkion legezko markoaren aldarazpena helburu delarik. Hauxe daiteke bidea, gazte eta emakumeekiko lanean serioski inplikatzeko.

Une honetan ez da agertzen, gazteekiko lan orientazio hau egitur organizatibo gisa gauzatzeko beharrezana. Askoz egokiago erizten zaio hasiera batean, eskualdekako zuzendaritza organoek zeregina beren gain hartzeari, beren lurralde-esparruan, langileak diren aldetik gazteen arazo eta munduari hurbiltzeko lan lerro bat esperimentatu eta, espe-

rientziaren arabera antolakuntza neurri egokiak har ditzaten.

Elbarriak populazioaren sektore bat osatzen dute, gehienetan lanpostuetatik kanpo eta askotan azpilan segregatzaile eta seudokaritatezko formulei lotuak. Eta, hori, kuantitatiboki oso garrantzitsua den kolektibo bat izan arren: 80.000 ezindu zentsatuak Hego Euskal Herrian.

LABek bere egin behar du kolektibo honen erabateko integrazio laboralaren beharra, oharturik gizarte justu, igualitario eta elkartasunezko bat marjinazio eta kompetitibitate hutsaren aurkako dela.

Gaur egungo explotazio kapitalista sistemaren oinarrian dauden arazoiek, arrazoi ekonomiko hutsek, galerazi dute eta galerazten dute Hego Euskal Herriako milaka eta milaka lagunek ebere ahalmen sortzailea ematea gizarteari, marjinazio eta erabateko autoestimarik ezean utziz. Hau, koiuntura ekonomikoaren gora beheretatik kanpo, hau da, berdin da erabateko enplegu egoera edo krisia.

Ondorioz, gure lanaren zuzenbidea ondorengoa izango da:

A) Gure militanteengan erantzun instituzional paternalista eta alihenanteak bakarrik aurkitzen dituen arazo honen izaeraren kontzientzia sortarazi.

B) Negoziazio kolektiboaren bidez enplegu integratua sortzea bultzatuko da, patronalari legea betetzea exijituz elbarrientzako plazak jasotzeari eta hauen gehitzeari dagokionean.

C) Era berean ahalegina egingo da enpresa pribatu zein publikoek elbarrientzako gaitze ikasaroak egin ditzaten, batez ere beraien lanpostuak egokitzeko balio izan dezaketen teknologia modernoei dago-kienean.

D) LABek ezindu gertatzen diren pertsonen birziklaia asumitu beharko du, lan bizi aktibotik kanpora geratzea ekidinez.

E) Sindikatuko elbarriak koordinatu eta antolatu, aportazio teoriko-praktikoak bultzatuz. Beharrezkoa da itxuran bakarrik desberdinak diren arazoak sortzen dituen baterako egitura baten, kapitalistaren, giza kritika sakontzea: klase, arraza, sexu, moral,... desberdintasunak.

F) Botere publikoen aurrean profesional gaitzerako neurri errealistak hartzea eta enplegu integratua sortzeko laguntza tekniko eta finantzieroa erreibindikatzea.

G) Gaur egungo gauzen egoera mantendu, erabili eta aprobetxatzen duten instituzio eta erakundeak salatu eta borrokatu.

Azken batetan, LABek ENAM osoa sektore honen errealtateaz jabetzeko balio izan behar du.

Kolektibo jakin batzuetaz aritu bagara ere, horrek ez du esan nahi bai lan merkatuan nola gizarte mailako harremanetan marjinazio zein bazterkeria egoerak nozitzen dituzten gizatalde gehiagorik ez dagoenik. Lehen aipatutako kolektibo horien interesen alde agertutako sentiberatasunak berak, hala gizarteko baztertuen alde nola xenofobia eta arrazakeriaren aurka egitera bultzatzen gaitu.

### **3.6.- SINDIKATU- IHARDUERA GIZARTE- EKONOMIARA HEDATZEA**

"Gizarte-ekonomia" deitutakoa osatzen duten unitate ekoizkorretan sindikatu-eskuhartzea gure erakundearen deora luzez konpondu gabe ezin egon daitekeen gaia da. SAL eta Kooperatibetako langileak, kooperatibismoak autogestioa, elkartasuna, lanaren bidez pertsona osatzea, e. a. buruz zeuzkan lehenbiziko ideiak oso urrun utzi dituzten legeek edota beraien praktikak eta helburu bakartzat etekinik handiena lortzen dauden zenbait buruzagi teknokratikak hustiraturik daudela egiaztatu bait da.

Eusko Jauraritzak eta Nafarroako Gobernoak, Euskal Herriko desindustrializatzea konpontzeko ideiarik gabe dagoen une honetan, eredu honen aldeko apostu nabarmena egiten du, beronen gatazkortasun eskasa eta kostu txikia direla eta, Langileak bete aldekoak direlarik. Egoera honek beharrezkoago bilakatzen die gizarte ekonomia deritzan honetako bazkide «ekoizle» ei Langile jaiotzea, kooperatibismoak sorterazi dituen kontraesan gogorak gaindituz, kalea eta lanpostuaren arteko banaketa bidegabea egiten zaien langileria eta herri xehearen bizi-

baldintzen hobekuntzari buruz ENAMek dauzkan helburuei atxekitzeko orduan.

Euskal ekonomiaren inguruan daukaten eragin espezifikoa -kooperatibek batez ere- bai eskuhartzen duten langile kopurua, zein euskal BEGari egiten dioten aportazioa edo kontrolatzen dituzten finantz baliabideak direla eta behar hori argudiatzeko pisuzko arrazoia da.

Mondragon Kooperatiba Taldeak, gaur egun 105 kooperatiba ditu, inbertsio ondasun, bitarteko ondasun, kontsumo ondasun, nekazal-elikadura, irakaskuntza, etxegintza, merkatal-banaketa sektoreetan banatuta, 20.000 baino gehiagoko langile kopuruz (zeinetatik, 18.000 baino gehiago produktio-kooperatibei dagokien). Talde honek, 1987an 160.000 milioiko salmenta bolumena zeukan, beraietatik, 35.000 baino gehiago esportazioari dagozkio. Finantz-tresnarik garrantzitsuena Lankide Aurrezki da, 1990an, besteren baliabideen 300.000 milioi bait zeukan eta 60.000 milioi baliabide propio. Gaur egun, merkatal-banakuntza sektoreak (Eroski) oso hedapen nabariko prozesuan dago 1990an beraren salmenta bolumena 100.000 milioikoa izan bait zen.

Sozietate Anonimo Laboralen taldea, bi lurralde federarakundeetan bilduta dago. ASLE baskongadetan eta ANEL Nafarroan. 10.000 langile baino gehiago biltzen dituzte biek, 55.000 milioi baino gehiagoko salmenta bolumenaz, beraietatik 12.000 esportazioari dagozkiolarik.

Aipatutako datuei, Kooperatiba Sozietate eta elkarte hauetako ez diren Lan Sozietate Anonimoak gehitu behar zizkie, Baserritarren Kutxak, finantz erakunde urgazleak, mutuak adibidez, Lan Elkartek, Transformakuntzarako Nekazal Elkartek... gehitu behar zaizkio.

Aurrezki Kutxak Hego Euskal Herriko kreditu-talderik handiena osatzen dutela kontutan hartuz, euskal eremuan Gizarte Ekonomiaren mugimendu handia usna daiteke. Bestaldetik, EAB (AUE) abioan jartzea, Mondragon Kooperatiba Taldean transformakuntza sakonerako giroa sortzen ari da, zalantzarik gabe, gogorak izango diren gizarte-ondorioekin. Aldi berean, ekonomi krisialdia, 93a sorrerazten ari den birmoldaketa prozesuekin batera, berriro ere Lan Sozietate Anonimoen ugalketa areagotzen ari da.

Jakitun gaude, enpresa kooperatibei, hazkundeak eta garapenak, kompetentziak eta merkatuak lortzeko burrukak erasan egiten zieten neurrian kooperatibismoa sortu zeneko izpiritua galdu zela. Pilatze antisia kapitalistak azkenean bizitza sozialaren arlo guztiak barnean hartzen ditu. Gaur egun izpiritu kooperatibistarik dagoelako segadan erortza Kapitala gero eta areago loditzen segi dezan lagunkide izatea da, Langileen eta berauen bizibaldintzen, lanekoen, e.a.en kaltetan. Hala ere, kooperatibismoa, marko juridiko-politiko berri batetan, nazio berreraikuntzarako tresna eragile bilaka daiteke, ekonomia eta lan harreman alorreko kompetentzia zabalak dituen, merkatuaren beharrez gain euskal nazioaren eta bere langilearen eta herri mailen lehentasunak kontutan hartuko dituzten plangintza eta ekonomiaren artezpena burutzen direnean. Gai dugun kooperatibismo hori, bere izaera eta helburuei dagokienez, gaur egun ezagutzen dugun eta, hain zuzen ere, marko berri horren barruan dagoenaren arabat aurkakoa litzatekeela ondo ulerturik.

Europar Akta Bakarra abioan jartzea eta Kooperatiba-Biltzarre berrie eta beronek ekarriko duen Kooperatibei buruzko Legearen eraldaketarekin batera, Taldeko buruzagiek ordezkagarritasun barenemoak aldarazteko erabiltzen ari dirna, 91ko abenduan Taldea Empresal Korporazio bihurtzea, emandako lehenengo urratsa izanik. Zentzu honetan, Sozietate Anonimoetan bezala, etorkizunean, kapitalaren partaidetzak onartzeko eta kooperatibak beste merkatal sozietate mota bat bilakatu ahal izateko joera dago.

Epe ertainerako helburuak hiru dira: A) Produktio unitateen (kooperatibak) izaria europako kompetentziaren beharrezkin egokitzea. B) Talde osoarako artezpen eta kudeaketaren batasun osoa lortzea. C) Gaur egun Asanbladak dituen potereak murriztea eta beterezlearen potereak berrindartzea.

Eskualdeko elkarteetatik (soziologi taldeak) sektore izaera dutenetara (talde sektorialak) pasatzeko asmoa dago. Izari-egokitzapenak sektorearen birmoldaketa zakarra ekarriko du. Gaur egun Talde osoan dauden 105 kooperatibetatik soilik 30 inguru uztea da asmoa.

Bestaldetik, Taldearen barruan Lankide Aurrezki

Kutxa den botere faktikoak (300.000 milioiko inoren baliabideak eta 60.000 milioi baliabide propio) independentzia handiagoa eduki dezan nahi dute, bere baliabideen %20 Talderentzat destinatu eta bere ihardueraren gainontzekoa ohizko finantz erakunderena izan dadin.

Guzti horri botu delegatuaren igoera handia izango dela gehitzen badiogu, kooperatiben esparruan gertatuko den dardara aurrikustea ez litzateke baxterre arriskugarria izango. Kooperatiben izpiritutik enpresa jarrera hutsak hartzera erabateko aldaketa dakar (Asanbladaren botere minimoa, kontrol sozial eskasa, lanpostuen suntsiketa,...). Aldaketa hau ez da berria, ordea, kategoria, aparteko orduak, kapitalen tratamendua, kontratazioak, eta beste hainbat gairi buruzko kooperatiba-legerien tratamendua eta, halaber, berauek abioan jartzea, mezezi duen erantzunik ezean, Kooperatibetako langileen lan-baldintzen atzerabidearen agudizazioa laguntzen ari bait zaizkio historikoki.

Argi dago Europako Akta Bakarraren aurrean ezin duguna itsu egon. Baina egokitzapen merkantilista hutsak ekarriko zuen gehiegikeriak errotik desgertarazi beharko direla argiago dago.

Eta horretarako, abertzale eta sozialista ikuspuntu batetik eskuhartze sindikala beharrezkoa da, "konpetitibo izatearen" eskakizunak, gizarte justiziarenak eta etorkizunean euskal nazioaren berreraikuntza erraztuko dituen gutxinezko oinarrien mantenua une guztietan neurtzeko gauza izango dena. Ezinbestekoa da klaseko sindikalismoa erabiltzeko eskubidea ezartzea, eskubide hori bait da agertzen orain kooperatiba munduan. Beharizan hori gaur egun premiazkoa delarik ere, larriagoa izango da epe laburrean, azken Kooperatiba Biltzarrearen ondorioez.

Bi oztoporekin egin dugu topo. Alde batetik, arlo honetan dugun esperientziarik eza. Eta beste aldetik, kooperatibismoaren ezaugarri bereziak (elkarlana) eta honen eskuhartze sindikalaren betiko falta.

Horregatik, eskuhartze plangintza apriorikoki planteatzea anpurutsua eta arriskutsua litzatekeela uste dugu. Hori dela eta biltzar honetan erabakiko den organizazio eskema bilgune batez hornitzea proposatzen dugu non, erreibindikazio iharduneko arduradun baten zuzendaritza, gainbegirada eta kontrol

pean gure erakundearen eskuhartzearen ardatzak biribiltzen ihardun genezakeen sarri.

Ezaugarri berebereko bilgunea gizarte ekonomia-  
ren beste sektorearentzat beharrezkoa da: beste arazo batzu, ezaugarri desberdinak, baina azken finean inportantea, LSAak hain zuzen. Eta zoritzarrez gorantz doana. Alde batetik, krisialdi ekonomikoa, eta bestetik, Europar Akta Bakarraren berregituraketaren ondorioak mota honetako erakundeen sorrera areagotzen ari dira. Kontua ez da besterik gabe onartzea edo LSAen sorrera bultzatzea. Langileria esperientzia zaputzetan, irtenbiderik gabeko azken ahaleginetan murgiltzea, gezurrezkoa, alperrekoa eta atzerakoia da. Baina, egon badaude, sozial arrazionaltasunaren koordenatuen barnean lanpostuen mantenua eta sorkuntzarako bideragarriak diren LSA aterabide kasuak. Eta egungo industri krisialdi sakon eta irankorrean, kasu hauek ezin dira alde batera utzi, behar eta gizarte senaren aurka joatea bait litzateke. Bilguneak, honelako enpresa motaren sorreran eta funtzionamenduan gure ataza zehaztea helburutzat edukiko luke.

## **GIZARTE EKONOMIARA SINDIKAL INTERBENTZIO POLITIKA BATETARAKO PRESUPUESTOAK**

### **EZKERRAK EZ DU ASMATU**

Ezkerrak ez du asmatu Gizarte Ekonomiari dagokionean. Aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko sakonak gertatu diren garaiean, ezker fidela izan zaio «ortodoxia» eta «gardentasun doktrinarioa»ri, gertatzen ari ziren aldaketa sakonei buruzko beharrezko ondorio teorikoak ateratzeko gai izan gabe. Horren ondorio gaur egungo dibortzio sakona. Honela, baditugu gure ingurune politikoaren sektoreak kooperatibetan, beren barnean nahiago dutenak LABek (sindikalismo erreibindikatioarekin identifikatuz) kooperatibetan parte ez hartzea. Baditugu langile sektoreak SAL eta KOOPERATIBETAN, potentzialki ezker abertzalekoak zirenak eta, gaur egungo dibortzioaren ondorioz, pragmatismo erreformistan sartuta daudenak.

### **BEHAR IDEOLOJIKOA ETA KONTZIENTZIA IDEOLOJIKOA**

Gizarte Ekonomia laukoiztu egin da krisi honetan, eta bere sakontasunarekiko zuzenki proportzionala da. Zabaltze honek behar ekonomikoaren kontzien-

tzia ideologikoarekiko garaipena suposatzen du.

Langileak bere behar ekonomikoaren ondorioz saltzen du bere «lan indarra», existentziarako baldintza materialek zehaztuta, eta "EZ" bere kontzientzia ideologikoaren arauera. Beste era batetara esanda, superbibentzia edozein kontzientzia baino lehengokoa da. Printzipioaren oinarrikotasunak garbi uzten digu gai honi buruzko gerturatzeko doktrinario eta idealista eta ez materialista egin duten «ezkerreko sektore»en fenomenoak ulertzeko gaitasunik eza. Untzi gehiegi utzi ditugu urperatzen, itsaso ulertzeko ibiltzeko berritu behar direneko argumentupean. Azkenean, gero eta urrunago igeri egin behar da superbizitzeko eta gehiegi dira itoak. Honengaitik itsasgizonak arraundun baltsak aukeratzen dituzte (autoexplotazioa) itotzetik kanpo geratzeko.

### JABEGO JURIDIKOA ETA JABEGO ERREALA

Gizarte Ekonomiaren lehenengo ezaugarri nagusia da, "Sociedades Anónimas"eko langileek ez bezala, hemen produkziobideen jabegoa dutela. Hala ere, jabego "juridiko" (formal) bat da, eta ez erreala. Horrengaitik prozesu produktiboen kontrola (jabego juridikoaz gain) dutenek bakarrik daukate hauen jabego erreala.

Orain bai, produkziobideen jabego erreala gutxiengo batek bakarrik duenean, jabego juridikoa duen gehiengo handia subordinatu eta azpiratua agertzen da.

Honela lehenengoek, botere eta autoritateaz gain, kualifikazioa pilatzen dute eta nahitaezko bilakatzen dira ea, bitartean, bigarrenak deskualifikazioa pilatu beharrean aurkitzen dira (subordinazio eta azpiratze harremanez gain). Prozesu objetibo honetan oinarrituz, lehenengoak abaniko salariala hausten saiatuko dira (gertatzen ari da), desberdintasun sozialak areagotuz.

### BAZKIDE LANGILEA

Hau da Gizarte Ekonomiako enpresa batetako bazkidearen funtsezko kategoria. Dualitate hau kontraesanezko erréalitate modura agertzen da pertsonen beraien baitan. Beste nolabait esateko: bazkide autogestionarioa langile eta enpresari da denbora berean. Enpresari den neurrian, enpresaren interesei ematen die lehentasuna beste edozereko eta,

langile den neurrian, langileria osoaren aldaketa sozio-politiko proiektuari lehentasuna emateko joera du bere enpresa partikularrekiko.

### BI BIDEAK:

Dualitate hau bi interbentzio lerro desberdinetan isladatzen da arlo ideologikoan:

Interes enpresarialeki lehentasuna ematen dien lerroari dagozkion ezaugarri nagusiak ondorengoak dira:

- Enpresa kooperatibaren demokrazia formala mantendu, honen baitako kontraesan sozio politikoak egotea ukatuz.
- Sistemaren garapen eredia inoiz ez zalantzan jartzea, beti posible den bakar eta errealtzat hartuz.
- Beti helburu ekonomiko eta ekonomizistak planteiatzea.

Alderantziz, bazkideen langile moduko interesei lehentasuna ematen dien lerroak ondorengoak ditu funtsezko ezaugarritzat:

- Enpresa autogestionariaren baitna klase kontraesan sozio politikoak daudela salatzea eta hauek gainditu eta modu berriko demokraziaren alde borrokatu.
- Garapen eredu kapitalista zalantzan jarri eta zalantzan jartze hau autogestio langileen funtsezko funtzioztat hartu.
- Helburu sozio politikoak planteiatu, beti ekonomikoak helburu «gizatiar»etarako baldintza eta medio modura hartuz.

Experientzia autogestionario bakoitzaren emaitza izango da hain zuzen ere enpresa autogestionario baten baitan bati dauden bi lerro hauen arteko konfrontazioaren emaitza.

### LANAREN ANTOLAKETA

Hau gai zentral bat da langile autogestionarioek produkziobideen jabego erreala lortzeko borrokari dagokionean. Gizarte Ekonomiak pionero izan behar du lanaren antolaketa eredu berriak ezartzeko

orduan, Taylorkeria, Fordkeria, M.T.M. edo teknologia berriek inposaturiko «partehartzea» bera ere gaintzea bideratuko dutenak. Honek langile hezitu, kualifikatu eta bere aktibitatearen erantzulekide bat sortzea bideratzen du. Ekinbide honek kontrabalantzeatu egiten du, hain zuzen ere, gaur egungo lan merkatuan ikus daitekeen kualifikazioaren polarizaziorako joera kapitalista.

### LURRALDE TASUNA

Kapitalaren internazionalizaziorako eta, ondorioz, lurraldetasunik gabeko (desterritorializatu) langilego bat sortzera jotzen duen gaur egungo mundu joeraren aurka (geurea bezalako nazionalitate txikien desintegrazio inperialistara eramaten duena), gizarte ekonomiak prozesu honen aurkako joera bat planteaitzen du, «oinarriak kontrolatutako» eta lurraldetasun zehatz batetan finkatutako garapen bat sortuz.

### OFENTSIBA SOZIO EKONOMIKO BATEN ALDE

Ekintza sindikalaren inertziaren ondorioz enplegu finkodun langileei lehenetsunezko arreta eskeini zaien bitartean, (gaur egun langileriako zatirik txikiena), Gizarte Ekonomiren esperientziak superbibentzia «ofentsibo»zko alternatiba bat ordezkatu «dezake» krisiaren aurrean, egoeraren aurrean amore ematen ez duena (SAL direlakoak bereziki) eta administrazio eta gizarteari beren arazoa konpontzeko neurri "ekonomikoak" eta "sozio-politikoak" exijitzen dizkietenak. Iniziatiba sozio-ekonomikoaren arloan ofentsibara pasatze hau erreferentzia gerta daiteke langileriaren deskonposaketa soziologiko prozesu honek eragindako beste sektore batzuetarako (azpiekonomia, langabetuak, emakumeak,...).

### SALen ESPEZIFITATEA

SAL direlakoak dira hain zuzen ere (ezkerraren ikuspuntutik), Gizarte Ekonomiaren sektorerik interesgarriena. Hemen, dagoen maniobra enpresarialerako marjen urriaren ondorioz, garapen ereduazalantzan jarriko duen plangintza sozio-ekonomiko bat exijitzeko beharra argiago dago. SAL direlakoak, hain zuzen ere, ondorengo antzerko neurriak ezartzeko beharra planteiatzen dute: "Langabezia Mantenusaria" orokortzea (autoexplotazioa desagertzearren), gizarte osoari eragiten dioten "partehartzeri buruzko legedia" edo "plangintza

ekonomiko" berri bat.

### GARAPEN EREDUA

Jakina da komunitate bakoitza beharren sistema propio bat osatzen duen prozesu historiko bat dela. Beharren sistema honek egoki konpontzeko exijitutako eskaerak planteiatzen ditu inplizituki (honela, autonomien beharrak neurtzeko Estatu Nazionaren erizpide inperialistek ez dute balio, arrazoi garbiak medio, Euskal Herriaren berreskuratze linguistiko eta kulturalaren exijentzia handiak kalibratzeko).

Honela, Gizarte Ekonomiak Euskadin garapen eredu honen alde egin behar du, hauek, «negoziatuta prozesu» baten bidez, gure eskubide demokratikoak berreskuratzea posible egingo dutelarik (autodeterminaziorako eskubidea lehenik eta behin) eta gure komunitatean dagoen behar ekonomiko, sozial, politiko, kultural, ekologiko, linguistiko, etab en sistema egoki konponduko dutenak.

### ONDORIOAK

Gauza litzateke Gizarte Ekonomiaren baitan langilego antolatu, aktibo, kualifikatu, demokrazia industrialaren aldeko borrokan ejertzitate, langileria osoarekiko identifikatu sentitzen den eta gure herriaren subiranotasun eta negoziatioaren aldeko eta langileriaren bizi baldintzen hobekuntzaren aldeko borrokarekiko identifikatua sentitzen den bat sortzea.

Hausnarketa honek, nahitaez, Sindikatuek Gizarte Ekonomia eta batez ere Kooperatibetan parte hartzea aktiboki onartu eta laguntzera eramane behar gaitu.

Zentzu honetan LABek aldaketa honen bultzatzaile izan behar du, bertako militante eta sinpatizatzaileak izan behar dutelaik kooperatibetan bertan bere lankideei ikustaraziko direnak sindikatuek kooperatibetako bizitza sozialean parte hartzearen beharra eta gure sindikatuan antolatzeko beharra, honela sistema kooperatibistak goratzen duen eta bere garaian kooperatibak (besteren artean = Demokrazia et Kapitala langileen zerbitzuan) sortzea bultzatu zuten justizia sozial ideal eta helburu batzutan mantentzen jarraitzeko, guzti hori teknokratik elite bati kontrajarria, lortu nahi duten gauza bakarra botere kuota handiagoa dutenak eta kontutan duten

baremo bakarrak ekonomizista kutsak dituztenak, sartu nahi diguten filosofia ondorengo delarik:

- Gai Ekonomiko eta Enpresarialak hain dira konplikatuak, elite batengan utzi behar ditugula, hauen erabakiak onartuz.
- Kolektiboa ez da heldua erabakiak hartzeko. Beraz inposaketa, ez da.
- Lortu nahi izan behar dugun Demokrazia ondorengo da: Junta Orokorra urtean behin joatea, ongi prestatutako parte bat entzutera, eta gutxiengoan dauden gainontzekoei aukera ematea erabakiak hartzeko, beti ere eliteari interesatzen zaizkionak izango direlarik.
- Lortu nahi izan behar dugun partehartzea botere zabaldun demokrazia ordezkatu da, hau da, bazkideen gehiengoaren nahiaren aurka ere erabaki ahal izango dutena.

Mugimendu Kooperatibista guztian dagoen desbideraketa hau da PARTEHARTZE SINDIKAL bat egitera bultzatu behar gaituena, kooperatiba mundua denarekin bat eta duen garrantziaren eta datozen aldaketen ondorioz, diseinatzen hasteak presa duena.

### **3.7.- IHARDUERA SINDIKALA ETA EKOLOGIA.**

Eskuhartze sindikalaren ikuspuntutik ez dago bereizketarik gure lan-osasunaren aldeko borroka eta borroka ekologistaren artean.

Arazoietako bat da, geu garela, gizon-emakume langileok "ekoizpen-prozesuari primizia eta lehentasuna emateak geure ongizate fisiko psikologiko eta gizarte mailakoan-lanpostuan, herrian, auzoan...-sortzen dituen ondorio kaltegarriak nozitzen ditugunok".

Akumulazio kapitalistaren logikak bere beharrak inposatzen dizkio ekoizpen-aparatuari eta ondorioz lan-baldintza jakin batzu ezinbestekoak dira. Lan-

baldintza horien adierazpenak (txandakako lana, lanprekarioa, ekonomia murgildua...) gure osasuna galtzearen eta lan istripuak ugaltzearen zuzeneko arrazoiek dira.

Egungo gizarte-antolakuntzak eremu produktiboan gure osasunaren aurka eragiten dituen erasoak era eta mota askotakoak izaten dira, horien artean, lan-istripuak dira entzute haundiena lortzen dutenak. Azpimarratzekoa da osasuna galtzearen ondorioak ez direla beroriek nozitzen dituzten pertsonetara mugatzen, komenigarria da ere horrek sortzen dituen koste sozialei erreparatzea.

Bestalde, lan-osasuna galtzearen konponbidea babes pertsonalerako neurriak bideratetik eta ezartzetik etorriko delako eta era horretako eritzi sinplistetatik aldendu behar dugu.

Gure dinamika sindikalaren ikuspuntutik begiraturik, osasuna era orokor batean ulertu behar dugu. Horren ondorioak izango lirateke, alde batetik, egungo ekoizpen-ihardueraren antolakuntza zalan-tzan eta auzian jartzea errotik eta, bestetik, osasuna eta lan segurantzarako egitamuak aldarrikatzea, baina ikuspuntu orokor batetik. Osasuna orokorra da edo ez da osasuna.

Bestetik, naturaren eta, ondorioz, geure aurkako hainbat eraso lantokietan bertan sortzen direlako, hain zuzen ere.

Beraz, gure ihardueran, Lan-Osasunaren arloko eskuharmena eskuharmen ekologikoa da eta, alderantziz, lantokietako eskuharmen ekologikoa Lan-Osasunaren arloko eskuharmena da.

Baina planteamendu orokor honek inola ere ezin digu begibistatik kendu LMk orokorrean, geu ere barne garelarik, sarritan baztertu eta garrantzirik eman ez dion (askotan gai honi dagokionez enpresa eta langileak bat etorri direlarik) iharduera eremu zehatz hau garatzearen beharra. Ikusteko dago oraindik lantegi bateko langileok, alboko lantegiaren aurka manifestatzen diren lagun ekologistak "begi onez" ikusi eta txalotzeaz gain, gure lantegiak berak sortzen dituen kalte ekologikoen kontrako greba egingo duguneko eguna.

Euskal Herriko langileriaren baitan sakonki barne-

raturik dagoen sentimendua da ekologia gure interesekin "zerikusi handirik" ez duen, eta askotan hauen aurka jotzen duen, leloa dela.

Baina ez da horrela. Ekologia oso loturik dago gure klase- interesekin, funtsezkoa dela esan genezake. Geure lanidarra enpresari saltzen diogulako osatzen dugu langile-klasea, baina berdin berdin gara langile-klasekook lan egiten dugunean, zein gure herrietan bizi garenean edota mendira joaten garenetan. Onartezina da auzoan, mendian, errekan... jasanezintzat jotzen duguna lantegian "jasangarria" dela pentsatzea. Langileok gara naturaren narriadura pairatzen dugunok, eta ez narriatu gabeko natura "erosteko" ahalmena duen burgesia (hauen bidaiak, auzoak... izugarri "ekologikoak" dira).

Beraz, ekologia ez da gure interesen "aurkakoa", gizartearen beharrezko asetzeko eta horretarako "lehengai" tzat hartzen den naturaren arteko harremanak ulertzeko modu jakin baten aurkakoa baizik: ekologiak gizartearen beharrezkoak naturak zehaztu eta baldintzatu behar dituela planteatzen du, natura ez bait da "betirako" ondasuna (agortezina, beti bersor daitekeena...); berezko erritmo eta jomugak ditu, eta gizartearen beharrezkoak asekuntzak ez badu naturaren dinamika hori errespetatzen natura bera desagertuko da, bereziki gizon eta emakumeen beharrezkoak asetzeko ahalmenari dagokionean (elikagaiak, airea, ura, lehengaiak...). Hau da, gure interesen aurka benetan jotzen duena gizartearen beharrezkoak asekuntza konpondu eta garatzeko kapitalak darabilen era da. Ez hori bakarrik, naturarekiko orekari eustea ezinezko bihurtzen duen zer bait gizartearen beharrezkoak hartzea ere (kotxea, elikadura mota, janzkera, etxebizitzak...) gure interesen aurkakoa da.

Ekologia gure interesen aurka doa gure klase- interesen asekuntza kapitalaren menpean dagoen neurri berean: kapitalak kutsatzen duen lantegi batetan lan eginaraziz menperatzen bagaitu, maila horretan, kutsadura desagertarazi behar dela planteatzea (horrek, batzutan, lantegia ixtea ekar dezakeela) gure interesen aurkakoa da. Eta urratsez urrats, erabakiz erabaki, kapitala bere interesen gainetik gureak asetzera derrigortzen badugu, inguratzen gaituen eta bizi gareneko naturaren aurka joko ez duen produkzio-molde bat ezartzea lortuko dugu eta ingurugiroa kutsatzen ez duten lantegietan lan egin ahal izango dugu. Izan ere, kapitalaren uztarrria

lepotik sekula kenduko ez bagenu, azkenean, natura -eta berarekin batera, gu geu ere, noski- desagertuko litzateke. Ekologia ez da "bizitza kalitate" arazoa, goi eta behe mailak dituen (beltza eta zuriaren arteko kolore eta tonu ezberdinak bezala): bizitzarik izan ala ez izanezko arazoa da. Horregatik borroka ekologikoen eta langile borrokaren arrakastak, gero eta estuago, elkarrekiko lotuta egongo dira.

Hortaz, gure eskuharmen sindikalak ekologiaren arloa ere ikutzen du, Lan-Osasuna lehen mailako eta berehalako gunea eta abiaputua izanik. Zentzuga- bekoa bait da enpresan aurrera eraman behar den "borroka ekologiko" az hitz egitea, prentsa batek 1.000 operazioko hatzamar bat ebakitzea (hau kapitalak berak bere kalkuluetan onartzen duen estatistika da) ekiditeko gai ez bagara, urratsez urrats eta erabakiz erabaki langileon interesen aurka joko ez duen produkzio-molde bat ezartzeko gauza ez bagara.

Gure eskuharmen sindikalaren eremu berri honetan Lan-Osasunaren aldeko borrokan erabiltzen ditugun bitarteko berbere baliatu behar gara: enpresan sartzen diren makinak, materialeak, produktuak eta abarrekoen ezagupen zehatza; enpresatik ateratzen diren makinak, materialeak, produktuak eta abarrekoen ezagupen zehatza ("ate nagusitik" ateratzen direnak ezezik, estoldetatik, tximinetatik... edo "atzeko atetik" direnak ere).

Errealitatearen azterketa honen atzetik nola, norekin, zer... egiteari buruzko eztabaida dator eta, azkenik, langile ekintza bera, ekintza... ekologikoa ere badena.

### **3.8.- IHARDUERA SINDIKAL INSTITUZIONALA, GURE EKINTZA SINDIKALETA ERREIBINDIKATIBOAREN OSAGARRIETA LAGUNGARRIA.**

Azken urteotan eta gaur egunean ere, Baskongadetan lan instituzio multzo baten sorrera eta garapenaren lekuko izaten ari gara: LHK, OSALAN, LANBIDE

HEZIKETARAKO INSTITUTOA, negoziaketa kolektiborako egitura egonkorrago batsor dadin eragitearen bidez lan harremanak, Baskongadetan batez ere, gero eta instituzionalizatuagoak izatea helburu dutenaz gain.

LHMAREN atalean adierazitakoaren arabera, ELAK Instituzio hauei ematen dien karakterizazioa, bertualtasuna eta funtzioa eta guk ematen dieguna erabatezberdinak dira. Haietan parte hartzeari buruzko hausnarketa egitean horixe izan behar da eztabaidaren ardatza, esan nahi baita arazoaren gakoa ez dela instituzio hauetan parte hartu behar dugun ala ez soilik, besterik gabe, era mimetiko eta linealez, politika arloan instituzioetan parte hartzeari buruzko eztabaidaren nondik norakoa hemen errepikatuz.

Politika arlo soil-soileko jokamoldeak eta iharduera sindikalaren arloko eskuharmenerako tresnak nahastu behar ez direlakoan gaude. Egia izanik kontzeptzio politikoak eta iharduera sindikala garatzeko moduaren artean lotura hestuek daudena, badago azken honetan eragin handiagoa duen mota oso ezberdinetako instituzio bide multzo handi bat, eta ia ezinezkoa da hori alde batetara uztea. Hala ere, horrek ez du esan nahi edozein gatazka dela eta Lan Ikuskaritza, Lan Eskuordetza edo Gizarte Arloko Epategira ia derrigorrez jo behar izateak hauen legebidezkoketa dakarrenik, edo konbenio kolektiboetarako batzorde negoziatzaileak LEk inposatutako negoziaketaren legebidezkoketarako parametroen arabera osatu behar izateak LEren legebidezkoketa dakarrenik...

Esperientzia sindikal eta politikoak gure dinamika sindikala eta ENAMen egotearen artean dagoen lotura handia erakutsi digu. Gaur egungo markoa legebidezkotzearen arriskuak instituzio hauen bertualtasuna eta funtzioa karakterizatzeko era eta gure eskuharmenaren ezaugarrien menpean daude. Elkarrizeta eta negoziaketa berezko helburutzat hartzen baditugu, indarreango legeriaren erabilpena lan tresna nagusitzat hartzen badugu, eta instituzioetan parte hartzea eta bide instituzionalak gure eskuharmen sindikalaren ardatz bilakatzen baditugu, orduan, zalantzarik gabe, gure estrategia funtsean aldatzen arituko ginateke.

ELAREN estrategiaren barnean, egitatezko bidetik eta aurkaketa politikoari uko eginez, ASLOn eta LEN itxuratuta dagoen lan harremanetarako eredu zen-

tralizatzailea pitzatuz joango den insituzio bilbapena sortzeko asmoa jasotzen da.

Elkarrizketa eta negoziaketa dira bere kontzeptzio sindikalaren erizpide nagusiak eta, horren ondorioz, bere estrategia NKren kudeaketa sindikalera zuzentzen du, osagai autoerregulatzailera erreibindikatiboaren ginetik eta erakunde hauetan parte hartze instituzionalaren ginetik jartzen duelarik, helburua "lan harremanetarako sistema propioa" sortzea izanik. Beraz, izugarritzko garrantzia ematen die instituzio hauei, hots, bere strategiaren funtsezko osagarri bihurtzen ditu.

Gure jarreran, LHMAREN lorpenerako irispide luze-ko betekizunak, honek legeak egiteko ahalmena erreibindikatzea eskatzen duenez, ENAMek garatzen duen borroka politikoaren esparruan kokatzen dira.

Gure eritziz, NK iharduera sindikalaren betekizun eta aldia da, baina ez ditu agortzen ez eskuharmenerako erabiltzen ditugun tresnak, ez gure ekintza sindikal eta erreibindikatiboa. Negoziazioa ez dugu berezko helburutzat, klase arteko borroka ordezkatzeko duen "politika"tzat jotzen, gizarte-solaskideek duten eskubidetzat baizik. NKk ez du elkarren aurka jarritako ideia eta interesen arteko borroka desgertarazten, aurkaketa horren emaitza eta ondorio da, hain zuzen ere.

Negoziazioak ez du klase borroka ordezkatzeko, alderantziz, klase borroka dagoelako negoziaketa ere bada.

Gure lehentasun nagusia sakoneko eraldaketa politiko eta soziala da, lehentasuna ematen diogu LM eta kapitalaren arteko indar koerlazioaren errotiko aldaketa erdiesteari eta horretarako, Mugimendua- ren borroka politikoan parte hartzen dugu, borrokakide gara, eta ekintza sindikal eta erreibindikatiboaren tresnak eta eskuharmen bideak sindikatua- ren gonbentzitzeko ahalmen kontraktuala areagotzea helburu nagusia delarik egituratzen ditugu, lehentasuna ematen diogu osagai erreibindikatiboari.

Ikuspegi honetatik, instituzioetan parte hartzeak osagarri eta lagungarri papera betetzen du gure zeregin sindikalen barnean eta LHMAREKIKO darabilgun ikuspegi estrategikotik instituzio horien iharduerak betekizun lagungarria du.

LABetik instituzio hauei ematen diegun karakterizazioa, birtualtasuna eta betekizunaren arabera, honako hau adierazi behar dugu: negoziaketa kolektiboaren praktika bereiztu batetan sakonketa handiago bat bultzatu nahi duten neurrian, eta estatu-  
markotik at lan harremanen atal garrantzitsu batzu arautzea ahalbideratzen duten neurrian, klaseko sindikatu abertzale bezala ditugun zenbait helbururekin bat etor daitezke eta beraz, instituzio horietan egotea eta parte hartzea komenigarria litzatekeela uste dugu.

Instituzio horietan dihardugunean gure helburuak L.H.M.A. lortzeko hartu nahi duten bideak dituen mugak eta urritasunak azpimarratzea izan behar du. Eraginokorrak diren eta, era berean, instituzio horiek eratu direneko markorik-eza objetiboak agerian utziko dituzten proposamenak eraman behar ditugu. Erresonantzia aukerak erabili behar ditugu "lan harremanetarako sistema propioa"ri ekiteko bide honek daukan laguntzazko izaera nabarerazteko eta LHMArekin alderaturik proposamen honek duen ordezkio izaera azpimarratzeko.

Gure lana euskal gizartean gure mezua indartzera zuzendu behar dugu, mezua gure proposamena eta ELArenaren ezak eta mugen artean dikotimizatzen saiatuz.

Bestetik, gure ikuspegi erreibindikatiotik, eta beste sindikatuek autoerregulaziorako duten joera baldintzapetuz, euskal langileentzat egon daitezkeen arlo eta eduki positiboak ahalik areen dimentsionatu behar ditugu. Beraz, zatikako zenbait lorpenen protagonismoa edo ospea sindikatu erreformistek monopoliza dezaten eragotzi behar dugu.

Ildo horretatik, adierazgarria da aipatutako foroetan gu egoteari oztopoak jartzeko egiten dituzten ahaleginak egiaztatzea. Hona hemen adibide pare bat: UGTk Osalanen Sorkuntzarako Lege Aurreproiektuari egindako alegazioa partaidetza sindikala sindikatu "ordezkagarri" enetara mugatzearen ildotik, LAB kanpoan utziz; edo GANI, IGI, ENI eta ABFren Batzorde Beterazleetan LAB sartzeari Gipuzkoako Herrialdeko Lan Ordezkaritzak egin berri dion ukoa. ELAren jarrera ez da hain argia baina gu gabe biziki erosoago sentitzen dela antzematen da.

Beste alde batetik, garaiz eta une egokian gai askori buruzko informazioa eta ezagupenak biltzeko

(Adibide gisa, oso denbora laburrean honako honi buruzko informazioak eta lanak jaso dira: Greba Eskubidea eta Gobernuaren Lege Proiektuaren Zirriborroa, Osalanen Sorkuntzarako Lege Aurreproiektua, Sailak Aldarrikatutako Aginduei buruzko Industria Sailaren txostena, herrialdeko komenio kolektiboek lanbide heziketari ematen dioten tratamenduari buruzko ikerketa) eta gainerako sindikatuak eta ugazaberiaren estrategia eta mugimenduak zehazkiago ezagutzeko aukerak gure iharduera eta eskuharmen sindikala kalitate hobeagoko erizpideekin garatzeko lagungarri eta osagarri izan behar du.

### 3.9.- **IHARDUERA SINDIKALA EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIAL OROKORRERA HEDATZEA.**

Gure erakundeak ekonomi eta gizarte errealitate korapilotsuaren ikuspegi zehatz, gaurkoratu eta sistemazitua edukitzeko aukera emango dion lan egitaraua osatzeko eta behar diren bitartekoak modu egokiz erabiltzeko gai izan behar du.

Honek idazkaritza tekniko, ekonomiko eta juridikoetan, bakoitzaren arloaren arabera, lan egitarau eta metodo bat finkatzea eskatzen du, honako hauen jarraipena egin behar duena:

- Espainiako Gobernuaren politika ekonomikoaren atal orokorrenak.
- Hiru gobernuen aurrekontu-politika orokorra eta gizarte babeserako arloetan.
- Instituzio politiko ezberdinek hartutako industri-politika neurriak.
- Espainiako Gobernuaren oinarrizko enplegu-politika.
- Maila politiko bakoitzean proposatutako Gizarte Hitzarmen ekimenak.
- Iharduera sindikala eta lan harremanak ikutzen dituzten legeak.

- EEEen hartutako neurriak eta politikak, eta EEEeren beraren garapen ekonomiko, sozial eta politikoa.
- Herrialde mailako ekimenak: Gipuzkoa 2.000 edo Diputazioak bultzatutako antzekoak.

Bestetik, ekonomi eta gizarte abagadunearen aldi-zkako azterketak eta txostenak garatu behar ditu.

Komunikabideen bidez iraunkorra eta egonkorra izango de kanpo eskuharmena lortu behar dugu, ekonomi eta gizarte errealitatean aipaturiko atalei buruz.

Langileen interes orokor eta zuzenenetan eta gizarte desoreka eta beharizanen errealitatean oinarritutako lan egitarau batez hornitu eta erribindikazio multzo bat garatzearen beharra hartu behar dugu kontutan. Egitarau horrek Mugimenduaren helburu politikoekin bat lihoazkeen izaera sozio-politikodun gizarte mobilizapen prozesuak eragiteko balio izan behar du, sindikatuko militante eta koadroek sakonki bereganatuta izan behar dutelarik. Borroka ideologikoari ere bultzada berria eman behar diogu gizarte desoreken errealitateari erantzungo dien plataforma erreibindikatio baten bidez. Beraz, sindikatuko militante eta koadroek aurrera eramango duten iharduera sindikalaren arlo hau dimentsionatu beharra dugu.

Aurrekontu Orokorretan eragina izatera jo behar dugu (ez diogu horri uko egin behar, alegia), batez ere Euskal Herri mailan, errentaren banaketa langileen aldekoa izan dadin eta sektore publikoa produkzio-agente ekonomiko bezala bultza dezan lortzearen ildotik.

### **3.10.- EKINTZA ERREIBINDIKATIOBOAREN ANTOLAKETA- GARAPENA ETA ANTOLAKETA NEURRIAK.**

Oso garrantzi handiko antolaketa-jauzia eman beharra dago Ekintza Erreibindikatio boaren antolaketan. Horixe izango da kongresu honetan geure

buruari jarriko diogun erronka nagusia. Beraren bidez ondoko hau lortzera jo beharko genuke:

- Erakundeak exijitu eta kanpoko gertakizun sozio-laboral eta politikoei inposatzen dizkiguten zenbatuezinezko betebeharrak eta problematiken banaketa orekatuagoa.

- Kontsulta eta problematika indibidualen arloan langileek eskatzen dituzten zerbitzuen kopuru handi bat lantegiko erakundearen bertan konpontzeko bideak jarriko dituen ekintza sindikal baten garapena, bai lantegian zein lantokian edo sektorerik integralenean. Problematika kolektiboetan (espedienteak, enpresa hitzarmenak, e.a...) bere betekizuna lagungarri izateari uzten dio eta leku protagonista, nagusi eta eragilea hartzen du gaztazkaren konponketan, kontsultak eta kasuan kasuko egiturekiko derrigorrezko koordinaketa baztertu gabe.

- Sektore edo azpisektore mailan osotasuneko iharduera sindikal garatzea, helburuak bere eremuan sortzen diren arazo gehienak bere baitan konpontzea eta sektore edo azpisektore mailako iharduera sindikala bateratzeko baliagarri suertatuko den epe labur eta ertainerako eskuharmen sindikal egitarau bat garatzea direlarik.

- Ekintza Erreibindikatio boaren zuzendaritza organoei dagokienez, ondoko hau erraztu behar die: ekintza sindikal eta erreibindikatio borako estrategien diseinuak eskatzen dituen zereginak betetzea, iharduera eta eskuharmen sindikala arlo berrietara zabaltzea txostenean azaldutako bidetik, gertaerei aurrea hartzea eta lan erritmo programatua eta berezkoa edukitzea, eta berehalako eskuharmenaren beharrek, oinarriko militanteen eta antolaketarik eza eta akatsen erruagatik, haien iharduera-ordu guztiak ez betetzea zuzendaritzari dagozkion zereginei eusteko astirik utzi gabe.

- Sindikatuko afiliatu guztiak antolaketa-bideak edukitzea eta lan egiten duteneko esparru espezifikoan dagozkien ardura eta zereginei eustea. Sindikatu tinkoago, parte-harbidetzekoago eta bateratuagoa lortzeko

urratsak ematea. Bizipen eta kezka kolekti-  
boak, militante kopuru txiki eta hertsia bateta-  
ra mugaturik gelditu beharrean, erakunde-  
ko kide guztiengana zabalduko direneko  
sindikatu bat.

- Sindikatuko afiliatuengan gorderik dauden giza baliabide handiei ahalik eta etekin handiena ateratzea.
- Geure buruari jartzen dizkiogun helburu kolektiboak eta hauen gauzatze mailaren artean ahalik eta elkarketa eta egokitasuna handiena egotea.

Sektorekako antolaketa-garapena erizpide funtzio-  
nal eta eraginkor batetatik sortzen da Ekintza Errei-  
bindikatiboaren antolaleta egituraren barnean. Az-  
pisektore/Sektoreko egitura sektorean dauden dele-  
gatu guztiek osatzen dute eta koordinaketa eta  
dinamizazio organo bat izango du. Organo hau sek-  
toreko delegatuen artean aukeratutako delegatu  
talde jakin batek osatuko du. Antolaketa mailan,  
bere lurraldearen eremuaren arabera, dagokion  
organoaren menpean egongo da Ekintza Erreibin-  
dikatioan, sektoreko koordinaketa eta dinamizazio  
organoko partaide baten bidez.

Sektoreko egiturak bere gain hartuko du sektorean  
sortzen den edozein dinamika sindikaletan esku-  
hartzearen ardura, honek ondokoa dakarrelarik:

- Iharduera sindikal integrala garatzea.
- Sektorean epe labur eta ertaineko eskuhar-  
men sindikalerako egitaraua diseinatu eta  
garatzea.
- Sektorearen oinarrizko parametroen egoera  
eta bilakaerari buruz aldizkako txostenak  
egitea -ekonomiko-finantzari, industri-tec-

nologiko, lan baldintza eta gainerako sin-  
dikal eta gizarte atalei dagokienez- eta  
Ekintza Erreibindikatiboko organoetara he-  
laraztea.

Sekzio sindikala finkatu eta instituzionalizatu egin  
behar da, lantokiedo enpresako erakunde bezala  
ulertuta, sindikatoaren antolaketaren lehen mailako  
eta oinarrizko esparru bezala, eta inola ere  
ezenpresabatzerdearen eskumenak bere gain hartu  
nahi dituen organo bezala.

Enpresa edo lantoki mailako erakundeak antolaketa  
bidea izan behar du sindikatuko afiliatuentzat eta  
bideak zabaldu behardizkie enpresa mailan  
militantzia eta iharduera sindikal aktibo, egonkor  
eta iraunkor batetarako etaberen esparruan  
sortutako gatazkak eta arazoei irtenbide emateko  
lan egin eta ardura har dezaten.

Antolaketa-menepekotasunari dagokionez, sektore  
mailako egitura integratuko da eta enpresen  
kokapenari dagozkien lurralde organoekin koordi-  
natuko da.

Aipaturiko zeregin eta helburuak arrakastaz  
burutzeak sindikatuko militanteek dagozkien  
betebehar, lan eta ardurak egokiro garatu ahal iza-  
teko gaitasun nahikoa lortzea eskatzen du. Hortaz,  
sindikatuaren Prestakuntza apartuaren zeregin eta  
betebeharrak enpresako erakundeetan eta lurralde  
egituretan diharduten militante eta delegatuen gai-  
kuntza eragitera zuzendu behar dira nagusiki, hauek  
dituzten ardura eta zeregin berriak egokiro eta era-  
ginkorki buru ditzaten.

Kongresuak berak edo, honetatik sortutako Sindika-  
tuaren Zuzendaritza Nazionalak, proposatu eta onartu  
den antolaketa-garapen betetzeari buruz hartutako  
erabakien jarraipena eta balantzea egingo duten  
batzorde bat aukeratuko du.



## 0.-SARRERA

### 1.- BETE BEHAR DITUGUN HELBURUAK.

### 2.- GAUR EGUNGO ANTOLAKETAREN AZTERKETA.

#### 2.1.- NOLA HELDU ANTOLAKETA-ARAZOARI?

2.1.1.- Ikuspuntu orohartzaile batetik.

2.1.1.- Ikuspuntu dinamiko eta ez-estatiko batetik

#### 2.2.- IKUSPEGI OROKORRA.

2.2.1.- Egituren gainean.

2.2.2.- Pertsona zein jokamoldeen gainean.

#### 2.3.- ARAZOAK ANTZEMATEA ETA KOKATZEA.

### 3.- ZENBAIT HAUSNARKETA TEORIKO.

#### 3.1.- MILITANTZIA GIZARTEAREN ERALDAKETAN.

3.1.1.- Askatasuna ardatz eta motorra.

3.1.1.1.- Konzeptu desberdinak askatasunaren gainean

3.1.1.2.- Askatasunaren bestelako konzeptu baten alde

3.1.2.- Militantziaren izakera edo estiloa.

3.1.3.- Militantzia dauden desorekak.

3.1.4.- Militantzia-antolaketaren beharra.

#### 3.2.- ZUZENDARITZA L.M.-AN: EXPERENTZIA HISTORIKOA.

3.2.1.- Erreformismoaren gaitasun eza.

3.2.2.- Abanguardismoaren gaitasun eza.

3.2.3.- Espontaneitatearen gaitasun eza.

#### 3.3.- GAUR EGUN EUSKAL HERRIAN LANGILE MOGIMENDU MALAKO

ZUZENDARITZA / DINAMIZAZIOA.

#### 3.4.-EUSKAL PROZESU IRAULTZAILEA (GIZARTEAREN ERALDAKETARAKOA).

## 4. LAB-EN KARAKTERIZAZIOA

## 5. KONPONBIDERAKO PROPOSAMEN ETA JOERAK

### 5.1.- ANTOLAKETARAKO ERIZPIDEAK

### 5.2.- ANTOLAKETAREN IKUSPEGI OROKORRA

### 5.3.- ESKUHARTZEKO EGITURAK

5.3.1.- Ekintza Sindikala

5.3.1.1.- Sekzio Sindikala

5.3.1.2.- Batasun Sindikala

5.3.1.3.- Azpisektoreak

- 5.3.1.4.- Sektoreak
- 5.3.1.5.- Gatazkak
- 5.3.2.- Ekintza Instituzionala
- 5.3.3.- Ekintza Erreibindikatiboa
  - 4.3.3.1.- Eskualdea
  - 4.3.3.2.- Herrialdea
  - 4.3.3.3.- Nazionala
- 5.4.- HAUSNARKETA ETA ANALISIRAKO ARLOAK
  - 5.4.1.- Aparatuak
    - 5.4.1.1.- Antolaketa
    - 5.4.1.2.- Komunikazioa
    - 5.4.1.3.- Nazioarteko Harremanak
    - 5.4.1.4.- Idazkaritza Tekniko Juridikoa
    - 5.4.1.5.- Idazkaritza Tekniko Ekonomkoa
    - 5.4.1.6.- Formazioa
    - 5.4.1.7.- Euskalduntzea
  - 5.4.2.- Lan arloak
    - 5.4.2.1.- Laneango Osasuna
    - 5.4.2.2.- Lanaren Antolaketa Zientifikoa
    - 5.4.2.3.- Lanbide Heziketa
    - 5.4.2.4.- Emakumea-Arloa
    - 5.4.2.5.- Gazteiria-Arloa
    - 5.4.2.6.- Minusbalioak
- 5.5.- BARNE ORDEZKARITZAKO EGITURAK
  - 5.5.1.- Herrikoiak
    - 5.5.1.1.- Afiliatuen Asanblada
    - 5.5.1.2.- Herriko Idazkaritza
  - 5.5.2.- Eskualdekoak
    - 5.5.2.1.- Afiliatuen Asanblada
    - 5.5.2.2.- Eskualdeko Idazkaritza
  - 5.5.3.- Herrialdekoak
    - 5.5.3.1.- Herrialdeko Konferentzia
    - 5.5.3.2.- Herrialdeko Idazkaritza
    - 5.5.3.3.- Herrialdeko Idazkaritzaren iraunkorra
  - 5.5.4.- Nazionalak
    - 5.5.4.1.- Konferentzi Nazionala
    - 5.5.4.2.- Idazkaritza Nazionala
    - 5.5.4.3.- Idazkaritza Iraunkor Nazionala

0.-

# SARRERA

ANTOLAKETA  
MAILAKO  
HILBERRUA

## ANTOLAKETA- PONENTZIAREN TESTUINGURUA

Ponentzia hau ezin dugu kongresuko gainerako ponentzietatik aparte ulertu eta erantzun behar dio: errealitatea zein den ezagutzeko azterketari, azterketa horren balorapenari (klaseko gatazka abertzalearen ardatzak), gure jardunaren helburua izango direnak aukeratzeari, gure jardunaren lehentasunak zehazteari, e.a.-ari...

Aurre-elementu guzti horiek argituta beharko luke te gainerako ponentzietan, antolaketa ez bait da elementu tekniko bat, bitarteko "neutral" bat, aurreko parrafoan adierazitako elementuetatik independiente.

Beraz, "antolaketa"-z egindako hausnarketak, koherentea izan beharko du, bat etorri beharko du:

a.- Abiaburu ditugun oinarritzko aurreerizpideekin:

- Helburu estrategikoak: Independentzia eta Sozialismoa.
- Zuzendaritza/dinamizazio eredua: KAS, Bloke zuzendaria.

- Helburu taktikoak: KAS hautabidea (eta zehazkiago: lan-harremanetarako esparru autonomoa, esparru ekonomiko geurea,...).

b.- Inguratzen gaituen errealitatearekin: koiuntura- azterketa (alor ekonomiko, ideologiko eta politikoan).

c.- Koiuntura honetan jokatu beharreko funtsezko paperarekin: gure jardun politiko-sozial zehatza.

## MEKANIKA ETA METODOLOGIA

Ez da gure asmoa eman beharreko erantzun zehatz guztiak antolaketa-ponentzian jasotzea, bai ordea erantzun horiek bideratu eta baldintzatuko dituzten ildo orokorrak argitzea (orokorrak ezen ez ambiguoak, abstraktoak, ...)

Kongresuaren ondorenean organu zein pertsona bakoitzak, nor bere ardura-alorrerako garatu eta zehaztu beharko ditu bideak azkenean onartuko diren orientabide eta jarrerari jarraiki (egitura, hautaketa modua,...)

# 1.- BETE BEHAR DITUGUN ANTOLAKETA MAILAKO HELBURUAK

Antolaketa bitartez lortu behar ditugun helburuak jasota daude Kongresurako gainerako ponentzietan. Hau da, ponentzia horietako azterketa, planteamendu eta erabakietatik jakin ditzakegu antolaketa-rako izango dituzten ondorioak.

Esan bezala, antolaketa mailan eragina duten helburuak (eta ez bakarrik "organigrama aldaketari" begiraturik, baizik eta "militantzia-estiloaren" aldaketari, "zuzendaritza" ulertzeko moduren aldaketari...). Zer lortu nahi dugu honela antolatuz? galderaren erantzunak izango dira:

- Zuzendaritza/dinamizazio politiko-sindikala zuzen bat eramatea gure eskuhartze-esparrura: euskal langileriara alegia.
- Gure erakundea zuzen eta eraginkorki itxatxita egon beharko da ENAM-aren barruan, eta bereziki Blokearen barruan. Horren bidez gizartearen eraldaketarako prozesu orokorrari gure aportazioa eskeini ahal izango diogu eta, era berean, hortik ere jaso ahal izango ditugu gure eskuhartzerako erabilgarri izan daitezkeenak.
- Errealitate sozial eta ekonomikoaren gaineko ikuspegi panoramizatu eta malgu bat, sistematizatu eta zehatz bat mantendu ahal izateko behar diren baliabideak iraunaraztea.
- Horren beharrez dauden erakunde egiturak eskuhartzerako proposamenak, joerak... lantzeko gai izango dira (gai zehatz...

zeta eta orokorretan ere). Momentu honetan garatzen, hedatzen eta sakontzen ari garen egiturek egindakoak askoz ere kalitate handiagokoak izango dira ezinbestez.

- Euskal Herri Langileak, gizartearen eraldaketarako bidean, halako gizarte alternatibo bat ikusi beharko du gure erakundearen pertsonen eta egituretan. Horretarako behar diren dinamika eta metodologiak garatu beharko dira.
- Barne dinamikara sartu beharko ditugu (partehartzeko, eskuhartzeko eta eztabaidarako bideak zabaldu beharko dira) gero eta sakabanatuago agertzen diren klaseko saii batzuen interes konkretu eta orokorra: ekonomia soziala, langabetuak, enpresa txiki eta erdi mailakoetako langileak, ekonomia murgildua...
- Barne ordezkartzako, aparatuetako eta lan alorretarako egituren euskalduntze prozesua azkartu eta burutu egin beharko da; ekintza erreibindikatorako eta ekintza sindikalarako egituren euskalduntze etengabea bultzatuko da; eguneroko harremanak euskeraz eginez bai barrura bai eta kanpora begira ere.
- Gestio administratiboaren zentralizazioa finkatu, errekursoen banaketa ikuspuntu nazional batetatik bideratu eta errekurso berriak lortzea posible egingo duten beste arlo batzuetara zuzendu gestioa.

## 2.-

# GAUR EGUNGO ANTOLAKETAREN AZTERKETA

Ez dugu "goitik behera" antolaketa osoa aztertuko, atal honen asmoa da, soilik, antolaketatik zer aldatu behar dugun antzematea, beti ere BETE BEHAR DITUGUN HELBURUEN IKUSPUNTUTIK. Helburuok -ponentzia honen aurreko atalean zeintzu diren azaltzen saiatu garelarik- gainerako ponentzietan argituta geratu beharko dute ezinbestez.

### 2.1.

## NOLA HELDU ANOLAKETA- ARAZOARI?

### 2.1.1.-

#### IKUSPUNTU OROHARTZALE BATETIK.

Eduki ditzakegun arazoek-antolaketari gagozkiolabadute beti "arrazoiren bat": aspektu positibo edo beharrezkoen "exajerazio" edo desorekak izaten dira. Esate baterako, errealitatea aldatzeko, errealitatean eraginkorki eskuhartzeko gaitasun indibidual eta kolektiboaren desitxuraketa edo "exajerazioa" baino ez da izaten boluntarismoa; antolaketaren gainerako elementuak behar bezala garatuta ez daudenean, edo egon ezin direnean (egoeraren azterketa, bitartekoak, ...) errealitatean eskuhartzeko gaitasun hori, boluntarismo bilakatzen da degenarazioz.

Antolaketa arazoak zuzendu eta desagertarazteko funtsezkoena oreka bilatzea da; oreka hori lortzeko tentsioa behar da, tentsio dialektikoa: batzuetan desitxuratutako aspektu positibo hori moteltzea izango da kontua eta besteetan gutxiegi garatua areagotu beharko da. Ez dugu gehiegi hazitakoa "moztu/ezabatu" egin behar, beste guztiak proportzionalki elikatu beharko dira: jaki askotatik apur bat jan behar da eta ez gutxi batzuetatik asko, ... honek

berez tripako mina dakar eta.

### 2.1.2.-

#### IKUSPUNTU DINAMIKO ETA EZ-ESTATIKO BATETIK.

Curea bezalako erakunde batek ezin du "kontrola"-ren ikuspuntutik jardun, eskuhartze eraginkorraren ikuspuntutik baizik. Ez dugu begiratu behar zeinek betetzen duen, bai ordea zeinek eskuhartzen duen; ez dugu begiratu behar nola betetzen den, bai ordea nola eskuhartzen den; ez dugu, azken batean, arazorik sortuko ez duen antolaketa-molde bat eratu behar, bai ordea gizartearen eraldaketarako erabilgarri izango den antolaketa-molde bat eta honek, definizioz, "arazoak" sortuko ditu (ohiki, gainera, tentsio positiboak pilatzen diren une eta lekuetan sortzen dira, eta tentsio horiek behar bezala eta era egokian bideratu beharko dira).

Inongo egiturak ("goiko" egituren kasuan bereziki) ezin du gainontzekoen garapen edo ekimenerako "tapoi" edo oztopo izan... Gure erakundearen ekinbide eraldatzailea langileriarekin, Euskal Herri Langilearekin harreman zuzenean dauden egituretan datza eta guztiz sinistuta egon behar dugu berorietan sor daitekeen edozein "arazo" arrazoi zehatz eta errealetan oinarrituta egongo dela. Lortu behar dugu, hortaz, inoiz justifikaturk ez dagoen "kontrol" hori ezabatzea eta desagertaraztea, horren ordez elkarren arteko jarraipena eta laguntza bultzatuz, elkarri adituz, elkar ezagutuz... Eta, hain zuzen, gatazka dagoen uneetan (huts bat dela medio, oker bat dela medio...), orduan aldarrikatu behar da, orduan egiaztatu behar da antolaketa-molde demokratiko baten balioa, une goxoetan ez bait da halako aldarrikapen beharrik.

Ondorioz, lehentasuna eman behar diogu, inolako

beldurrik gabe gainera, malgutasunari, aniztasunari, sormen gaitasunari, eskuhartze "ez-kontrolatu"-ari, ekimenari, abiadura desberdineko aurrerape nei. Ibili dabilen ura da, bakarrik, bideratu dezakeguna. Antolaketa mailan dugun erronka ez da daukaguna "kontrolatzea", baizik eta daukaguna baino askoz gehiago edukitzea. Hori dela eta, geureganatu (esan nahi bait da onartu eta ez "sufritu") behar dugu etengabeko tentsioa dela aurrera egiten lagunduko diguna: antolaketak duen alde estatiko eta dinamikoaren arteko tentsioa, beti ere alde dinamikoari lehentasuna emanez.

## 2.2.- IKUSPEGI OROKORRA.

Hiru urtetik hona gutxigorabehera ("berregituraketari" buruzko 88ko ekainaren B.N. data gakoa izanik), gure erakundeak —eta, orohar, NAEM osoak— geure ekinbide eraldatzailean halako lema kolpe sakon bat jo izan dugu. Atzera begiratu baino ez dugu egin behar, eta ikusi egin diren Batasun nahiz Zuzendaritza Nazionalak bilerak (herrialde eta eskualdekako eztabaidaren ondorengoak) eta bertan jorratutako gaiak. Horiei esker bideratu ahal izan ditugu koiuntura azterketak, munta handiko estrategia zein egituraren gaineko berformulazioak egituren berregokitzapena, e.a.

Horrek guzti horrek gure erakundearentzat nabarmenkiro positiboak izan diren ondorioak ekarri ditu: eskuhartze inmediatek sakonago eta finduago bat lortzeaz gain, beste alor orokorrangoetan ere abiatu izan gara (posizionamenduak, ekintza instituzionalak, ...), hazi izan gara, bai kantitateari nola kalitateari begiraturik, sendotu egin dugu militantzia...

Baina badaude faktore batzuk egokitzapen-bide horretan behin betikoz eta osokiro oraindik ere sartu ez direnak; nola edo hala betidanik egon dira faktore horiek baina orain artean ez dute eragozpenik jarri, ez dira determinanteak izan —orain artean gertatu diren aldaketa guztien erdian errestan eramanak izan dira—.

88ko ekaineko B.N. ean honelaxe genion: "... egitura eredu berria ezartzen dugun momentutik ondo eginak eta gaizki eginak aztertu beharko ditugu eta ondorio homologarriak atera heldu behar diogun

aldi berriari begira". Hala bada, B.N. hartan ezarri eta bideratu genuen guzti hartatik —bai eta lehendik geneukan eta mantendu genuenetik ere—, ondorioak atera behar ditugu, behar dena sendotu, garatu beharreko ildoak ezarri... jada abiatu garen aldi berri horri begira.

Guzti horri ekiteko tenorean, antolaketari dagozkion aspektuak "zuzendaritza/dinamizazioa" eredu eta kontzeptuaren ondorio bezala kokatu eta jorratu ditzakegu (ikuspegi teoriko-analitiko batez). Baina horrekin —nolabait "dena" esaten badugu ere— ez dugu ezer esaten: azterketa teorikoa gehiago xehatu behar dugu eta gure gabezien amankomuneko arrazoiak (ahalik gabezia gehien ikutzen dituzten arrazoiak) hurbiltzen saiatu.

### 2.2.1.- EGITUREN GAINEAN.

Kanpora begirako gure jardunbidea honako alorretan jorratu izan dugu:

- Negoziazio kolektiboan: enpresa eta administrazioetan (patronala den aldetik).
- Gatazka Ekonomikoetan: enpresetan.
- Gatazka Juridikoetan: enpresen aurka, administrazio/ patronalaren aurka eta instituzioen aurka.
- Erakunde sozio-laboraetan.
- Kanpo-harremanetan.
- ENAM osoari dagozkion ekintzetan.

Guzti hauetatik gehien landu ditugunak (indar zein antolaketa mailako baliabide gehien xahutu dituztenak beraz) hauek izan dira eta dira: negoziazio kolektiboa, gatazka ekonomikoak, gatazka juridikoak eta NAEM osoaren ekintzak. Ikus daitekenez, gure erakundearen jarduna "eskuhartze inmediate" ko alorretara zuzendu izan dugu.

Barne egitura guztia "eskuhartze inmediate" ko ekintza eta ekinbideen menpe egon da. Nahiz eta zenbait egitura-atalalen berezko erantzunkizuna aipatutako ekintza horiek jorratzea izan (E.E.-rena bereziki), beste egitura-atal batzuk horien benetazko "azpiegitura logistikoak" dira (aholkularitza ekonomikoa, aholkularitza juridikoa, propaganda, barne-formazioa...) eta praktikan haiei begira eta haiek baldintzatuta egon dira. Hau da, esan dezake-

gu eskuhartze inmediato, premiazko, atzeraezin, ... horrek, gure indarren eta antolaketa mailako gure baliabideen %90a eraman duela, beti ere beste lan alorren kaltetan, beti ere "eskuhartze inmediateista" berorri begira aurretiatzeko estrategia bat landu eta planifikatzearen kaltetan (oraingo honetan ez diogu "eskuhartze inmediateista" horri inolako nabardura negatiborik egotzi nahi).

### 2.2.2.-

#### **PERTSONA ZEIN JOKA-MOLDEEN GAINEAN.**

Puntu honetan egon daitekeen gabezia nagusia militantzia eta lanerako joka-moldetan gertatzen diren zenbait degenerazioren "inertzia" dei genezake-nean datza.

Baieztaatu izan dugu( bai LAB mailan eta bai Bloke mailan egindako hausnarketaren bidez), militantzia ulertzeko modua, eskuhartu behar dugun esparrutan daukagun jarduera, komunikatzeko hizkera eta bitartekoa... eta antzeko gaietan aurrera egin beharrean geldirik eta estankatuta geratu garela,... eta horrek gizartearen eraldaketarako bidean lagundu beharrean, etsaiaren strategiaren mesedetan doa (bazterketa, gu geu gure txokona sartu eta atera ez, harresiak jarri...).

Ez da dudarik egon badaudela kanpoko zenbait eragile, eragile objetiboak, guretzat negatiboak direnak (aurreko zatian aztertu ditugun eman beharreko erantzun inmediateo edo inmediateista kasu, sistemaren eragin ideolojikoak kasu,...) Behar dugu, aitzitik, horiek orain alde batera utzi (horien garrantzia ukatu gabe eta horien zentralitatea aitortuz) eta bestelako faktoreen gaineko neurriak hartzen saiatu: geure nolabaiteko influentzia edo gaitasunaren bitartez epe laburrean aldatu ahal izango ditugun faktoreak ("nolabaiteko influentzia" diogu eta ez gaitasun osoa).

"Militantzia-estiloari" buruz (jarrera eta gaitasuna, portaera, erantzunkizuna, kokapena, etengabeko formazioa, malgutasuna...) eta barneko lan-dinamikari buruz (planifikazioa, ebaluazioa, eginkizunak alde aurretik prestatzea, metodologia, barrurako nahiz kanporako komunikazioa...) ari gara hain zuzen ere.

Gure eskuhartze-alorrerako —erakunde bezala eta pertsona bezala— guri dagokigun "zuzendaritza/

dinamizazio" betebeharra aurrera eramateko funtsezko garrantzia hartzen ari dira lehentxeago aipatu ditugun faktoreak, beraz, behar-beharrezkoa zaigu horien gainean, lehen bait lehen, neurriak hartzea eta estrategia orokorraren barruan behar bezala kokatzea, eta —are inportanteagoa dena— haietaz era egokienean baliatzea: kontua ez da "oztoporik" ez izatea, alderantziz baizik, gizartearen eraldaketarako estrategia orokorraren erritmoari eta beharrei begira lantzea.

Uste dugu guzti horretaz azterketa eta hausnarketa lanari ekin behar diogula, nahiz eta jakin badakigun lan horren "berritasunak" —erlatiboa beti ere— zalantzak eta mesfidantzak ekarriko dizkigula. Aldi berean, baina guztiz sinistuta gaude bide hori jorratu beharra dagoela.

### 2.3.-

#### **ARAZOAK ANTZEMATEA ETA KOKATZEA.**

Ponentzia honek proposatzen du aipatu ditugun funtsezko gune edo ildo nagusietatik abiatuta —dinamikak eta antolaketaren garapenak ezarritakoak— gaur egungo antolaketa-egoera aztertu eta gure helburuei behar besteko indarrez ez erantzutera —inertziak— eraman gaituzten arazo konkretuak antzeman eta egiaztatzea.

Pertsonakizaten dira batzutan arazo horien erantzule, barne-egitura bera beste batzuetan (organigrama, organuen osaketa...) eta baita egiturei ezartzen dizkiegun metodologiak eta dinamikak ere (bileren aldizkotasuna, prestaketa...):

#### • Pertsonak erantzule:

- Militante-tentsioaren galera.
- Kritika/autokritika ez onartzea.
- Talde-lanarekiko eragozpenak.
- Formazio-eza.
- Kokapen okerra.

#### • Egiturak erantzule:

- Analiak, balorazioak eta konponbidak baldintzatzen dituen lokalismoa...: enpresa mailan, sektore mailan, eskualde mailan, herrialde mailan.
- Lan sindikala bilerekin identifikatzea.

- Zuzendaritza-eginkizunak eta etengabe "eskuhartze" zuzeneko eginkizunak nahastea eta bata bestearen gainean jartzea.
- Organu eta funtzioak behin-behineko eta indefinizio egoera batean egotea (E.E. bereziki...)
- ENAM-arenganako ditugun erantzun-kizunen arloan, organuak zein ardurak zehaztu gabe izatea.

• Metodologiak eta dinamikak erantzule.

- Planifikazio eta ebaluaketaren falta.
- Informazioa nola erabili eta nola igortzen den.
- Eginkizunen zehaztapen eta sistematizazio eza.
- Erantzunkizun bakoitzak bere gune izatea besteengandik aparte eta bereizia
- Larderia-printzipioa nagusitzea —> eztabaidarik eza.
- Eztabaidak prestakuntza nahiz metodurik gabe egitea.
- Bileretako dinamika okerra: modera-

tzailea dela,...

- Segurtasuna.
- Bilera edo gai bakoitzaren helburua argi izatea: informazio hutserako den, eztabaidarako den, erabakiak hartzeko den.

Arazo horiek zuzendu eta onbideratzeko ez dago "azti-makiltxorik". Gauza guztiekin legez, arazo horiek bakarrik gaindituko ditugu hartu beharreko neurri "piloa" denak batera eta elkarren osagarri garatzea lortzen badugu. Neurri horiek (pertsonal, egitura, metodologia tankerakoak) kongresua amaitutakoan bideratu beharko ditugu.

Hori baino lehen, —hala lortu behar ditugun helburuak nola helburu horiek gauzatzeko orduan zer nolako antolaketa-mailako arazoak izaten ditugun (gutxigorabehera eta eskematikoki bada ere) argitu ondoren— beharrezko egiten zaiguteoria mailako zenbait hausnarketa burutzea, hartu beharreko neurriak nolakoak beharko diren jakiteko eta neurri konkretuak proposatu eta hartzeko orduan argigarrizango direlakoan: hona antolaketa-ponentziaren hurrengo atal edo zatiaren xedea.

# 3.- ZENBAIT HAUSNARKETA TEORIKO

Aurreko zatietan zehaztu eta antzeman ditugun helburu eta arazoen inguruan nolabaiteko argia eman diezaguketen puntu teorikoak eskeintzen saiatuko gara oraingoan. Ez da, beraz, antolaketa-teoriaren "bilduma" edo "enziklopedia" bat; gure antolaketa-moldea aldatzeko orduan erabilgarri eta argigarri gerta dakizkigukeen puntu teorikoak bakarrik ikutuko ditugu.

## 3.1.- MILITANTZIA GIZARTEAREN ERALDAKETAN.

Antolaketa-aren egoera aztertzen dugunetan atera ohi ditugun ondorio asko eta asko azaltzeko, sarritan, "militantearen entrega", "militantearen kontzientzia", "militantearen laxatzea"... eta gisako espresioetara jotzen dugu.

Horiek egia izatera, aurrean jartzen zaigun arazoa da, beoriek bideratzeko ezinezkoa dela antolaketa mailako neurri kolektiboak hartzea, militante bakoitzaren pertsonalitatean sartzen bait gara eta eremu hori, oso eremu zaila eta labainkorra da; orain artean, bertan, ezer gutxi "murgildu" garelarik.

Baina, hala ere, ardurak, organigramak eta, azken batean, antolaketa bera ere, militantzian daude oinarrituta, militantzia dute zimentarria. Militante jakin eta konkreturik ezean ez dago Langile Mugimendurik, ez dago gizartea eraldatzearen aldeko burrukarik... zeren militantzia egiazko abiapuntua bait da luzerako prozesu historikoari buruz.

Hori dela eta, guztiz premiazkoa zaigu horren inguruko hausnarketari ekitea nahiz eta jakin badakigu gutariko bakoitza izango garela, azken batean, au-

rrera egiteko behar diren mekanismoak, jarrerak... martxan jarriko ditugunak. Antolaketa-ri dagokio gero militante bakoitzak, egoki eritzirik, egin-bidean jartzen duen horri trabarik jarri ez eta erraztasunak ematea.

### 3.1.1.- ASKATASUNA ARDATZ ETA MOTORRA

Gizartearen eraldaketarako "eskuhartze" aktiboaren (militantzia) ardatza ASKATASUNA da, bera bait da bizi garen gizarte-ereduak ezarritako zapalkuntza mota guztiak gainditzeko nahia eta erabakia ematen diguna. Gizonezko eta emakume askeak elkarrekin ondo eramatea, lan sortzailea, elkar-kidetasunezko harremanak,... horiexek dira gura ditugunak (Marx-ek: "... batasun edo elkarte bat non gizabanako bakoitzak aske eta libreki jokatu beharko duen gizateri osoak aske eta libre jokatu badu.").

#### 3.1.1.1.-KONTZEPTU DESBERDINAK ASKATASUNAREN GAINEAN.

Baina gauza desberdin eta elkarren aurkako askok dute ASKATASUNA ikurtzat (liberalismoak, mesianismoak...), beraz askatasunaz kontzeptu desberdinak daudela esan dezakegu:

- a) Kontzeptu idealista (edo burgesa). Norbanako bakoitzaren borondateak mugarik ez izatean datza; horrelakorik ez dago, "utopia" bat da. Norbanakoaren askatasunak bi muga izaten ditu: batetik gure askatasuna, urkoaren interes zilegiak hasten diren puntuan amaitzen da, eta bestetik, gure askatasuna "ontasun amankomuna" (elkarbizitzarako ezinbesteko ituna) hasten den hartan ere amaitzen da. Gisa honetara ulertutako askatasuna askatasun absolutua da, bizi ga-

ren baldintza konkretuek eragingabea.

Bada askatasunaren ulerkera honen azpian pertsonaren kontzeptu faltsu bat: gizon/emakume = norbanakoa. Baina pertsona ez da, soilik eta funtsean, "norbanako" bat, bai bait da, funtsean ere izaki bakarti bat (beste "norbanakoei" emateko eta beste "norbanakoengandik" jasotzeko beharrean dagoena). Askatasuna ulertzeko era idealista hau pertsonaren atal batetat mintzatzen zaitugu, eta atal hori osotasun bezala hartzen du. Norbanakoaren erabaki legez ulertutako askatasun hori ez dator bat eta areago ez dio erantzuten pertsonaren baitan ere baden alderdi solidario horri.

Ez da ere (eta hau aski kritikatu eta bereganatu izan da marxismoaren aldetik) "naturaren egintza indpendiente bati buruzko ametsa", "norbanakoa" ez bait dago, ezin bait da egon, bera bizi den baldintza konkretuetatik aparte eta loturarik gabe. Esan nahi bait da, pertsonak ez daramala bere barrenean askatasun bat (berezko "dohai" bat baillitz, genetikoki iragaiten dena) gainerako pertsonetik edota ontasun amankomunarekiko harremanarekin batera mugatuta geratzen dena, baizik eta pertsona aske egiten doala bera bizi den baldintzak — norbanako zein kolektibo mailako eginahal eraginkorraren bitartez — aldatuz doazen arauera.

b) Marxismo mota zenbaitentzat (era berean erligio-sinistun gizon zein emakume zenbaitentzat) askatasuna da halabeharra ulertzearen egintza: naturaren eta gizartearen (edo Jaingoikoaren) lege objetiboak ezagutu eta ezagutza horrek adieraziko digu zehatz eta mehatz zer egin behar dugun. Legeek egiteko esaten diguten hori egitea edo ez egitea izango litzateke askatasuna. Baina horren azpian badago alde aurreko planteamentu bat —sujeto/objeto harremanei dagokiena— subjektibitatea eta mundu objetiboaren artean guztizko bereizketa bat ezartzen duena, subjektiboa objetiboaren segregaziotzat hartzen duena (objektiboaren islada da subjektiboa), eta lehentasun osoa mundu objektiboari ematen diona.

Baina bereizketa eta lehentasun horiek gizarte-egiturak eta beren bilakaera-prozesuak fetitxe-tzat hartzera garamatzate zeintzuei kualitate "ia-jainkotarrak" eskeintzen dizkien eta pertsonak mirabe edo... jarraitun huts izatera mugatzen dituen. Egia da naturaren legeek (fisika, kimika, biologiarene bidez idoro ditugunak) badutela berez "halabeharrezko" objetibotasun determinatzaile bat, egia da ere gizakumea sortu baino lehenagotik datozkigula, baina hori ezin da besterik gabe eraman gizakiaren historiaren legeen esparrura (gizakiaren beraren ondorioak dira eta ez dute naturak daukan "zientifikotasun" bera). Gizakiaren historian ez dago halako "halabehar" mekanikorik eta historia horretan dagoen "determinazioa" beste era batekoa da: posibilitate bat da, balizko helmuga bat, tendentzia bat, jomuga bat, ... "halabehar" bat gizakiak eta bere historiak zentzua eduki dezaten gauzatuko dena, baina ez gauzatzea ere guztiz ahalgarri duena (maiz entzun eta esan ohi izandugu delako "sozialismo edo basakeria" hori. Bada basakeriak, kapitalismoak, bertikotasunean irauin dezake).

### 3.1.1.2.- ASKATASUNAREN BESTELAKO KONTZEPTU BATEN ALDE.

Zer izan daiteke guretzat, gizartearen eraldaketarekin konpromezu hartuta gaudela diogunontzat, ASKATASUNA?

Mintzatuak gara halabehar naturala eta halabehar historikoaren arteko desberdintasunaz: lehenak aurre-determinazio zati handi bat du bere baitan (badakigu objektu bat eskutik utziz gero eroriko dela ezin bestean) eta bigarrenak oso urri du aurre-determinazio hori. Horrek ez du esan nahi materialismo historikoak (gizarteak aztertze dagoen "jakintza"rik berezkoena eta ekonomiaz, soziologiaz, psikologiaz... eta antzeko giza-jakintzetaz baliatzen dena) ez digula deuserako balio, ez digulako hau edo hura egitearen ondorioz "ziurtasun osoz" gertatuko denaren berri ematen, alderantziz baizik: aztertu beharra daukagu gizakiaren historia, bere iragana eta bere oraina gaur egungo eta etorkizuneko gure ekinbide-esparruaren nondik-norakoak ezagutzeko, gaur egun dauden ildo eta tendentziak ezagutzeko eta garatzeko, ... gaur egun gertagarri

hutsa dena gauzatu ahal dezagun. Komunismoa (nahi delarik deituta ére —nahi eta desiratzen dugun etorkizuna— baina baita "egungo marko juridiko-politikoaren aldatzea", KAS hautabidea, etab. ere) ez da halabeharrezko lege bat, aurretiaz ezarritako patua, bai ordea izango da errealitate historiko bat eraikitzen dugun ahala, bizitzen dugun ahala, gero eta erreago... "beharrezkoago" egiten dugun ahala.

Askatasuna da, funtsean, egin behar dena egitea gure esku dagoela jakitea, zeren eta baldintzatzen gaituen egoera gure borrokaren bitartez aldatu egin bait daiteke eta aldatu egiten bait da. Gizarte aske bat beharrezkoa izango bada beraren alde borrokan ari garelako izango da, egun posibilitate hutsa dena, norbanako zein kolektibo mailako gure parte-hartzearen bidez egia bihurtzea behartzen ari garelako izango da. Ezin gara historiaren aurrean "neutralak" izan; horretaz jabetzean datza, hain zuzen ere, askatasuna (hala konszienteki neutralak, gertatu behar dena nire nahiarekin bat datorrelako; nola neutral inkonszienteak, nik egin dezakedan ez duelako deus ere balio; edo pasotak, niri bost axola.), neutraltasunaren ondorioa izaten bait da gauzak lehengo lepo beretik geratzea. Eta hala gizakiaren nola nire buru propioaren patua nire/gure esku dagoelako kontzientzia hori, kontzientzia eragilea da: Zertan nabil? Zer egin dezaket? Norekin? ... eta kontzientzia horrek aukera pertsonal bat eragiten du; konpromezu pertsonal orokor bat hartzea ekartzen du non pertsonaren bizitza eta esistentziaren sail guztiak konpromezu horren galbaetatik paseak, konpromezu horrek eragindakoak izaten diren.

Eta geure burua aske sentitzen dugu, ez lortu dugunagatik, ez helburu dugun utopia horretatik hainbatean eskuratu dugulako (ugaritasuna dela, beharri-zanjada asebetek direla,...) baizik eta bere historia eraikitzen ari den pertsona baten bizi-moldea eta bizi-dinamika daramagulako non geure beharri-zanak eta gainerakoek —EGIAZKI, eta ez era filantropiko batean, geureak ere badiren momentutik— asebetetzera erabakita gauden.

### 3.1.2.-

#### MILITANTZIAREN IZAKERA EDO ESTILOA

Aurrera baino lehen oharpen bat egin behar dugu: "militantziak" ari garenean, "pertsona militanteak"...

ez dugu indibidualitatearen goratzarrerik egin nahi: lehenengo saiatu izan gara ezartzen pertsona funtsean solidarioa dela, eta ponentzia beraren gaia antolaketa da, militanteen multzoa alegia.

Jorratuko ditugu segidan militantearen ezaugarriak, militantearen halako "zirriborro" bat egingo dugu, zer nolako ezaugarriak bete beharko lituzke, norberaren ahalmenen neurrian eta superaziorako etengabeko tentsioan. Egiten den ordenazioa azalpen-modu bat baino ez da, aipatzen diren lan dimentsioen eta dimentsio horietako bakoitzaren konplexutasunaren arteko prozesu dialektiko baten ondorioz egiten bait da pertsona militantea.

Hala bada, orain aipatuko ditugun lan dimentsio hauek landuz egiten da, osatzen da pertsona militantea:

#### A.- "TEORIA" MAILAN:

- Bizi den eta aldatu nahi duen errealitate soziala ezagutu behar du: errealitatearen azterketa objektibo, "zientifiko" eta zehatz bat egitera iritsiko da eta errealitatea eraikitzeko metodoa menperatuko du (beharrezko eta gutxienezko elementu teorikoak...).
- Gizartearen eraldaketaren helburuak ezagutu beharko ditu: helburu estrategiko, taktiko eta koiunturala.
- Helburu horiei begira gaur egungo errealitatea aldatzeko prozesua ezagutu beharko du: azterketak, hausnarketa kolektiboak, borrokarako gaitasunak... nolakoak, halakoak prozesua bideratzeko eta aurreikusteko ahalmena. Prozesuaren estrategia ezagutu.

#### B.- "PRAKTIKA" MAILAN:

- Aktiboa da: Bere presentzia aktiboa da. Arazoak ezagutu eta "barraiatuko" ditu, eztabaida piztuko du, inizatibak izango ditu, kritikoa eta autokritikoa izango da.
- Antolatzailea da: Beste pertsonak tartekatzen, konprometitzen saiaturiko da, besteen partehartzea erango du, inizatiben koordinatzailea izango da.

- "Hezitzailea" da: Berak esaten duena, egiten duena, erabiltzen dituen antolakuntza-bideak, horiexek dira besteen jakinmina pizten dutenak, kontzientzia eta borrokarako gaitasuna sortzen duetenak...; horrelakoak ez bait dira berez inorengan sortzen, eskarmentua eta jardunaren poderioz baizik. Ez da dogmatiko edo sektarioa izango, bai ordea malgua, uneko beharrei, kontzientzi mailari... begira, egoerara egokituko da parte-hartu ahal izateko.

#### C.-"ANTOLAKETA" MAILAN:

- Sena demokratikoa beharko du:

- Bereganatua du barne organuen, erabakiak hartzeko bideen eta azterketak nola lan-plangintzak egitearen betebeharra eta funtzioa.

- Botoen edo gehiengo/gutxiengo aurkakotasunaren gainetik bereganatua du unanimitatearen eta bere prozesuaren zentzua. Eztabaida guztiek dute beren kausa konkretua; inork ez du egia osoa, inor ez dago beti oker.

- Bereganatua du azterketa eta eztabaidan, parte-hartze aktiboan, partizipazioa eragitean... datzala demokrazia.

- Disziplinarako sena dauka: Hitzartutakoa betetzen du. Sena demokratikoaren osagarria da (sena demokratikorik ezean alferrikakoa da), hitzartutakoaren berrazterketa behar den unean planteatuko du, baina hitzartu den horri kale egin gabe.

- Arduratsua beharko du: Egokitu zaion eginkizuna eraginkorki beteko du, ezinbesteko bait zaigu/zaie pertsona militante guztien eta bakoitzaren lana (sartuko ditugu hemen ere puntualitatea, asistentzia, eginkizunak hobeto betetzeko bitartekoen bila egoitea...)

- Presto egoten da: Edozein mandatu, eginkizun edo funtzioa hartzeko presto egongo da beti.

- Kritika/autokritikarako sena beharko du: Alor guztietan (politikoan, antolaketa mailakoan, pertsonalean...); erratu gaitzkeelako konbentzimendutik eta baita besteek gure erratuak antzemateko, berorietaz guri ohar-tarazi eta zuzenduarazteko duten eskubide-tik sortua.

#### D.- "KONTZIENTZIA SOLIDARIOAREN" MAILAN:

- Aintzakotzat hartuko du "afektibitatea" (beste termino egokiagorik ezean): ideietan eta jarduera kolektiboetan kide izateak elkarren arteko lotura afektiboak sortzen ditu, horiek arbuia ez baina landu eta garatu beharko ditu.

- Bizi izango du solidaritatea: Jakin beharko du "edukitzeak" (dohaiak, ezagupenak...) eta "egiteak" (ekimenak izateak, mugidetan parte hartzeak...) ez dutela gizakiaren dimentsioa guztiz osatzen, beharrezkoa ere bait da bi zer horiek besteengana bideratzea. Norberak "dauzkagun" horiei eta gure "ekintzei" balio iraultzaile eta eraldatzailea eransten diena da hain justu ere eta soilki bi horiek duten balio kolektibo edo komunitarioa eta ez izan dezaketen elkartruketarako balioa.

#### 3.1.3.-

#### MILITANTZIAN DAUDEN DESOREKAK.

Pertsona militantea izateko bidea beraz, aipatutako dimentsioak bereganatzeko orduan, horien artean behar den harremana eta oreka gordetzean datza.

Dimentsio horietako bati edo batzuei bakarrik ematen bazaio lehentasuna edo bultzada, orduan sortzen da desoreka:

A.- "TEORIAKERIA". Ahalmen teorikoa handitzean gerta daitezkeen desorekak:

- "Intelektualkeria": gizartearen aldaketa teoria egoki baten ondorioa dela sinestu eta aldeztea. Ekintza eta antolaketa mailako arazoak teorien bidez eta honek norbereganatzearen bidez konpontzen saiatzea. Terminologia era gehiegizkoan baloratzea...

• "Formaziokeria": Formazioa gehituz gero den-dena konpon daitekeela pentsatu eta aldezea. Hartu behar diren bide eta neurriak formazio aldera lerraraztea...

B.- "EKINTZAKERIA". Desorekak borroka gaitasunean: praktika pribilegiatu eta lehentasuna eman, teorizazio gaitasunaren, antolakuntza gaitasunaren, ... garapena ezereztuz. Hemen du bere lekua, normalki, borondatekeriak.

C.- "ANTOLAKUNTZARERIA" Desorekak gaitasun organikoan:

• "Demokraziakeria": gauzak konpontzeko behar dira bilerak, behar da kontuak eskatu, bozketak egin, eztabaidatu... demokrazia prozesu konplexu eta dialektikoa da eta bertan organigramek, funtzio-banaketek, ardurak, efikaziak... badute zer esana eta ezin dira bazterrean utzi.

• "Bilerakeria": gehiegizko lan bat barrurantz botatzen saiatu, norberaren gutxiagitasunak kolektiboari atxeki, norberaren eta kolektiboaren praxia blokatu ...

• "Kritikakeria": kritika eta autokritika prozesuak esamesetan ibiltzearekin nahastea, bai eta beti zalantza batean eta desgogora egotetik sortutako derrotismoarekin zeinaren ondorioz kolektiboarengan nahasmen-dua sortzen den. Kritika eta autokritikarako une eta leku egokiak gutxieste...

• "Burokraziakeria": hala norberaren nola kolektiboaren eginkizun eta ardurak aurrera eramateko pasibitatea ("neurea bete dut", "horretaz aritu gara iada"); nor bere eginkizun, ardua, organu zuloan sartuta egotea, gatik beste pertsona zein organuen lana bloketzea "(niri edo halako organuri ez zaigu ezer ofizialki adierazi...)";...

• "Araudikeria": Sakoneko arazoei heldu beharrean beroiek hartzen duten azaleko itxura edo agerpenari lehentasuna emanez benetazko konponbidea zaildu egiten da (beti eta derrigorrean hartara izendatutako organuak, araututako eran eraman behar da... azken buruan arazoa edo ekimena us-

teldu egiten delarik).

D.- SOLIDARITATEAREN GARAPENEAN GERTATZEN DIREN DESOREKAK:

• "Langilekoikeria": milintateon edo erakundearen berezko lan-esparrutik at egonik, beste esparru edo kulturetatik datozen jorkaera-, ideia-, antolaketa-, borroka-molde... (feminismoa, ekologismoa, buzoduna/enplegatua...) eta abarren aurrean zalantzarik edo jakinminik ez agertzea, ulerkoi eta zabalik ez agertzea.

• Bitasun pertsonala: alde politiko-publikoak, alde politiko-pribatuetatik guztiz bereiztea, pentsatuz edo lehenengoetik kritika/autokritika prozesu baten bidez kito egiten dela eta ez jakinik bezala militantea pertsona bat eta bakarra dela une eta leku orotan, nornahirekin dagoela ere (goizeko zein gaueko lletan, egoitzan edo kalean, hala erakundeekin nola beste edozein harreman-mota bidezko pertsonekin).

• "Afektibokeria": giza-harremanak hutsaltzea, beren marko teorikotik, beren marko organikotik, ekintza dinamikotik aldenduz; "elkar-ezagutzeari", "hitzegiteari" lehentasuna ematen zaio; babesa, menpekotasuna bilatzen da; harremanak tresna gisa erabiltzen dira.

• "Pertsonakeria": militantearen osatze-prozesua, bere partehartzea galerazten duten morroitzak sortzea eta bultzatzea (militantzia berriarenganako, erakunde zein sozial mailan gehi-baloratutako eginkizunak betetzen dituztenengandikoa, organu batzuegandik besteengandikoa...)... Desberdintasunak aitortzea bai baina horrek ez du galerazi behar pertsona batek auto-kontzientzia hartzeko bidean aurrera egitea ezta ere organu batek gero eta ardua edo auto-antolaketa gehiago izatea.

Orain arte aipatu ditugun guzti horiek baliagarri gerta dakizkiguke gutariko bakoitzak geure bururakiko eta, oro har, gizartearekiko dugun jarreraz hausnarketa pertsonal bat egiteko. Baina kolektibo

mailan antolaketaren garapenerako daukan garrantzia aitortzen diogun neurrian, erakunde mailan ere "erabilgarri" izan daitezke, hain justu ere, pertsonaren baitan dagoen funtsezko alor solidario horri esker. Esate baterako, militanteak bete beharko lituzkeen ezaugarriak aztertzean (orain eta gero gurekin egongo den pertsona bait da), gure lan teorikoetatik, militante mailako zein erakunde mailako gure praktikatik aparte egon diren gai horiek orain formaziorako kontutan hartuak izatean (talde-dinamikak, psikologia eta pedagogia gaiak, komunikazio, propaganda eta interbentzio konkreturako metodologiaren garrantzia —bitartea bera mezua da, bitartekariak eragina izaten du—, zuzendaritza dinamizazio gisa delakoan sakontzea...) ...

#### 3.1.4.-

#### MILITANTZIA-ANTOLAKETAREN BEHARRA.

Hain da handia pertsonen elkarren arteko harremana (eta gora doa) non bakarrik gainontzekoen beharrak asebeteta, norberarenak ere berdindurik geratzen diren. Boligrafo bat egiteko milaka pertsonen parte hartzen duten era berean (meatzariak, diseinugileak, kimikariak, soldadoreak...) norberaren existentziak besteen existentzietako ZATI bat betetzen du, norberaren borrokak gainontzekoen borroketan zati bat betetzen du. Borroka kolektibo eta antolaturik ezean ez dago askatasunik ez eta gizarte-eraldaketarik ere, ez bait dira bizitza eta gizartea pertsona banakoen batuketa hutsa baina bai aurre-aurre agertzen zaizkigun egoera zehatzei buruz egiten ditugun aukeren interakzioen emaitza.

"Patua gure esku dagoela" bereganaturik daukan kolektibitatea, gizartea eraldatzeko helburuz bere burua antolatzen duen kolektibitatea, horixe ere bada askatasunerako sujetoa. Kolektibitate hori, antolakuntza hori da Marx-ek "proletario iraultzaileen komunitatea" deitu zuena. Borrokaren muina giza-kolektibitate osoa askatasunerako sujeto bilakatzeko datza, geurera zehatzuz eta "epe laburre-ra" Euskal Herriko Langileriak etorkizuna bere esku duela bereganatzean alegia.

#### 3.2.-

### ZUZENDARITZA

#### L.M.AN:

### ESPERIENTZIA

### HISTORIKOA.

Sarritan eraldaketarako ahalmenaren galera arazo ekonomikoetan baino ez dugu kokatzen: bizitza maila gora doanean, ia guztiontzako lanpostuak daude, ... kapitalismoak lokartu egiten gaituela esaten dugu; eta beheruntz doanean, egoera txar horrek "jaten ematen" digun horri are gehiago lotzen gaitu. Ekonomi ikuspegi horretatik, gizartearen eraldaketa ez dela inoiz ematen, ezta emango ere iruditzen zaigu.

Guzti honekin, kapitalismoaren oinarria esplotazio ekonomikoan kokatu besterik ez dugu egiten, arazo guztia plusbalioaren lapurketa ekonomikora (batzuetan gehiago, bestetan gutxiago) murriztuz. Baina oinarri hau konplexuagoa da: Plusbalioaren ateratzea bada, baina langaiaren alienazioa eta langilea eta lana gauzak bihurtzea baita, eta guzti honekin batera langilea donimazio politikoa eta alienazio ideo-kulturalaren menpe jartzea. Multzo osoak determinatzen du: esplotazio ekonomikoak, domimazio politikoa eta ideologi alienazioak, denak batera

Langileriak gizartea eraladatzeko gaitasuna galtzearen zergati zehatzak, aldaketa horren eragile bezala izan duen desmobilizazioan ere bilatu behar dira.

#### 3.2.1.-

#### ERREFORMISMOAREN GAITASUN EZA.

Erreformismoak kapitalismoaren garapenak berez gizarte justu, solidario, ... bateruntz garamatzalako ziurtasuna barneratu du langileriarengan. Hasieran ez zuten euren egitasmo eta teoriaren arabera jokatzeko eta azkenean benetan egin dutena teorizatu eta adierazi egin dute. Honen ondorioz, erakunde hauek langileria "neutralitate"ra eraman dute bourokan.

Ez da kasualitatea marxismotik sortu zen erreformismoak, (XIX. mendearen bukaerako eta XX. araren hasierako alemaniar marxismoa, II. Internazionala) borroka guztiz alde batera utzia izatea (PSOE, PSI, PSF, PSDA, ...).

### 3.2.2.-

#### ABANGOARDISMOAREN GAITASUN EZA.

Alderdi Komunistak, II. Internazionallean, erreformisten "traizio"aren aurrean alternatiba bezala sortu ziren, baina azkenean praxis horretan (ekonomikoa, kulturala, politikoa eta ideo-kulturala) erreformismoaren bidea hartuz doaz eta marxismoa alde batera uzten. Herri guztietan badaude betiko PC-tik edo PC-ohietatik kanpo hedapen gutxiko taldeak.

Erreformismoruntzako bilakaera honen zergatiak erakunde abangoardista beraren izaeran eta funtzionalitatean bilatu behar dira agian (ENAMen inguruko talde batzuetan aurki dezakegu oraindik ere tipologia hau), eta honetan luzatuko gara gure artean antolaketa eta militantzia mailetan izan duen eraginagatik.

a) Erreformismoarekin bat datorren teori mailako arrazoi bat: Mekanizismoa, gizartearen eraldaketarako prozesuaren kontzepzio ez dialektikoa. Determinismoak eta mekanizismoak (gurea bidezkoa da → garaipena ezinbestekoa da), "lan indarraren garapena" eragile bakartzat hartzen dute, aldiz, aldaketa prozesuetan subjektiboak duen papera, askatasuna tentsio dialektikoaren polo bezala... gutxiesten dute. Hau nabaria da gaur egun Ekialdeko herrietan: sozialismorako iraganbidea, abangoardiako erakunde batek estatuaren konkista lortu ondoren "halabarrez" "naturalki", "...magikoki" lortzen zela uste zuten.

b) Praktika mailako arrazoi bat: Era honetako erakundeek sindikatuen eta beste erakundeen zuzendaritza politikoa bereganatzean langileria peoi bihurtu dute gizartearen eraldaketan. Erreibindikazio inmediatek iraunkorrak, despolitizazio iraunkorrak... langileriak bere borrokaren ikuspegi osoa eta orokorra galtzea dakar, erreformismora joaz. Erakunde militante hau, herriarekin eta langilearekin duen harremana ez galtzearen, bere aurkezpen teorikoak, eskuhartze, ... aldatuz joan beharrean dago herria eta langilegoa kontzientzia eta praktika erreformisteraino eramanez, horrela eraldaketarako aukera guztiak galduz.

c) Antolaketa mailako arrazoiak: Militante erakundearen globalizatzailerik eta zuzendaritza funtzioen eta beste antolaketa maila batzuen artean (masak, ...)

ematen den banaketa; erakundeen barne jarduera (zentralismo burokratiko, burokrazia...); jarduera publiko eta pribatuaren arteko banaketa...

Mota honetako erakunde militanteek direna baino ez dute erakusten gizarte mailan (eta masa erakundeetan eta mugimenduetan orokorrean): bakoitzak dakiena baino ez du egiten. Ekialdeko gizarteak militante erakunde honen kontzeptu abangoardistaren eta militante erakunde horren eta langileriaren arteko hartuemanen ondorio logikoa izan ziren eta dira.

### 3.2.3.-

#### ESPONTANTATEAREN GAITASUN EZA.

"Espontaneismo"tzat hartuko ditugu antolaketa beharra ikusten ez duten —marxistak ere izan daitezkeen— joerak, hau antolakuntzaren aldekoen (erreformismoa, abangoardismoa) esperentzia historikoen aberasgarritasunean oinarritzen dutelarik. Praktikan, gizartearen eraldaketarako borrokari diharduten pertsonak dira, ez dira neutralak, baina ez dira militante erakundeez fidatzen eta nahiz eta horrelakoren baten partaide izan, inoiz edo oso gutxitan hartzen dute parte aktiboki.

Planteamendu honek, sakonean, askatasunaren kontzepzio idealista erakusten du, kontzeptu indibidual partzializatua: Neure aukera egin dut dagoeneko. Baina ez du onartzen kontzeptu globala, zeinean aldi berean eta beharrezkoa izanik dimentsio solidarioa dagoen. Segurtasunera jotzen du, norberaren biziraupenera.

Baina hala ere, antolaketa beharrezkoa da: arazoak dakarzkigu, baina eraginkortasuna, potentzialtasuna, gaitasuna, globalitatea, ... ematen dizkigu. Norbakoaren bitasuna dialektikoa da: bitasuna deusestatzeak pertsona bera deusestatzea dakar, kontutan hartzea tentsioak sortaraziko dizkigula eta tentsio horiek izango direla aurrera egiten lagunduko digutenak onartzea da bitasuna.

### 3.3.- **GAUR EGUN EUSKAL HERRIAN LANGILE MUGIMENDU MAILAKO ZUZENDARITZA.**

- Zuzendaritza horrek langile arazo zehatzetan eskuhartzea eta ezarpena behar du eta hortik hasi behar da: lan eta bizi egoeraren errealismoa eta ezagutza ematen digu; langileriaren parte egiten gaitu, langilegoak bere kide gisa ikusten gaitu;...

- Bere funtzio teorikoa:

- Azterketak egin errealitatea ezagutzeko.
- Esperientzien kritika eta azterketa iraunkorra, borroka eta antolakuntza erak,...
- Eskuhartzerako helburuak zehaztu eta balioko proposamenak egin.

- Zuzendaritza/dinamizazioa: "Maisu" izate-tik "pedagogo" izatera iragan, "irakaste"tik "elkarrekin deskubritzera"... "konbentzitu" egin behar da eta ez "irabazi"; langileriak gure proiektuaren "aukera egin" dezan eta ez, besterik gabe, horren inguruan "bildu".

- Dinamizazioak egokia den metodologia bat behar du: dialektika, magultasuna/tinkotasuna gure edukinak aurkezteko orduan eta gure interbentzioa egiterakoan; momentu egokia aukeratu; egoerari egokitu eta kritikak onartzen ikasi;...

- LAB dagoenean eta langileriarekin dagoenean, Blokeak ematen digun globalitatea gure interbentzioari batzeko gai garen heinean eta globalitate horri gure interbentzioak ematen diguna batzeko, Blokea bera izango da bertan dagoena eta jokatzeko duena langileriari aurrera egiten lagunduz.

- Langileok ez goaz aurrera "denak batera": kontzientzia maila desberdinetarako parte-hartze egiturak ezarri behar dira. Bakoitzak bere lekua aurkitu behar du LABen, unean-uneke konpromezu mailaren arabera.

- Barne parte-hartze aktiboa: militanteen eta baseen autoresponsabilitatea, antolakuntza

maila ezberdinen autonomia,... posibilitatzen baina ezingo dugu burokraziekin amaitu. Eta horrela, langileriaren baitan esperentzia hau hedatu ahal izango dugu, aldaketarako borondate hau ere kanpora atereaz.

### 3.4.- **EUSKAL PROZESU IRAULTZAILEA (GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO).**

Antolaketa ikuspegitik prozesu integrala da:

- Sakonean: Gaurko gizartea eta gizakia esplotazio ekonomikoaren, dominazio politikoaren eta alienazio ideologikoaren ondorioa da. Prozesuak gizartearen eta gizakia-  
ren dimentsio guztiak jasotzen ditu: LABek, erakunde/sindikatu "sozio-politiko" legez, dimentsio guzti horiek jaso izan ditu sortu den momentutik bere lan-esparru propioari dagokionean, euskal langileria alegia, Blokeko beste erakundeek bere sorreratik bertatik beren lan-esparru propioei dagokienean egin duten bezala. LAB erakunde sozio-politiko izatearen helburua ez da langileriarengan bere borroka kanpoko elementuak "sartzea", baizik eta langileriaren berreko izaera sozio-politikoari erantzuna ematea. KASen sakontasunik gabe, geure sakontasunak ez dauka zentzurik.

- Hedapenean: Hainbat borrokan desberdin egonik, borroka horiek elkarren eragileak izanik, -beti ere elkarren independente, osagarri, uztargarri eta bateragarri izango direlarik- une bakoitzean erabaki beharko da zein borroka intentsitate gehiago eman, zein borroka nota erabili (masa, instituzionala,...). LAB-ek KAS-eko erakunde den aldetik, borroka guzti horiek kontutan hartzen dituen Blokearen zuzendaritza/dinamizazioaren papera euskal gizarte osora eta bereziki euskal langileriarengana eraman behar du. LABKAS-eko partaidea da baina beste borroka horiek langileen borrokaekin koordinatzeko helburuz, baizik eta langileen borroka bere bide propioa aurki dezan. LAB-ek ez du zentzurik KAS-eko gainerako erakundeak ez badaude.

## 4.-

# LAB-EN KARAKTERIZAZIOA

"L.A.B. klaseko sindikatu abertzale gisa egituratzen da, koadro eta masetako erakunde eta langileen tresna modura aldaketa sozio-politikoetan aurrera egin ahal izateko. Aldaketa horiek balio demokratikoak eta justizia soziala erabat garaturik egonen diren Euskal Herria independente eta sozialista erdiestea izanen dute helburua".

Definizio orokor honen esparruan, gure abiapuntua gure erakunde hau lehen eta gaur karakterizatzen duten elementu giltzak berriro formulatzeko eta gaurkotzeko ikusten dugun premia da. Jakin badakigu gai hau ez dela Kongresu honetan zentrala; baina ekin beharra ikusi diogunez, hasi nahi izan dugu Kongresu honetan berean puntu honetara hurbiltze-pausoak ematen. Ez dugu inondik ere kapitulu honen edukina agortu nahi, ez azken edukintzat kontsideratu ere. Guk uste, gure organizazio honen karakterizazioa aztertu behar dugu, aldeazurreko debate moduan, estatutuak direla eta hasiko dugun eztabaida prozesuan.

L.A.B.-en karakterizazio gaurkotuaren puntu nagusi bezala, ondoko karakteristika edo ezaugarriak ditugu gutxienez:

### 4.1.- ABERTZALEA

Euskal Herria da andre-gizon langileek klase burrukan eta transformazio sozialean parte hartzeko duten eremu espezifikoa. Zehatz azalduta, bada burruka dinamika espezifikoa eta desberdindua, seinetan auzi nazionalak errebindikazio eta proposamen transformatzaile guztien elementu zentral eta katalizatzaile gisa jokatzen duen. L.A.B.ek, hortaz, aipatutako eremu hori sendotzearen alde bideratuko du bere interbentzioa, eta Euskal Herriaren Subiranotasun Nazionala onartzea eta garatzea eragozten duten traba guztiak haustera. Honetarako,

bere eginahaletan koordinaturik jokatuko du interesaturik daudengainerako herri-kapaguziekín, gaurko euskal gizartea Euskal Herri Langileak bere etorkizuna kontrolatu ahal izanen duen euskal gizarte bihurtzeko.

### 4.2.- SOZIO-POLITIKOA

Gure ihardunaren lehenbiziko eta funtsezko lekua lantegia dugu, eta esplotazio eta interbentzio eremu zaigun horretatik gure egiten ditugu Euskal Herrian diren errebindikazio ekonomiko, politiko eta sozialak. Zapalkuntza ororen eragin bateratua da transformazio soziala baldintzatzen eta oztopatzen duena. Eta honegatik, L.A.B.ek ez dio uko egiten euskal langile klasean eragina duten eremu eta arazo guztietan beharrez esku hartzeari.

### 4.3.- TRANSFORMATZAILEA

L.A.B. klase-sindikatu da, eta euskal langile klasearen interes berehalako eta estrategikoak defendatzearen eta aurreratzearen alde jokatzen du, gure gizarteak -aldioro- jasaten dituen faktore zapaltzaile guztiak eta bakoitza garaitzeko bidegintza etengabea.

L.A.B.ek, geure interbentzio eremuan bertako gero dinamizazio/zuzendaritza artikulatu ahal izateko, beharrezko du interbentzio guztietan dinamizazio/zuzendaritza globala desarrolatzeko gaitasuna. L.A.B.ek, bidenabar, Blokeko dinamizazio/zuzendaritza global horretara bere interbentzio eremuan lorturiko esperientzia eta praktika aportatuko ditu. L.A.B./BLOKEA-arenez arteko elkarrekiko dialektika honetan, bakoitzaren dinamikaren eguneroko birmoldatzea eta berrikustea,

nolanahiko errealitate estatikoak gainditu nahirik (organizatiboak, ideologikoak, eestrategiakoak...), lehen eta orain oinarritzko ardatz izan da nola Blokeak hala gure organizazioak Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialeko prozesuko eskariei erantzun ahal izateko.

#### **4.5.- ERAKUNDE DEMOKRATIKOA**

Kapitalismo eta estatu espainiarraren aurkako aginkeriako ezein burrukak ezin izango du Euskal Herri independente, sozialista eta demokratikoa lortu.

LABen, afiliatu eta langileen partehartzeak segituko du barne zein kanpo-ihardunbidearen ardatz izaten, sindikatuaren barne-demokrazia indartu eta Langileriaren nagusitasuna sustatzeko funtsezko bidea bait da.

Gehegizko burokrazia, aparatuak, e.a. eranzko joerak baztertu egin behar dira, bai barne-ikuspegiari bai eskuhartzeari dagokionez, maila honetako inertziarik sor dadin ekidinez, erabat alderantzizkoak diren baloreak sortera izan behar dituen LAB erakundearen garapenean, minbiziaren eragina eduki bait dezakete aipatu joerek.

Langileen asanblada, ordezkari organo bate-rakoiak sustatzeak, hots, ukitzen dituen arazo guztietan langilea parte hartzera bultzatzeak helburu iraunkorra izan behar du.

Partehartze eta barne-bizitasunezko erizpide beronek (informazioa, azterketa, ihardunbideak,...) egituren funtsezko ezaugarria izan behar du maila guztietan, lantoki bakoitzeko sailatal sindikaletik sindikatuaren organo goreneraino.

#### **4.6.- ANTOLAKUNTZ TRESNA BILTZAILEA**

Alde batera utzi behar ditugu "nirekin ala nire aurka" lema zentzugabeen oinarritutako ihardunbide zaharrak. Gizarte berri bat eraiki nahi badugu gero

eta pertsona gehiago bildu behar dugu geure alboan, baita gaur egun hurbilak ere ez diren sektoreak ere.

Ezein manu ideologikorik baztertu gabe, ukorik egiteke, are jarrera irekiagoa eduki behar dugu. Elkarrizketaren aldeko jarrera erakutsi behar dugu beti, era errazean mintzatuz, dogmatismorik gabe eta geure herriaren hizkeraz. Sarritan, guk geuk soilik ulertzeko eran mintzatzen gara (panfletoak, hitzaldiak, asanbladak,...).

Gure sindikatuan sartu ahal izateko muga ideologiko bakarra dagokigun lantokian garatzen dugun ihardunbidearekin bat etortzeak izan behar du soilik. Gure ihardunbidea dela eta hurbiltzen zaizkigun pertsonak, hasiera batetan gure ideologia ezagutzen edo berarekin bat egiten ez badute ere, erabat ados egongo dira azkenean eztabaida zuzpertz, beharrezko azalpenak eman eta guztien partehartze eta ekarpenak kontutan hartuz iharduten baldin badugu.

Bizitza politikoa erabat endakaturik dagoelarik, eskandalu eta ustelkeriek inguraturik, onestasan eta zintzotasun politikoaren eredu izan behar dugu.

#### **4.7.- SINDIKATU INTERNAZIONALISTA**

Herri zapaldu eta hurrupatua garen aldetik, lar ondo dakigu askapenerako burrukak diren zail eta gogorrrak. Honexegatik eusten diogu, etorkizunean hustrakuntzarik gabe, ezberdinak diren baina eskubide berberak dauzkaten pertsonen osaturiko mundua lortzen munduko herri guztiei laguntzeko konpromezu tinkoari.

Erabateko begirunea diegu errealitate ezberdinei, antolakuntz eredu ezberdinei, prozesu bakoitzaren ezaugarri ezberdinei, baina ez diogu uko egiten esperientziak eta eritziak elkartrukatzeari.

Konpromezu internazionalista hau sindikatuarena ezezik, beratu osatzen duten pertsona guzti-guztiena ere bada eta gainontzeko herrien egoera ezagutu eta laguntzeko benetako ahalegina ekarriko du beti.

# 5.- KONPONBIDERAKO PROPOSAMEN ETA JOERAK

## 5.1.- ANTOLAKETARAKO ERIZPIDEAK

Erizpideak zuzenean eta ezinbestez lotuta daude — egon behar dute— lortu nahi ditugun helburuei eta gaur egungo antolaketak dituen gabezia eta hut-suneei. Proposatuta eta erabaki beharreko neurri ze-hatzek bat etorri beharko dute aipatu erizpideekin, nahi dugun erakundearen funtzionamendua ezarri ditugun helburu horiei begira egon dadin. Aurreko zatian egin gogoeta teorikoek bidea erakutsi eta argia eman behar digute: non dagoen beharrena, lortu behar ditugun neurriek zein lotura daukaten elkarren artean, zein izan daitekeen faktore deter-minantea...

Hala bada, honako hauek lirateke neurri zehatzak hartzeko eta erabiltzeko baldintzatzen gaituzten antolaketa mailako erizpide orokorrak:

- Eguneroko dinamika sindikalean, gatazke-tan, negoziazio kolektiboan,... eskuhartze zuzena duten egiturak sendotzea (Ekintza Sindikal eta Ekintza Erreibindikati-borako Egiturak) arazoei erantzun zehatz eta bere-halako bat emateko gaitasuna izan dezaten (beti aholkuaren menpe ez egoteko, autono-mia izateko maila guztietan,...)

- Erakundean berezko eta etengabeko "mi-litante berriztapen"-erako errezetasunik jar-tzea, horretarako antolaketan (batez ere Ekintza Sindikala eta Ekintza Erreibindika-tiborako Egiturretan) maila desberdinak egon beharko dira, segun une bakoitzean militan-tziak zein konpromezu-maila hartzeko prest dagoen. Hori lotuta egongo da erakundeak

bere afiliatu eta militanteei halabeharrez eta ezinbestez desberdinak diren organuetan —batez ere sektorialeetan eta Eskualdeko E.E.rakoan— eskuhartzeko ematen dien EGI AZKO aukerekin.

- Antolaketaren maila eta egitura guztietan eskuhartzea bultzatzea; antolaketa-maila eta egitura bakoitzaren EGI AZKO BURU-ANTO-LAKETA ETA ERANTZULE IZATEAREN bi-tartez bai eta KOORDINAZIOAREN bitartez (maila eta egitura bakoitzean zer egiten den, zer eztabaidatzen ari den, kritika eta autokri-tika zabalik egotea...) lortuko dena.

- Blokearenak diren dinamiketan parte hartu behar duten organuak, bakoitzaren eginbe-harrak zeintzuk diren argitzea eta partehartze hori erraztea.

- Azterketarako, hausnarketarako... ardurak finkatzea eta sendotzea Ekintza Sindikal eta Ekintza Erreibindikati-borako egituretan gure eskuhartze sindikala nabarmenkiro hobe-beharrez (negoiziario kolektiboan, gatazke-tan, gai ekonomiko orokorretan, erakunde sozio-laboraletan,...).

- Organuei, hala ekintza erreibindikati-bo-rako nola sektorialeiei, gure eskuhartzea DI-NAMIZATZEKO ETA BIDERATZEKO, gure susmoak GORPUZTEKO,... ahalbidea eman behar zaie. Hori lortzeko, alde batetik, org-anu horietako kide batzuei zuzeneko esku-hartze iraunkorrerako zenbait eginbehar kendu beharko zaizkie —beste eginkizune-tan aritu ahal daitezten— eta, bestaldetik, organuak osatzerako azertatu (zein ardura

dagokion organu horri eta zeinek bete dezakeen hobekien ardura hori).

- Halako beharrik duena arian-arian idazmakinare erabileran trebatu beharko da, lan mekanikoak kolektibizatuz eta lan pertsonalari eraginkortasuna emanez.

- Ez dago zertan pertsona bakoitzari ardura bakar bat ematerik, bi edo ardura gehiago lepora dakizkioke pertsona berari, beti ere ardura bakoitzak eskatzen duen dinamikari begiratuz eta aurre egiten bazaio. Ez du balio pertsona batek ahal duena baino gutxiago emateak ez eta boluntarismoak ere (pertsona berak dinamika elkargaitzeko ardura desberdinak bete behar izatea). Era berean ez du ere balio, teorian pertsona batek ardura bat bereganatzeak, gero beste bati "eskualdatzeko". Gure xedea da ardurak ondo zehaztuak, iraunkorrak... izatea.

- Ardura berberak organu ugaritan pilatuta egoteari irtenbide eraginkor bat ematea (militante berberak organu gehiegitan, bilera gehiegi militante bakoitzarentzat...), bide pertsonari zein organu bakoitzari autonomia ematea izango delarik: bilera beharrezkoak bakarrik egingo dira, bilerak beharrezkoen ondorio izango dira eta bileretara behar diren pertsonak bakarrik joango dira. Autonomia horren alde bilerak ahalik eta bakanduen egingo dira, koordinatzaileak edo arduradunak beharrik ez badu ikusten bertan behera utziko du bilera alde aurretik...

- Bileren funtzioa ez da gune batetik beste batera eztabaida, informazio eta abarren igarobide hutsa izatea. Pertsona bakoitzak —ardura zehatz batekin— eskeini beharko dio organuari horrek bere eginbeharra aurrera ateratzeko behar duena.

- Militanteok betetzen ditugun ardura zehatzetaz, gure jokamoldeetaz, gure jarreretat... kritika/autokritika sakon eta etengabekorako bideak barnerratu beharko ditugu geure lan-dinamiketan. Funtsean kanpoko gertaerek ezarritako erritmo eta bultzadetan oinarritutako barneko lan-moldeari halako haustura bat ekarriko dion inflexio-puntu bat

bideratzeko gauza izan behar dugu: planifikazioa, ebaluazioa...

- Nahitaezkoa dugu ardura bakoitzaren eginkizunak, lanak, zenbateko lana,... eta, oro har, dinamika gero eta gehiago defizitza eta zehaztea. L.A.B.eko ardura organikoek ez dute nahitaez pertsonaren liberazio osoa eskatu behar, ardurak (gutxi definiturik dardelako edo lan gehiegi suposatzen dutelako) es dira pertsona bakarrean zentratu behar... Horretara jo behar dugu.

- Ardura bakoitzaren kargu eginen den pertsona hautatzean edo izedatzean, gogoan izan behar dugu zenbait oinarritzko erizpideren arteko oreka: euskara; emakumearen aldeko diskriminazio positiboa; bete bejarreko ardura eta norberaren gaitasuna; lehengo lanpostuarekiko, lantegiarekiko... harremanak zaintzea, etab.

Erizpide hauek —eta hauen ondorio zuzena izan daitezkeenak— gidari izango ditugu bi lan eskerga burutzerako: bata, ponentzia honetan eta kongresuan bertan garatzekoa, "organigrama" zehaztea du helburu (arduren zerrrenda hutsa egin eta organu desberdinetan egokitzea, organuen arteko harremana...), eta besteak —ardurak bereganatu dituzten pertsonak eta organuek kongresu ostean garatzekoa— ardura bakoitzari dagozkion betebeharrak zehaztea (betebehar horiek zerrrendatzea, arduren perfila ezartzea...), dinamika eta metodologia ezartzea (bileren aldizkotasuna eta datak zehaztea, prestakuntza...), eginbeharreko lana planifikatzea, helburuak markatzea eta ebaluatzea... izango du betekizun. Errezena "organigrama"ri dagokiona da. Eraginkorrena ordea, kongresu ostekoa.

## **5.2.- ANTOLAKETAREN IKUSPEGI OROKORRA.**

### **5.2.1.-**

#### **ZENBAIT TERMINOREN AURRETIAZKO AZALPENA.**

Egoki deritzogu, hasi aurrez, maiz erabili ohi ditugun, baina ponentzia honetan edukin jakin batez

hornitutako lau terminoren azalpena egiteari:

- Eginkizunak: ardura bakoitzak besarkatzen dituenak.
- Ardurak: militante batek bereganatzen duena/dituenak.
- Organua: funtzio kolektibo bat burutzeko behar diren ardura zehatzen multzoa.
- Funtzioa: organu baten betekizuna.

Militante batek ardura bat edo gehiago beregana ditzake: segun ardura horrentzat zenbat eginkizun zehaztu diren eta segun nolakoa den militantea bera (agertzen duen prestasuna, gaitasuna, jarrera...). "Huskeria" hau praktikan, eskualde, herrialde, sektore... desberdinetako egitura berdinen artean gerta daitekeen desoreka handien oinarrian egoten da, (esate baterako, halako ardurak militante ez liberatu batek betetzeak erakundeak edo sekzio sindikalek liberatu gutxiago behar izatea ekar dezake, bestelako "organigramen" beharra ageri dezake,...).

Ponentzia honetan organuak jorratuko ditugu gehien bat, funtzioetan gehiegi sakondu gabe (gehienak praktikaren bitartez ezagunak ditugu), salbu eta une honetan horren beharrean dauden organuen kasuetan. Arduren edukinetan ere ez gara gehiegi sartuko, ardura bakoitza bereganatuko duen pertsonaren arabera izango bait dira neurri handi batean. Bai ordea, zehaztu behar ditugu, ahalik eta gehien, organu bakoitzean egon behar diren ardurak.

### 5.2.2.-

#### FUNTZIONAMENDURAKO ESKEMA OROKORRA.

Funtzioei begiraturik hiru egitura mota bereiztu ditzakegu geure erakundeetan: funtsean ordezkari-egitura lirartekeenak, eskuhartzeak (negoiazio kolektiboan, gatazketan...) eta azkenik lan-arloak eta aparatua.

Alferrik dugu esatea, burutzen ditugun maila orokorreko ekintzetara, politikoagoak direnak, eta ez berez sindikalak (hauteskune politikoak, sindikalak ez diren borroka eta gatazkei laguntzak...), egitura guztien bitartez egiten ditugula, eta ez dugula, be-

raz, propio horretarako egiturarik sortu behar, eta hau azpimarratzea inportantea da argitzeko ordezkari-egiturak (territoriala deitu ohi duguna) ez diola zor sindikatuz "kanpoko" inongo beharrari (HB, KAS,...), baizik eta geure ekintza sindikala bideratzeko ereduari.

Honakoa litzateke eskema orokorra:

- ESKUHARTZEKO EGITURAK
  - \* EKINTZA SINDIKALA
  - \* EKINTZA INSTITUZIONALA
  - \* EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA
- AZTERKETA ETA HAUSNARKETARAKO EGITURAK
  - \* APARATUAK
    - Antolaketa
    - Komunikazioa
    - Kanpo Harremanak
    - Idazkaritza Tekniko Juridikoa
    - Idazkaritza Tekniko Ekonomikoa
    - Formazioa
    - Euskalduntzea
  - \* LAN-ARLOAK
    - Laneango Osasuna
    - Lanaren Antolaketa Zientifikoa
    - Lanbide Heziketa
    - Emakumea-arloa
    - Gazteria-arloa
    - Minusbaliok
  - \* BARNE ORDEZKARITZAKO EGITURAK
    - \* HERRIKOAK
    - \* ESKUALDEKOAK
    - \* HERRIALDEKOAK
    - \* NAZIONALAK
    - \* BILTZARREA

Lehendabizikoak dira gure eskuhartzea zuzentzeko/dinamizatzeko funtzioa dutenak, horiek dira geure erakundearen benetazko hezurdura, horietan aurkitzen dute zentzua besteen existentzia bera eta dinamika. Horren ondorioz, badaude pertsonak eskuhartze mailako ardurak soilik hartzen dituztenak (adibidez: delegatuak, ekintza sindikalerako taldeak,...), badaude beste batzuk eskuhartze mailako arduretaz gain lan-arloletarako arduraren bat ere dutenak (ekonomilariak, antolaketaz ardura dutenak...). Arduraren bat duen pertsona orok ordezkari-egituretan parte hartu beharko luke

globalizazioa egin ahal izateko (afiliatuen asanbladetan, idazkaritzetan, konferentzietan,...), nahiz eta bakarrik batzuk izan horretara "behartuta" daudenak beren ardura zehatza dela medio.

Bigarrengoak eskuhartzeko egiturei laguntza emateko bitartekoak dira. Ondorioz, batzuk beren lan-arloarekiko bakarrik dute ardura (formazioa, diruzaintza...) beste batzuk eskuhartzekoetan ere ardurak bereganatuta dauzkate (pertsonal juridikoa, ekonomilariak...) eta denek ordezkartzako egituretan parte hartzen dute.

Hirugarrenen esku dago, ordezkartzako berezko funtzioez gain, antolaketa mailan eta orokorrean ere beste guztiak zuzentzea/dinamizatzea (koordinazioa, globalizazioa...). Ondorioz, arduradunak dira hauen osakideak, organuak ezik beste egituretan ardura zehatzak dituzten pertsonak izango dira osakideak.

### **5.3.- ESKUHARTZEKO EGITURAK**

#### **5.3.1.-**

##### **EKINTZA SINDIKALA (ES)**

Langile-erakunde baten berezko egitura da; lan-toki edo/eta enpresa edo zerbitzu publikoari lotuta (Sekzio Sindikala-S.S.), negozioz kolektiboa eta ekintza Sindikala (Batasun Sindikala-BS) eskuhartzerako marko orokorragoei—amankomuneko arazok ezarririk— ere lotuta (Sektore-S eta Azpisektorea-As).

Egitura honek bere funtzionamendu eta ekinbidetarako bestelako Aparatu edo Lan-Arloen beharra izaten du (bere propagandarako komunikazio Aparatuaren beharra; lege arloko ekintzetarako Idazkaritza Tekniko Judikoarena; koordinaziorako Antolaketa aparatua...). Ekintza Errebindikatiborako egiturekin uztartu beharra ere izaten du (eskarmentuak elkar-trukatu eta orokortzeko, norbere enpresa inguratzen testu-ingurua aztertu eta bertan sakontzeko, elkartasunerako, planifikazio kolektiborako...) eta azkenik erakundearen dinamika osatzeko edo borobiltzeko Ordezkatutzako Egituren beharrean dago.

Hori dela eta, Sekzio Sindikalek beren lana planifikatzeko orduan, antolaketa mailan egoten diren beharrak kontutan hartzen dituzte: euren berezko antolaketa-markoan daudenak (S.S., B.S. edo A.s), haiek kokatuta dauden eskualdean daudenak... Beren esistentziaren beraren bideragarritasuna eta etorkizuna, gainerako egituren bideragarritasuna eta etorkizunaren menpe egongo da, ... bestela izatekotan, berdintzateke erakunde horretan egotea, beste edozeinetan egotea edo inongo erakundetik kanpo egotea.

Ekintza Sindikalerako proposatzen den egiturak antolaketa-beharrak sortzen dituen eskuhartze edo ekinbidetarako hiru aspektu aldatu nahi ditu: negozioz kolektibotik eta, oro har, lan-baldintzetatik ondorioztatzen dena (ez da enpresa baten dinamikara ez eta sektore osora mugatzen), enpresa edo zerbitzu publikoaren iharduera (azterketa eta jarraipen ekonomikorako, politika sektorialetarako,...) unean-unean dauden gatazkak (aceriales, siderurgia, untzigintza, makina herramienta...).

Gure lanean kontuan eduki behar dugun beste arazo garrantzitsua multinazionalen gaia da. Hauen garrantziak, gure sare industrialean gero eta sendotuagoak baitgaude, behartzen gaitu beste nazioetan multinazional berarentzat lan egiten duten langileekin harremanak edukitzera. Harreman hauek langileen solidaritaterako aurreapausoa izan behar dute eta elkar ezagutzeko eta askatasuna lortu nahi duten herriei laguntza emateko bidea ere bai.

Herrialdeko Ekintza Errebindikatiboak eta Nazionalak ere Konferentzi Nazionalari bakoitzak bere lan-eremuan ezarri beharreko egituren proposamena egiten diote, azken urteotan metatutako eskarmentua eta gure eskuhartzearen bilakaera praktikoa oinarri dutelarik.

Aurrera baino lehen, egitura horien gainean bi azalpen eman beharrean gaude:

Lehendabizikoa: ez da konfunditu behar makina bat lekutan sakabanatutako lan-tokiak (gerta daiteke, gainera, lan-toki bakoitzean S.S. bana egotea) dituzten enpresa zein zerbitzu publikoetako Sekzio Sindikalak (Osakidetza, RENFE, Correos, B.B.K.) eta Batasun Sindikala edo S.S. horri dagokion sektoreko egitura zeren S.S.S.S. handi horiek duten lan-ere-

mua, arazoak, beharrak eta antolaketa mailako balibideak guztiz bestelakoak bait dira.

Bigarrenkoa: Ekintza Sindikalerako Egiturek beren barnean egitura territorial propioa, organu territorialak, e. a... izan ditzakete baina E.S.-rako Egituren oardurapekoak dira eta ez dute zertan Ordezkaritzako Egiturekin zein Ekintza Erreibindikatibokoe-kin koordinatu behar.

Guzti honekin esan nahi duguna da egitura desberdinak daudela —Ekintza Sindikala delakoaren baitan— eta ez dagoela egoera heterogeneo eta desberdinentzako erantzun eta organigrama uniformerik. Halako errealtateari, halako egoerei egokitu behar gatzaizkie eta haiengandik ahalik eta atarramendu handiena atera eta horretarako malguak izan behar dugu.

### 5.3.1.1. SEKZIO SINDIKALA (S.S.)

• Sorterra: Organu hau sortzen da afiliazioak hala erabakitzen duen lan-toki edota enpresetan (segun enpresak lan-toki bat baino gehiago duen). "Legez" ezagutua izateak ala ez, ez du inongo ondoriorik antolaketa- ren barne egituretan (hala ere, askoz egokiagoa izango da ezagutua izatea eta horrek dakartzan eskubide zein garantietaz baliatu ahalizatea). Enpresak edo zerbitzu publikoak lan-toki bat baino gehiago duenean komeni izango litzateke Enpresa edo Zerbitzu Publiko mailako Sekzio Sindikal bat sortzea eskuhartze sindikalari aurre egin ahalizateko. Bere eremu territorialaren arabera dagoz- kien organu sektorial eta E.E.-rakoekin pro- pio izendatutako pertsona fin-koen bidez ko- ordinatuko da.

• Funtzioak: Patronalarekikoak (jardunaren azterketa eta jarraipena, negoziazio kolekti-boa...) langileekikoak (aholkularitza sindikal berehalakoa, informazio eta eztabaida, elkartasuna, klase eta nazio mailako kon- tzentzia hedatzea eta handitzea, beste bo- rrokei laguntza ematea...) eta erakundeare- kikoak (informazio trukaketa, koordinazioa, barne bizitzan parte hartzea...)

• Barne egitura: pertsona batek edo batzuek erakundearen beste egiturekin (eskualdea,

sektorea) koordinatzeko ardura izango dute. Horretaz gainera, bere barnerako egitura, dinamika eta ardurak ezarriko ditu.

### 5.3.1.2. BATASUN SINDIKALA (B.S.)

• Sorterra: Sekzio Sindikala eta S.S.S.S.-ik ez dagoeneko enpresak (LAB-eko S.S.-ik ez duten lan-toki txiki, erdi-mailako edo han- diak) antolatzeko funtzioa dauka Batasun Sindikalak, beti ere teorian eta praktikan ezarriko den negoziazio kolektiborako marko baten erizpideari men eginez. B.S. bat sortzeko erizpide erabakiorra esparru horretan esku-hartzeko daukagun zinezko gaitasuna izango da (eta ez gara komenio- aren mahai negoziatzailean parte-hartze hutsaz ari, baizik eta pertsonalaren parte- hartze aktiboaz, aspektu erreibindikatibo sektorialetan eskuhartzeko gaitasunaz...). Behin eta berriro diogu, partizipazioa dela bilatzen duguna (erakundea gehiagotzea eta hedatzea alegia) eta ez pertsona jakin batzuk "postuz" edo "arduraz" hornitzea.

Herrialde mailako B.B.S.S. sortzeko Ekintza Erreibindikatiborako Herrialdeko Batzordea (E.E.H.B.) da behar diren azterketak eta proposamenak egin- go dituen nahiz eta Konferentzi Nazionala izan, azken buruan, onartuko duena nazional mailako homogeneitatea eta garapen orekatua helburuz. Herrialdez-gaundiko B.B.S.S.-en kasuan Ekintza Erreibindikatiborako Batzorde Nazionala da (E.E.B.N.) Konferentzi Nazionalari proposamena egiten diona.

Behin B.B.S.S. finkatua egoteak ez du esan nahi egitura estankoa izan behar direnik: badaude ara- zo eta beharrak amankomunekoak dituztelako elkarren koordinazioa bultzatzen dutenak (esate baterako, udal jakin batek erabakitzen badu bere kabuz merkatal ordutegiak luzatzea, zenbait B.B.S.S. eragindua gertatzen dira, hala nola udaleko denda eta erostetxe handiguztiak, beraz, denok koordinatu beharko dira amankomuneko arazoari aurre egite- ko). Funtzionamendu dinamika horrek eramango du, agian, koordinazio horiek iraunkorrak egitera eta, azkenerrako, Azpisektore edo Sektore batean batzera.

Jarraian B.B.S.S. batzuk aipatzen dira (herrialde-

koak, baskongadetakoak eta nazionalak), gehiago izateko aukera inolaz ere mugatu gabe, eta bakoitzarentzat egokien erizten dugun garapen fasea adierazten delarik (1. fasea, beheralako, izatez ere

martxan dago dagoeneko edo aukera handiak ditu, 2. fasea, epe erdirakoa, bere garapena lantzen hastekoa; "-" marratxoa egoteak, dagokien eremu territoriallean Batasun Sindikalik ez dagoela adierazten du):

	A	B	G	N	V	N
Arrain-Kontserbagintza	-	1	1	-	-	-
Arte Grafikoak	1	1	1	1	-	-
Aseguru-etxeak	-	-	-	-	-	2
Aurrezki-kutxak	-	-	-	-	-	1
Banketxeak	-	-	-	-	-	1
Bulego eta Despatxuak	2	2	2	2	-	-
Erosten handiak	-	-	-	-	-	1
Garbigintza	2	2	2	2	-	-
Hiri-garraioak	-	-	-	-	-	2
Ikastolak	-	-	-	1	1	-
Irakaskuntza Pribatu	-	-	-	2	2	-
Irakaskuntza Publikoa	-	-	-	-	-	1
Kimika-arloa	-	-	-	-	-	2
Komunikabideak	2	2	2	2	-	-
Merkataritza	2	1	2	2	-	-
Osasungintza Pribatua	1	1	1	1	-	-
Ostalaritza	2	2	2	2	-	-
Papergintza	-	-	-	-	-	1
Siderometalurgia	1	1	1	1	-	-
Toki Adm. eta F.	-	-	-	1	1	-
Unibertsitatea	-	-	-	1	1	-
...	.	.	.	.	.	.

• Funtzioak: orain artean adierazitakoak ez du esan nahi —inolaz ere ez— Batasun Sindikalen jarduna negoziazio kolektibora mugatzen denik, bai ordea negoziazio kolektiborako dagoen marko bera erizpidetzat hartua izatea egokia iruditzen zaigula egitura hauek antolatze orduan. Batasun Sindikaletik, egitura horrek besarkatzen dituen esparru eta gai (kontratazioa, lan baldintzak, lan-etetea, egoera ekonomikoak...) guztietako eskuhartze sindikala zuzentzen da.

• B.S.-aren oinarrizko egitura: eskema honen bidez ildo edo orientabide orokorrak baino ez dira ematen kasuan-kasurako ego-

kitu beharko direnak, oso bestelakoak izango bait dira metal arloko B.S. edo merkataritza edota bulego eta despatxuetakoa.

\* Debatuen asanblada:

- B.S.-K barruan hartzen dituen L.A.B.-eko delegatu guztiak batetik, eta bestetik ordezkariarik ez dugun enpresetako zein inolako ordezkariarik ez duten enpresetako (sei langile baino gutxiagoko enpresak) ordezkariak —koordinatu ditzakegunak— biltzen dira organu horretan.

- B.S.-k bere jardunbiderako eraba-

kitzen dituen organuetako kideak zein ardurak onartzen ditu.

\* Enpresa zein lan-tokietako koordinadora:

- Enpresa edo lan-toki bakoitzeko (lan-toki bat baino gehiago duten enpresen kasuan) ordezkariak osatzen dute organu hau. B.S. bakoitzean erabakiko da organu horren beharra, zenbait kasutan Delegatuen Asanbladak edo Batzorde Iraunkorrek berak bete bait dezakete honen egitekoa.

- Eskuhartzea zuzentzeko/dinamizatzeko eta gainerako egiturekin koordinatzeko ardura izango duten pertsonak izendatzen ditu.

\* Batzorde Iraunkorra:

- Asanbladak aukeratutako pertsonak osatzen dute modu iraunkorrez organu hau.

- B.S.-ren barruko zereginetarako eta Ekintza Sindikalerako gainontzeko egiturekin koordinatzeko pertsona bat edo batzuk izendatzen ditu. Idazkaritza Tekniko Juridikoak zein Ekonomikoak B.S.-ri behar duen laguntza teknikoak emango dioten pertsonak izendatuko dituzte.

### 5.3.1.3.- AZPISEKTOREAK (AS).

• Sorrera: Azpisektoreak B.B.S.S. antolatzen

#### AZPISEKTOREAK

Administrazio Autonomoak

Administrazio Zentrala

Arrain-kontserbagintza

Bulego eta Despatxuak

Ikastolak

Irakaskuntza Pribatua

Kooperatibak

Merkatalgoa

S.A.L.

Toki eta Foru Administrazioa

Unibertsitatea

ditu jardunaren jardunez hala erabakitzen denean eta ez "organigramaren logika edo beharrari" erantzunez. Erizpide orokorragoei jarraituz (B.B.S.S.-en aspektu amankomuneko eta bereiziak, beste B.S. etan kabitzen ez diren eskuhartze koherenteak eraman ahal izateko...) gure eskuhartzea ezinbestekoa den arazoetan era kolektibo eta antolatu batez erantzun ahal izango dugu. S.S.S.S. etan aurrera eraman behar den lan sindikalaren bigarren mailako koordinazio-gunea da (lehen BB. SS., bigarrena AA.ss.) eta egon badagoen hirugarren mailako koordinaziorako tarteko izango da (Sektorea). Azpisektoreak erabaki eta finkatzerako orduan gure gaitasun sindikala, gure presentzia, azpisektorearen interesa... kontutan hartzekoak dira.

Azpisektoreak sortzeari dagokionez, Ekintza Errebindikatiborako Batzorde Nazionalak behar diren azterketa eta proposamenak egiten ditu eta Batasun Nazionalak hartuko du erabakia.

Azpisektoreak finkatuta egoteak ez dakar berez organu estankoa izan behar direnik: haietako batzuen amankomuneko arazo edo beharrak direla medio koordinazioa beharrezkoa izango da eta zenbaitetan hirugarren maila (sektorea) sortzea eta finkatzea ere ekarriko du.

Jarraian AA.ss batzuk aipatzen dira, gehiago izateko aukera inolaz ere mugatu gabe eta bakoitzarentzat egokien erizten dugun garapen fasea adierazten delarik (1. fasea, berehalakoa, izatez ere martxan dago dagoeneko edo aukera handiak ditu, 2. fasea, epe erdirakoa, bere garapena lortzen hastekoa).

#### ... FASEA

1

1

2

2

1

2

2

2

2

1

1

- Funtzioak: Batasun Sindikal batean baino gehiagotan eragina duten arazo amankomun eta iraunkorrak direla eta horien gaineko azterketa eta eskuhartze sindikal iraunkorrrak bideratzea da funtsezko funtzioa.

- Azpisektorearen egitura: Batzorde Iraunkor bat eta gainera Azpisektorearen ardura hartzen duen pertsona bat izango ditu. Gainerako amankomuneko egiturak edo antolaketadynamikak osakide dituen Batasun Sindikalen araberakoa izango da.

#### 5.3.1.4. SEKTOREA (S)

- Sorrera: Sektoreak SS.SS. eta AA.ss. antolatzten ditu erizpide are orokorragoei jarraituz (jarduera ekonomikoa, aspektu amankomuneko erabakiorrak eta bereziak...) eta horren bidez gure eskuhartzea beharrezkoa den arazo orokorreari erantzuna eman ahal izango diegu. SS.SS.-en barruan egin beharreko lan sindikalaren hirugarren koordinazio maila izango da (lehena BB.SS., bigarrena AA.ss. eta hirugarrena Sektorea) eta bera egotea ala ez azpian hartzen dituen edo har-

#### SEKTOREAK

Administrazio Publikoak  
 Arrantza  
 Ekonomia Soziala  
 Entitate Finantzieroak  
 Irakaskuntza  
 Metal Arloa  
 Osasungintza  
 ...

- Funtzioak: Sekzio Sindikal handitan, Batasun Sindikal eta Azpisektore batean baino gehiagotan eragina duten arazo amankomun eta iraunkorrak direla eta horien gaineko azterketa eta eskuhartze sindikal orokorrrak bideratzea da funtsezko funtzioa.

tu beharko lituzkeenak behar bezala sortuak eta finkatuak egotearen araberakoa izango da. Sektoreak erabaki eta finkatzerako orduan gure gaitasun sindikala, gure presentzia, sektorearen interesa,... kontutan hartze-koak dira.

Sektoreak sortzeari dagokionez, Ekintza Erreindikatiborako Batzorde Nazionalak behar duen azterketa eta proposamenak egiten ditu eta Konferentzi Nazionalak hartuko du erabakia.

Sektoreak finkatuta egoteak ez dakar berez, organu estatikoak izan behar direnik: haietako batzuen amankomuneko arazo eta beharrak direla medio koordinazioa beharrezkoa izango da eta sektore guztien "elkar-gunea" den Ekintza Erreindikatiborako Batzorde Nazionala sortzea eta finkatzea derrigortuko du.

Jarraian Sektore batzuk aipatzen dira, gehiago izateko aukera inolaz ere mugatu gabe eta bakoitzarentzat egokien erizten dugun garapen fasea adierazten delarik (1. fasea, berehalakoa, izatez ere martxan dago dagoeneko edo aukera handiak ditu; 2. fasea, epe erdirakoa, bere garapena lantzen hastekoa)

#### FASEA

1  
 1  
 2  
 2  
 1  
 2  
 1  
 ...

- Sektorearen egitura: Batzorde iraunkor bat eta gainera sektorearen ardura hartzen duen pertsona bat izango ditu. Gainerako amankomuneko egiturak edo antolaketadynamikak osakide dituen Azpisektorearen arabekoa izango da.

### 5.3.1.5.- GATAZKAK

Gatazka "iraunkor"-etaz ari gara, Ekintza Erreibindikatiborako beste Egituretatik heldu ezin direnak (esate baterako, papergintzako enpresen kasuan alor bereko Batasun Sindikalak heldu diezaieke; Metal arloko Sektoreak, berriz, ezin izango ditu eguneroko arazoak behar den zehaztasun, orokortasun, iraupen eta eraginkortasunez landu).

Gatazka mota bi daude honelako egiturak beharrezkoak egiten dituztenak: hainbat enpresatan eragina duten arazo zehatzak batetik, eta bere eragina enpresa bakar batean eduki arren, erakundearentzat garrantzia handikoak izan daitezkeen elementu eta ezaugarriak dituzten arazo zehatzak bestetik.

Ekintza Erreibindikatiborako Herrialdeko Batzordea eta Batzorde Nazionala izango dira horrelako egiturak zehazteko eta sortzeko erabakia hartuko dutenak. Erabaki horiek hartzeko, bai eragindako sekzio sindikaletan (hauek ez badute erabakirik hartzen, aipatzen ari garen egitura bideraezina izango da) bai eta Eskualdeko E.E.-rako egituretan (zein mailatan —herrialdekoan edo nazionalen— eta zeinek heldu beharko dion arazoari zehaztu asmoz) egindako azterketak eta antzemandako beharrak oinarritzat hartuko dira.

Marko hauek ez dira egitura organikoan agertzen baina hala ere dagozkien E.E.-rako egiturekin modu iraunkor eta erregular batez koordinatuta daude (eskualdean E.B.-rako Eskualdeko Arduradunarekin, herrialdean, E.E.-rako Herrialdeko Arduradunarekin eta, nazionalen, Gatazketarako Arduradun Nazionalarekin).

Une honetan honakoak dira koordinatuta edo garabidean dauden nazional mailako gatazkak: Acenor, Aduanak, Makina Herramienta, Untzigintza eta Siderurgia. Herrialde mailan ere erabaki eta zehaztu beharko dira zeintzuk izango diren Herrialdeko E.E.-ren zein herrialdeko egituren ardurapean geratu behar diren gatazkak. Era berean eskualde mailan.

Inportantea da adieraztea ardura horiek banatzeko eta zehazteko erizpidea gatazkaren beraren ezaugarriek markatuko dutela eta ez egituren edo eskualdeko zein herrialdeko arduradunen ez-askitasunak (edo buru-askitasunak). Euskal langileriaren baitan L.A.B.-ek jokatu beharreko papera beste-

lako da gainerako sindikatuekin alderatuz gero, gatazka horietako bakoitzean eraginduta dauden langileen partaidetza aktiboa L.A.B.-entzat funtsezko elementu estrategikoa eta bere jardun-moldearen bereizgarria da: E.E.-rako egitura eta arduradunek ez dute inoiz eragindutako pertsonen ekintza sindikala ordezkatzeko, osterantzean, gatazkan dauden sekzio sindikalen, delegatuen, afiliatuen eta oro har, langileen ekintza sindikala bultzatzea edo erraztea izango dute helburu. Honek, begibistan denez, ez du abiapunturik ("atzo" danik behar luke horrela) ez jomugarik (hilabete, urte... edo mende oso baten epea), lan-eredu bat da, dinamika bat, militantzia estilo bat, gure lan egiteko modu berezia etab... beste aspektu batzuekin batera, gure ekintza sindikalaren izaera osatzen dutenak.

### 5.3.2.-

#### EKINTZA INSTITUZIONALA

Egitura honetan esparru territorial bakoitzean lanarekin zerikusirik duten erakunde-sarean daukagun eskuhartzearen ondorioz sortzen diren ardurak hartzen dira: udaletxeak, eskualdeko enplegu batzordeak, herrialde mailako balizko organuak (hauteskunde sindikaletarako batzordeak, INEM, FOGASEA, Diputazioak...) Lan Harremanetarako Kontseilua, Kontseilu Ekonomiko Soziala, OSALAN, Drogomenpekotasunerako Kontseilu Aholkularia.

Ardura horiek hartzen dituzten pertsonak ez dute nahi eta nahiez dagoen organuan erabiltzen den gaian "teknikoa" izan behar. Ezagupen bereziak behar diren kasuetarako, arduradunak ezagupen horiek dituen pertsonaren laguntza edota presentzia bilatuko du.

Egitura honen ardura guztiak Ekintza Erreibindikatiborako egituretan ere baneratuta daude: lan-erakundeetan izango dugun eskuhartzea bideratzeko behar diren eskarmentu, planteamentu, eztabaida, erabaki, azterketa... guztiak bertan "elkartzen" dira. Ordezkaritzako egituretan ere baneratuta egon ohi dira, normalean erabiltzen diren gaiak gainditzen bait dute Ekintza Erreibindikatiborakoaren esparrua eta erakunde osoari bait dagozkio.

Egitura honen antolaketa-beharrak (ardura hori hartuko duten pertsonak, dedikazioa, bilerak, egituraren barruko organu propioak...) Ekintza Erreibindikatiborakoaren garapenaren beraren menpe eta

kanpotik datozkigun baldintzen menpe —erakunde sozio-laboral horietan parte-hartzeko duten politikaren arabera-egongo dira. Hau da, ez dugu egitura hau garatuko harik eta E.E.-rako egiturak garatuak egon arte, harik eta erakunde horiek gure eskuhartzerako gutxieneko batzuk betetzen dituzten arte (geu horien osakideak izateko eskubidea, horretan eskuhartzea gure strategi erreibindikati-boaren barruan dago eta ez da paraleloa edo marginala...).

Guzti horregatik, gutxieneko garapen lege, abiapuntu gisa, honako ardurak aipatzen dira:

- Ekintza Instituzionalerako Eskualdeko Ardura. E.E.-rako eskualdeko arduradunak bereganatuko duena.
- Ekintza Instituzionalerako Herrialdeko Ardura. E.E.-rako herrialdeko arduradunak bereganatuko duena.
- Ekintza Instituzionalerako Ardura Nazionala.

### 5.3.3.-

#### **EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA.**

Egitura honetan Ekintza Sindikala, Ekintza Instituzionala, Aparatuak eta Lan-Antolaketarako egiturak koordinatzen dira. Helburua ez da "organuak" koordinatzea (eztabaida eta erabakiak batetik bestera igortzea) baizik eta ardura pertsonalak koordinatzea (erizpide eta zalantzak amankomunean jartzea, gai kolektiboak eztabaidan jartzea, organu bakoitzaren kideen lana planifikatzea, bereganatzea,...)

Egitura hauek erakundeko dinamikoak dira, horietan biltzen bait da gure eskuhartze sozio-politikoaren funtsa (sekzio sindikalen bitartez enpresa eta lan-tokietan egiten dugunaz gain lan-erakundeetan egiten duguna). Ardura konkretu eta pertsonalek, Ekintza ErreibindikatiBORAKO organuek ondo funtzionatzen duten neurrian, gainerako egiturek oreka lortuko dute erakunde zein ideologia mailan: praxiaren azterketa, hausnarketa, heldutasuna lortzea,... kolektiboki egiteko gai ez garenean, orduan ibiliko gara nora-ezean.

Egitura hauen antolaketa mailako garapenerako funtsezko eta erabakiorra izango da behar diren eginkizun eta ardurak era zehatz eta egiazko batez

ezartzea: ardura bati "izen" bat egokitzen bazaio eta horrek ez badu betetzen, beste pertsona batek bete beharko du hutsunea: horren ondorioz ardurak eskualdatzen dira, "premia hori" bete asmoz beste ardura batzuk betetzeke geratzen dira,...

Ekintza ErreibindikatiBORAKO organuen (Tokiko Batzordea, Eskualdeko Batzordea, Herrialdeko Batzordea eta Batzorde Nazionala) eginkizuna izango da interbentzio guneetako (sekzio sindikalak, sektoreak,...) praktika sindikala eta gune horietako bakoitzaren baitako eta bakoitzaren besteenganako/ besteengandiko kritika/autokritikaren arteko etengabeko kontrastea lortzeko beharko diren mekanismo eta antolaketa mailako neurriak sustatzea. Gure helburua ez da interbentzio uniforme bat edo interbentzio gune bakoitzak behar duen autonomia murriztea, baina guri dagokigun papera jokatu ahal izateko ezinbestekoak dira, batetik, homogeneizazioa eta LAB bezala identifikatzen gaituzten adierazle guztiak bultzatzea eta, bestetik, kolektibo gisa dugun identitatea deuseztatzen edo desitxuratzen duen guztiari kontra egitea.

#### 5.3.3.1.- ESKUALDEKO EKINTZA ERREIBINDIKATIBOA (E.E.E.)

Eskualdeko Ekintza ErreibindikatiBORAKO egitura oinarrikoa da, eskualde mailan ez ezik, erakunde osoaren mailako funtzionamendurako. Bera egotea, bere gaitasuna, bere dinamismoa... erabakiorra izango da beste egiturek behar bezala eta era eraginkorrean funtziona dezaten, hala nola Herrialdeko Ekintza ErreibindikatiBOA (EEEren ezean, HEE-k bete beharko du hutsune hori berez dagozkion ardurak alde batera utziz) edo Idazkaritza Tekniko Juridiko zein Ekonomikoa (EEE-rako egiturarik ez badago, aipatu idazkaritzakerantzun inmediatearen menpe egongo dira eta beraz, ezin izango diete beste eginbarrei behar bezain arduratsu erantzun; hortik hasita okerreko dinamika batetan sartzen da, zentzuzko oso zaila izango dena, azkenerako ondorioak eskualde mailak nabaritutako direlarik).

Eskualdeak oso desberdinak izanik, egiturak, osaketak... oso desberdinak izango dira batetik bestera, hala ere E.E.rako oinarriko ardurak beti ere beteta egongo dira. Horri jarraituz, "eskualdea" bera organikoki egotea edo ez egotea, E.E.-rako eskualdeko egiturak benetan diharduen, benetan dinamika bat daramanaren arabera izango da.

• Maila honetako ardura zehatzak:

\* E.E.E.-rako arduraduna: Pertsona horrek arian-arian aholkularitza sindikal inmediateko beste eginbehar bereizi eta iraunkorrak utzi beharko ditu, eskualdeko ekintza sindikalaren koordinatzaile, aztertzaile... izatera iristeko. Pertsona horrek, aldi berean, Elrako eta Antolaketaren ardurak bereganatzen ditu.

\* Talde zehaztu eta finko bat langileei zein SS.SS.ei aholku zuzen eta berehalako bat emateko. Sindikal borroka-zelaian "bigarren trintxera" izango litzateke; gatazka (norbanakoarena zein kolektiboa) enpresa edo lan-toki eremura itzultzen saiatuko da, kanpo-istantzietara (gizarte-epaitegira, ikuskaritzara) "exportatua" izan ez dadin, sindikatuko beste egituren eskuhartzea (Herrialdeko E.E.) ekidin asmoz.

• Herriko/Eskualdeko Delegatuen Asanblada (HDA/EDA).

\* Sorrera: Herri edo eskualde mailako Ekintza Erreibindikatorako egituretako organuak dira. Ez dute Afiliatuen Asanblada ordezkatzen.

\* Funtzioak: Lan-tokietako egoera elkarri jakinaraztea, Ekintza Erreibindikatorako taldeak antzemandako benetazko beharrei erantzuteko formazioaz (suzmoak, irudipenak... alde batera utzita), eztabaidetaz, nolabaiteko garrantzia duten ekintza edo borrokei languntza emateaz arduratuko da.

\* Egitura: beren B.S., A.s edo S. gorabehera, herrian, eskualdean bizi edo lan egiten duten Delegatu, Komite nahiz Personal Batzordetako kide guztiak egongo dira. Bere eritzia edo aldikotasunak ez du, inondik ere, lan-tokietako ekintza sindikala oztopatuko edo galeraziko: helburua ekintza sindikala hobetzea da, ez ordezkatzea edo deusestatzea. EEHB-k zein EEEB-k izango dute horien ardura.

• E.E.rako Herri-Batzordea (EEHB)

\* Sorrera: eskualdez azpiko lurraldeetarako egokitasunezko erizpidearekin sortzen den organua da. Lurralde jakin horretako militante talde batek osatuta dago.

\* Funtzioak: lurralde jakin horretarako EEEB-k dituen funtzioak berak izango ditu.

\* Egitura: bertako (nahiz bizi nahiz lan egin) zenbait pertsonak osatutako talde finkoa eta EEE/ES-rekin koordinatzeko ardura hartzen duen pertsona bat.

• E.E.rako Eskualdeko Batzordea (EEEB)

\* Sorrera: EE-rako eskualdeko organu bat egotea, eskualde horretako lan-dinamikaren arabera izango da. Batzorde hau E.S.ren barruan egotera jo behar dugu, eta E.E.E.B. sortuko da bakar bakarrik E.S.k bereganatu ezin duenean. Haugerta daiteke E.E.rako eginkizunetaz arduratuta pertsona-kopuru nabarmen bat dagoen eskualde batetan, horiek sortutako lan-dinamikak, E.S.eko ahalmen osoa eramango luke eta ondorioz alde batera geratuko lirake E.S.eko beste eginkizun beharrezko (eztabaida politiko-sindikalak, antolaketa mailako eginkizunak...) Ondorio onak ekarri dizkigun konponbide bat "ES hedatua" deitutakoa izan da.

\* Funtzioak: langileei eta bereziki afiliatuei aholku sindikal berehalakoa ematea, S.S.-ek egin ez duenean edo nahikoa izan ez denean, eskualdeko negoziazio kolektiboari eta gatazkei jarraipena egitea; eskualdeko egitura ekonomikoaren zein lan-merkatuaren gainean azterketak egitea.

\* Egitura: EE-rako eta EI-rako Eskualdeko Arduradunek, propio horretan diharduen militante talde batek (EEHB barne), SS.SS.-etako eta lan-tokietako Delegatuek eta eskualdeko I.T. Juridikoaren Ar-

duradunak osatua.

### 5.3.3.2.- HERRIALDEKO EKINTZA ERREIBINDIKATI-BOA (H.E.E.)

Maila honetan, non EE-rako egitura konplexuagoa den ezinbestez, bakoitzak bere ardurara behar bezala garatzeak edo ez garatzeak, bestetan ez daukan ondorioak izan ditzake: koordinazio soilak ez du hemen baliorik, egitura honetako ardurek globalizazio maila handi bat eskatzen bait dute, ze pertsona bakoitzak ezagutzen dituen kasu bakoitzetik ateratako informazioa, egindako eztabaida, agertutako zalantza eta beharrak... arazo konkretua gainditzeko bait du, haruntzago bait doa (arazo konkretua ardurara bakoitzak "beregantatu" behar du), arazo orokorrei erantzun kolektiboak eman asmoz. Soberan daude bapatekotasuna edo "barren-hustea".

Inportantea da, beraz, maila honetako ardurara zehatzak, eskuhartze edo erantzun inmediateoaren menpe edo baldintzapean ez egotea (komenio konkretuen negoziaketa, norbanako zein enpresako gatazkak eramatea...); horren beharra sortu ohi da eskualdeko E.E.-rako talderik ez dagoenean, pertsona bati egokitutako ardurara bat behar bezala zehaztu edo definitu gabe dagoenean,...; baita ere sortu ohi da eskualdeko E.E.-rako arduradunek sekzio sindikalaren zein eskualdeko E.E.-rako izendatutako taldearen eginkizunak bereganatzen dituztenean, eta argi asko esan behar da eskualdeko E.E.-rako taldea ondo funtzionatzea eskualdeko E.E.-rako arduradunaren "lan on eta zuhurraren" araberakoa izango dela.

Ez da dudarik, herrialdeko EE behar bezala funtzionatuko bada, eskualde mailako EE-k lehengo atalean adierazitako moldeari jarraituz funtzionatu beharko du. Gure eskuhartze sindikala kualitatiboki sakondu nahi badugu, euskal langileriarengan eragina izateko gure gaitasuna areagotu nahi badugu aipatzen ari garen joera edo joka-moldea sendotzera jo behar dugu ahalagin guztiarekin.

• Maila honetako ardurara zehatzak:

\* Ekintza ErreibindikatiBORAKO eta Instituzionalarako Herrialdeko Arduraduna.

\* Negoziazio KolektibORAKO Herrialdeko Arduraduna.

• Delegatuen Herrialdeko Asanblada (D.H.A.)

\* Sorrera: herrialdeko E.E.-rako organuak.

\* Funtzioak: lan-tokietako egoera elkarri jakinaraztea, borroka eta gatazken koordinazioa, E.E.-kantzemandako formazioa (susmoak, irudipenak,... alde batera utzita, nolabaiteko garrantzia duten borroka edo ekintzei laguntza ematea,...)

\* Egitura: herrialdean bizi edo lan egiten duten Delegatuek, eta Komite zein Pertsonal Batzordeetako kide guztiek osatzen dute bai eta bere baitako B.S.-k A.s.ak edo S.-ak ere.

• Ekintza ErreibindikatiBORAKO Herrialdeko Batzordea (E.E.H.M.). Ondorengo hauek bertako kideak dira:

\* EE/EI rako Herrialdeko Arduraduna.

\* Negoziazio KolektibORAKO Herrialdeko Arduraduna.

\* E.E.-rako Eskualdeko Arduradunak

\* Herrialde mailako BB.SS. eta AA.ss.-etako Arduradunak.

\* Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Herrialdeko Arduraduna.

\* Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Herrialdeko Arduraduna.

\* Emakumea-arlorako Herrialdeko Arduraduna.

\* Laneango Osasunerako Herrialdeko Arduraduna.

### 5.3.3.3.- EKINTZA ERREIBINDIKATIBORAKO NAZIONALA (E.E.N.)

Egitura hau, kontrakoa eman dezakeen arren, ez da "inportanteena", nahiz eta bera izan komunikabideetan sarrien agertzen dena, nahiz eta besteoi etengabe eztabaida edo idazkiak igorri. Gainerako egiturek, bakoitzak berean, behar den oreka eta dinamika ez badute lortzen hutsala eta alferrikakoa izango da, burokratiko eta oztopatzailea izango da.

Maila honetako dinamika zuzen baterako giltza pertsona zein organuen lan-metodologian datza: eginkizunak zehaztea, planifikazioa eta ebaluaketa, hel-

buruak zehaztea, prestakuntza... Ez da arazo edo edukin falta egitura hau ez-eraginkorra egiten duena bai ordea bapatekotasuna, eztabaiden helburueza, erantzun inmediatea eta ez-aurreikusia, ez planifikatzea, burubidean edo burututa dauden eginkizunak nola bete diren/betetzen ari diren ez ebaluatzea, ... Horrek bai eragin dezakeela beste mailetan ezartzen diren dimanikek, erakundearen eskuhartze sindikalerako bahar den eraginkortasuna, egiazkotasuna, garrantzia, ... ez lortzea.

• Maila honetako ardura zehatzak:

- \* E.E.-rako Arduradun Nazionala
- \* Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala
- \* Gatazketarako Arduradun Nazionala
- \* Zerbitzu Publikoetarako

• Delegatuen Asanblada Nazionala (D.A.N.)

- \* Sorrera: E.E. nazionalaren egiturako organu bat da.
- \* Funtzioak: borrokarako garrantzia bereziko uneak, egoera politiko-sindikalarantz bereziko uneak...
- \* Egitura: delegatu guztiek osatua (Komite zein Pertsonal Batzordeetako kideak, Delegatu Sindikalak...)

• Ekintza Erreibindikatiborako Batzorde Nazionala: Ekintza Erreibindikatiborako Batzorde Nazionala (EEBN) izango da Nazional mailan Sindikatuaren E.E.ri dagokion guztia eztabaidatzeko organua eta bere kompetentzia diren gai guztiei buruzko lan eta proposamenak egingo dituztenak, ondoren sindikatuko estrokturetan eta Idazkaritza Nazionalan aurkeztuz onartua izan dadin. E.E.ko benetako motore izan behar du eta, bere konposaketaren ondorioz, aurkezten den arazo bakoitzari erantzuna emateko gai, marko honi koordinaziorako lan hutsa emateko deformazioan erori gabe.

- \* Ekintza Erreibindikatiborako Arduradun Nazionala
- \* Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala
- \* Gatazketarako Arduradun Nazionala
- \* Administrazio Publikorako Arduradun Nazionala

\* Nazional mailako BB.SS.-en Arduradunak

\* Nazional mailako Azpisektoreen arduradunak

\* Herrialdeko EE/EI-rako Arduradunak

\* Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala

\* Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Arduradun Nazionala

\* Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Arduradun Nazionala

\* Laneango Osasunerako

Aholkularitzaren Arduradun Nazionala

\* Lanaren Antolaketa Zientifikorako (L.A.Z.) Aholkularitzaren Arduradun Nazionala

\* Emakumea-arlorako Arduradun Nazionala

\* Lanbide Heziketarako Arduradun Nazionala

\* Gazteria-arlorako Arduradun Nazionala

• Ekintza Erreibindikatiborako Iraunkor Nazionala

\* Ekintza Erreibindikatiborako Arduradun Nazionala

\* Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala

\* Gatazketarako Arduradun Nazionala

\* Zerbitzu Publikoetarako Arduradun Nazionala

\* Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala

\* I.T. Juridikoaren Arduradun Nazionala

\* I.T. Ekonomikoaren Arduradun Nazionala

## 5.4.- HAUSNARKETA ETA ANALISIRAKO ARLOAK

### 5.4.1.-

#### APARATUAK

##### 5.4.1.1.- ANTOLAKETA

Honen menpeko ardurek, dagokion mailan eta lekuan, gainerako arduren eta organuen koordinazio

orokorretik sortutako funtzioak aurrera eraman beharko ditu (informazioa batetik bestera igorri, izendapenak egin, organuak eratu, antolaketa beharrianen jarraipena egin,...), azpiegiturak eta bitartekoak zehaztu beharko ditu, afiliazioaren segimendua egin beharko du, egoitzen jarduera aztertuko du, ...

Orain arteko diruzaintza aparatua hemendik aurrera Antolaketa sailera pasako da -"staff", ekipo edo lan batzorde gisa, Antolaketa menpean-, kontu ekonomikoak (sarrerak/gastuak), gure ustez, premia organizatiboen ondorio zuzena direlako.

Beraz, Antolaketa sailak, gure erakundearen geroko desarroilorako helburu inportantetzat hartuko du gestio administratibo/kontablearen zentralizazioa sendotzea, baliakizunak ikuspegi nazionaletik bideratzea (arrazionalizazioa, lehenetasunak...), eta gestio hori baliabide berriak lortzek obide izanen diren leku berrietara projektatzea. Ildo honetan, Antolaketa sailaren ardura berezia izanen da kontabilitatearen eta gestioaren zentralizazioa egitea, erantzukizun edo ardura bakoitzak, organo eta egitura bakoitzak bere premiak betetzeko, erabakitzen diren gastu lehenetasunen marko barnean.

#### 5.4.1.1.1.- Eskualdea

- Maila honetako ardura zehatzak:

\* Antolaketarako Eskualdeko Arduraduna: Eskualdeko EE-ren eta EI-ren ardura duen pertsona bera izango da. EI, HII, HI, eta EEHB-ren kide izango da.

\* Finantzarako Eskualdeko Ardura: eskualde bakoitzean -eta Eskualdeko Antolaketa saileko "staff" gisa-, ardura honen bere gain hartuko ditu Gestio (oraino zentralizatu gabeko gastuen jarraipena, kuoten fakturazioaren jarraipena,...) eta Proiektu (finantzaketa ekonomikorako proiektuei begira) ardura nazionaletik zehazturiko eginkizunak eta lanak. Ardura hau bere gain hartuko duena Eskualdeko Idazkaritzakoa izanen da.

#### 5.4.1.1.2.- Herrialdea

- Maila honetako ardura zehatzak:

\* Barne Antolaketarako Herrialdeko Arduraduna: Herrialde mailan egingo du lan. HII eta HI-ren kide izango da.

\* Herrialdeko Egoitza Arduraduna: Gellen erabilera koordinatuko du, horien egoeraz eta beharrianak betetzeaz arduratuko da, eskutitzak eta mandatua banatuko ditu, telefonoaren eta atearen kargu izango du, mekanografi lanetan lagunduko du, HI-ren kide izango da.

\* Herrialdeko Informatika Arduraduna: Dazkagun baliabide informatikoen erabilera eta instalazioaz arduratuko da, plangintzak zehaztuko ditu, jarraipena egingo du, arazoak konpontzen saiatuko da. Barne Antolaketarako Herrialdeko Arduradunaren "staff" izango da bai eta HI-ren kide ere.

\* Finantzarako Herrialdeko Ardura: hau ere Herrialdeko Antolaketako "staff" gisa eratuko da eta bere gain hartuko ditu eskualde eremurako adierazi direnak. Gainera, bere gain izanen ditu zentralizazioaren desarroiloko etapa transitorioan aurkitzen diren gestio kontuak (sarrera/gastuak, kuoten fakturazioa,...). Azpimarratu nahi da ponentziako 4.2.1. planteaturiko filosofia, jakin badakigula halaber ardura honen eginkizunetan eta lanetan ematen den probisionaltasuna, zeren ardura hau desagertu ere egin baitaiteke zentralizazio prozesuan, finantzaketa inizatibak martxan jartzen direnean edota diruzaintza Antolaketa saileko bezala desarroilatzen denean. Ardura honen kargu egiten den pertsona Herrialdeko Idazkaritza izanen da.

• Antolaketarako Herrialdeko Batzordea: HII-ri edo HI-ri dagozkien arazo, plangintza, jarraipen, e.a.-i aurre egin beharko die. Ez da maiztasun jakinez bilduko. Honako hauek izango ditu kide:

\* Barne Antolaketarako Herrialdeko Arduraduna

\* Antolaketarako Eskualdeko Arduradunak

#### 5.4.1.1.3.- Nazionala

• Maila honetako ardura zehatzak:

\* Barne Antolaketarako Arduradun Nazionala: IN-ren eta INI-ren kide izango da.

\* Informatika Arduradun Nazionala: Teknikari bezala dauzkagun baliabide informatikoen erabilera eta instalazioaz arduratuko da, plangintzak zehaztuko ditu, jarraipena egingo du, arazoak konpontzen saiaturiko da. Barne Antolaketarako Arduradun Nazionalaren "staff" izango da, bai eta dagokion HI-ren kide ere.

\* Gestiorako Ardura Nazionala: honen lanak dira kontabilitatea (sarrera/gastuak, kuoten fakturazioa, pertsonala,...), ondatzea,... eta Antolaketa sailak erabakiko dituenak. Ardura honen kargu egiten den pertsona bera bizi den lekuko Herrialdeko Idazkaritzako izanen da. Antolaketa sailak zehaztuko du ardura honetako eginkizunak bitan banatuko diren ala ez, handia delako eskatzen duen lana.

\* Proiektuetarako Ardura Nazionala: honen lana da behar diren analisiak eta proposamen zehatzak egitea baliabide ekonomiko berriak bilatu ahal izateko. Ardura honen kargu egiten den pertsona bizi den lekuko Herrialdeko Idazkaritzakoa izanen.

• Antolaketarako Batzorde Nazionala: INI-ri eta IN-ri dagozkien arazoak, plangintzak, jarraipena, e. a. -i aurre egin beharko die. Ez da maiztasun jakinez bilduko. Honako hauek izango ditu kide:

\* Barne Antolaketarako Arduradun Nazionala

\* Barne Antolaketarako Herrialdeetako arduradunak.

#### 5.4.1.2.- KOMUNIKAZIOA (K)

Bere funtzioak barne propaganda, kanpo propaganda eta prentsa izango dira.

##### 5.4.1.2.1.- Eskualdea

• Komunikaziorako Eskualdeko Arduraduna: Eginkizun horietaz arduratuko den pertsona finko eta iraunkorra izango da. Horrelakorik baldin badago EI-ren kide izango da. Nazional zein herrialde mailan eragindako barne eta kanpo propagandaren banaketa lanaz arduratuko da. Eskualde mailan, sezkio sindikal mailan, ... sortzen den barne eta kanpo propaganda planifikatu eta aurrera eramango du (herrialdeko arduradunaren laguntzaz beti ere).

##### 5.4.1.2.2.- Herrialdea

• Komunikaziorako Herrialdeko Arduraduna: Eginkizun horietaz arduratuko den pertsona finko eta iraunkorra izango da. Horrelakorik baldin badago HI-ren kide izango da. Nazional mailan eragindako barne eta kanpo propaganda egin eta banatzeaz arduratuko da. Herrialde mailan eta bere sektoreetan sortzen den barne eta kanpo propaganda planifikatu eta aurrera eramango du (nazionalaren laguntzaz beti ere).

• Komunikaziorako Herrialdeko Batzordea:

\* Komunikaziorako Herrialdeko Arduraduna

\* Komunikaziorako Eskualdeetako Arduradunak

##### 5.4.1.2.3.- Nazionala

• Maila honetako ardura zehatzak:

\* Komunikaziorako Arduradun Nazionala: INI-ren eta IN-ren kide izanik, komunikaziorako aparatuen eginkizunak nazional mailako organuekin (INI, IN,

EEIN eta EEBN) koordinatuko ditu; erakundearen komunikazio behar integralak (prentsa, barne eta kanpo propaganda, egoitzak, barne eta kanporako agiriak,...) aztertu eta landuko ditu; prentsa-oharrak idatziko ditu; pertsona zein organuen artean prentsan agertze-ko ardurak banatuko ditu;...

\* Prentsa Arduraduna: Komunikabideekin harreman jarraitua izango du, komunikabide horiek aztertu eta estrategiak proposatuko ditu, egitura ezberdinetako arduradunekin harremana izango du komunikabideetako agerraldiak gehitzeko eta zuzentzeko, komunikatuak berrikusi eta horiek egiten ere lagunduko du, prentsaurrekoen arduraduna izango du, Prentsa Gabinetearen kide izango da, Komunikaziorako Batzorde Nazionalaren eta Arduradun Nazionalaren "staff" izango da. Dagokion HI-ren kide izango da.

\* "Iruaultzen"-aren Arduraduna: Edukiaren proposamena aztertu eta landuko du, egitura ezberdinetako arduradunekin harremanetan egongo da berriak eta edukinak bildu eta idazteko, inprimatu arteko lan guztien beharrezko jarraipena egingo du, Prentsa Gabinetearen kide izango da, Komunikaziorako Batzorde Nazionalaren eta Arduradun Nazionalaren "staff" izango da. Dagokion HI-ren kide izango da.

\* Artxibo Arduraduna, komunikaziorako egitura nazionalean barne koordinazioaz arduratuko da, mekanografi lanetan lagunduko du ... Dagokion HI-ren kide izango da.

\* Diseinu Arduraduna: barne eta kanpo propagandaren azken itxurarako proposamenak aztertu eta landuko ditu. Dagokion HI-ren kide izango da.

\* Arduradun Teknikoa: bere ardurapean egongo dira inprentekiko harremanak, aurrekontuak, erakundearen azpiegitura erabili ala ez erabakitzea... Dagokion HI-ren kide izango da.

\* Propagandarako Arduradun Nazionala: herrialdeetako arduradunak koordinatuko ditu, barne lanaren plangintza eta jarraipena egingo du, herrialdeetako eta eskualdeetako dinamizazioaz arduratuko da, propaganda banaketa egingo du, ... Dagokion HI-ren kide izango da.

• Komunikaziorako Batzorde Nazionala:

\* Komunikaziorako Arduradun Nazionala

\* Prentsa Gabinetea: prentsa arduraduna, "iraultzen"-aren arduraduna eta artxibo arduraduna.

\* Propaganda Gabinetea: Diseinu arduraduna, arduradun teknikoa eta artxibo arduraduna (prentsa gabinetearekin konpartitua), propagandarako arduradun nazionala eta herrialdeetako komunikazio arduradunak.

#### 5.4.1.3.- NAZIOARTEKO HARREMANAK (NH)

• Maila nazioaletako arduradun zehatzak:

\* Nazioarteko Harremanetarako Arduradun Nazionala. IN-ren kide izango da.

\* Nazio mailako talde finko eta iraunkorra. Ordezkaritza organo nazionalak emandako jarraibideak proposatu eta garatuko ditu, egitura jakin batzuk noiz-behinka edo etengabe nazioarteko harremanak eduki ahal eta behar izan arren (sektorekako egiturak kasu, hala nola Irakaskuntza, Sanitatea, Metala,..., bai halaber nazioanitzetako talde, ...e.a.ko sailatal sindikalak ere).

\* Koordinaziorako Arduraduna: NH-etarako Batzorde Nazionalaren "staff" izanik, mekanografi lanetan lagunduko du, harremanetaz arduratuko da batzordekideen eginkizunak koordinatuko ditu, ... dagokion HI-ren kide izango da.

• Nazioarteko Harremanetarako Batzorde Nazionala:

\* NH-etarako Arduradun Nazionala

\* Talde nazionala

\* Koordinatzaile Arduraduna

#### 5.4.1.4.- IDAZKARITZA TEKNIKO JURIDIKOA (ITJ).

Lege aholkularitzaren funtzioa beteko du LAB-eko arazo orokorreari dagokienean: Negoziazio kolektiboan, norbanako edo kolektibo mailako gatazketan (EE-ko militante jakinekin ardura konpartituz, eskualdeko mailakoekin gehien bat), hasitako edozein lege prozesutan aholkulari izango da, bai prozesua hasi aurretik nola prozesuak irauten duen bitartean; hasitako eta amaitutako gaien jarraipena egin beharko du, beren lanak behar duen antolaketa administratiboaz arduratuko da...

##### 5.4.1.4.1.- Herrialdea

Barne egituren (ES, EI,...) aholkularitzarako ardura desberdinak —eskualdekoez gain— zehaztea eta banatzea komeniko litzateke, bai arloka (negoziazio kolektiboan...) bai sektoreka.

• Maila honetako ardura zehatzak:

\* Lege-aholkulari taldea: gaitasun teknikoa (abokatuak, gizarte graduatuak,...) duten pertsonak osatua. Denak HI-an egongo dira. Euren artean bat aukeratu dute IT Juridikoaren Herrialdeko Arduradun HII eta EEH-ren kide izateko. Bere lehentasunezko eginkizuna izango da langileek nola enpresek lege arloan behar duten aholkularitza ematea, era berean BBSS-ei, SSss-ei, SS-ei eta herrialde mailan gertatzen diren gatazka nagusiei ere aholkularitza eskeini beharko die.

\* Administrazio Arduraduna: Artxiboaz arduratuko da, mekanografi lanetan lagunduko du, telefonoaz eta mandatuez arduratuko da,... HI-ren kide izango da.

• Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Herrialdeko Batzordea:

\* Lege-aholkulariak

\* Administraria

##### 5.4.1.4.2. Nazionala

Barne egituren (sektoreak, AS nagusiak) aholkularitzarako ardura desberdinak zehaztea eta banatzea komeniko litzateke, bai arloka (negoziazio kolektiboan,...), bai sektoreka,...

Ez da bazterrean utzi beharko arlo jakinetan espezializatutako teknikariek osatutako laguntza-talde bat izatearen aukera; batez ere azterketa juridikoetarako (legegintzaren garapena, eskuhartzea oinarritzeko eta laguntzeko legeen azterketa zehatzak,...)

• Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Arduradun Nazionala. IN, EEIN, IIN eta EEEN-ren kide izango da.

• Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Batzorde Nazionala

\* Herrialdetako Aholkulari Taldeak

\* Administrariak

\* Laguntza taldea

#### 5.4.1.5.- IDAZKARITZA TEKNIKO EKONOMIKOA (ITE)

ITE delakoa antolaketa mailako behar batzuen araberako egituratuko dugu.

• Lan-tokietan eta enpresetan egindako eskuhartzeari berehala erantzuteko beharra.

• BBSS, SSss, SS eta Gatazketan egindako eskuhartzeari erantzuteko beharra.

• Ekonomi politika orokorrean (errenta politika,...) egindako eskuhartzeari erantzuteko beharra

• Egoera sozioekonomikoaren azterketa beharra (egitura, koiuntura,...)

#### 5.4.1.5.1.- Herrialdea

- Idazkaritza Tekniko Ekonomikorako Herrialdeko Arduraduna. HI, HII eta EEHB-ren kide izango da. Bere lehentasunezko eginkizuna enpresetako egoera ekonomiko-kontableari buruzko azterketak egitea izango da; era berean ekonomi sektore ezberdinen (batez ere herrialdean dauden nagusienak) egoerari buruzko azterketak eta analisiak ere egin beharko ditu.

#### 5.4.1.5.2.- Nazionala

Ardura desberdinak zehaztea eta banatzea kominiko litzateke, bai arloka, bai sektoreka, ... eta horretarako arlo jakinetan behar adina espezializatutako Teknikari Talde bat beharrezkoa izango da.

- Idazkaritza Tekniko Ekonomikorako Arduradun Nazionala. IN, EEIN eta EEBN-ren kide izango da.
- Idazkaritza Tekniko Ekonomirako Batzorde Nazionala.

\* ITE-erako Arduradun Nazionala

\* ITE-rako Herrialdeeko Arduradunak

\* Ardura jakineko laguntza talde finkoa

#### 5.4.1.6.- FORMAZIOA (F)

##### 5.4.1.6.1.- Herrialdea

- Formaziorako Herrialdeko Arduraduna. HI-ren kide izango da.

- Formaziorako Herrialdeko Batzordea:

\* Formaziorako Herrialdeko Arduraduna

\* Herrialdeko pertsonen osatutako taldea: finkoa

\* Noizbeinkako laguntzaileak

##### 5.4.1.6.2.- Nazionala

- Formaziorako Arduradun Nazionala: IN-ren kide izango da

- Formaziorako Batzorde Nazionala

– Formaziorako Arduradun Nazionala

– Formaziorako Herrialdeetako Arduradunak

– Noizbeinkako laguntzaileak

#### 5.4.1.7.- EUSKALDUNTZEA (E)

Lan esparru honen betekizun dira gure hizkuntz politikaren desarroiloa, zeina projektatu behar dugun bai gure interbentzio eremuan bai sindikatu barnean. Euskal Herria berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Langile Mugimendua berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Lan harremanen berreuskalduntzeko prozesuari eginen diogun aportazioa. Eta, orobat, geure berreuskalduntzea eta euskararen erabilera.

Antolaketa saila izanen da antolaketa maila bakoitzean eta kasuan kasu euskalduntze alorreko ardura bakoitzak dituen lanen neurria zehaztu eta proposatuko duena, baita ardura bakoitzak egin behar duen lana eta eman behar duen denbora, beste ardurekiko konpatibilitatea, etab...

##### 5.4.1.7.1.- Eskualdea

- Euskalduntzerako Eskualdeko Arduraduna: EI-ren kide izango da eskualdean bere arloari dagozkion eginkizunak bere gain hartzen dituen heinean (eskualderako euskalduntze plangintza eta horren jarraipena egingo du, itzulpenak bere ardurapean egongo dira, negoziazio kolektiboaren jarraipena egingo du, enpresetan euskararen erabilpena aztertuko du...).

##### 5.4.7.1.2.- Herrialdea

- Euskalduntzerako Herrialdeko Arduraduna: HI-ren kide izango da herrialdean bere arloari dagozkion eginkizunak bere gain

hartzen dituen heinean (herrialderako euskalduntze plangintza eta horren jarraipena egingo du, itzulpenak bere ardurapean egongo dira,...)

- Euskalduntzerako Herrialdeko Batzordea

- \* Euskalduntzerako Herrialdeko Arduraduna

- \* Euskalduntzerako Eskualdeetako Ardura-dunak

#### 5.4.7.1.3 - Nazionala

- Euskalduntzerako Arduradun Nazionala. IN-ren kide izango da.

- Euskalduntzerako Batzorde Nazionala

- \* Euskalduntzerako Arduradun Nazionala

- \* Euskalduntzerako Herrialdeetako Ardura-dunak

#### 5.4.2.-

#### LAN ARLOAK

##### 5.4.2.1.- LANEANGO OSASUNA (LO)

Lan-arlo honetatik ondorengo gaiei ekingo zaie: laneango segurtasunari, industria higienerari, maila produktiboetan sortutako ekologi arazoei,...

Barne mailan hiru helburu nagusi izango ditu:

- Arazo zehatzetan aholku zuzena ematea
- Negoziazio kolektiboetan aholkua ematea
- Esku hartzea oinarritzeko analisiak eta azterketak

##### 5.4.2.1.1.- Herrialdea

- Laneango Osasunerako Herrialdeko Arduraduna. EEHB eta HI-ren kide izango da.

- Laneango Osasunerako Herrialdeko Batzordea:

- \* LO-rako Herrialdeko Arduraduna

- \* Pertsona jakinek osatutako taldea

##### 5.4.2.1.2.- Nazionala

- Laneango Osasunerako Arduradun Nazionala. EEBN-ren eta dagokion HI-ren kide izango da

- Laneango Osasunerako Batzorde Nazionala

- \* LO-rako Arduradun Nazionala

- \* LO-rako Herrialdeetako Arduradunak

##### 5.4.2.2.- LANAREN ANTOLAKETA ZIENTIFIKOA (LAZ)

- LAZ-rako Arduradun Nazionala. EEBN-ren eta dagokion HI-ren kide izango da.

- LAZ-rako Batzorde Nazionala:

- \* LAZ-rako Arduradun Nazionala

- \* Pertsona jakinek osatutako taldea

##### 5.4.2.3.- LANBIDE HEZIKETA (LH)

Lan munduarekin duen harremana (lanean daudenen lanbide heziketa jarraitua, langabezian edo antzerako egoeratan daudenen lanbide heziketa, erreziklailak, ikastetxe eta enpresen arteko harremanak,...) dela eta, lanbide heziketak, gaur egun eta etorkizunari begira, duen garrantzia oso lotuta dago lanbideen kategoria-sailkapenarekin, mugikortasun funtzionala-rekin, behin-behinekotasunarekin, ikasleen azpikontratazioarekin, e.a.-rekin; kapitalak lan-eskua erabiltzean duen helburua "malgutasuna" eta "produktibitatea" da. Guzti horri lanbide heziketaren sare publikoan duen eragina gehitu behar zaio (ikastetxe eta enpresen arteko akordioak, irakasleak lanpostu bat baino gehiagotan aritzea, ikastetxeen kualifikazio-eza,...).

Arazo guzti horiei aurre egiteko analisiak, azterketak, proposamenak landu eta eztabaidatzea,... modu antolatatu batean egin beharko dira, horrela lortuko

bait da enpresa eta lantegietan, negozioazio kolektiboan, erakunde sozio-laboralen aurrean eta, azken batean, euskal langileria eta eritzi publikoaren aurrean nolabaiteko eragin izatea.

Iritsi da lan antolatu horri heltzeko momentua, lan arlo horri behar diren pertsona eta baliabideak eskeintzeko momentua —orain artean oso jende gutxi aritu bait da horretaz beti ere borondatez eta bestelako ardurekin tartekatuz—. Aurrera begira, gure helburuetako bat alor hau garatzea eta sendotzea izango da.

Epe laburrera dauden helburuak arduradun nazionala eta nazio mailako lan-talde bat izatea dira. Hauen garapenak esango digu gerora begira zein izan behar den lan-arlo honen antolaketa hazkuntza-aren erritmoa.

- LH-rako Arduradun Nazionala. EEBN eta dagokion HI-ren kide izango da.

- LH-rako Batzorde Nazionala

- \* LH-rako Arduradun Nazionala

- \* Pertsona jakinek osatutako lan-taldea

#### 5.4.2.4.- EMAKUMEA-ARLOA (E)

Arlo honen beharra, Erakundearen dinamizatzaile gisa ikusteak, Sindikatuak Euskal Emakume Langilearen arazoa bereganatzeko duen borondatea isladatzen du. Lan-talde baten esku bakarrik utzi gabe, era honetan gure Herriaren askapen nazional eta sozialaren borrokan gizartearen eta geure buruaren eraldaketarako beharrezkoak ditugun elementuak eskuratuz.

Arlo honen berehalako helburuak honako hauek izango dira: Emakumeak lanmunduan bizi duen egoeraren azterketa bat egitea eta emakumeek borroka sindikalean eta Sindikatoan parte aktiboa har dezaten bide egokiak irekitzea. Era berean, azterketak eta proposamenak egitea, zeinak, eztabaidatu ondoren, gure eskuhartze eremuan eman daitezkeen ageriko zein ezkutuko ezberdintasunak hatzeman eta ekiditzeko beharrezko zaigun maila emango diguten.

#### 5.4.2.4.1.- Herrialdea

- Herrialdeko Arduraduna. HI eta EEHB-ren kide izango da.

- Herrialdeko Batzordea

- \* Herrialdeko Arduraduna

- \* Pertsona jakinek osatutako lan-talde

#### 5.4.2.4.2.- Nazionala

- Arduradun Nazionala. EEBN-ren eta dagokion HI-ren kide izango da.

- Batzorde Nazionala

- \* Arduradun Nazionala

- \* Herrialdeko Arduradunak

#### 5.4.2.5.- GAZTERIA-ARLOA (G)

Aurrerantzean garatu beharreko antolaketa-helburuetariko bat izango da, lan merkatua eta gazteen arteko arazoei aurre egiteko (kontratazioak, lan-baldintzak, eta lan-uzteak).

Garatu beharreko gutxienezko egitura hurrengo hau izango da.

- Gazteria-arlorako Arduradun Nazionala.

- Laguntza taldea.

#### 5.4.2.6.- MINUSBALIOAK

Aurrerantzean, gai hau ere, garatzeko antolaketa helburu moduan hartuko da, minusbaliodun pertsonak lan merkatutik kanpo uzteak, lanean aritzen direnean jasan behar dituzten subempleo egoerak, eta orokorrean mozitzen duten marginazioak sortzen duen problematikari heltzeko.

## 5.5.-

### **BARNE ORDEZKARITZAKO EGITURAK**

Erakundearen jarduera guztia koordinatu eta globalizatuko duen egitura izango da (eskuhartzea, analisia, sortutako antolaketa beharrak,...). Horrela bada, Ekintza Sindikalerako, Ekintza Erreibindikati-  
bo-rako, Ekintza Instituzionalerako, Aparatuetako eta Lan-Arloetako Arduradunek osatuko dituzte Barne Ordezkaritzako Egiturak.

Egitura honen egitekoa izango da, besteak beste, gainerako egiturek (Eskuhartzekoak, Aparatuak eta Lan-Arloak) lurralde mailan izan behar dituzten organu eta arduradunak eratzea eta izendatzea, beti ere egitura horien beharizan eta proposamenei begiratuz.

#### 5.5.1.-

##### **HERRI EREMUAK**

Herri eremuetan zabaldu eta erakundea desaroillatu behar dugulako (honetaz ari da ponentzia ere 5.3.3.1. lerroaldean Ekintza Erreibindikati-  
boa aztertzen duenean), eta gogoan izanik eskualde eremuez aritzean aditzera ematen diren filosofia eta erizpideak (hauek dira gaur egun oinarrizko egitura zabalduenak eta sendoenak), ahalegindu behar dugu udalerrietan dinamika sindikala sortzen, eta inon baino lehen bertako karakteristikek hala eskatzen dutenean (lantegiak, jendetza,...).

Badira arrazoi batzuk gure interbentzioa herri eremuetara lehenbaitlehen zabal dezagula aholkatzen dugutenak:

1.) SINDIKATUAREN SENDOTZE ETA HEDAPENA: presentzia aktiborik ez dagoen tokietan (industri-guneak, tailer txikiak, saltegiak, e.a.), hots, eskuorde-  
rik afiliaturik ez dagoen tokietan, eta gure ustez langile kopuru handia daukatenak, inolako antolakuntza sindikalik gabe eta sarritan norabiderik gabe ere, antolatu eta sindikal arazoak bideratze-  
rakoan.

2.) ESKUALDEKO IDAZKARITZARAKO EKARPENA barne eztabaidan, eskualdeko estrategian eta tokian tokiko gizarte-lanari buruzko arazo-  
en beharrezko azterketan, honek eskualdearen ikuspegi

zabal eta zehatzago bat ekarriko liguke eta.

3.) BLOKERAKO EKARPENA herri mailan bai tokian tokiko zein egungo egoera orokorreko eztabaide-  
tan, bai halaber blokearen beraren ihardueretarako ekarpen militantea.

Beharrezkoa da gure eritziz, KASen egituren barruan gure egitarau sozio-politiko langile eta sindikatuaren ikuspuntutik isladatzeko premia planteatzea.

4.) BIZKORTZE LANAK informazioa eta propoganda une puntual eta zehatzetan, ENAMen proiektu sozio-politikoaren bereganatze handiagoa ahalbideratuko dutenak.

5.) BURRUKA IDEOLOGIKOA klase kontzientzia berreskuratu beharra, eskualdeko Idazkaritzaren egitura ezberdinekin batera, industriaren beheraldia jasan eta sozialki desloturik dauden guneean gure helburu estrategikoak lortzeko kontzientziakuntza eta ideologizatze garrantzitsua ahalbideratuko duena.

Agerikoa denez, desaroilo hau finkatu arte batez ere, Eskualdeko Idazkaritza da antolaketa zabalduen prozesua gidatuko duena, kontua haundiarekin jokatuz bikoizten ahal diren egituren koordinazioan eta dinamikan (afiliazio batzarrak, delegatuen batzarrak,...)

#### 5.5.1.1.- HERRIKO AFILIATUEN ASANBLADA (HAA)

LAB herri mailan indartzen doan neurrian —bertako militantzia aktiboari esker— afiliatuen asanblada herri mailan egitea komeniko litzateke. LAB-en presentzia (Ekintza Erreibindikati-  
borako herriko batzordeen bitartez) benetazkoa bada soilik izango dute asanblada horiek zentzua etorkizunari begira.

#### 5.5.1.2.- HERRIKO IDAZKARITZA (HI)

Eskualde mailan LAB-en dinamizaziorako dagoen egitura da. zer dinamizatu dagoenean baino ez du balio organikorik izango. Bestela, aipatutako egiturari ezin zaio horrelako balio organikorik eman, LAB barruan.

Partaide dira Afiliatuen Asanblaan hautatu nahiz berretsitako ondoko ardurak: EE/EI/ANT, eta he-

rriko ekintza erreibindikatiborako ekipoa.

Afiliatuak dira, oro har, herriko lantegietako andre-gizon delegatuak, herrian diren eskuhartze sindikaleko premiak atenditzen dituztenak, beti ere behar den oreka mantenduz nor bere lantegian dituen eskuhartze premiekin eta sindikalgintzako egiturarekin.

#### 5.5.2.-

#### ESKUALDE EREMUAK

Eskualdeko ardurak (EE-rakoak bereziki) eskualdeko ordezkartzako egituren oinarria izango dira: ardurak zehaztu eta garatu gabe baldin badaude alferrik izango da EEII-etaz eta "eskualde"-ez hitzegitea. Informazioaren berri emate hutsak ez du berez eskualdeko egitura justifikatzen, aitzitik, ekinbide sindikal propio, indartsu eta zehatzaren garapena izango da informazioaren beharra, eskualdeko idazkaritzaren beharra justifikatuko duena.

Helburu horrekin, beharrezkoa da daukagun "eskualde mapa" berregitea eta gaurko benetazko antolaketa beharrei egokitzea. Ezin diogu beldur izan eskualdeak batzeari edo banatzeari beharrezkoa izanez gero, horren orde, erakunderako beharrezkoak diren eginkizun zehatz eta finkoak bereganatuko dituen eskualdeko militantzia aktiboa dugulako ziurtasuna izan behar dugu. Militantzia horri euskal langileriak eskualde jakin horretan dituen arazoei berehalako erantzuna eman behar die, euskal langileria bait da gure lan-eremua eta horri esker emango bait dio benetazko zentzua gure proiektioari eta mezu politiko-sindikalarri.

Ezin dugu "eskualde"-az hitzegin lurralde banaketa naturalaren arabera (komarkak naturalak,...), bertan afiliatu kopuru bat bizi delako edo ordezkari (delegatuak, komitekidak,...) kopuru batek bertan lan egiten duelako, baizik eta eskualde horretan aipatutako hiru faktoreak lan-sindikal propio, iraunkor eta antolatu batean elkartzen direlako. Elkarretartzeko horretarako behar-beharrezkoak dira amankomuneko ardurak eta organu jakin batzuk antolatzea. Muturrera eramanda: baliteke lurraldetasun ezagarririk gabe, afiliazio edo delegatu kopuru nahikorik gabe ere, "eskualde" bat egotea, bertan, amankomuneko ardurak eta organuen beharra duen ekinbide sindikal bat baldin badago.

Gure erakundearen hedapena, presentzia eta eragina gero eta banandu eta sakabanatuago dauden langileria-sailetan (enpresa txiki eta erdi mailetako langileak, komertzioetako langileak, emakumeak, gazteak, aldibaterako langileak, pentsionistak, ekonomia murgilduan ari diren langileak, langabekatuak,...) eskualdean egiten den lan sindikalaren arabera izango da. Eskualde batetan, enpresa handi eta erdi mailakoetan sekzio sinkikalek lan-toki barruan egiten duten lana handia izan arren, lan horrek langileriarengan orokorrean duen eragina oso erlatiboa da: ez dugu ahaztu behar Hego Euskal Herrian, langileetarik % 75a baino gehiago direla enpresa txikietan, komertzioetan, aldibaterako kontratuekin,... lan egiten dutenak eta horiek normalean ez dute inolako sindikal-ordezkaritzarikizaten (azken hauteskunde sindikaletan beste hiru sindikatu nagusiek egindako "redadak" alde batera utzita). Guzti horri langabetuen egoera ere gehitu behar zaio.

#### 5.5.2.1.- ESKUALDEKO AFILIATUEN ASANBLADA (EAA)

Organo hau da Afiliatuen parte hartzerako bide berebiziko eta iraunkorra. Beraren finkapena eta erregulartasuna gure erakundearen beharrezko estrategikoak dira, parte hartze horren bolumen kuantitatiboa kontutan hartu gabe. Izan ere, parte hartzea (gure esku dagoenaren arabera) haren izaera egonkorra eta EI-k emango dizkion edukinen menpe dago. Ezin dugu onartu normaltasunezko egoera eta gerora begirako aurrikuspen giza, delegatuen asanblada, ohituraz, organo hori ordezkari dezan.

#### 5.5.2.2.- ESKUALDEKO IDAZKARITZA (EI)

Eskualde mailan LAB-en dinamizaziorako dagoen egitura da. Zer dinamizatu dagoenean baino ez du balio organikorik izango. Bestela, aipatutako egiturari ezin zaio horrelako balio organikorik eman, LAB barruan.

EIn partaide dira hurrengo ardurak hauek, Afiliatuen Asanbladan hautatu eta berretsiak izan behar dutenak:

- Eskualdeko Koordinazioa (A/EE/EI bereganatzen ditu)
- Herriko Koordinatzaileak

- Ekintza Erreibindikatiboa
- \* EE-rako Eskualdeko Taldea

- Aparatuak
  - \* Eskualdeko Finantzen Ardura
  - \* Eskualdeko Komunikazioen Ardura
  - \* Eskualdeko Euskalduntze Ardura

Elren lana da eskualdeko lantegietan diren Sekzio Sindikalen artean komunikazio eta konexio harmonia eragitea. Horretarako, bide batzuk erabiltzen ahal ditu, hots: Afiliatuek Afiliatuen Asanbladetan duten partizipazioa; delegatuek Delegatuen Asanbladean duten partizipazioa; lantegian bertako eskuharmen sindikala talde lanean burutzea; eskualdeko egitekoak bere gain hartzea.

### 5.5.3.-

#### HERRIALDE EREMUAK

##### 5.5.3.1.- HERRIALDEKO KONFERENTZIA (HK)

Konferentzi Nazionalaren eta Herrialdeko dinamikaren menpe egongo da (Konferentzi Nazionalaren aurrekoa da)

Herrialdeko Konferentziaren Osakideak:

- Herrialdeko Idazkaritzaren kide guztiak
- Ekintza Erreibindikatiborako Herrialdeko Batzordearen kide guztiak
- Eskualdeetako Idazkaritzen kide guztiak.
- Herriko "x" afiliatu kopuru bakoitzeko pertsona bat (Estatutuei buruzko eztabaidan zehaztekoa).
- Herrialdean bizi diren Idazkaritza Nazionalaren kide guztiak (hizpidea izango dute baina botorik ez)

##### 5.5.3.2.- HERRIALDEKO IDAZKARITZA (HI)

Egitura honetan IINN-etan erabiliko diren gaiak eztabaidatu eta aztertuko dira (IINN-etan baino lehen) bai eta herrialdeko gaiak ere.

HI-ren kideak Herrialdeko Konferentziak aukeratu dituzten Herrialdeko Idazkaria ezik, IN-ren kide guztiak bezala Kongresuan aukeratu izango dena. Arduradun hauek osatuko dute:

- Herrialdeko Koordinatzaile
- Eskualdeko Koordinatzaileak
- Ekintza Sindikala:
  - \* Herrialdeko BBSS, AAss eta SS-etako Arduradunak
  - \* Herrialdean dauden BBSS, AAss eta SS-etako Arduradun Nazionalak
- Ekintza Erreibindikatiboa:
  - \* EE-rako Herrialdeko Arduradunak (EI bereganatzen du)
  - \* Negoziazio Kolektiborako Herrialdeko Arduradunak
- Ekintza Instituzionala
  - \* Ekintza Instituzionalerako Herrialdeko Arduradunak (EE-rako Herrialdeko Arduraduna bera izango da).
- Aparatuak
  - \* Barne Antolaketarako Herrialdeko Arduradunak
  - \* Herrialdeko Egoitza Arduradunak
  - \* Diruzaintzako Herrialdeko Arduradunak
  - \* Komunikaziorako Herrialdeko Arduradunak
  - \* Formaziorako Herrialdeko Arduradunak
  - \* Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Kideak
  - \* Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Herrialdeko Arduradunak
  - \* Herrialdean bizi diren "staff" Nazionalen Arduradunak
- Lan-Arloak. Herrialdean kokaturik dauden herrialdeko eta nazio mailako ardurak.
  - \* LAZ-rako
  - \* Laneango Osasunarako
  - \* Emakumea-Arlorako
  - \* Lanbide Heziketarako
  - \* Gazteria-Arlorako
  - \* Minusbaliok-Arlorako

### 5.5.3.3.- HERRIALDEKO IDAZKARITZAREN IRAUNKORRA (HII)

Ejekutiboa izango da bai herrialde mailako arazotan bai dinamika nazionalak sortzen dituenetan (Kongresua, KN, IN eta INI).

Osakideak:

- Herrialdeko Koordinatzailea
- Eskualdeko Koordinatzaileak
- Ekintza Erreibindikatioa:
  - \* Negoziazio Kolektiborako Herrialdeko Arduraduna
  - \* Ekintza Erreibindikatioarako Herrialdeko Arduraduna
- Ekintza Instituzionala:
  - \* Ekintza Instituzionalerako Herrialdeko Arduraduna (EE)
- Aparatuak:
  - \* Barne Antolaketarako Herrialdeko Arduraduna
  - \* I.T. Ekonomikorako Herrialdeko Arduraduna
  - \* I.T. Juridikoarako Herrialdeko Arduraduna

### 5.5.4.-

#### NAZIONAL EREMUAK

##### 5.5.4.1.- KONFERENTZI NAZIONALA (KN):

Funtzioak:

- Kongresu-arteke goreneko organua izango da. Beraz, Kongresuen bitartean jorratu beharreko gaietaz arituko da, nahiz eta gai horiek Kongresuari berari dagozkion.
- Kongresuetan erabakitakoaren garapena baloratzeko eta zuzentzeko mekanismoa da.
- Idazkaritza Nazionalan hutsik gera daitezkeen ardurak betetzeko pertsonak aukeratu eta izendatuko ditu.

- Era berean, Idazkaritza Nazionalak proposatutako gai zehatzak jorratuko ditu

Osakideak:

- \* Idazkaritza Nazionalaren kide guztiak
- \* Ekintza Erreibindikatioarako Batzorde Nazionalaren kide guztiak
- \* HIIetako kide guztiak.
- \* "x" afiliatu kopuru bakoitzeko pertsona bat (Estatutuetan zehaztuko da).

Konferentzia Nazionala zabala da, hizpidez baina hautespiderik gabe parte hartzeko aukera eskaintzen duena. Eztabaidagaien arabera, jorratu beharreko arazoak bizi eta protagonizatzen dituzten pertsonak edo sakonki aztertu dituztenak beren beregi gonbidatuko dira.

##### 5.5.4.2.- IDAZKARITZA NAZIONALA (IN)

Funtzioak:

- Kongresu-arteke zuzendaritza organoa.
- Kongresu eta Konferentzia Nazionalerako erabakiekin bat etorritik eta horien garapen legez, eskuhartze jakinerako bideak eta ildoak ezartzerako orduan, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko gunea izango da.
- Bai barrurako nola kanporako erakundearen ordezkari funtzioak bereganatzen ditu.

Idazkaritza Nazionalaren kideak Kongresuan aukeratu dira. Idazkaritza Nazionalak Kongresuan aukeratuak kopuruaren %20a kooptatu ahal izango du; Ezin besteko edo borondatezko uzteen kasuetan ordezkariak izateko, KN-ak kooptazioz egindako hautaketak horretarako propio deituko den Konferentzia Nazional batean onartuko dira. IN-ak euren aportazio mailagatik garrantzitsuak diren pertsonak dei ditzake bileretara eztabaidak aberastu asmoz. Pertsona horiek hizpidea bai baina botorik ez dute izango.

Osakideak:

\* Koordinatzaile Orokorra

\* Barne Koordinatzaile Nazionala

\* Herrialdeko Koordinatzaileak

\* Ekintza Erreibindikatiboa:

- Ekintza Erreibindikatiborako

Arduradun Nazionala

- Negoziazio Kolektiborako Arduradun

Nazionala

- Gatazketarako Arduradun Nazionala

- Zerbitzu Publikoetarako Arduradun

Nazionala

\* Ekintza Instituzionala:

- Ekintza Instituzionalerako Arduradun

Nazionala

\* Aparatuak:

- Barne Antolaketerako Arduradun

Nazionala

- Diruzaintzarako Arduradun Nazionala

- Komunikaziorako Arduradun Nazionala

- Nazioarteko Harremanetarako

Arduradun Nazionala

- Formaziorako Arduradun Nazionala

- Idazkaritza Tekniko Juridikoaren

Arduradun Nazionala

- Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren

Arduradun Nazionala

- Euskalduntzerako Arduradun Nazionala

Mahaikideak. Zuzendaritza Organo Nazionalari ekarpenak egiteko daukaten gaitasun espezifikogatik aukeratutako pertsonak izango dira. Organo

horren baitan ez dute inolako ardura zehatzik hartzen eta IN-eko eskubide osoko kideak dira:

- Arabatik: pertsona bat

- Bizkaitik: bi pertsona

- Gipuzkoatik: bi pertsona

- Nafarroatik: pertsona bat

5.5.4.3.- IDAZKARITZA IRAUNKOR NAZIONALA (IIN)

Ejekutiboa izango da, Kongresuan, KN-ean eta IN-ean hartutako erabakiak garatuko ditu, bai eta EE eta EI egituretatik sortutako dinamika nazionala ere.

KN-ean aukeratuko dira bere kideak IN-aren proposamenez.

Osakideak

\* Koordinatzaile Orokorra

\* Barne Koordinatzaile Nazionala

\* Herrialdeko Koordinatzaileak

\* Ekintza Erreibindikatiboa:

- Ekintza Erreibindikatiborako Arduradun

Nazionala

\* Ekintza Instituzionala:

- Ekintza Instituzionalerako Arduradun

Nazionala

\* Aparatuak:

- Antolaketerako Arduradun Nazionala

- I.T. Ekonomikorako Arduradun

Nazionala

- Komunikaziorako Arduradun Nazionala

# LAB: BIOLENTZIA ETA NORMALIZAZIOA EUSKAL HERRIAN

LABen ikuspuntuik nahiaezko gauza da Normalkuntza politikoaren bidea urratzea eta bere azken ondonoetara eramatea Hegoalde eta Estatu Espainolaren arteko gatazta bidezko irtenbidea eskaintzeko. Horregatik, GUTTIZ BEHARREZKOA DA BIOLENTZIA INSTITUZIONALAREKIN AMAITZEA. Izan ere, biolentzia horrek gure herria erasaten du eta era gutxietakoa treasa errepresiboak erabiltzen ditu herri honek bere garapenerako behar dituen OINARRIZKO TRESNAK ukatuz. ETArekin burruka arnautua aztertzekoan abstrakzioan antza edo biolentzia hitz egiterakoan «pazifismo» prefabrikatu eta artifizialaren parametroak erabiltzea etorkizunik gabeko politika egitea da gure ustea.

## KONGRESUAREN EBAZPENAK

Estadua eta erabiltze prozesu onartuko bi edukitan lankidetasun berea da LAB-en karakterizazioa eta horregatik bada LABek konzientziazio bati buruzko diu ETA eta Estatuaren arteko NEGOTZAZIO POLITIKOa babesteko, honi baita bide bakarra Euskal Burujabetasun politiko eta ekonomikoan eta Independentziarako eskubidean onartu behar den BAKEA ERAKITZETIKO.

## **ESTATUTUEI BURUZKO EBAZPENA**

Biltzar honek onartutako Antolakuntza Ponentziak Estatutuei ekiteko beharrezko tresnak eman dizkigu.

Biltzar honek ebatzen du, aukeratuko Idazkaritza Nazionalari agintzea L.A.B.-en estatutuen gaurkotze eta biformulazioan amaituko duen eztabaida eta erabakitze prozesuari ekin diezaion; beti ere, onartutako Antolakuntza ponentzian azaltzen diren edukinen eremu eta zentzuari atxikiz.

Eztabaida eta erabakitze prozesua oinarritzko bi edukinetan finkatuko da: LAB-ren karakterizazioa eta gure erakundearen barne araudi erregulatzailan. Prozesu hau 1993-ko abenduaren 31. eguna baino lehenago amaituko da.

Leioan, 1992. 3. 20.

# **LAB: BIOLENTZIA ETA NORMALIZAZIOA EUSKAL HERRIAN**

LABen ikuspuntutik nahitaezko gauza da Normalkuntza politikoaren bidea urratzea eta bere azken ondorioetara eramatea Hegoalde eta Estatu Espainolaren arteko gataztari bidezko irtenbidea eskaintzeko. Horregatik, **GUZTIZ BEHARREZKO DA BIOLENTZIA INSTITUZIONALAREKIN AMAITZEA**. Izan ere, biolentzia horrek gure herria erasaten du eta era guztietako tresna errepresiboak erabiltzen ditu herri honek bere garapenerako behar dituen **OINARRIZKO TRESNAK** ukatuz. ETArek burruka armatua aztertzerakoan abstrakzioan aritzea edo biolentziaz hitz egiterakoan «pazifismo» prefabrikatu eta artifizialaren parametroak erabiltzea etorkizunik gabeko politika egitea da gure ustez.

Gure herri honetan bada izen bat, jatorrizko arduradun bat, biolentzia errepresiboan, eskubide demokratikoen ukapenen, hitz batean, zapalkuntzaren ihardunean, eta berau Estatua da.

Ildo horretatik doa Ajouria-enea eta Nafarroako paktuei buruz egiten dugun balorazioa, izan ere, trikimailu politiko bat besterik ez dira **GATAZKAREN BENETAKO IRTENBIDEA** oztotatzeko eta **NAEMren AURKA** **PSOEn BABES POLIOTIKO-ERREPRESIBOA** eskaintzeko.

Zentzu honetan, PNV, EA eta UPN-ren jarrera politikoa erresposabilitate izugarrikotzat jotzen dugu, bide horretatik gatazkaren larriagotzea eraginez, eta , PSOE eta Estatuako Gobernuak bahiturik dituzten oinarritzko erreibindikazio demokratikoa kontutan hartu gabe, beraien interbentzio politikoaren eraso gordin guztiak ezker abertzalearengana bideratuz.

Gure herriaren eskubideak ukatuz eta zapalkuntzazko egoera areagotuz Konstituzio espainol babestu horretatik ahalbideratzen den galera demokratikoa **ELKARRIZKETA ETA NEGOZIAZIO POLITIKO**aren bidez gainditu beharra dago. Horretarako, Burujabetasunerako Eskubidearen Aitorpena eta aitorten honen ildotik Estatuarekiko harremanen eta Burujabetasun kontzeptuaren aldaketa dira ardatzak.

Horregatik bada, LABek kontzientziazio lanak burutuko ditu ETA eta Estatuaren arteko **NEGOZIAZIO POLITIKO**a babesteko, hori baita bide bakarra Euskal Burujabetasun politiko eta ekonomikoan eta Independentziarako eskubidean oinarritu behar den **BAKEA ERAIKITZEKO**.

## **EGOERA INDUSTRIALARI BURUZKO EBAZPENA**

Hego Euskal Herriko egoera ekonomikoa egoera larri bat jasaten ari da eta etorkizuna ere ez dirudi askoz hobea izango denik; ezin dugu ahaztu aurreko hamarkadan izandako lehenengo birmoldaketa industrialaren ondorioetatik abiatzen garela eta hark lanpostuen desagerketa masiboa eta sare industria-leko lantegi garrantzitsuen ixtea suposatu zuela.

Aipatutako birmoldaketak euskal industriak zituen arazo bat ere ez zuela konpondu froga dezakegu gaur egun. Euskal Herria gainbehera doan zonaldea da eta bertako produkzio alor guztiak krisiak jota aurkitzen dira. Nekazaritza eta abeltzantza EEE-ak ipinitako baldintzengatik eta euskal instituzioen inhibizioaren ondorioz oso egoera larrian aurkitzen dira. Arrantzan, berriz, harrapaketak gutxitzeko neurriengatik, kaladero faltagatik, baimenen banaketagatik eta arrantza politika ezaren ondorioz flotaren izatea bera ere zalantzan jartzen da. Industria-arloan, siderurgia integrala, altzairu bereziak, papera eta abarren egoerak eta beste ehundaka enpresen krisiak gure herria basamortu industrial bihurtu dezakete. Etorkizunari begira, alde batetik, pobretze eta marginatze prozesu bat datorkigu eta bestetik Hego Euskal Herriaren eraikuntzarako beharrezko ditugun zutabe eta baliabide ekonomikoak desagertzen dira. Eraikuntza-proiektu honek bidegarritasuna izan dezan, Gemikako Estatutoak eta Foru Amejoramentuak ematen ez duten subiranotasun maila behar da. Gure baliabideak erabiltzeko ahalmenak emango dizkigun autogobernua beharrezkoa da. Horrela ez bada gizarte kapitalista garatu baten bihotzean kokatzen den lurralde erabat pobretua bihurtu gaitzke.

Egoera honen aurrean LAB-en III Biltzarreak, multinazionalak eta europar kapital monopolistak diseinatu duten eta estatu espainoleko PSOEn gobernuak, PNV eta UPN-ren laguntzaz Baskongadetakoko eta Nafarroako gobernuetan, aplikatu nahi duen politika industrialari ezezko borobila eman nahi dio. Herri libre eta subirano izateko garatu behar den politika industrialaren aldeko borroka bultzatzeko konpromezua baieztatu nahi dugu langile eta euskal gizarte osoaren aurrean.

Lan honek gaur egungo marko juridiko gainditzea eskatzen du. Orain daukagunak, gure industriari buruz gobernu espainiarrak hartutako erabakiak aldatzeko aukerarik ez du ematen.

Eskatzen dugun marko berri honek, gure garapenerak naturarekin harreman orekatuak dituen industria sarea jasotzeko tresna politiko, material eta ekonomikoak izan behar ditu. Euskal instituzioek horretarako behar diren erakundeez eta finantziabidez hornitzen direnean bakarrik gertatuko da hori.

Helburu hauek lortzeko bidean LAB-ek premiazko dei bat egiten die giza agente guztiei, batasun zabal baten inguruan borroka kontsekuentearen bidez erantzuna eman dezagun. Horretarako, gure Erakundea eta militante guztiak, ditugun indar guztiekin estrategia horretan lan egitera konprometatzen gara.

# EUSKARARI BURUZKO EBAZPENA

Gure Herria berreuskalduntzeko argi eta garbi dugu Euskal Langile Mugimenduak garrantzi handiko zeregina eta erantzukizuna duela.

Egiteko honetan buruz eta zeharo beharturik sarturik, haundia da halaber LAB sindikatuaren erantzukizuna. Inolako aitzakirik gabe, gure Herriaren euskalduntze prozesuan LABek aitzindari eta akuilari izan behar du, gure Herriko langile mugimenduaren dinamika helburu horretara ere bideratuz.

Gure Herria berreuskalduntzeko hartua dugun erantzukizun hau ez da gaurkoa.

LAB partaide duen Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak, bere sorreratik bertatik eta atergabe aldarrikatu du Euskal Herriaren euskalduntzea. Orain hiru urte, goi-helburu hori praktikan eta organizazio mailan gauzatu nahirik, LABek bere Hizkuntz Aholularitza organoa antolatu zuen, sindikatuak euskalduntze prozesuan eman beharreko urratsen nondik-norakoa markatzeko. Ez dira hiru urte hauek alferrik iragan, frutuak eta lorpenak izan bait ditugu. Egin dira ikastaroak, sindikatuko arduradunak euskalduntzeko. Indartu da euskararen presentzia sindikatuaren lanean, propagandari eta barne funtzionamenduari begira egin zen plana desarroilatuz. Sindikatuak parte hartu du eta bultzatu ere lan munduari begira antolatu eta gauzatu diren hainbat esperientzi berrietan.

Gure sindikatuak euskararen aldeko herri inizatiba gehienak lagundu eta indartu ditu. Joan diren azken urteei begira, beraz, esan behar da LABek lehen pausoak eman dituela sindikalgintza praktikan euskaraz izan dadin. Honenbestez, esan dezakegu LABek aitzindari izan behar duela eta bere sindikalgintza praktikan euskaraz desarroilatu behar duela. Eta hauxe da, dudarik gabe, euskal langile mugimendua ere laster batean euskaraz desarroilatze biderik sendoena eta emankorra.

A/ LABek aurrera begira hartu behar dituen neurriak. Neurri hauek lau mailatakoak dira:

- 1.- Euskal Herriko berreuskalduntze prozesu globalari LABek egiten dion aportazioa.
- 2.- Euskal Langile Mugimenduaren berreuskalduntze prozesuari LABek egiten dion aportazioa, sindikalgintza euskalduntzeko bidean.
- 3.- Lan munduaren berreuskalduntze prozesuari LABek egiten dion aportazioa, administrazio laborala, eta mundu sozio-ekonomikoa euskalduntzeko bidean.
- 4.- LABen egunez-eguneko sindikalgintza euskalduntzeko plana, nola barneko hala kanpoko lanetan.

Aipatu berri ditugun lau maila horietako helburuak gauzaten hasteko eta eguneroko praktikan bideratzeko, LABek HIZKUNTZ AHOLKULARITZA sortu behar du. Organo honek, maila nazionaleko beste edozein organok duen garrantzia eta azpiegitura izanen ditu. Hau da, LABeko hizkuntz politika kontrolatu eta dinamizatuko duen organoa eta sarea eratze erabakia hartu behar du Biltzarrek, eta organo horri, bere lana egoki eta serio garatzeko behar dituen baliakizun eta bitarteko pertsonal-materialak moldatuko zaizkio.

B/ Sindikatuko egituren euskalduntzea.

Azken urteotan egindako lana eta izaniko lorpenak galdu ez baizik eta irekitako bidean aurrera egiteko, premiazkoa da egituraz egitura planifikazio zehatza izatea, salto kualitatiboa ematea.

Gure sindikatuak behar diren bitartekoak jarri behar ditu bere egitura guzietan euskalduntze-alfabetatze bidean aurrera egin dezaten. Eta honetan berehalako helburutzat hartzen du 4. Biltzarrerako egitura nazionalak eta probintzialak euskaraz funtzionatzeko moduan gaitzea.

Honek, jakina, erantzukizun eta ardura maila bakoitzeko hizkuntz gaitasunak zehaztuko dituen planifikazioa eskatzen du. Orain eratzen den Hizkuntz Aholkularitzaren lehenbiziko lana izanen da erantzukizun-maila bakoitzeko hizkuntz gaitasunen proposamena laboratzea eta hurrengo Batasun Nazionalan aurkeztua izan dadin prestatzea.

Azkenik, LABen Biltzar honek dei egiten die militante, afiliatu eta lagun guztiei, gure Herria euskaldun izateko biderik laburrena gure eguneroko lana, gure sindikalgi gaitza, euskaraz desarroilatzea dela ohar daitezen, eta denok eta bakoitzak gauden lekuan eta lekutik ahal den aportaziorik haundiena egin dezagun.

# RAFA DIEZ-en INTERBENTSIOA

Azken ekitaldi honetan, burutu dugun Kongresua bukatutzat emateko interbentzio txiki bat egingo du Idazkaritza Nazional berriaren izenean, denok hiru egunetan egindakoarekin erabat nekaturi gaudelako.

Zerbait esan baino lehen esker haundi bat eman nahi diet Kongresu honetan Antolakuntzaz egon diren militante guztei, izugarri lana burutu dutelako. Baita delegatu, gonbidatu eta komunikabidei egun hauetan gurekin ego-teagatik. Eta, nola ez, aipamen honetan bereziki hemen egon diren delegatu guztei zononak ematen dizkiet izan duten jarraeragatik, eta, eskerrak emanez, gauza guzti honetatik txalo beroa eskatzen dizuet.

Hiru egun hauetan, hilabete luzetan zehar eztabaidatu denaren emaitzak ikusi ahal izan ditugu Delegatuok, Gonbidatuok eta bertan egon diren komunikabideek, eta nola ez, hemendik atera diren oinarri berriekin sindikatuak indar eta ilusio haundiagoak bereganatuko dituela.

Bukatzen ari garen Kongresuari buruz, batz bestea bi gauza adieraziko nituzke.

- Alde batetik, argi geratu da LABen barruar dagoen homogeneizazioarekin gure proiektu sindikalak etorkizun ederra izango duela. Alegia, zenbait puntutan eritzi desberdinak baditugu ere, DENOK oso argi ikusten dugu zer den gure eskuetan daukaguna eta eritzi desberdin guzti honetarako praktikak aberastuko dituela. Horrela bada, BEGIBISTAKOADA SINDIKATUA SENDO DAGOELA ETA AURRERANTZEAN ERE ETORKIZUN HAUNDIKOIA IZANGO DELA.

- Beste alde batetik, geure buruaz harro sentitu behar dugu Kongresu honetan ikuspuntu desberdinak argi eta beldurrik gabe atera direlako eta DENOK aitortzen dugu bide horretatik jarraitu behar dugula benetako erakunde demokratiko eta gardena izateko.

Kongresu honetan eztabaida ugari ez izan arren (azken finean Kongresua marko erabakiorra bihurtzen bait da), atera dira eritzi desberdinak PRECONi buruz edo ANTO-LAKUNTZAZ, baina beti ere Sindikatuaren garapenean pentsatuz. Nire eritziak, horrelako heldutasuna lortzea oso garrantzitsua da Sindikatuarentzat.

Gaur Kongresua bukatzen dugu baina bihurtu aurrera hasiko da DENONTZAT benetako Kongresua, aurre egin behar diegun erronka guzteei erantzuteko.

Honek izan behar du gure azkeneko hausnarketa: Bukatu dugu etapa bat eta hemendik aurrera, azken hilabeteetan zehar gaizki zihoala, baztertua zegoela edo ez zuela funtzionatzen ikusten genuen guzti hori BIDERATU EGIN BEHAR DUGU.

ILUSIO HAUNDIAGOAREKIN, EGITEN ARI GAREN PROIEKTUARI BURUZKO BAIKORTASUNAREKIN, BAINA LANA, LANA ETA LANA EGINEZ:

- LANA, egitura guztiak ondo funtziona dezaten.

- LANA, Kongresu honetan zintzilik geratu diren gaiak lehenbaitlehen birplanteatzeko.

- LANA, hemen atera diren ebazpen guztiak (Koopera-tibei buruz, gazteriaz, Emakumez, Antolakuntzaz...) praktikan jar ditzagun.

- LANA negoziazio kolektiboari bultzada emateko langileen interesak defendituz eta kontzientzia kolektibo garatuz.

- LANA Euskadik duen egoera industrial eta ekonomikoari aurre egiteko interbentzio sindikal sendo eta argia garatuz, burruka ideologikoa egitez eta behar diren mobilizazioak bultzatuz.

Ido horretan LABen lema GEUREA DEFENDA DEZAGUN, eta horrek esan nahi duen guztiarekin, lantegi guztietan sartu behar dugu eta aurrean ospatuko dugun Maiatzaren Lehenean LABen ezaugarrietan bat izan behar du.

- Eta azkenik, LANA Euskadik behar duen benetako aldaketa politikoa eta soziala langile mugimendutik ere bultzatzeko. Zentzu honetan bi gauza desberdin egin beharko ditugu:

a) Alde batetik argi eta garbi esan behar diegu beste Sindikatuak Euskadik duen egoeraren aurrean EUSKAL SINDIKATUOK, -eta honetan ELAK bereziki erantzunkizun izaugarria du-, daukagun marko politikoari salaketa zehatzak egiteaz gain, salaketa honetarako langile mugimendura eraman behar ditugula. Zentzu honetan espero dugu ELAK azken egunotan kaleratu duena ez dela izango aurpegi garbitze soila, baizik eta planteamendu horren atzetik OBJETIBOKI aldaketa praktikoa erakutsiko dituela.

b) Beste aldetik Kongresu honetan erabaki diren ebazpenak garatuz, LABeko militante guztiok ahaleginak egin behar ditugu benetako bakea eta normalizazioa gure herrira etor dadin. Eta horretarako behin eta berriro errepikatuko dugu helburu haundi hori. Ne-goziarioaren bitartez eta Euskal Subiranotasuna aitortuz etorriko dela.

Guzti honekin eta une honetan, hemen gaudenok ezin dugu ahaztu ia bostehun langile, gizon eta emakume, Espainiako gartzeletan daudela ehundaka langile ere, gizon eta emakume, errefuxiatuak daudela, Euskal Herriko Subiranotasunaren alde burruka egiteagatik. Guzti horiek oroitzapen bero bat eskeintzen diegu Idazkaritza Nazional berriaren izenean eta esaten:

"ZUEKIN GAUDE, HERRIAREN BURRUKALARIAK ZARETELAKO.

ZUEKIN GAUDE EUSKAL LANGILERIAREN ZATI INPIORTANTEA ZARETELAKO"

Eta "Medius" en hitzak entzun ondoren eta Kongresu hau bukatzeko, DENOK, HEMEN GAUDENOK ETA GAINONTZEKO AFILIATU GUZTIOK, Euskadiko toki guztietan eta euskal langileri guztian esan behar diegu LAB sindikatua haizé freskua dela, LAB etorkizuneko altertiba sindikala dela, LAB Euskal Jarlaritzaren hitza erabiliz esan dezakegu Euskal benetako LEHENGAIJA dela, eta, hasieran esaten genuen bezala, LABeko egiturak zeharo irekiak izango dira proiektu sindikal hau eraikitzeko.

Klaseko proiektu hau erakaitzeko proiektu itxuralzailea hau

**LEHEN EGUNEN ESAN NUEN BEZALA HAU DA GURE APOSTUA . HAU EZAN BEHAR DU GURE APOSTUA.**

# GONBIDATUEN INTERBENTSIOA

# JEAN POTHON

## -C.G.T.-

Compañeros:

Os traigo el saludo fraternal de la C.G.T. Quisiera expresaros el placer que he tenido en participar en vuestro III Congreso, y por eso os doy las gracias a vuestra invitación.

A lo largo del Congreso, he podido constatar que muchas de vuestras preocupaciones son igualmente nuestras preocupaciones, confirmando este hecho en las discusiones que he tenido con vuestros responsables.

Resumiendo brevemente, podríamos decir que:

Para enfrentarse a la crisis del sistema capitalista, las grandes potencias industriales y financieras han tenido que extenderse a nivel mundial, buscando el beneficio máximo e inmediato, y de ahí las reestructuraciones industriales y el cierre de las empresas, tal como conocéis en Euskadi Sur y en Euskadi Norte, como conocemos en Francia y en España.

Igualmente, esta búsqueda del máximo beneficio se traduce en nuevas formas de trabajo, como hemos podido constatar que se dan aquí y en Francia. Tenemos frente a nosotros el mismo problema.

Pero no nos equivoquemos, la patronal trata de impulsar las modificaciones necesarias para sus intereses aprovechándose de las preocupaciones de los trabajadores.

Esto hace que la patronal presente estos nuevos métodos de trabajo como una respuesta positiva a las reivindicaciones de los trabajadores y, desgraciadamente, constatamos que a veces llega a crear ilusiones a pesar de nuestros esfuerzos de explicación y clarificación.

Esto hacía decir a un compañero el otro día que algunos patronos vascos quieren que sus trabajadores cambien su txapela por la gorra japonesa.

Es cierto que a la patronal la ayudan los sindicatos demasiado complacientes. Vosotros tenéis aquí, nosotros los tenemos también.

Por eso hay que conseguir la unidad de los trabajadores en la lucha para ser lo más eficaz posible, y esta unidad pasa por la **unidad de acción**, incluso a veces con los reformistas.

A lo largo del Congreso vosotros habéis reflexionado, nosotros lo hicimos en Enero pasado, pero sería pretencioso decir que hemos encontrado la respuesta milagro. Pero a partir de esta reflexión tenemos algunas ideas a partir de las cuales hemos definido una estrategia cuyos puntos fundamentales se podrían resumir de la siguiente manera:

Partir de las necesidades de los trabajadores, profundizar, reflexionar y decidir con nuestros militantes la posición del Sindicato. Esta posición la devolvemos a los trabajadores para discutirla conjuntamente. No la presentamos como algo que hay que coger o que hay que dejar, sino como un elemento de reflexión. Esto para permitir que sean las asambleas de los trabajadores quienes formulen las reivindicaciones que aglutinen la más amplia mayoría (teniendo en cuenta siempre las diferentes categorías, las diversidades sociales) y decidiendo en las asambleas las formas de lucha.

Trabajando en este sentido, la organización sindical no aparece como el director de orquesta de la acción, sino como el animador del debate, como el instrumento para la lucha. Sólo y únicamente la Asamblea toma las decisiones.

En estas condiciones democracia e independencia son indispensables para la eficacia de la lucha.

Compañeros, tenemos ante nosotros una situación nada fácil. La patronal y los gobiernos saben entenderse entre ellos para defender sus

intereses, y un ejemplo de esto lo tenemos en los acuerdos de Maastricht. En consecuencia, la situación es difícil para todos los asalariados de Europa.

Por encima de nuestras diferencias, de nuestras divergencias, es preciso que sepamos hacer converger nuestras luchas, para así reforzarlas.

Por esto la C.G.T. está aquí, en vuestro Congreso, para dialogar, para comprenderos en un espíritu de tolerancia recíproca. Para, en base a esta comprensión, trabajar conjuntamente y unir nuestros esfuerzos en la lucha contra el adversario común. Trabajar y cooperar para crear las condiciones de un sindicalismo de clase, de masas, democrático, independiente, unitario, solidario y fraternal.

**Bilbao, 21 de Marzo de 1.992.**

## **JEAN POTHON** **-C.G.T.-**

Camarades

En vous apportant le salut fraternel de la CGT, je voudrais vous dire le plaisir que j'ai eu de participer à votre 3<sup>ème</sup> Congrès et pour cela, je vous remercie de votre invitation.

Au cours de vos travaux, il m'a été donné de constater que nous avons beaucoup de préoccupations communes, ce qui a été confirmé lors des débats avec vos responsables.

Très brièvement résumées, les causes profondes pourraient s'exposer de la manière suivante.

Pour faire face à la crise du système capitaliste, les grandes puissances, industrielles et financières sont amenées à se déployer au niveau mondial pour leur recherche du profit maximum et immédiat, d'où les restructurations industrielles et les formatures d'entreprises, comme nous en connaissons en Euskadi du Sud et du Nord, comme en France et en Espagne.

Cela se traduit également par la mise en oeuvre de nouvelles formes de travail et l'on peut constater que chez vous, comme chez nous, c'est la même orientation.

Mais ne nous y trompons pas, le patronat sait impulser les modifications nécessaires à ses intérêts tout en tenant compte des préoccupations des gens.

Cela signifie qu'il présente ces mesures comme une réponse positive comme revendications et force est de constater qu'il arrive parfois —malgré nos efforts d'explication— à créer des illusions. Cela faisait dire, avec beaucoup d'humour à un camarade hier matin, que certains patrons basques voudraient que les travailleurs échangeur, leur bénet pour une casquette japonaise, et parfois ils y parviennent.

Il est vrai que dans sa démarche, le patronat est aidé par des syndicats complaisants. Vous en avez ici, nous en avons aussi. Et pourtant il faut réaliser l'unité des travailleurs dans la lutte pour être efficace, et cela passe par l'unité d'action, y compris donc avec les réformistes.

Au cours de votre congrès, vous avez réfléchi, tout comme nous en janvier dernier et il serait prétentieux de dire que nous avons trouvé la réponse miracle, mais nous avons tout de même quelques idées à partir desquelles nous avons défini une stratégie dont les grands points pourraient se résumer ainsi.

Partir des besoins des gens, puis avec nos syndiqués, approfondir, réfléchir et arrêter la position du syndicat. Cette position, nous la version dans le débat avec tous les salariés, non pas à prendre ou à laisser, comme élément de réflexion. Cela, enfin de permettre à l'assemblée générale des travailleurs de formuler les revendications qui rassemblent la plus large majorité —tout en tenant compte des diversités sociales et catégorielles— et arrêter les formes de lutte.

L'organisation syndicale n'apparaît plus dans cette pratique comme le chef d'orchestre de l'action, mais comme animateur du débat et subtil pour la lutte.

Seule l'assemblée générale prend les décisions.

Dans ces conditions, démocratie et indépendance constituent bien les moyens pour l'efficacité de la lutte.

Camaradés, nous avons à faire face à une situation qui n'est pas simple, les patrons et les gouvernements à leur service savent s'entendre pour prendre les mesures indispensables à la sauvegarde de leurs intérêts, comme on l'a vu avec les accords de Maastricht dont la note risque d'être l'omble pour les salariés de tous les pays d'Europe:

En dehors de nos différences, voire de nos divergences, il nous faut savoir dans nos luttes respectives, établir les convergences pour renforcer chacune d'elles.

C'est tout le sens de la présence de la CGT à votre congrès, mieux dialoguer pour mieux se comprendre, dans un esprit de tolérance réciproque, mieux se comprendre pour mieux agir contre l'adversaire commun dans des coopérations qui créeront les conditions d'un syndicalisme de classe, de masse, démocratique, indépendant, unitaire, solidaire et fraternel.

**Bilbao le 21 mars 1992.**

## **ANDRES BARRETO EN NOMBRE DE LOS ENCUENTROS ESTATALES**

Compañeras y Compañeros:

Me dirijo a Vds. en nombre de los distintos grupos y sindicatos que nos coordinamos a través de los Encuentros Sindicales Estatales. Como comprenderán se nos hace un poco difícil transmitir a Vds. todas y cada una de las aspiraciones políticas/sindicales de cada Grupo o Sindicato dada su especificidad y características propias. Partiendo por tanto de la coincidencia de tener como enemigo común el capitalismo, queremos hacerles llegar lo siguiente:

A/ Nuestro agradecimiento a LAB por habernos invitado al III Congreso Nacional. Al mismo tiempo que nos congratulamos de que el mismo sirva para continuar avanzando en la organización y fortalecimiento del Movimiento Obrero Vasco y del propio Movimiento de Liberación Nacional Vasco en su lucha.

B/ Reiteramos nuestro agradecimiento a LAB por su activa participación en los Encuentros Estatales Sindicales, siendo LAB nuestro punto de referencia en los mismos y que tanto nos han ayudado en los últimos años. Esperamos que esta participación continúe en el futuro inmediato para así seguir fortaleciendo nuestras relaciones sociales y laborales.

C/ Abogamos para que el Gobierno Español deje de atentar contra los compañeros y compañeras del Movimiento de Liberación Nacional

Vasco y de el paso definitivo de abrir el proceso de negociación entre las partes en litigio y se logre la Paz que todos deseamos, respetando en todo momento vuestra voluntad y decisiones para conseguir estos objetivos.

Compañeras/Compañeros: Saludos revolucionarios.

VIVA EL MOVIMIENTO OBRERO.

GORA EUSKADI ASKATUTA.

## **Palabras del Representante de la Comisión Ejecutiva del Sindicato de Trabajadores Corsos, pronunciadas en francés, en la clausura del III Congreso de LAB.**

### **CORCEGA**

La vida de militante tiene a veces momentos privilegiados, cuyo secreto ella sólo lo tiene. Este III Congreso de L.A.B. habrá sido para mí uno de esos momentos.

Os agradezco, queridas camaradas, queridos camaradas, el haberme permitido, como representante de la Comisión Ejecutiva del Sindicato de Trabajadores Corsos (S.T.C.) de vivirlo en vuestra compañía.

He quedado, impresionado por el tono general de este Congreso: una mezcla de serenidad, de seriedad, de distensión, de libertad... con una buena dosis de firme decisión. El cocktail ha sido un éxito como para saborearlo sin moderación!!

A lo largo de los encuentros, de las discusiones, de los múltiples contactos, dos cosas me han llamado la atención, dos cuestiones, que a mi entender vuelven y vuelven sin cesar en los términos más variados, y constituyen, una vez más, a mi entender, el mayor problema de la época.

La primera concierne al fragmentario organizacional de los trabajadores, sobre todo de los «progresistas», digamos todos los que se encuentran enfrentados de una u otra forma al Capitalismo.

Justamente cuando el Capitalismo, la susodicha «economía libre de mercado», extiende inexorablemente sus tentáculos, impone cada vez más su ley, sus reglas, y su ideología, se concentra, logra remontar sus rivalidades para cuestionar una y otra vez los logros obreros. El mundo del trabajo jamás ha estado tan atomizado, tan dividido. A todos los niveles, Estados nacionales, como pueblos oprimidos, a escala internacional como regional, reina la mayor dispersión.

Concentrándose, el capitalismo agudiza la competencia entre trabajadores, entre las diversas capas populares. ¿Pensáis que logrará durante largo tiempo todavía relegarnos, a unos y otros, al estrecho círculo de nuestras inmediatas preocupaciones, sin otro horizonte que el de nuestras querellas intestinas? Me contentaría con plantear la cuestión.

El segundo tema, seguramente unido al primero, concierne a las relaciones múltiples, contradictorias, complementarias, complejas de lo sindical y lo político.

Con ocasión de encuentros como este se comprende al menos una cosa: hay que evitar el generalizar, pues los problemas se plantean en términos diferentes en función de situaciones concretas diferentes. Se comprende también que la experiencia de unos puede y debe servir a otros. ¡No modelos, intercambios!

Nuestro sindicato en Córcega, se halla enfrentado a la ruptura del movimiento político nacionalista. ¿Esta ruptura deber ser seguida obligatoriamente en el movimiento sindical?

El S.T.C. proclamando su independencia organizativa frente a los partidos políticos, integrando el derecho de tendencia, reafirmando sus opciones fundamentales, en particular que «Liberación social y nacional son inseparables y complementarias», se ha dotado de los medios para que en su seno se reencuentren todos los nacionalistas y hasta todos los trabajadores, y permitirles trabajar juntos, cada uno según sus convicciones.

¿Cómo elaborar en el terreno sindical opciones políticas?

¿Cómo hacer para que lo sindical alimente lo político? porque «independiente» de ninguna manera quiere decir ¡político!

¿Cómo hacer para que lo político trace perspectivas a lo sindical, sin imponerle ser una simple correa de transmisión?

Esas cuestiones se nos plantean, en términos diferentes, a todos.

Me contentaría con desear que se multiplicasen las ocasiones para discutir sobre todo esto, y que apareciesen formas, a encontrar, para una solidaridad concreta de los trabajadores y de los pueblos oprimidos.

Viva la lucha de los trabajadores!

Viva la lucha del Pueblo Vasco!

N.B. Al comienzo expresó su interés por hablar en corso, pero las múltiples dificultades de traducción le motivaron a usar el francés.

LEIOA, 21 Marzo 92.

La vie de militant a parfois des moments privilégiés dont, seule, elle a le secret.

Ce III<sup>e</sup> Congrès du L.A.B. aura été pour moi un de ces moments là.

Soyez remerciés, chères camarades, chers camarades, de m'avoir permis, en tant que représentant de la Commission exécutive du Syndicat des Travailleurs Corses (S.T.C.), de la vivre en votre compagnie.

J'ai été frappé par le ton général de ce congrès: un mélange de sérénité, de sérieux, de décontraction, de liberté... avec une forte dose de détermination.

Le cocktail est réussi, très agréable: à déguster sans modération!

Au cours des rencontres, des discussions des contacts multiples, deux autres choses m'ont frappé, deux questions qui, à mon sens, reviennent sans cesse, dans les termes les plus variés, et constituent, encore une fois à mon sens, le problème majeur de l'époque.

La première concerne le morcellement organisationnel des travailleurs en plus, généralement, ou plutôt moins précisément, du camp dit «progressiste», disons de tous ceux qui se trouvent confronter au Capitalisme, sous une forme ou sous une autre.

Alors que, justement, le Capitalisme, la soi-disant «économie libérale de marché», étend inexorablement ses tentacules, impose toujours plus sa loi ses règles et son idéologie, se concentre, sait surmonter ses rivalités pour remettre sans cesse en cause les conquêtes ouvrières,

le monde du travail, lui, n'a jamais été aussi atomisé, aussi divisé.

A tous les niveaux, des Etats nations, comme des peuples opprimés, à l'échelle internationale comme régionale, régnent la dispersion la plus totale.

En se concentrant le capitalisme aiguise la concurrence entre travailleurs, entre toutes les couches populaires. Pensez-vous qu'il va longtemps encore réussir à nous reléguer, les uns et les autres, dans le cercle étroit de nos préoccupations immédiates, sans autre horizon que celui de nos querelles intestines?

Je me contenterais de poser la question.

La seconde question, sûrement liée à la première, concerne les rapports multiples, contradictoires, complémentaires, complexe, du syndical et du politique.

Comprend au moins une chose à l'occasion de rencontres comme celles-ci: il faut se garder de généraliser car les problèmes se posent en termes différents en fonction de situations concrètes différentes.

Comprend aussi que l'expérience des uns peut et doit servir aux autres.

Pas de modèles mais des échanges!

Notre syndicat, en Corse, s'est trouvé confronté à la scission du mouvement nationaliste politique. Cette scission doit-elle s'accompagner obligatoirement de la scission du mouvement syndical?

Le S.T.C. en proclamant son indépendance organisationnelle vis à vis des partis politiques, en intégrant le droit de tendance, en réaffirmant ses options fondamentales, en particulier que «Liberation Sociale et Nationale» sont indissociables et complémentaires, s'est donné les moyens pour que se retrouvent en son sein tous les nationalistes et au delà tous les travailleurs et leur permettre de travailler ensemble, chacun selon ses convictions.

Comment élaborer sur le terrain syndical des options politiques?

Comment faire pour que le syndical nourrisse le politique, car «indépendant» ne veut surtout pas dire a-politique!

Comment faire pour que le politique brasse des perspectives au syndical sans lui imposer d'être une courroie de transmission?

Ces questions nous sont posées, en termes différents, à tous.

Je me contenterai de souhaiter que les occasions d'en discuter se multiplient et que se mettent en place des formes, à trouver, d'une solidarité concrète des travailleurs et des peuples opprimés.

# COLECTIVO UNITARIO DE TRABAJADORES -C.U.T.-

## ARAGON

Saludos desde Zaragoza.

Nos alegramos mucho de estar aquí y agradecemos vuestra invitación a este congreso. Esperamos, y así lo creemos, que estos debates van a servir, para proseguir y fortalecer la lucha hacia la consecución de esas sociedades, que reconozca vuestros más elementales derechos como trabajadores y como vascos, porque seguro que repercutirá en todos los trabajadores del estado español.

Por ello, con nuestra presencia os queremos demostrar nuestra solidaridad y apoyo. Deseamos que se siga manteniendo e incluso fortaleciendo, nuestra relación laboral y social. Aunque nuestra aportación a la consecución de estos objetivos sea modesta, contad con ella.

Y finalmente, abogamos para que el Gobierno español deje de atentar contra L.A.B., y dé el paso definitivo para que se abra ese proceso de negociación entre las partes en litigio y se logre la paz que todos deseamos.

AUPA L.A.B — GORA EUSKADI — ENTALTO ARAGON —

# FEDERACION INTERNACIONAL SINDICAL DE LA ENSEÑANZA -F.I.S.E.-

**FRANCIA**

**Saint-Denis, le 17 mars 1992.**

Cher collègue,

C'est avec une grande tristesse que je suis contraint d'annuler ma participation à votre congrès, par suite d'événements personnels totalement imprévisibles qui m'empêchent de quitter Paris au cours des prochains jours.

J'espère que vous voudrez bien m'en excuser et que vous présenterez mes excuses aux délégués à votre congrès.

Dans l'espoir que vous me transmettez les conclusions de vos travaux et en vous souhaitant un bon congrès, je vous prie de croire, en m'excusant encore cher collègue, à mes sentiments les meilleurs.

Bien syndicalement

**GERARD MONTANT**

Secrétaire général

# TRANSNATIONALS INFORMATION EXCHANGE -T.I.E.-

**NETHERLANDS**

10-03-92.

Compañero,

Muchas gracias por la invitación para el Congreso de vuestra Central Sindical.

Hemos considerado dentro de la plantilla TIE la posibilidad de mi presencia durante el Congreso. Pero hemos decidido que no hay tiempo disponible ahora. Lo siento, sin embargo, porque me gustaría de conocer mejor el vuestro sindicato y la realidad económica y político-social en Euzkadi. El problema para nosotros es que tenemos por la primera vez una reunión grande de representantes de todos las oficinas o puestos TIE en el mundo, con delegados de EE.UU., Brazil, Europa, Russia e Asia, tomando lugar en Holanda del 14 hasta el 20 de marzo. Aunque yo mismo no participaré en esta reunión, hay mucho trabajo de preparación y discusión para mi también. Además, estuve fuera del país durante muchos días los últimos meses, y tengo que admitir honestamente que entro en problemas familiares siendo fuera tanto tiempo.

Espero que entendedís un poco la situación, y que hará otra oportunidad para mi o otro representante de TIE de venir a Euzkadi; en el futuro. También trataremos de informaros de todos las actividades que intentamos de organizar.

Saludos

Jan Cartier

T.I.E.

# GEWERKSCHAFT VERKAUF HANDEL TRANSPORT LEBENSMITTEL -V.H.T.L.-

Zürich, 14. Februar 1992.

Lieber Kollege

Im Namen der Sektion Zürich der Gewerkschaft Verkauf Handel Transport Lebensmittel (VHTL) der Schweiz danke ich Dir ganz herzlich für die Einladung zum III. Kongress der «Langile Abertzaleen Batzordeak» (LAB) vom 19.-21. März 1992.

Leider ist es uns nicht möglich, einen Vertreter an Euren Kongress zu delegieren. Zum einen haben auch wir mit grossen finanziellen Schwierigkeiten zu kämpfen. Zum anderen erfordern die gegenwärtigen politischen, ökonomischen und sozialen Probleme in der Schweiz all unsere Kräfte für die Gewerkschaftsarbeit. Auch unsere Organisation steht vor der Notwendigkeit, ihre Strukturen und ihre Politik an die neuen Herausforderungen anzupassen.

Wir versichern Euch unserer Solidarität und wünschen dem III. Kongress der LAB viel Erfolg, damit Ihr weiter voranschreitet zur Lösung der Probleme Eures Volkes.

Mit solidarischen Grüßen

Gewerkschaft VHTL - Sektion Zürich

Der Präsident:

Heinz Ruf

En nombre de la S.S. de Zurich del sindicato de Transporte, Alimentación, Comercio. GRACIAS por la invitación al congreso.

Nos es imposible asistir por razones económicas y además tienen que hacer frente a una dura situación política-económica-social.

Están en la situación de reestructurar su sindicato a la actual realidad.

Solidaridad y éxitos

## UNION SYNDICALE LUXEMBOURG-SERVICE PUBLIC EUROPEEN

LUXEMBURGO

Luxembourg, le 17 mars 1992.

Aux camarades du LAB réunis j'apporte mes encouragements à réussir le 3.º congrès et qu'il contribue à renforcer les idées et la position du LAB en Euskadi.

Merci de votre invitation à participer avec vous aux travaux de ce 3.º congrès.

Mon syndicat, l'Union Syndicale, renouvelle actuellement son comité exécutif à Luxembourg, l'enceinte décisionnelle et garante du respect de l'application du programme fixé par l'Assemblée Générale de tous nos membres.

Je pense être réélu et encore pouvoir apporter quelque chose de positif et de neuf à mon organisation et à établir des relations fructueuses entre LAB, ses membres et mon syndicat.

Notre organisation dans sa composante est à l'opposé de la votre, basée sur une identité territoriale et nationale, de langue et de culture propres. Notre petite organisation regroupe une vingtaine de nationalités de douze langues différentes et des attaches culturelles et des mentalités bien variées, et la plupart d'entre nous ne vivent pas dans leur pays d'origine.

Je dirai plutôt qu'il existe une conception et une approche différentes des relations patrons syndicats entre gens du nord et gens du sud de l'Europe. Cela c'est pour la forme. Sur le fond, cela n'affecte en rien la position du syndicaliste face au patronat capitaliste.

Je souhaite que des relations franches s'établissent entre nous, que le LAB élargisse ses contacts en Europe, c'est une nécessité de s'ouvrir au monde extérieur.

Salutations fraternelles

Christian Loosen  
Membre du Comité exécutif  
de l'Union Syndicale

(Traducción de la carta de Christian Loosen, miembro del Comité Ejecutivo de la Unión Sindical en Luxemburgo, a LAB en su III Congreso).

A los camaradas de LAB reunidos les envío mis ánimos para que el III Congreso sea un éxito y que contribuya a reforzar las ideas y la posición de LAB en Euskadi.

Gracias por vuestra invitación al congreso.

Mi sindicato, la Union Syndicale, esta renovando en estos momentos su Comité Ejecutivo en Luxemburgo, órgano que garantiza la aplicación del programa fijado por la Asamblea General de sus militantes.

Pienso poder todavía contribuir en algo positivo y nuevo en mi organización e, igualmente, contribuir a establecer relaciones fructíferas entre LAB, sus militantes y mi sindicato.

Nuestra organización, en su composición, es la opuesta a la vuestra, que está basada en una identidad territorial y nacional, en una identidad de lengua y de cultura propias. Nuestra pequeña organización reagrupa una veintena de nacionalidades diferentes, así como culturas y mentalidades variadas.

Quisiera remarcar que existe una concepción y una manera diferente de entender las relaciones patronal sindicato entre las gentes del Sur y las del Norte de Europa. Pero esto es la forma, en el fondo, esto no afecta en nada a la posición del sindicalista frente a la patronal capitalista.

Deseo que se establezcan relaciones francas entre nosotros, que LAB amplíe sus contactos en Europa; es una necesidad el abrirse al mundo exterior.

Saludos fraternales

Christian Loosen

# **FRENTE POPULAR POR LA INDEPENDENCIA DE CANARIAS (FREPIC AWAÑAK)**

**CANARIAS**

Reciba esa Organización sindical, nuestros saludos y vivos deseos de éxitos en la lucha que ustedes sostienen en la consecución de libertad y progreso para los trabajadores vascos.

Canarias, febrero de 1992.

Atentamente.

**Jaime M. Bethencourt Rodriguez**

**Secretaría de Información**

**Frente Popular por la Independencia de Canarias (FREPIC-AWAÑAK)**

# **CONFEDERAÇÃO GERAL DOS TRABALHADORES PORTUGUESES -C.G.T.P.-**

**PORTUGAL**

**Companheiros**

Acusamos a recepção do convite para participação no vosso 30. Congresso Nacional, que nos mereceu a nossa melhor atenção.

Apesar do interesse que qualquer congresso Sindical nos merece, dado a âmbito estatal da nossa Confederação temos por norma só participar em Congressos de organizações Sindicais a nível de Estado, razão pela qual lamentamos não poder aceitar o vosso convite.

Queremos, no entanto, aproveitar esta oportunidade, para desejar os maiores sucessos para os trabalhos do vosso Congresso.

**Saudações Sindicais**

**José Manuel Carinhas**

**(Chefe do Departamento Internacional da CGTP-IN)**

# **SINDICATO OBRERO DEL CAMPO DE ANDALUCIA -S.O.C.-**

ANDALUCIA

Estimados compañeros:

Hemos recibido vuestra invitación a fin de participar en vuestro III Congreso Nacional.

Os comunicamos que en esas fechas no nos es posible estar con vosotros, aunque nos gustaría.

Os animamos a realizar un buen trabajo y deseamos que este congreso tenga efectos muy positivos para vuestra organización y para el conjunto de la clase trabajadora del pueblo vasco.

Con nuestros mejores saludos.

Fdo. Diego Cañamero Valle  
Secretario General

## **JEAN-FRANÇOIS COURBE**

CANADA

Montreuil, le 21 février 1992.

Cher Camarade,

Suite à votre invitation à assister à votre congrès, je suis au regret de vous informer que la COMMISSION EUROPE/FSM a cessé ses activités.

Dans ces conditions, je ne peux participer à votre congrès.

En souhaitant plein succès à vos travaux et réussite dans vos actions.

Recevez, Cher Camarade, mes fraternelles salutations

Jean- Francois COURBE

# CONFÉDÉRATION GÉNÉRALE DU TRAVAIL -C.G.T.-

Montreuil, le 4 février 1992.

CANADA

Chers Collègues,

Nous avons bien reçu votre invitation à suivre les travaux de votre IIIème Congrès National. Nous vous en remercions vivement.

Cette proposition arrive alors que nous n'avons pu encore concrétiser notre volonté commune d'avoir un échange de vues sur nos activités et initiatives respectives.

Nous le regrettons et cela nous conduit, d'autant plus, à accepter avec plaisir à votre invitation.

La CGT sera donc représentée à votre congrès par Jean POTHON, membre du Comité Confédéral National de la CGT (CCN) et Secrétaire Général de l'Union Départementale des Pyrénées Atlantiques.

Nous souhaiterions, pour des raisons évidentes, connaître avec plus de précisions le déroulement des travaux du Congrès; la langue qui sera utilisée et si la traduction vers le français sera assurée. De même, nous voudrions savoir si notre représentant devra s'exprimer devant le Congrès (combien de temps?).

Par ailleurs, indépendamment des réponses à nos questions, nous voudrions vous proposer que notre camarade puisse être accompagné par un autre dirigeant local de la CGT. Cela est-il possible?

Enfin, nous vous informons que notre représentant sera particulièrement mandaté pour avoir des échanges approfondis avec vos responsables.

Dans l'attente de vos précisions, en vous remerciant à nouveau et en vous souhaitant plein succès, recevez, Chers Collègues, nos fraternelles salutations.

Jacques TREGARO

Responsable de l'Europe Occidentale

# CONVERXENCIA INTERSINDICAL GALEGA -C.I.G.-

GALICIA

Vigo 19-02-92.

Apreciados compañeiros:

Agradecemos vos a invitación que nos enviastes para estar presentes na celebración do voso III Congreso Nacional.

Nestes momentos, a conflictividade laboral e social é moi alta na Galiza, pois a regulación de emprego e o peche de empresas está á orde do día. Paralelamente, a situación do sector primario coa crise da pesca, do sector cárnico e do leite—de tan alta importancia todos eles na estrutura productiva da nosa nación—peta fortemente sobre a situación xeral, todos os observadores e organizacións sociais, excepto PP e PSOE, coincidimos en calificar a situación como moi grave e crítica.

O devandito, levounos ás centrais sindicais (CIG, UGT e CCOO) e aos sindicatos agrarios (SLG, UUAA, XXAA e USAG) a convocar unha folga xeral para o día 2 de abril.

Como ben podeades supor, todos os nosos esforzos están tensionados cara este obxectivo fundamental, polo que nos resulta imposible asistir ao voso Congreso.

Recibimos as ponencias e gustaríanos recibir o texto unha vez aprobado polo Congreso. Estamos seguros de que poderemos ter un intercambio sobre as organizacións respectivas e as realidades sindicais das nosas nacións.

Cos nosos desexos de éxito e un traballo fructífero no Congreso, enviamos un saúdo solidario.

Humberto Busto

Departamento Internacional

Xulio Ríos

Departamento Internacional

# **THE GENERAL FEDERATION OF TRADE UNIONS-NABLUS MEMBER OF ARAB TRADE UNIONS CONFEDERATION**

PALESTINA

Dear Colleagues

Thank you for your invitation concerning attending your third congress. We have tried our best to share you this important occasion but for security reasons we did not manage to obtain the necessary documents. I hope we can meet in future occasions. I also received three reports but I am very sorry I can not read Spanish or Italian.

In Solidarity

Sami Samaan

29/2/1992.

Dear Comrades

Our Congradulations to you we wish your third Trade Union congress a full success, in acheiving social and Political progress for your workers and your people.

In Solidarity

The General Federation of Tred Union

In Occupied Palestian

Cordinator Sami Samaan

29/2/1992.

Dear Comrades,

Here is some details Concerning the arrest of our deputy chairman Mrs. Amneh Mafarja.

On November 11 th, 1991 Amne's house was raided by security officers she wasn't home at that time, the security officers left her a note to sumnone to the Russian copmpound in Jerusalem on November 12th. The Russian Compound is a Police and interrogtion center.

Since that time until December 16th her Lawyer Lia Tsamel managed to visit Amneh only once now her family vist her reguraly at Telmond Prison Near Hiafa.

The G.F.T.U reached a conclusion that Amneh is arrested because she is a Union activist, thus we consider Amneh a psioner os concoius and the continuation of her arrest violates the Geneva Convention. In Coordination with many organization even with Israeli Democrats we are waging solidarity campaign in order to asure the freedom of our Colleague Mrs. Amneh Mafarjeh.

There for we suggest to send a cable to the Israeli Defence minister Moshi Arens and to Police Miniter Ronni Milo and Justise Minister Dan Mirido.

You can send the cabel through the Israily Embassy.

Thank you very much

Yours Sencerly

Sami Samaan

Coordinator

BRASIL

São Paulo, 17 de febrero de 1992.

Queridos Compañeros

Les agradecemos por su invitación, referente a su Tercer Congreso. Hemos hecho todo lo que hemos podido para compartir con vosotros este importante acontecimiento-suceso, pero por razones de seguridad no hemos conseguido obtener la documentación necesaria.

Esperamos que nos encontraremos en otras ocasiones en el futuro. También he recibido tres cartas pero lo siento que no entiendo español o italiano

En solidaridad

Sami Samaan

29/2/1992.

Queridos Camaradas

Les felicitamos y les deseamos un total éxito para su Tercer Congreso sindical para conseguir el político y social progreso para sus trabajadores y su pueblo

En Solidaridad

La Federación General Sindical en la Palestina Ocupada

Coordinador

Sami Samaan

29/2/1992.

En la tercera carta nos comunica que

El 11 de Noviembre de 1991 la policia israeli arrestó a su diputada presidenta Sra Amneh llafarja. Después de pasar por el "Recinto Ruso" (Centro de los interrogatorios policiales), la metieron en la Prisión Telmond Cerca de Haifa.

La Federación General Sindical llegó a la conclusión que fue arrestada por activista sindical, por eso consideran que al ser una prisionera de conciencia su arresto viola la Convención de Ginebra.

Hasta el 16 de Diciembre (desde su día de arresto) su abogada Lia Tsamel ha podido visitarla una sola vez. Ahora su familia la visita regularmente

En coordinación con muchas organizaciones, incluso con demócratas israelies, han prendido una compañía de solidaridad para su liberación

Os piden que mandeis un telegrama al Ministro de Defensa israeli Moshi Arens y al Ministro de Interior Ronni Milo y al Ministro de Justicia Dan Mirido.

Estos telegramas los podeis mandar a través de la Embajada israeli.

## HABANA

AGRADECEMOS MUCHO ESFUERZOS HICISTEIS ASISTIERAMOS CONGRESO NUESTRA PARTE AGOTAMOS TODAS POSIBILIDADES RAZONES AJENAS NUESTRA VOLUNTAD IMPIDIERON ASISTENCIA STOP DESEAMOS EXITOS TRABAJO CONGRESO Y AGRADECEMOS VUESTRA SOLIDARIDAD PUEBLO CUBANO CENTRAL TRABAJADORES CUBA.

### HABANA

LAMENTABLEMENTE NO RECIBIMOS CARTA INVITACION STOP PARTIR RECEPCION TELEX INICIAMOS TRAMITES PERO DEBIDO PLAZOS ESTABLECIDOS EMBAJADA ESPAÑOLA HABANA PARA CONCESION DE VISADOS NO ES POSIBLE OBTENER VISA NOSOTROS AQUI STOP POSIBLE ASISTENCIA NUESTRA ANALIZARIAMOS PARTIR UDS GESTIONEN DIRECTAMENTE LA VISA STOP POSIBLE DELEGADO SERIA JOAQUIN BERNAL CAMERO SECRETARIO RELACIONES INTERNACIONALES FECHA NACIMIENTO 21 NOVIEMBRE 1940 PASAPORTE NR 05167 STOP AGRADECEMOS MUCHO ESFUERZOS ESTAIS HACIENDO FAVOR SOLIDARIDAD NUESTRO PUEBLO SALUDOS.

LAZARO QUINTANA JEFE DEPARTAMENTO INTERNACIONAL.

## COMITE DE UNIDAD CAMPESENA C.U.C.

### GUATEMALA

"Cabeza clara, corazón solidario, puño combativo"

México D.F., 3 de marzo de 1992.

Estimados compañeros:

Reciban un saludo fraterno al mismo tiempo que les deseo bienestar.

Hacemos acuse de recibo de las 3 ponencias relacionadas con su III Congreso, las cuales nos llegaron por correo normal.

Lamentamos mucho que la compañera Rigoberta Menchú no pueda participar con ustedes en tan importante actividad pero ya tiene otros compromisos adquiridos desde hace un tiempo.

Les deseamos muchos éxitos en su Congreso.

Equipo de Apoyo a la Representación Internacional del CUC.

# MOVIMIENTO DOS TRABALHADORES RURAIS SEM TERRA

BRASIL

São Paulo, 17 de febrero de 1992.

"500 AÑOS DE RESISTENCIA INDIGENA, NEGRA E POPULAR"

Estimados compañeros:

Recibimos sus mensajes sobre el congreso. Tenemos mucho interés en poder participar y conocer sus experiencias de lucha sindical.

Sin embargo, estamos pasando por enormes dificultades financieras, agravadas aun más, por los planes gubernamentales de la política neoliberal impuesta por el FMI a nuestro país. Y no tenemos condiciones de asumir los costos de viaje.

Esperamos que su congreso sea un marco importante, para avanzar la lucha de los trabajadores vascos, en contra de la explotación capitalista y de la dominación monárquica.

También hacemos un llamado, para que se manifieste en contra de las "conmemoraciones" que los gobiernos españoles y americanos quieren hacer después de 500 años de dominación, colonialismo e imperialismo de nuestra América.

Saludos fraternales.

D/ Egidio Brunetto

P/ Dirección Nacional

# FRENTE FARABUNDO MARTÍ PARA LA LIBERACIÓN NACIONAL

EL SALVADOR, Centro América

Madrid 19 de marzo 1992.

Estimado Patxi, queremos, por tu medio, hacer llegar al Congreso de LAB, un saludo fraterno y revolucionario en nombre del Frente Farabundo Martí para la Liberación Nacional (FMLN).

Antes de todo, queremos pedir disculpas por no poder estar en su Congreso. Razones que la nueva etapa de lucha nos imponen han dificultado nuestra presencia en su evento nacional.

Saludamos su Congreso y les deseamos éxitos.

Con seguridad ustedes han seguido el desarrollo de nuestro proceso revolucionario, el cual vive un momento coyuntural marcado por una etapa superior de lucha política, caracterizada por la reconstrucción y la transición.

Somos optimistas con los logros alcanzados, pero también somos realistas ya que una guerra generalizada de casi 12 años no puede terminar con una firma de paz. Las bases para la paz y la democracia están marcadas. El camino está lleno de dificultades y aunque existan garantías legales para la aplicación de los acuerdos, sabemos que el principal y fundamental garante para el cumplimiento de los acuerdos será la organización popular, la que junto a las garantías legales hará posible la tan ansiada paz en El Salvador.

Como FMLN y organización política, social, religiosa y democrática podemos decir que hemos derrotado el militarismo. Fue necesaria la suma de todas esas fuerzas, es decir, la de todo el pueblo salvadoreño que ahora, con esa misma moral y determinación de victoria se dispone a construir una nueva sociedad, libre de injusticias y con proyección de constituirse en un país en donde la democracia sea popular, representativa, participativa y dueña de su propio destino.

Esta gran victoria no hubiera sido posible sin la solidaridad internacional que ha estado con nosotros en todo momento, creyendo en nuestra posibilidad de triunfo y aportando para que ello fuera posible. Sabemos que seguirá estando con nosotros en esta nueva etapa y su papel como en otros momentos seguirá siendo necesario.

De nuevo saludamos su Congreso y deseamos éxitos.

**¡VIVA LA SOLIDARIDAD INTERNACIONAL!**

**Fraternalmente:**

Jorge Palencia  
Por el FMLN.

**UNION INTERNATIONALE DES  
SYNDICATS DES  
TRAVAILLEURS DE LA  
METALLURGIE (F.S.M.)**

**TRADE UNIONS  
INTERNATIONAL OF  
WORKERS IN THE METAL  
INDUSTRY (W.F.T.U.)**

**UNION INTERNACIONAL DE  
SINDICATOS DE  
TRABAJADORES DE LA  
METALURGIA (F.S.M.)**

3/02/1992.

Estimados compañeros.

Les estamos muy agradecidos por la invitación a su III Congreso Nacional y los documentos de discusión enviados a nosotros. Estos serán de gran utilidad para nosotros pues nos permitirán mejor comprender la situación de trabajadores de su país, sus necesidades y aspiraciones lo que contribuirá reforzar el carácter universal de nuestra organización en beneficio de trabajadores metalúrgicos de todo el mundo

Muy a pesar nuestro no podemos participar en el Congreso debido a los compromisos antes contraídos, pero le deseamos pleno éxito y fructíferos resultados que beneficien a los trabajadores de su país y que traigan nuevas conquistas a ellos.

Fraternalmente

Gilbert Le Bescond  
Secretario general

**CUNCOLTA NAZIUNALISTA  
COMMISSION RESPONSABLE  
DU SYNDICAT DES  
ENSEIGNANTS CORSES  
COMMISSION EDUCATION-  
ENSEIGNEMENT-UNIVERSITÀ**

Vendredi 6 Mars 1992.

Caru fratellu

Nous avons bien reçu votre lettre dans laquelle vous souhaitez l'établissement de rapports suivis afin d'échanger nos expériences respectives. Le syndicalisme, et en particulier le syndicalisme pour les enseignants, font actuellement l'objet d'une attention particulière et d'une réflexion approfondie de notre part.

Une délégation de trois enseignants responsables du Sindicatu Corsu di l'Insegnamentu se rendra donc en Euskadi à l'occasion du IIIème congrès du L.A.B. les 19, 20 et 21 Mars.

Nous attendons des renseignements pratiques pour se rendre à Leioa, et sur le lieu du Congrès.

Sentimenti Corsi

Vicent Andruzzi  
Secrétaire Général du S.C.I.

**COORDINADORA  
OBRERA SINDICAL  
C.O.S.**

Compañeros:

Hemos recibido la invitación para asistir a vuestro III Congreso Nacional, lo que con esta carta confirmamos nuestra asistencia a él.


Dado que nos desplazaremos hasta Euskadi en coche, queremos comentaros la posibilidad de que seamos dos los que asistamos.

Podemos ir comentando los detalles posteriormente.

Saludos:

Joan Pujol

Osona 30 de gener de 1992.



MARTIN ZABALDE...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

JEYLA GONZALEZ...  
Herraldeko koordinatzailea...  
35 urte ditu...  
1980-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

# HAUTATUTAKO IDAZKARITZA NAZIONALEKO PARTAIDEAK

Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

Herraldeko koordinatzailea...  
35 urte ditu...  
1980-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

MANU ARANGUI...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

MANU ARANGUI...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

JAVIER...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

JOSE LUIS...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

JOSU...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

JOSU...  
Herraldeko koordinatzailea...  
37 urte ditu...  
1978-81. urteetan...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...  
Gaztaniazko...

# HAUTATUTAKO IDAZKARITZA NAZIONALEKO PARTAIDEAK

Martxoak 19, 20 eta 21-ean, Leioan ospatu genuen III. Biltzarrean Idazkaritza Nazional berria hautatua izan zen. Lerro hauen bitartez zuenganatu nahi dugu Idazkaritza Nazional berri honetako partaideen perfil labor bat. Pertsona hauek izango bait dira gure sindikatuaren norabide politiko-sindikalararen arduradunak.

**KEPA GORDEJUELA:** Barne Antolaketarako Arduradun Nazionala  
35 urte ditu.  
1.980-tik LABeko afiliatua. 1.974-tik 1.989-ra "Banco Hispano Americano"-ko langilea. Enpresa Komiteko sindikal ordezkaria zen.  
1.989-tik 1.992-ra Arabako Herrialde Koordinatzailea eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**MARTZE SATRUSTEGI:** Nafarroako Herrialde Koordinatzailea  
37 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
"Sariopapel"-eko langilea izandakoa.  
Orain arte Nafarroako Herrialde Koordinatzailea eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**RAFA DIEZ:** Koordinatzaile Orokorra  
35 urte ditu.  
1.978-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte Koordinatzaile Politikoa.

**JESUS GETE:** Gipuzkoako Herrialdeko Koordinatzailea  
41 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte Gipuzkoako Herrialde Koordinatzailea eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**XABIER ARBERAS:** Komunikaziorako Arduradun Nazionala  
38 urte ditu.  
1.985-tik LABeko afiliatua.  
Kutxako langilea eta Enpresa Batzordeko Idazkaria. Orain arte LABeko Idazkaritza Ekonomikoaren partaidea eta Gipuzkoako Herrialde Idazkaritzako partaidea.

**JAVI DE LUIS HERAS:** Ekintza Errebindikatiborako Arduradun Nazionala  
38 urte ditu.  
1.982-tik LABeko afiliatua. Intelsa, Down Chimikal, Correos, Huarte y Cia, ...noizik behinkako lanetan ibilitakoa. "Biltzarre"-n aholkulari juridiko lanetan 1.988 arte.  
1.989-tik LABeko liberatua lan desberdinetan: Aholkularitza juridikoan, Bizkaiko Herrialde Koordinatzaile. Orain arte Formaziorako Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**JUAN ANGEL ARREA:** Bizkaiko Herrialde Koordinatzailea.  
48 urte ditu.  
1.977-tik LABeko afiliatua.  
Euskaldunako langilea 1.988 arte.  
1.979-an, LABeko lehen Biltzarrean Idazkaritza Nazionaleko partaide bezala aukeratu izan zen.  
Orain arte Bizkaiko Herrialde Koordinatzailea eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**MANU ARANBURU:** Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Arduradun Nazionala  
37 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
1.980-tik LABeko liberatua, Ekintza Errebindikatiboko lanetan iharduten zuelarik.  
1.89-tik Idazkaritza Tekniko Ekonomikoaren Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**SANTOS INDAKOETXEA:** Barne Koordinatzaile Nazionala  
41 urte ditu.  
1.978-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte Barne Koordinatzaile Nazionala eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**XABIER ELORRIAGA:** Arabako Herrialde Koordinatzailea  
43 urte ditu.  
1.974-tik LABeko afiliatua. 1.965-tik 1.987 arte Gasteizko "Etxebarria Hermanos"-eko langilea eta 1.972-tik Komitearen partaidea. 1.987-tik LABeko liberatua. Azken hiru urtetan Ekintza Errebindikatiboko Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**JOSE LUIS REZABAL:** Ekintza Instituzionalerako Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Arduradun Nazionala  
36 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte Idazkaritza Tekniko Juridikoaren Arduradun Nazionala eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

# HAUTATUTAKO IDAZKARITZA NAZIONALEKO PARTAIDEAK

**TXOMIN LORCA:** Formaziorako  
Arduradun Nazionala

40 urte ditu.  
1.982-tik LABeko afiliatua.  
1.974-tik 1.992-ra "Artes Gráficas"-eko langilea.  
1.989-tik Bizkaiko Formaziorako Arduraduna eta Bizkaiko Herrialdeko Iraunkorren opurtaidea.

**KONTXA LOPATEGI:** Administrazio  
Publikorako Arduradun Nazionala

34 urte ditu.  
1.988-tik LABeko afiliatua.  
Eusko Jaurlaritzako langilea eta delegatua.  
Orain arte Administrazio arduraduna.

**IÑAKI GONZALEZ MURUA:**  
Bizkaiko Bokala

38 urte ditu.  
1.986-tik LABeko afiliatua. 1.976-tik 1.986-ra Sondikako Eskola Publikoaren irakaslea. 1.986-tik LABeko liberatua, Irakaskuntzako Arduradun Nazional bezala, orain ardura berean jarraituko duelarik.  
1.988-tik Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**PATXO CERECEDA:** Gatazketarako  
Arduradun Nazionala

34 urte ditu.  
1.984-tik LABeko afiliatua "Elkartasun, S.L." Kontabilitateko Akademiako irakaslea eta "Beltza" Fotokopierako langile izandakoa. LABeko liberatua 1.984-tik.  
Orain arte Bizkaiko Ekintza Erreibindikatiboaren Arduraduna.

**PATXI ERDOZAIN:** Nazioarteko  
Harremanetarako Arduradun Nazionala

54 urte ditu.  
1.980-tik LABeko afiliatua.  
"Copeleche"-ko langilea izandakoa.  
Orain arte Nazioarteko Harremanetarako Arduradun Nazionala.

**BITTOR GOTI:** Bizkaiko Bokala

27 urte ditu.  
1.989-tik LABeko afiliatua.  
1.989-tik LABeko liberatua, Bizkaiko Ekonomikari bezala.  
Orain arte Bizkaiko Herrialdeko Idazkaritzako eta Idazkaritza Tekniko Ekonomikaren partaidea. Lan horretan jarraituko duelarik.

**TXUTXI ARIZNABARRETA:**

Euskalduntzarako Arduradun Nazionala  
33 urte ditu.  
1.986-tik LABeko afiliatua.  
HABEko irakaslea.  
Orain arte Administrazio Autonomako delegatua.

**FELIX LOPEZ:** Gipuzkoako Bokala

33 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte Gipuzkoako Ekintza Erreibindikatiboaren eta Ekonomi aholkularitzaren Arduraduna. Lan berdinean jarraituko duelarik.

**AGUSTIN GORBEA:** Arabako Bokala

39 urte ditu.  
1.984-tik LABeko afiliatua.  
1.982-tik Gasteizko Udaletzeko Suhiltzalea. Lan horretan jarraitzen duelarik. 1.986-tik Enpresa Komiteko sindikal ordezkaria. 1.988-tik Idazkaritza Nazionaleko partaidea. 1.991 arte Administrazio Publikorako Arduradun Nazionala. Orain Arabako Administrazio Foral eta Lokaleko Arduraduna.

**IÑAKI GALLEGU:** Negoziazio Kolektiborako Arduradun Nazionala

42 urte ditu.  
1.979-tik LABeko afiliatua.  
TUBACEXeko langilea eta Enpresa Komiteko idazkaria da.  
Orain arte Ekintza Erreibindikatibo Nazionaleko eta Idazkaritza Nazionaleko partaidea.

**BITTOR CANALES:** Gipuzkoako Bokala

33 urte ditu.  
1.983-tik LABeko afiliatua.  
Orain arte LABeko Gipuzkoako abokatua eta Herrialdeko Ekintza Erreibindikatiboaren Batzordeko partaidea. Jarraituko du lan hauetan.

**ALFREDO RUIZ DE GALARRETA:**

Nafarroako Bokala  
30 urte ditu.  
1.988-tik LABeko afiliatua.  
Nafarroako Gobernuako langilea eta delegatua.  
Orain arte Nafarroako Administrazio Arduraduna. lan horretan jarraituko duelarik.